

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**13616** 22/2013 Legea, abenduaren 23koa, 2014rako Estatuako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

JUAN CARLOS I.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusi eta aditzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek ondoko lege hau onetsi dutela, eta Nik, hemen, berretsi egiten dudala.

HITZAURREA

I

Estatuaren Aurrekontu Orokorren oinarritzko arau-esparrua 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioak, Aurrekontuen Lege Orokorrak eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoak osatzen dute.

Konstituzio Auzitegia Estatuaren Aurrekontu Orokorren urteroko legeak izan beharreko edukia zehazten joan da, eta derrigorrean ondoko alderdi hauek xedatu behar dituela adierazi du: dagokion urtean, Estatuak eta hari lotutako edo haren mendeko erakundeek izango dituzten diru-sarreraren aurreikuspena eta gastuetarako baimena. Derrigorrezko eduki horrekin batera, beste alderdi batzuk ere xeda daitezke, baldin eta diru-sarreraren aurreikuspenarekin, gastuetarako baimenarekin edo politika ekonomiko orokorraren irizpideekin lotura zuzena badute, eta Estatuako Aurrekontu Orokorrak nahiz Gobernuaren politika ekonomikoa errazago interpretatzeko eta eraginkortasun handiagoz gauzatzeko ezinbesteko osagarri badira.

Bestalde, Konstituzio Auzitegiak adierazi du denborazkotasun-irizpideak ez duela zerikusirik arau jakin bat konstituzionala izatearekin edo ez izatearekin, arau hori aurrekontuen lege batean sartzeari begira. Horregatik, Aurrekontuen Legea funtsean aldi baterako araua den arren, ez dago inolako eragozpenik inoiz edo behin bertan zenbait urtetarako edo epemugarik gabeko manuak sartzeko.

Bestalde, zergen alorrean, Konstituzioaren 134. artikuluko 7. paragrafoaren arabera, Aurrekontuen Legeak ezin du zergarik sortu, baina aldatu bai, ordea; hain zuzen ere, zerga-lege substantibo batek aukera hori jasotzen duen kasuetan.

Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legetik kanpoko arloak dira aurreikuspen horietatik kanpo gelditzen direnak. Hortaz, Legearen edukia Konstituzioak berak mugatzen du – gainerako legeekin ez da halakorik gertatzen, haien edukia, printzipioz, mugagabea baita–: Estatuaren eskumenen eremukoa izango da, eta ez ditu lege organikoari erreserbatutako gaiak xedatuko.

Horrenbestez, 2014rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak derrigorrezko edukia eta Konstituzio Auzitegiaren doktrina errespetatzen duten xedapenak soilik jasotzen ditu.

2014rako Estatuaren Aurrekontu Orokor hauek, Aurrekontuen Lege Orokorren esparruan eginak (47/2003 Legea, azaroaren 26koa), alde batetik, eutsi egin diote aurrekontuen prozesuan arrazionalizazio handiagoa lortzeko helburuari, sistematizazioaren arloan egindako hobekuntzen bidez, eta, bestetik, Estatuako sektore publikoaren antolamendu ekonomiko eta finantzarioa egin dute, haren kontabilitate- eta kontrol-arauak ezarriz, eta eraginkortasuna eta efizientzia sustatuz.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak Espainiako Konstituzioaren 135. artikuluan jasotako agindua garatzeaz gain, berau 2011ko irailaren 27an erreformatuta, Ekonomia eta Diru Batasunaren Egonkortasunari, Koordinazioari eta Gobernantzari buruzko Ituna, 2012ko martxoaren 2koa, bete ere egiten du, Europako araudira etengabe eta automatikoki egokitzea bermatuz. Aipatutako lege hori bete ondoren, eta arau-esparru horren barruan, Estatuaren Aurrekontu Orokor hauetan aurreko ekitaldietan zegoen helburu bera dago; hau da, herri-administrazio guztien finantza-iraunkortasuna bermatzea, Espainiako ekonomiaren egonkortasunarekiko konfiantza sendotzea, eta aurrekontu-egonkortasunaren arloan Espainiak Europar Batasunarekin hartutako konpromisoa indartzea. Xede horiek betetzea lagungarria izango da hazkunde ekonomikora eta enplegu-sorrerara zuzendutako politika ekonomikoa sendotzeko.

Ildo horretan, 2014rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrek, kontsolidazio fiskalaren testuinguruan, murriztu egin dute gastu publikoa, Europar Batasunaren orientabide eta gomendioei jarraiki.

Ministroen Kontseiluak 2013ko ekainaren 28ko Akordioan zehaztu zituen aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren arloko 2014-2016 aldirako helburuak; Kongresuko Osoko Bilkurak 2013ko uztailaren 2an onartu zituen, eta Senatukoak uztailaren 10ean. Akordio horrek 100eko 5,8ko defizit-helburua ezartzen du herri-administrazio guztientzat, honela banakatuta: Estatuak 100eko 3,7ko defizita izango du; Gizarte Segurantzak 100eko 1,1ekoa; autonomia-erkidegoek 100eko 1ekoa, eta toki-korporazioek zero defizita izango dute hurrengo urtearen amaierarako. Zor publikoaren helburua BPGaren 100eko 72,8koa izango da administrazio zentralarentzat 2014an. Gastu ez-finantzarioaren muga 133.259 milioi euro izango da; horrenbestez, ehuneko 2,7ko gehikuntza dago 2013koarekin alderatuta. Gehieneko gastu hori ehuneko 1,3 murrizten da, 104.847 milioi eurora arte, Lan Sistema Publikorako ekarpenak eta Gizarte Segurantzarako ekarpenak alde batera utziz gero.

## II

Aurrekontuen Legearen funtsezko zatia I. tituluan dago («Aurrekontuen onarpena eta aldaketak»). Bertako I. kapituluan, «Hasierako kredituak eta haien finantzaketa» izenburupean, Estatuako sektore publikoaren diru-sarrera eta gastu guztiak onesten dira, eta Estatuako zergetan eragina duten zerga-onuren zenbatekoa kontsignatzen da.

I. kapitulu horretan, Estatuaren Aurrekontu Orokorren eremua zehaztean, kontuan hartu da erakunde publikoei dagokienez 6/1997 Legeak eta azaroaren 26ko 47/2003 Legeak egiten duten sailkapena; hots, Estatuako Administrazio Orokorren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Legeak eta Aurrekontuen Lege Orokorrak, hurrenez hurren. Sailkapen horri legearen osotasunean jarraitu zaio. Aipatu beharra dago erakunde autonomoen merkataritza-kontua Estatuaren Aurrekontu Orokorretatik desagertu dela ekitaldi honetan; oraingoan gastuen eta diru-sarreraren egoeran txertatuta egongo da, 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen azken xedapenetako hamalagarrenean xedatutakoarekin bat etorritik. Halaber, aintzat hartzen da uztailaren 18ko 28/2006 Legea, Zerbitzu Publikoak hobetzeko estatu-agentziei buruzkoa. Funtsen banaketa, berriz, gastua egitean lortu nahi den helburuaren arabera da, eta funtzioen arabera banatzen dira.

Estatuaren Aurrekontu Orokorren eremua Espainiako Bankuaren funtzionamendurako eta inbertsioetarako aurrekontuarekin osatu beharra dago. Banku horren berariazko legediaren arabera (Espainiako Bankuaren Autonomiari buruzko ekainaren 1eko 13/1994 Legearen 4.2 artikulua), bere aurrekontua ez da Estatuako sektore publikoko gainerako aurrekontuekin kontsolidatzen.

II. kapituluan jasota daude aurrekontu-kredituak aldatzeko eta betearazteko arauak, aurrekontu-mugak, eta 2014ko ekitaldian gauzatu beharreko kreditu lotesleak. III. kapituluak, Gizarte Segurantzari buruzkoak, osasun-laguntzaren finantzaketa arautzen du, Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren Aurrekontuaren bidez, eta Estatuak Adinduen eta Gizarte Segurantzaren Institutuari eta Itsasoko Gizarte Institutuari egiten

dizkien ekarpenen bidez, bai eta gutxieneko pentsioen osagarriak finantzatzeko Gizarte Segurantzara bideratzen diren ekarpenena ere.

Amaitzeko, IV. kapituluan, Gorte Nagusiek inbertsioei eta gastu publikoari dagokienez jaso beharreko informazioa xedatzen da. Puntu horretan berritasun handiak daude, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean aurrekontu arloei buruzko dokumentazioa bidaltzeko konpromisoei eginiko erreferentziak homogeneizatu egin baitira. Hala, horrelakoak, azaroaren 15eko 37/2010 Legea onartu ondoren, Gorte Nagusien Aurrekontu Bulegora zuzendu behar dira, haren 3.b) eta 4.2 artikuluei jarraikiz.

### III

Aurrekontuen Legearen II. titulua, «Aurrekontuen kudeaketa» helburu duena, hiru kapitulutan egituratuta dago.

I. kapituluak irakaskuntzako aurrekontuen kudeaketa arautzen du. Ikastetxe itunduei eusteko funts publikoak banatzeko modulu ekonomikoa finkatzen du, bai eta Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalako (UNED) langileen kostuei dagokienez baimendutako zenbatekoa ere.

II. kapituluak «Osasunaren eta Gizarte Zerbitzuen aurrekontu-kudeaketa» du helburu; bertan, bai Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren, bai Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren eremuan aurrekontu-aldaketak egiteko berariazko eskumenak daude jasota.

III. kapituluak aurrekontu-kudeaketarako beste arau batzuk jasotzen ditu, eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren partaidetza-portzentajea zehazten du, bere jardueratik bildutako diru-kopuru gordinari dagokionez. Portzentaje hori ehuneko 5ekoa izango da 2014rako.

### IV

Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen III. titulua «Langile-gastuak» ditu helburu, eta hiru kapitulutan egituratuta dago.

Aurreko ekitaldietan gertatu den moduan, I. kapituluan, «Sektore publikoaren zerbitzurako langileen gastuak» izenekoan, aurrekontu-egonkortasunerako konstituzio-agindua zein gure ekonomiaren oraingo egoera daude islaturik; hala, ondorio horietarako «sektore publikoa» zer den zehaztu ondoren, langile horien ordainsarrietan 2014an ez dela igoerarik egongo xedatzen du oro har, 2013ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak erreferentziatzen hartuta. Beraz, langile publikoek aparteko bi ordainsari izango dituzte 2014an: ekainean eta abenduan. Ezin izango da enplegu-planerako ekarpenik egin, ez eta aseguru kolektiboen kontraturik ere, erretiroaren kontingentzia estaltzen badute.

Kapitulu horrek, orobat, Lan Eskaintza Publikoa arautzen du. Estatuaren Aurrekontu Orokorren Lege honek, aurrekoak bezala, artikulua bakarraren bidez arautzen du gai hori, eta 2014an sektore publikoan ez dela langile berririk hartuko xedatzen du. Salbuespen gisa, lehenasunez jotzen diren sektore eta administrazio jakin batzuei ehuneko 10eko birjarpen-tasa baimenduko zaie, eta soldadutzako zein marinelutzako militar profesionalen plazak estaltzea bermatuko da; haien gehieneko plazen kopurua legean xedatuta dator xedapen gehigarri baten bitartez. Horretaz gain, birjarpen-tasa hori aplikatzearen ondoriozko plazak herri-administrazioen dagokien gobernu-organoei onartu beharreko eskaintza batean jaso behar direla xedatzen da. Eskaintza horri publikitate egokia emango zaio dagokien aldezkaritza ofizialetan.

Eutsi egingo zaie aldi baterako langileak kontratatzeke eta bitarteko funtzionarioak izendatzeko murrizketei. Kontratazio eta izendapen horiek ohiz kanpokoak izango dira, eta urgentziatzeko premia geroraezinak daudenean soilik egingo dira.

II. kapituluak, «Ordainsarien araubideak» izenburupean, xedatzen du 2014an Estatuako Gobernuak eta kontsulta-organoei goi-kargudunen ordainsariak ez direla igoko, 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziatzen hartuta. Muga horrek hauei eragingo die: Estatuako Gobernuak eta Estatuako Administrazio Orokorreko goi-kargudunei,

Estatu Kontseiluko goi kargudunei, Ekonomia eta Gizarte Kontseilukoei, bai eta Kontuen Auzitegiko, Konstituzio Auzitegiko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kideei ere, eta Indar Armatueta, Poliziako eta Guardia Zibileko goi-kargudunei, eta Botere Judizialeko eta Fiskaltzako kargudun jakin batzuei. Organo horien aurrekontuak eta, ondorioz, aipatutako ordainsarietak, Gorte Nagusiek onetsi behar dituztelako sartu dira halako aurreikuspenak Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean. Aurrekontuaren batasun- eta unibertsaltasun-printzipioek diotenez, Estatuaren gastu guztiak bilduko dituen dokumentu bakar bati eman behar zaio onespena; eta horixe da, hain zuzen ere, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea.

Kapitulu hori osatzeko, ondoko hauen ordainsariei buruzko arauak hartu behar dira kontuan: Estatuko funtzionarioak; Indar Armatueta, Guardia Zibileko eta Polizia Nazionaleko langileak; Gizarte Segurantzako estatutupeko langileak eta estatutupean ez daudenak; eta sektore publikoko kontratutupeko langileak.

Aipamen berezia egin behar zaie Justizia Administrazioari buruzko arauak eta Karrera Judizial eta Fiskaleko kideen ordainsariari buruzko arauak, maiatzaren 26ko 15/2003 Legean xedatutakoaren arabera.

Titulu horren III. kapituluak itxierako arau bat dauka, II. kapituluan jasotako arauetara egokitzen ez den ordainsari-sistema duten langileei aplikatzeko. Harekin batera, aurreko aurrekontu-legeetan bezala, badira xedapen komun batzuk ere: aktibo dauden langileen araubideari buruzkoak, ohiz kanpoko diru-sarrerak galarazteari buruzkoak, eta sari, gurutze, domina eta elbarri-pentsioak direla-eta jaso beharreko zenbatekoak izozteari buruzkoak. Halaber, kontratutupeko langileen eta funtzionarioak ez diren ordainsariak finkatzeko edo aldatzeko baldintzak ezartzen dira; hartarako Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak aldeko txosten bat eman beharko du.

## V

Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen IV. titulua, «Pentsio publikoak» izenburupean, sei kapitulutan banatuta dago.

Arau orokor gisa, Gizarte Segurantzaren sistemak ordaintzen dituen pentsioak eta Klase Pasiboenak ehuneko 0,25ean errebalorizatuko direla 2014an xedatzen du I. kapituluak.

II. kapituluak Estatuko Klase Pasiboen Araubideko pentsioen eta gerrako pentsio berezien hasierako zehaztapena arautzen du.

III. kapituluan pentsio publikoen hasierako zehaztapenaren mugak daude jasota; hala, muga bikoitzeko sistema bat ezartzen da, hileko zenbateko osoaren gehieneko kopuru bat eta urteko zenbateko osoaren kopuru bat finkatuta.

IV. kapituluak «Pentsio publikoen balioak handitzea eta aldatzea» arautzen du. Bertan xedatutakoaren arabera, Gizarte Segurantzako sistemak ordaindu beharreko kotizaziopeko pentsioek eta Klase Pasiboenek ehuneko 0,25eko igoera izango dute 2014an. Halaber, handituko ez diren pentsioak zehazten ditu, bai eta pentsio publikoak handitzeko zenbatekoaren muga ere.

V. kapituluak gutxienezko pentsioetarako osagarrien sistema jasotzen du, bi artikulutan: bata Klase Pasiboen pentsioei buruzkoa da, eta bestea Gizarte Segurantzako sistemako pentsioei buruzkoa.

VI. kapituluak jasotzen du, alde batetik, Gizarte Segurantzako kotizaziopekoak ez diren pentsioen hasierako zehaztapena eta balioa handitzea, eta, bestetik, iraungitako Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Asegurari dagozkion pentsioen zenbatekoa finkatzea.

## VI

V. titulua, «Finantza-eragiketak» izenekoa, hiru kapitulutan egituratuta dago, ondok gai hauek ardatz hartuta: zor publikoa, abal publikoak eta beste berme batzuk, eta Estatuaren eta Kreditu Ofizialeko Institutuaren arteko harremanak.

Titulu horren xede nagusia Estatuak eta erakunde publikoek zorduntze-eragiketarako egiteko gehieneko zenbateko bat baimentzea da. Zorduntzeak I. kapituluaren daude araututa, «Zor Publikoa» izenburupean. Baimen orokor horiek osatzeko, aintzat hartu behar dira erakunde publikoek eta Gobernuak berak eman beharreko informazioaren zehaztapenarekin, zor publikoaren eta Altxorrek Espainiako Bankuan eta beste finantza-erakunde batzuetan zabalduetako kontuen bilakaerari buruz.

Estatuaren zorrari dagokionez, baimenak Estatuaren zorraren saldo biziaren gehikuntzak abenduaren 31n zuen zenbatekoa du oinarri. Horrenbestez, Ekonomiako eta Lehiakortasuneko ministroari baimena ematen zaio 2014ko ekitaldian zorra handitzeko, baldin eta 2014ko abenduaren 31ko Zorraren saldo biziak ez badu 2014ko urtarrilaren 1ekoa 72.958.280,98 mila eurotik gorako kopuruan gaintitzen. Muga hori, hala ere, gaintitu ahal izango da ekitaldian, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak alde aurretik baimena emanaz gero, eta automatikoki berrikusteko egoerak zehazten badira.

Herri-erakundeen zorrari dagokionez, Legearen III. eranskinean zehaztuta dago haietako bakoitzarentzat baimendutako zenbatekoa. Gainera, hornitzaileei egin beharreko ordainketak finantzatzeko funtsari baimena ematen zaio 2014an zorpetu ahal izateko, Legean bertan adierazitako mugarekin. Bankuen Berregituraketa Ordenaturako Funtsaren kanpoko baliabideen zenbatekoaren muga ekitaldi honetan 63.500.000 mila eurokoa dela ere nabarmendu beharra dago.

II. kapituluaren, «Abal publikoak eta beste berme batzuk», Estatuak eta herri-erakundeek ematen dituzten abal guztien gehieneko muga finkatuta da; ez da 3.725.000 mila eurotik gorakoa izango. Aipamen berezia egin behar zaio, halaber, enpresen produkzio-jardueraren finantzaketa hobetzeko helburuarekin, Aktiboaren Titulizazio Funtsen bidez jaulkitako errenta finkoko baloreak bermatzeko abal publikoetarako baimenari. Horretarako, 3.000.000 mila euroko gehieneko zenbatekoa jarri da 2014ko ekitaldian; zenbateko bizi metatuaren gehieneko zenbatekoa adierazi da, gainera, 2014ko abenduaren 31rako.

Enpresa-entitate publikoek eta Estatuako merkataritza-sozietateek eman beharreko abalei dagokionez, baimena Estatuako Industria Partaidetzarako Sozietateari mugatzen zaio; sozietate horrek kapitalean gehienez ere 1.210.000 mila euroko partaidetza duten merkataritza-sozietateei eman ahal izango die abala.

Estatuaren eta Kreditu Ofizialeko Institutuaren arteko harremanak III. kapituluaren daude jasota. Bertan xedatutakoaren arabera, Garapena Sustatzeko Funtsari (FONPRODE) 235.230 mila euroko ekarpena egingo zaio 2014an. Urteko diru-horniduraz gain, Ministroen Kontseiluak ekitaldian zehar funts horren kontura baimen ditzakeen eragiketen bolumena finkatzen du; ekitaldi honetan, bolumen hori 375.000 mila eurokoa izango da. Halaber, eragiketa itzulgarriak baino ezin izango dira baimendu FONPRODEren kontura, Legean bertan ezarritako salbuespenak salbuespen.

Beste zuzkidura hauek ere xedatzen ditu, 2014rako: Uraren eta Saneamenduaren Lankidetzaren Funtserako, 15.000 mila euro; Enpresa Nazioartekotzeko Funtserako (FIEM), 238.087,60 mila euro.

Azkenik, Estatuak Kreditu Ofizialeko Institutuari egin beharreko diru-itzulketak arautzen ditu. Horri dagokionez, debekatu egin du 2014an finantza-erakunde multilateralen akzioak eta partaidetzak eskuratzeko eragiketarako egitea, eta horietan sortutako funtsetara ekarpenak egitea, zor publikoan eragina izanez gero.

## VII

Zergen alorrean, Aurrekontuen Legeak zenbait neurri jaso ditu; horietako gehientsuenak ohikoak dira arau honetan, eta eragina dute zerga-sistemaren figura garrantzitsuetan.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergen 2012 eta 2013rako ezarritako Estatuako kuota osorako zerga osagarriaren luzapena jaso da, finantza publikoak sendotzeko.

Enplegua mantendu edo sortzeagatik jarduera ekonomikoen etekin garbiari ezarritako murrizketa ere luzatuko da, Sozietateen gaineko Zergen mikroenpresek, enplegua mantentzen edo sortzen dutenean, zerga-tasa murriztu bat aplikatzeari dagokionez

sartzen denaren antzera, bai eta, halaber, langileak komunikazioaren eta informazioaren teknologia berrietan trebatzeko gastuei eta inbertsioei zergan ematen zaien tratamenduaren antzera ere; bi kasutan horrek jarduera ekonomikoan izan ditzakeen ondorio onuragarriengatik.

Horretaz gain, jarduera ekonomikoari lotu gabeko ondasun higiezinaren transmisioetarako, eskuratze-balioaren koefiziente zuzentzaileen eguneratzea ehuneko 1ekoa izatea xedatzen du; era berean, zergadun jakin batzuek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren legearen ondorioz galduko dituzten onura fiskalak konpentsatu egingo direla arautzen du: zehazki, kapital higigarriaren errendimendu jakin batzuen hartzaileak, bi urtetik gorako sorraldia dutenak 2013an, erreferentzia gisa 2006ko abenduaren 31ra arte indarrean zegoen pertsona fisikoen gaineko zergaren araudian xedatutakoak hartuta.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, mikroenpresei enplegua mantentzen edo sortzen dutenean aplikatzen zaien zerga-tasa murriztua luzatzeaz eta langileak komunikazioaren eta informazioaren teknologia berrietan trebatzeko gastuei eta inbertsioei emandako tratamenduaz gain, hauek ere jasotzen dira: transmisio-kasuetan higiezinaren aktiboei aplikatu beharreko koefizienteak finkatzen dira, 2014ko ekitaldian zergaren ordainketa zatikatuak zehazteko modua arautzen da, bai eta zergaren legearen testuategina Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzen ere sozietate baten egoitza aldatzearekin, establezimendu iraunkor batek jarduera uztearekin edo establezimendu horren aktiboak eskualdatzearekin lotuta.

Zerga-konsolidazioaren bideari eustearren, 2012 eta 2013rako finkatu ziren ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren karga-tasak luzatuko dira 2014an.

Ondarearen gaineko Zergaren kargaren eskakizuna ere luzatuko da 2014an, defizit publikoa murrizten laguntzeko.

Katastroko balioak, gorantz edo beherantz, eguneratzea higiezinaren merkatuarekin egokitzeko zuzenean lotuta dago, udal mailan, dagokien balio-ponentziaren onarpen-datarekin. Helburu horrekin eta horretarako egindako azterketak ikusita, hainbat koefiziente ezarri dira balorazio kolektiboko prozedura baten ondoriozko katastro-balioak indarrean jarri ziren urtearen arabera; horrelakoak aplikatuko zaizkie Higiezinaren Katastroaren Legearen testuateginaren 32. artikuluan 2 paragrafoan ezarritako baldintzak –manu horretan aurreikusitako ministerio-aginduan jasota– betetzen dituztela egiaztatu duten udalerriei.

Balio erantsiaren gaineko zergan egindako aldaketek helburu bikoitza dute; batetik, Zergaren legea Erkidegoko zuzentaraura egokitzea, Europako Batzordeak ohartarazi dituen kasu jakin batzuetan edo Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziatik datozenetan; bestetik, Lege horren seigarren xedapen gehigarriaren aldaketaren kasuan, zuzenketa tekniko bat egitea arautzen duen zergaren prozedura- eta kudeaketa-alderdiei dagokienez.

Ondare-transmisioen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, eguneratu egin da handitasunen eta noble-tituluen transmisioa eta birgaitzea zergapetzen dituen eskala, ehuneko 1ean.

Garraio bide jakin batzuen gaineko zerga berezian egindako aldaketek barneko araudia Erkidegoko antolamendura neurri handiagoan egokitzea dute xedetzat.

Tasei dagokienez, oro har eguneratzen dira, ehuneko 1ean, Estatuko Ogasuneko zenbateko finkoko tasak, 2013an emandako arauen bidez berariaz sortutako edo eguneratutako tasak izan ezik.

Trafikoko Buruzagitza Zentralak eska ditzakeen tasak, arestian adierazitako koefizientea aplikatu ostean, euroaren 10 zentimoren goiko multiplo hurbilenaren arabera doitu dira, doitu beharreko kopurua euroaren 10 zentimoren multiploa denean salbu. Gidabaimenei buruzkoa ere aldatzen da, orobat.

Oro har, 2014ko ekitaldirako, zorte-, enbido- edo zori-jokoak zergapetzen dituzten tasetarako ezarritako tasa eta zenbateko finkoak 2013ko zenbatekoetan mantenduko dira.

Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuari kontu-ikuskaritzen txostenak egiteagatik ordaindu beharreko tasa handitu egin da, zerbitzu horien benetako kostuei egokitzearren.

Jabari publiko irrati-elektrikoa erreserbatzeagatik tasan oro har mantendu da horren zenbatekoa zehaztekoa behar diren parametroen kuantifikazioa.

Bestalde, 2014ko hurbiltze-tasaren zenbatekoa 2013ko berbera izango da.

Interes orokorreko portuetan ontzien, bidaiarien eta salgaien okupazio-tasei aplikatu beharreko hobariak ezarri ditu, bai eta aipaturiko ontzien, bidaiarien eta salgaien tasei aplikatu beharreko koefiziente zuzentzaileak ere; hori guztia, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen Testu Bateginean ezarritakoarekin bat.

Aipaturiko testu bateginean zehaztutako portu-tasa batzuen oinarrizko zenbatekoak murriztu dira, arau horretan bertan okupazio-tasarako eta jarduera-tasarako ezarritako eguneratze-araubideari kalterik egin gabe.

Aireportuko ondare-prestazio publikoak ehuneko 2,5 handiagoak izango dira 2013an eskatutako zenbatekoekin alderatuta.

Isurpenen kontrolerako kanonaren oinarrizko prezioak eguneratu dira.

Patenteen eta baliagarritasun-modeloen urteko tasak ere eguneratu dira, bai eta babesteko ziurtagiri osagarriak eskatzeko eta mantentzekoak ere.

Azkenik, trenbide-kanonak aldatu dira (tasen izaera bera dute) zenbatekoei dagokienez; horrenbestez, diru-sarrerek trenbide-kostuak estaltzen dituzten ehuneko handituko da.

## VIII

VII. titulua bi kapitulutan egituratuta dago; bata toki-erakundeei buruzkoa da, eta bestea autonomia-erkidegoei buruzkoa.

I. kapituluaren barruan, toki-erakundeen finantzaketari buruzko arauak daude; hots, udalerrriak, probintziak, kabildoak nahiz uharte-kontseiluak eta probintzia bakarreko autonomia-erkidegoak finantzatzeari buruzkoak.

Oinarri-oinarrian, toki-erakundeek Estatuko zergen zenbatekoa zehaztean eta zerga horiek ordainaraztean duten partaidetza arautzen du. Tresna gisa, parte-hartze hauek nabarmendu behar dira: lagapen bidez zerga jakin batzuen bilketan parte hartzea (esaterako, PFEZ, BEZ eta alkoholen fabrikazioaren, hidrokarburoen eta tabako-lanen gaineko zerga bereziak); Finantzaketarako Funtz Osagarriaren bitartez parte hartzea, arreta berezia jarriz tokiko erakundeei Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren bilketa-galeragatik eman beharreko konpentsazioetan (azken horien barruan abenduaren 27ko 51/2002 Legeak hasieran ezarritakoa zein azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bidez bideratutako konpentsazio gehigarria sartzen dira), bai eta Osasun Laguntzarako Ekarpenean parte hartzea ere diputazioen, probintzia ez diren uharteetako autonomia-erkidegoen eta uharteetako diputazio eta kabildoen osasun-zentro ez-psikiatrikoak mantentzeko.

Bestalde, 2012ko likidazioari dagokionez –2014an egin beharrekoa– 2007ko likidaziora arte aplikatutako itzultze-irizpideak aplikatuko dira berriz ere.

Amaitzeko, Ceutako eta Melillako, eta Kanariar Uharteetako toki-erakundeen partaidetza-erregimen berezien araudia jasotzen da, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako eta Nafarroako toki-erakundeei dagokiena ere.

Dena den, arauketa hori beste transferentzia batzuekin osatzen da: hiri-garraio kolektiboaren zerbitzuetarako diru-laguntzak, eta tokiko zergetan pertsona fisiko edo juridikoei emandako zerga-onuren konpentsazioa udalentsat, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onesten duenak, 9. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Halaber, beste alderdi batzuk arautzen dira: toki-erakundeek informazioa emateko duten betebeharrak; aurrekontuak kudeatzeko arauak; udalei aurrerakinak ematea, tokiko zergen bilketa kudeatzean gerta daitezkeen desfaseak estaltzeko; eta toki-erakundeek Estatuarekiko dituzten zor irmoak konpentsatzeko prozedurak.

II. kapituluak araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketari buruzko alderdi jakin batzuk arautzen ditu.

2014an indarrean egongo den finantzaketa-sistema 2009ko uztailaren 15eko bileran onetsi zuen Zerga eta Finantza Politikako Kontseiluak, eta bi modutara sartu zen ordenamendu juridikoan: Autonomia Erkidegoak Finantzatzeko Lege Organikoa aldatuz, eta abenduaren 18ko 22/2009 Legea onartuz, araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema arautzen duena eta zerga-arau batzuk aldatzen dituena.

Sistemak autonomia-erkidego bakoitzaren finantzaketa-premia globalak estaltzeko esleitzen dituen finantza-baliabideak hauek dira: Nahikotasun Globalaren Funtsa, Oinarrizko Zerbitzu Publikoen Berme Funtsaren Transferentzia, eta Zerga Gaitasuna. Estatuaren gastuen aurrekontuak Nahikotasun Globalaren Funtsa eta Estatuak Berme Funtsara egindako ekarpena jasotzen ditu. Hala ere, Estatuak guztiz edo partzialki lagatuko zergen bilketa ez da Estatuaren Aurrekontu Orokorretan ageri, haien izaera dela-eta.

Gainera, autonomia-erkidegoen arteko konbergentzia eta *per capita* errenta txikiagoa dutenen garapena sustatzeko, 22/2009 Legeak konbergentzia autonomikorako bi funts arautzen ditu, Estatuaren baliabide gehigarriez hornituak daudenak: Lehiakortasun Funtsa eta Lankidetzaren Funtsa.

Bestalde, 2014an gauzatuko da 2012ko finantziario-sistemari dagokion likidazioa, eta aipatutako kapituluaren arautzen dira kuantifikaziorako beharrezkoak diren alderdiak.

Kapitulu horretan bertan arautzen dira, halaber, 2014an autonomia-erkidegoek beren gain hartutako zerbitzuen benetako kostuari dagokion transferentzia-erregimena, eta transferentzia berriak onesteko errege-dekretuen gutxienezko edukia.

Amaitzeko, Lurralde Arteko Konpentsazio Funtsen araudia jasotzen da, Konpentsazio Funtsa eta Funts Osagarria bereizita. Bi funtsen helburua autonomia-erkidegoek egindako inbertsio-gastuak finantzatzea da. Hala ere, Funts Osagarria Estatuaren Aurrekontu Orokorren 33. atalaren kontura egindako inbertsioak abian jartzeko gastuak finantzatzeko erabil daiteke.

## IX

Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak, VIII. tituluan, «Gizarte-kotizazioak» izenburupean, Gizarte Segurantzako erregimen desberdinetan kotizatze oinarriak eta tasak jasotzen ditu, eta eguneratu ere egiten ditu, eta ehuneko 5 handitzen kotizazio-oinarriaren gehieneko muga, sistemaren diru-sarrerak hobetearren.

Tituluak bi artikulua ditu, bata «Gizarte Segurantzari, langabeziari, jarduera uzteagatik babesari, Soldadak Bermatzeko Funtsari eta Lanbide Heziketari egindako kotizazio-oinarriak eta -tasak 2014an» eta «Funtzionarioen eskubide pasiboetarako eta mutualitate orokorretarako kotizazioa 2014rako».

## X

Aurrekontuen Legeak zenbait xedapen ere baditu (gehiarriak, iragankorrak, indargabetzaileak eta amaierakoak), eta xedapen horietan askotariko manuak daude jasota. Nolanahi ere, arloen eta dagozkien Legearen tituluei egindako erreferentzien arabera taldekatu dira, sistematizazio hobea lortzeko.

Hala, aurrekontuen kudeaketarekin lotutako arau osagarri modura, Estatuko sektore publikoak 2012, 2013 edo 2014 ekitaldietarako aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren edo gastuaren araua bete ez duten autonomia-erkidegoekin hitzarmenak sina ditzan, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren txostena beharko da oraindik –aldekkoa, nahitaezkoa eta loteslea– hitzarmen horien bidez Estatuaren baliabideen transferentzia egiten denean edota gastua egiteko konpromisoa sortzen denean.

Aurrekontuen kudeaketaren arloan xedapenak sartu dira Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura finantzatzeko mailegari eta aurrerakinei dagokienez, aurrekontu-egonkortasuneko eta zorpetzeko helburuak bete daitezela.

Nabarmendu beharra dago, halaber, 1207/2006 Errege Dekretuaren 5. eta 8. artikuluei jarraiki sortutako diru-sarreraren arabera autonomia-erkidegoek konpentsazioa jasoko



dutela beste estatu batzuetan aseguratuta dauden eta Espainiara aldi baterako etorri diren herritarrei osasun-laguntza itundua emateagatik.

Herri Administrazioaren Institutu Nazionala organismo autonomoaren diruzaintzako geldikinak sartzeari ere baimendu da. Eta urtebetez luzatu da 1985eko ekainaren 25eko 16/1985 Legean Elizaren ondasun higigarrien inbentarioari dagokionez finkatutako epea. Autonomia-erkidegoek eta Osasun Kudeaketako Institutu Nazionalak aldi baterako ezgaitasunaren kontrol eta jarraipenerako lankidetzaz hitzarmen egokiaren bitartez garatu beharreko jarduerak finantzatzea ere arautu da. Eta handitu egin da Gizarte Segurantzari emandako maileguak ezerezteko epea.

Ohikoa denez, alderdi politikoen funtzionamendu- eta segurtasun-gastuetarako Estatuaren urteko diru-laguntza ere ezarri da 2014rako, Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betez. Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado SAK gizarte, kultura eta kirol arloko jarduerak egiten dituzten erakundeak babesteko baldintzak ere ezarri dira, eta hainbat arau jaso dira Garapen Teknologiko eta Industrialerako Zentroaren aurrekontua gauzatzeko.

14/2011 Legearen 33.1b) artikuluan ezarritako laguntza publikoak ere arautu dira; hala, guztiz edo zati batez itzuli beharreko laguntzak izan ahalko dira, bai eta ikerketa, garapen eta berrikuntzako politikaren kredituen konturako mailegu eta aurrerakinak ere.

Langile-gastuei dagokienez, Legearen gehigarrietan gehieneko mugak zehaztu dira soldadutzako eta marineltzako militar profesionaletarako, 2014ko abenduaren 31n ezin izango baitira 79.000 baino gehiago izan, eta mugak ezarri dira Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateetako zuzendari-karguen eta gainerako langileen ordainsarietarako, bai eta haren erakunde eta zentro mankomunatuak ari direnentzat ere. Horrez gain, karrera judizialera eta fiskalera jotzeko Enplegu Publikoaren Eskaintza gehienez 100 plazakoa izango da, eta bake-epaileen eta bake-epaitegietako idazkarien jardura ekonomikoki konpentsatzeko moduluak finkatu dira.

Zerga-kontsolidazioko prozesuan sakontzeko, eta aurreko urteetan ezarritako irizpideari jarraikiz, 2014an, merkataritza-sozietate publikoek, sektore publikoko fundazioek, eta nagusiki administrazioek eta Aurrekontuen Legearen 22. artikuluko Bat paragrafoan definitutako sektore publikoa osatzen duten erakundeek osatutako partzuergoek ezingo dituzte langile berriak kontratatu, salbuespenezko kasuetan izan ezik, urgentziatzko premia atzerazinak betetzeko. Kasu horietan, aldi baterako kontratazioak egin ahal izango dituzte.

Dena den, iragan ekitaldian egindako moduan, debeku hori ez zaie aplikatuko merkataritza-sozietate publikoei, sektore publikoko fundazioei eta nagusiki sektore publikoaren partaidetza gehiengoduna duten partzuergoei, baldin eta dagokion sozietatea, fundazioa edo partzuergoa bilduta dagoen Estatuko, autonomia-erkidegoko edo tokiko sektore publikoan aldeztu aurretik harreman finkoa edo mugagabea duten langile funtzionario edo lan-kontratadunen kontratazioak badira. Defentsako Unibertsitate Zentroetako irakasleen beharrak lan-eskaintza publikoaren bidez estaltzea aurreikusi da, bestalde; horrelako zentroetan graduako titulua pixkanaka ezartzeak eragin ditu irakasle-behar horiek.

Pentsio publikoei eta laguntza-prestazioei dagokienez, honako prestazio hauen zenbatekoak ezarri dira: Gizarte Segurantzako familia-prestazioenak, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako desgaitasunik duten pertsonen eskubideei eta haien gizartertzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginean jasotako sorospen ekonomikoenak eta laguntza-pentsioenak. Horrez gain, eguneratu egin ditu Gerra Zibilean atzerrira joandako espainiarrei martxoaren 18ko 3/2005 Legearen babesean aintzatetsitako prestazio ekonomikoak. Atzeratu egin da Gizarte Segurantzako sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hogeita hamargarren xedapen gehigarriaren aplikazioa, eta bertan behera gelditu dira Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen manu jakin batzuk. Indar Armaturen erregimen berezian baliaezintasun handiari dagozkion pentsioak handitzeko

arauak ere badira legean, eta 2014rako zenbatekoa finkatu da Giza immunoeskasiaren birusak (GIB) kutsatuta daudenez gizarre-laguntzei dagokienez.

Xedatu egin da, bestalde, urtebeteko epean arautuko dela Jabetzaren, merkataritzaren eta ondasun higigarrien arloko erregistratzaileen kidegokoak dagokien Gizarte Segurantzako Araubidean sartzea, eta gauza bera kidego horietan 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera sartzen diren izangaiei dagokienez.

Izaera ekonomikoa duten arauak diruaren legezko interesari eta berandutze-interesari buruzkoak dira; 2014an, ehuneko 4 eta ehuneko 5 izango dira interes horiek, hurrenez hurren.

Esportaziorako kreditu-aseguruari dagokionez, CESCEk 2014ko ekitaldian aseguru eta banatu ahal izango duen kontratazio berriaren estaldura gehienez ere 9.000.000 mila eurokoa izango dela xedatzen du, Epe Laburreko Poliza Irekiak (dokumentu-kredituak izan ezik) alde batera utzita. 2005erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 2/2004 Legearen hogeita bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako finantzaketa-lerroari 57.425,48 mila euroko zuzkidura bat eginez arautu da enpresa txiki eta ertainentzako finantza-laguntza.

Zientzia-ikerketara eta garapen teknologikorako laguntza ere islatuta dago Legearen xedapen gehigarrietan; batetik, eduki teknologiko handiko enpresen kapitalizazioa laguntzeko lerroaren gehieneko zenbatekoa, 20.446,76 mila euro, ezarri da (abenduaren 13ko 6/2000 Legearen, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertainak sustatzeko neurriak onartzekoaren, bigarren.2 xedapen gehigarriak sortuta), eta bestetik, oinarri teknologikoko enpresen enpresa-proiektuak laguntzeko finantza-lerroaren gehieneko zenbatekoa, 18.579,76 mila euro (bigarren xedapen gehigarri beraren lehen paragrafoak sortu zuen). Ekintzaile gazteentzako laguntza ere arautu da; hala, 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 39/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian sortutako finantzaketa-lerroari 20.446,76 mila euroko ekarpena egitea aurreikusi da. Aurten, halaber, 20.000 mila euroko hornidura egingo zaio IKTen sektoreko ETEek eta ekintzaileek sustatutako enpresa-proiektuak abiarazten laguntzeko finantza-lerroari, 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legeak sortutakoari.

5.000 mila euroko hornidura onetsi da Autonomia Sistemarako eta Mendekotasuna Artatzeko Azpiegitura eta Zerbitzuak Sustatzeko eta Garatzeko Laguntza Funtserako; funts horrek jarduera horretan ari diren enpresei finantza-laguntza ematea du helburu.

Kanpo-inbertsioa sustatzeari dagokionez, 25.000 mila euroko hornidura ezarri da Kanpo Inbertsioetarako Funtsentzat, eta 10.000 mila euroko bat Enpresa Txiki eta Ertainen Kanpo Inbertsioetarako Funtsentzat. Dagozkien batzorde betearazleek onar ditzaketen eragiketek ezin izango dute, orotara, 300.000 mila euroko zenbatekoa gainditu lehenengo funtsaren kasuan, ez eta 35.000 mila eurokoa ere, bigarrenaren kasuan.

Espainiako enpresek Kyotoko Protokoloko malgutasun-mekanismoetan izango duten partaidetza arautu da, eta, horrez gain, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eskumen eskusiboko erakundeetan erakustearren aldi baterako lagatako interes kulturalako obrei dagokienez Estatuaren Bermeari buruzko manuak ere badira legean. Ekitaldi honetan, orobat, «El Greco 2014» fundazioak Estatuaren titulartasuneko erakundeetan antolatutako erakusketetara zabalduko da hori.

Zergei dagokienez, lehentasuna duten mezenasgo-jarduerak eta -programak zehaztu ditu, eta salbuespeneko interes publikokotzat jotzen diren hainbat gertakariri aplikatu beharreko zerga-onurak arautu dira.

Gainera, RTVE Korporazioak jabari publiko irrati-elektikoaren erreserba-tasaren errendimenduaren gainean jaso beharreko ehuneko finkatu da, eta gizarre-intereseko xedeentzat eta Eliza Katolikoa finantzatzeko diru-kopuruei buruzko xedapenak ere jaso dira. Lehentasuna duten mezenasgoko jarduerak ezarri dira, halaber.

Lurralde-erakundeei dagokienez, bertan behera gelditu da Enpleguari buruzko abenduaren 16ko 56/2003 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren aplikazioa (Kanarietako Autonomia Erkidegoko IV. Enplegu Plan Integralari buruzkoa). Bestalde, oraingoan ere aurreikusten du Espainiako egoiliar diren pazienteei osasun-laguntza

emateak autonomia-erkidegoetan eragindako gastuen zenbatekoa, eta Laguntza Bermearen Funtsak estalitako osasun-laguntzako gastuena, autonomia-erkidego bakoitzaren likidazioaren osteko saldo positiboak edo negatiboak konpentsatuta ordainduko dela, 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legean egin zen moduan, baina hobekuntza teknikoren bat egingo da saldo horiek kalkulatzeko orduan.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari dagokionez, enpleguari buruzko abenduaren 16ko 56/2003 Legearen 13. artikulua h) idatz-zatian zehaztutako akzio, neurri eta programak nola kudeatu behar dituen xedatu du Aurrekontuen Legeak.

Madrilgo, Bartzelonako eta Kanarietako bidaiarien garraio publiko erregularra finantzatzeko diru-laguntzak zuzenean ematea ere baimendu da; era horretan orain arte jarraitutako araubidea, programa-kontratueta oinarritua, aldatuko da, oraingoa hobeto moldatzen baita Estatuak beste herri-administrazio batzuen alde egindako era horretako transferentzien izaera juridikoarekin eta oraingo helburuarekin; halaber, Renfe-Operadorearen konturako ordainketak ere baimendu dira Kataluniako Gobernuari eskualdatutako aldirietako eta eskualdeko zerbitzuengatik.

Lurralde-erakundeen finantzaketari dagokionez, Estatuak zergen bidez jasotzen dituen diru-sarreraren bilakaera-indizea kalkulatzeko irizpideak finkatu ditu; Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen VII. tituluaren I. kapituluaren adierazitakoenak, alegia. Kreditu-eragiketen birfinantzatzea eta toki-erakundeen mendeko edo haiei lotutako erakundeei aplikatu beharreko zorpetze-erregimena arautu dira, bestalde, betiere haien xedea epemugaratzeko zain dauden obligazioekiko finantza-karga, amortizazio-aldia edo eragiketa horien arriskua murriztea bada; horrela bada, erakundeak betetzen duela jo ahal izateko baldintzak arautu dira, eta 2014ko ekitaldirako berretsi egin da ekainaren 28ko 7/2013 Errege Lege Dekretuaren, zergen, aurrekontuaren eta ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzearen arloko premiazko neurriei buruzkoaren, lehen xedapen gehigarrian xedatutakoa.

Aurreikusten da Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 135. artikulua aipatzen dituen probintzia bakarreko autonomia-erkidegoek epea handitzeko aukera ere izatea, baldin eta toki-erakundeen 2008ko eta 2009ko Estatuaren tributuetako parte-hartzearen behin betiko likidazioen ondorioz saldo zordunak beren gain hartu behar badituzte; aukera hori baitute gainerako toki-erakundeek 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Bestalde, 2013ko Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legean jasotako modu berean mantendu du enpresa-kotizazioan 100eko 50eko murrizketa izateko aukera, haurdunaldian edo edoskialdi naturalean arriskua izateagatik lanpostua aldatzen den kasuetan, edota lanbide-gaixotasuna izaten denean.

Askotariko ondorioak dituen errentaren adierazle publikoa (IPREM) zehaztu da 2014rako; 2013ko ekitaldiko berbera izango da.

Halaber, lanbide-heziketako kuotatik datozen funtsak langabeziarako lanbide-heziketa finantzatzera bideratzea ere aurreikusi da, enpresen eta langileen artean haien beharren araberrako prestakuntza bultzatzeko eta zabaltzeko, eta era berean, jakintzan oinarritutako ekonomia bat garatzen lagun dezan –2013ko ekitaldian xedatutako moduan–, eta Atzeritarrek Espainian dituzten eskubide nahiz askatasunei eta horiek gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 2.ter.4 artikuluan xedatutakoa bertan behera gelditu da 2014ko ekitaldirako.

2014an ez dela Estatu Agentziarik sortuko ezarri da, Ikerketarako Estatu Agentzia izan ezik; dena den, azken agentzia horren sorrerak ezin izango duela gastu publikoa handitzea ekarri xedatu da. Salbuespen moduan, orobat, aldatu egin da Lana eta Enplegurako Prestakuntza erakunde autonomoaren erregimen ekonomiko finantzarioa, ematen dituen zerbitzuen berezitasunetara eta haren zerbitzupeko langile batzuen lan-harremanera egokitzeko, erakunde autonomoen merkataritza-eragiketen kontua ezabatutakoan, 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Azkenik, atzeratu egin dira Gizarte Segurantzaren sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren ondorioak, bai eta aipatutako abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen 7. artikulua erantsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren berrogeita hemezortzigarren xedapen gehigarriarenak ere –ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako testu bategina–.

Honako gai hauei buruzko xedapen iragankor batzuk daude ondoren: Estatuako sektore publikoaren zerbitzupeko langileen egoitzagatiko kalte-ordainari buruzkoa; osagarri pertsonal eta iragankorrei buruzkoa; Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateetara elkartzeari eta atxikitzeari buruzko beste xedapen bat, bai eta 2013an etekinen sortze-aldia bi urtetik gorakoa denean kapital higigarriaren zenbait etekin jasotzeagatiko konpentsazio fiskalari buruzko beste bat ere.

Horretaz gain, bi xedapen indargabetzaile ere jaso dira; bata 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 39/2010 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarria indargabetzeko, eta besteak 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen hogeita hamabigarren xedapen gehigarria.

Legeak, bukaera aldean, azken xedapen batzuk ditu, lege jakin batzuetan egindako aldaketan berri emateko. Horien artean honako hauek aldatuko dira: apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Estatuaren Klase Pasiboei buruzko Legearen testu bategina; 1988rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 33/1987 Legea; Cervantes Institutua sortzen duen martxoaren 21eko 7/1991 Legea; ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina; Indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzeko abenduaren 11ko 35/1995 Legea; Estatuako Administrazio Orokorren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legea; Estatuako Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzari buruzko Legearen testu bateginaren –ekainaren 23ko 4/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartua–; Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legea; Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea; Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorra; 2007rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 42/2006 Legea; Jaiotza-, adopzio-edo harrera-kasuetan aitatasun-baimenaren iraupena luzatzeari buruzko urriaren 6ko 9/2009 Legea; Uztailaren 1eko 8/2011 Errege Lege Dekretua, hipoteka-zordunak laguntzeko, gastu publikoa kontrolatzeko eta toki-erakundeek enpresekin eta autonomoekin dituzten zorrak bertan behera uzteko, enpresa-jarduera sustatzeko eta administrazioa eraberritzea indartu eta soiltzeko neurrii buruzkoa; Gizarte Segurantzaren sistema eguneratzeko, egokitzeko eta modernizatzeako abuztuaren 1eko 27/2011 Legea, eta 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legea.

Legearen amaieran klase pasiboen arloko aurrekontu-kredituen kudeaketari buruzko xedapen tradizionala, indarrean jartzea eta Gobernuari behar duen arau-garapena gauzatzeko gaikuntza ematea daude.

## I. TITULUA

### **Aurrekontuen onarpena eta aldaketak**

## I. KAPITULUA

### **Hasierako kredituak eta haien finantzaketa**

1. artikulua. *Estatuaren Aurrekontu Orokorren eremua.*

2014ko ekitaldirako Estatuaren Aurrekontu Orokorretan biltzen dira aurrekontu hauek:

- a) Estatuaren aurrekontua.
- b) Estatuako Administrazio Orokorren erakunde autonomoen aurrekontuak.
- c) Gizarte Segurantzaren aurrekontua.

- d) Estatu-agentzien aurrekontuak.
- e) Erakunde publikoen aurrekontuak, haien berariazko araudiak izaera murriztailea emanaz gero gastuen aurrekontu-kredituei.
- f) Estatuko Administrazioaren sektore publikoko gainerako erakundeen aurrekontuak.
- g) Nortasun juridikorik gabeko funtsen aurrekontuak, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 2.2 artikuluan adierazitakoenak.
- h) Estatuko merkataritza-sozietateen aurrekontuak.
- i) Estatuko sektore publikoko fundazioen aurrekontuak.
- j) Enpresa-entitate publikoen eta izaera bereko gainerako erakunde publikoen aurrekontuak.

2. artikulua. *Lege honen 1. artikuluko a) idatz-zatitik e) idatz-zatira bitartean adierazitako erakundeen gastuen eta diru-sarreraren egoera onestea.*

Bat. Aurreko artikuluko a), b), c), d) eta e) paragrafoetan adierazitako erakundeen aurrekontuetako gastuen egoeran integratutako programak gauzatzeko, 354.626.077,18 mila euroko kredituak onesten dira I.etik VIII.era bitarteko kapitulu ekonomikoetan, lege honen I. eranskinean zehaztutako programen arabera banaketari jarraiki. Programa horiei dagozkien kredituak honako hauek dira, politiken arabera multzokatuta:

	Milioika euroak
Justizia . . . . .	1.500.754,04
Defentsa . . . . .	5.654.454,39
Herritarren segurtasuna eta espesxeak . . . . .	7.880.953,26
Kanpo-politika . . . . .	1.395.169,09
Pentsioak . . . . .	127.483.833,35
Beste prestazio ekonomiko batzuk . . . . .	11.603.830,60
Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena . . . . .	1.809.906,96
Enpleguaren sustapena . . . . .	4.073.521,10
Langabezia . . . . .	29.727.534,27
Etxebizitza eskuratzea eta eraikuntzaren sustapena . . . . .	799.724,08
Gizarte Segurantzaren kudeaketa eta administrazioa . . . . .	4.377.403,58
Osasuna . . . . .	3.839.755,95
Hezkuntza . . . . .	2.174.996,11
Kultura . . . . .	717.971,02
Nekazaritza, arrantza eta elikadura . . . . .	7.720.528,09
Industria eta energia . . . . .	5.777.761,95
Merkataritza, turismoa eta ETEak . . . . .	936.195,07
Garraiorako diru-laguntzak . . . . .	1.615.155,35
Azpiegiturak . . . . .	5.453.552,69
Ikerketa, garapena eta berrikuntza . . . . .	6.139.848,64
Izaera ekonomikoko beste jardura batzuk . . . . .	1.160.066,30
Goi-zuzendaritza . . . . .	593.785,43
Izaera orokorreko zerbitzuak . . . . .	29.905.722,63
Finantza- eta zerga-administrazioa . . . . .	9.704.863,80
Transferentziak beste Herri-administrazio batzuetara . . . . .	45.988.789,43
Zor publikoa . . . . .	36.590.000,00

Bi. Aurreko paragrafoan adierazitako erakundeen diru-sarreraren egoeran, aurrekontu-ekitaldian likidatzekoak diren eskubide ekonomikoen zenbatespenak daude jasota. Finkatutako zenbatekoen banaketa, milaka eurotan adierazita, honako hau da:

ERAKUNDEAK	Kapitulu ekonomikoak		
	I-VII. kapituluak Diru-sarrera ez-finantzarioak	VIII. kapitulua Aktibo finantzarioak	DIRU SARRERAK GUZTIRA
Estatua . . . . .	127.745.138,26	1.866.601,87	129.611.740,13
Erakunde autonomoak . . . . .	31.236.838,12	1.351.038,13	32.587.876,25
Gizarte Segurantza. . . . .	106.701.556,56	12.127.115,70	118.828.672,26
Estatu-agentziak. . . . .	285.140,38	139.011,87	424.152,25
Lege honen 1.e) artikuluan adierazitako erakundeak. . .	181.447,45	44.522,11	225.969,56
OROTARA. . . . .	266.150.120,77	15.528.289,68	281.678.410,45

Hiru. Artikulu honen Bat paragrafoan adierazitako erakundeen arteko barne-transferentzietarako 35.945.590,61 mila euroko zenbatekoa osatzen duten kredituak onetsi dira, erakundeen arabera honela banatuta:

Milaka euro

Transferentziak, jatorriaren arabera	Transferentziak, helburuaren arabera					
	Estatua	Erakunde autonomoak	Gizarte Segurantza	Estatu-agentziak	Lege honen 1.e) artikuluan adierazitako erakundeak	Guztira
Estatua . . . . .	–	16.797.669,73	13.000.476,50	680.943,86	1.234.910,13	31.714.000,22
Erakunde autonomoak . . . . .	229.120,50	60.426,00	–	1.672,99	–	291.219,49
Estatu-agentziak. . . . .	30.366,00	990,00	–	–	–	31.356,00
Gizarte Segurantza. . . . .	154.806,90	1.502,40	3.752.705,60	–	–	3.909.014,90
Lege honen 1.e) artikuluan adierazitako erakundeak . . .	–	–	–	–	–	–
OROTARA. . . . .	414.293,40	16.860.588,13	16.753.182,10	682.616,85	1.234.910,13	35.945.590,61

Lau. Artikulu honetan onetsitako gastu-egoerei dagokienez azpisektoreen arteko programetan eta transferentzietan jasotako kredituak honela banatzen dira organikoki eta ekonomikoki, milaka eurotan adierazita:

Erakundeak	Kapitulu ekonomikoak		
	I-VII. kapituluak Gastu ez-finantzarioak	VIII. kapitulua Aktibo finantzarioak	OROTARA GASTUAK
Estatua . . . . .	164.848.690,23	38.135.624,28	202.984.314,51
Erakunde autonomoak . . . . .	49.426.491,46	13.106,92	49.439.598,38
Gizarte Segurantza. . . . .	133.199.644,38	2.384.461,73	135.584.106,11
Estatu-agentziak. . . . .	1.102.206,19	562,91	1.102.769,10
Lege honen 1.e) artikuluan adierazitako erakundeak . . . . .	1.459.531,53	1.348,16	1.460.879,69
OROTARA. . . . .	350.036.563,79	40.535.104,00	390.571.667,79

Bost. Finantza-pasiboak amortizatzeko, Bat paragrafoan adierazitako erakundeen gastuen egoerari buruzko IX. kapituluan 68.605.254,55 mila euroko zenbatekoa osatzen duten kredituak onetsi dira. Haien banaketa, programen arabera, lege honen I. eranskinean zehaztuta dago.

3. artikulua. *Zerga-onurak.*

Estatuko zergetan eragina duten zerga-onurak 38.360.150,00 mila eurokoak direla kalkulatzen da. Haien antolaketa sistematikoa eranskin gisa jasota dago, Estatuaren diru-sarreraren egoeran.

4. artikulua. *Lege honen 2. artikuluan onetsitako kredituen finantzaketa.*

Lege honen 2. artikuluko Bat paragrafoan onetsitako kredituak, guztira 354.626.077,18 mila eurokoak, honela finantzatuko dira:

- a) Ekitaldian likidatu beharreko eskubide ekonomikoekin (dagozkien diru-sarreraren egoeretan zehaztuta daude, eta 281.678.410,45 mila eurokoak izango direla zenbatesten da); eta
- b) Lege honen V. tituluaren I. kapituluaren araututako eragiketetatik sortutako zorduntze garbiarekin.

5. artikulua. *Lege honen 1. artikuluko f), g), h), i) eta j) idatz-zatietan adierazitako erakundeen aurrekontuak.*

Bat. Onetsi egin dira XII. eranskinean zerrendatuta ageri diren Estatu-administrazioko sektore publikoko gainerako erakundeen aurrekontuak, aplikatzekoak diren xedapenetan jasotako kontrol-mekanismoei kalterik egin gabe. Aurrekontu horietan, aipaturiko erakundeen gastuen zenbatespenak eta diru-sarreraren aurreikuspenak daude jasota, bai eta finantza-egoerak ere.

Bi. Onetsi egin dira XIII. eranskinean zerrendatuta ageri diren nortasun juridikorik gabeko funtsen aurrekontuak, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 2.2 artikuluan aipatutakoenak, aplikatzekoak diren xedapenetan jasotako kontrol-mekanismoei kalterik egin gabe. Aurrekontu horietan, aipaturiko funtsen gastuen zenbatespenak eta diru-sarreraren aurreikuspenak daude jasota, bai eta finantza-egoerak ere.

Hiru. Onetsi egin dira gehienbat kapital publikoa duten Estatu merkataritza-sozietateen aurrekontuak, gastuen zenbatespenak eta diru-sarreraren aurreikuspenak jasotzen dituztenak, banaka aurkeztuak edo bakoitzari dagokion enpresa-taldearekin finkatuak; azken kasu horretan, aurkezpen finkatuari dagokion sozietate-zerrenda adierazi da. Aurrekoari kalterik egin gabe, Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura diru-laguntzak jasotzen dituzten Estatu merkataritza-sozietateen aurrekontuak bereizita ageri dira.

Lau. Onetsi egin dira XIV. eranskinean ageri diren Estatu sektore publikoko fundazioen aurrekontuak, gastuen zenbatespenak eta diru-sarreraren aurreikuspenak jasota.

Bost. Onetsi egin dira XI. eranskinean adierazitako enpresa-entitate publikoen eta erakunde publikoen aurrekontuak, gastuen zenbatespenak eta diru-sarreraren aurreikuspenak zehaztuta, bai eta finantza-egoerak ere, aplikatzekoak diren xedapenetan jasotako kontrol-mekanismoei kalterik egin gabe.

6. artikulua. *Espainiako Bankuaren aurrekontua.*

Espainiako Bankuaren Autonomiari buruzko 13/1994 Legeak, ekainaren 1ekoak, 4.2 artikuluan xedatutakoari jarraiki, onetsi egin da Espainiako Bankuaren funtzionamendugastuen eta inbertsioen aurrekontua, eta lege honekin bat egin du.

7. artikulua. *Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren bederatzigarren xedapen gehigarrian adierazitako partzuergoen aurrekontua.*

Aurrekontuei buruzko 47/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 26koak, bederatzigarren xedapen gehigarrian adierazitakoari jarraiki, lege honekin bat egin dute partzuergoen ustiapen- eta kapital-aurrekontuek, baldin eta partzuergo horietan Estatu sektore

publikoak duen partaidetzaren ehunekoa gainerako herri-administrazioetako bakoitzak duenaren berdina edo handiago bada.

## II. KAPITULUA

### Aurrekontu-kredituak aldatzeko eta gauzatzeko arauak

#### 8. artikulua. *Printzipio orokorrak.*

Lege honen bidez baimendutako aurrekontu-kredituen aldaketak arau hauen arabera egin beharko dira 2014an:

Lehenengoa. Aurrekontu-kredituen aldaketek lege honetan xedatutakoa bete beharko dute, bai eta azaroaren 26ko 47/2003 Legeak, Aurrekontuen Lege Orokorrak, helburu horretarako xedatutakoa, baldin eta lege honek ez baditu xedapen horiek aldatu.

Bigarrena. Aurrekontuen Lege Orokorraren 43. eta 44. artikuluetan xedatutako lotura-mailak edonolakoak izanda ere, aurrekontuak aldatzeko akordio orok berariaz adierazi beharko du zer atal, zerbitzu edo organo publikori eragiten dion, eta, hala egokitzuz gero, zer programa, artikulua, kontzeptu eta azpikontzeptutan duen eragina.

#### 9. artikulua. *Kreditu lotesleak.*

Bat. 2014an, ondorengo kreditu hauek lotesleak izango dira Estatuaren, erakunde autonomoen, Estatu-agentzien eta beste erakunde publiko batzuen aurrekontuetan:

1. Aurreko ekitaldietako betebeharrei erantzuteko esleitutako kredituak, gastuen egoeran duten desagregazio ekonomikoaren mailarekin.

2. 162.00 «Langileen prestakuntza eta hobekuntza» eta 162.04 «Gizarte-ekintza» kredituak.

Bi. 2014an, 221.09 «Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren Jarduerak» kreditua loteslea izango da Estatuaren, erakunde autonomoen eta beste erakunde publiko batzuen aurrekontuan.

Hiru. Ondorengo kreditu hauek lotesleak izango dira 2014an:

1. 16.03.132A.221.10 kreditua «Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalari, NAN- eta pasaporte-tasen eraginez».

2. 20. ataleko aurrekontuan «Industria, Energia eta Turismo Ministerioa», kapitulu-mailan lotesleak izango dira, diru-laguntza izendunak salbu, eta gastuen egoeretan kontzeptu gisa duten espezifikazioari kalterik egin gabe, 7. kapituluaren «Kapital-transferentziak» ondorengo zerbitzu eta programa hauetarako kontsignatutako aurrekontu-kredituak: 12. zerbitzurako «Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizartearen Estatu Idazkaritza», 467G programarako «Informazioaren Gizartearen Ikerketa eta Garapena» eta 467I programarako «Telekomunikazioen berrikuntza teknologikoa».

Paragrafo honetan ezarritako lotura-mailen babesean egindako deialdi publikoen barruan egin beharreko ordain-aginduak, baldin eta xedetzat erakunde autonomoak, estatu-agentziak eta Lege honen 1.e) artikulua erakunde publikoak badituzte, «Barneko transferentziak» 000X programatik egin beharko dira, eta beharrezkoa balitz, dagozkien kreditu-transferentziak izapidetuko dira Lege honen 10.Hiru artikuluan xedatutakoaren babesean.

3. 26 atalaren aurrekontuan «Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa», 26.18.231A.227.11 kreditua «Droga-trafikoarekin lotutako delituak prebenitzeko, ikertzeko, jazartzeko eta zigortzeko jardueretarako, eta maiatzaren 29ko 17/2003 Legeak adierazitako gainerako xedetarako».

4. 27. atalaren aurrekontuan «Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa», kapitulu-mailan lotesleak izango dira, diru-laguntza izendunak salbu, eta gastuen egoeretan



kontzeptu gisa duten espezifikazioari kalterik egin gabe, 7. kapituluan «Kapital-transferentziak» ondorengo zerbitzu eta programa hauetarako kontsignatutako aurrekontu-kredituak: 13. Zerbitzurako («Ikerketa Zientifiko eta Teknikoko Zuzendaritza Nagusia»), 463B Programarako («Ikerketa zientifikoa eta teknika sustatzea eta koordinatzea»), 14. Zerbitzurako («Berrikuntzarako eta Lehiakortasunerako Zuzendaritza Nagusia»), 463B Programarako «Ikerketa zientifikoa eta teknika sustatzea eta koordinatzea» eta 467C Programarako «Ikerketa eta garapen teknologiko-industrialak».

Paragrafo honetan ezarritako lotura-mailen babesean egindako deialdi publikoen barruan egin beharreko ordain-aginduak, baldin eta xedetzat erakunde autonomoak, estatu-agentziak eta Lege honen 1.e) artikulua erakunde publikoak badituzte, 000X programatik («Barneko transferentziak») egin beharko dira, eta beharrezkoa balitz, dagozkien kreditu-transferentziak izapidetuko dira Lege honen 10.Bost.2 artikuluan xedatutakoaren babesean.

#### 10. artikulua. *Aurrekontu-aldaketan alorreko berariazko eskumenak.*

Bat. 2014rako soilik, Ogasun eta Administrazio Publikoetako ministroari dagozkio aurrekontuak aldatzeko berariazko eskumen hauek:

1. Lege honen 9.Bi artikuluan jasotako kredituetan eragiten duten transferentziak baimentzea.

Gizarte Segurantzaren aurrekontuan, Enplegu eta Gizarte Segurantzako ministroari dagokio baimena ematea; nolana ere, INGESAren eta IMSERSOren aurrekontuetan, Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko ministroak eman beharko du baimena.

2. 26.18.231A.227.11 kredituaren kontura «Droga-trafikoarekin lotutako delituak prebenitzeko, ikertzeko, jazartzeko eta zigortzeko jardueretarako, eta maiatzaren 29ko 17/2003 Legeak adierazitako gainerako xedeetarako» egin beharreko transferentziak baimentzea, Ministerioko beste sail batzuetara bideratzen direnean.

3. 4. kapituluan («Transferentzia arruntak») eta 7. kapituluan («Kapital-transferentziak») kontzeptu berriak sortzen dituzten kredituak baimentzea, bai eta gainerako kapituluetan ere, sailkapen ekonomikoa zehazten duten kodeetan alde aurretik ageri ez badira.

4. Ministerioko sail desberdinetako zerbitzu eta erakunde autonomoen artean kreditu-transferentziak baimentzea, baldin eta beharrezkoa bada Ikerketa Zientifiko eta Teknikorako Funts Nazionaleko, Azpiegitura Zientifiko eta Teknologikoen Funts Estrategikoko, eta Ikerketa Zientifikorako eta Teknikorako Nazioarteko Funtsen kredituak banatzeko.

5. Ministerioko sail desberdinetako zerbitzu eta erakunde autonomoen artean kreditu-transferentziak baimentzea, baldin eta beharrezkoa bada langileak edo lanpostuak modu eraginkorrean berriro banatzeko, esleitzeko edo haien mugikortasunerako, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak onartutako Estatuko Administrazio Orokorrean diharduten langileen sarbiderako, lanpostuen hornikuntzarako eta administrazio bereko funtzionario zibilen lanbide sustapenerako arautegi orokorraren III. tituluaren IV. kapituluan xedatutako kasuetan, bai eta Estatuko Administrazio Orokorrean kontratupeko langileen nahitaezko mugikortasuna eraginkorra izan dadin ere, haiei aplikagarri zaien araudiaren arabera.

6. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuan kreditu-aldaketak baimentzea, aldaketa horrek II. eranskineko b), c), d), e), f), g), h) eta i) paragrafoetan zehaztutako kredituei eragiten badie. Bigarrena. Zortzi.

7. Erakunde autonomoen aurrekontuan kreditu-sortzeak baimentzea dena delako erakunde autonomoaren jarduerak finantzatzeari legez atxikitako Estatuko diru-sarrerengatik.

Bi. 2014an soilik, Defentsako ministroak izango du Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean 53.2.b) artikuluan jasotako kreditu-sortzeak baimentzeko

eskumena, farmaziako produktuen salmentek edo ospitale-zerbitzuak emateak eragindako diru-sarrerren ondorio direnean, eta behar bezala baimendutako elikagaiak zein erregaiak hornitu edo janari-prestazioak edota NATOko herrialdeetako armadei eginiko zerbitzu-prestazioak egiteak eragindako diru-sarrerren ondorio, NBBEF-Bermea funtsaren diru-laguntzek ekarritako diru-sarrerren ondorio eta Indar Armatueta Zaldi Hazkuntza atalak egindako zerbitzuen eta salmenten prestazioek eragindakoen ondorio direnean.

Hiru. 2014an, Industriako, Energiako eta Turismoko ministroak izango du bere saileko aurrekontuan azpisektoreen arteko kapital-transferentziei eragiten dieten kreditu-transferentziak baimentzeko eskumena, transferentzia horiek erakunde publikoei deialdi publikoen bidez laguntzak ematearen ondorio direnean, eta 467G Programaren bidez («Informazioaren gizartearen ikerketa eta garapena») eta 467I Programaren bidez («Komunikazioen berrikuntza teknologikoa») finantzatzen direnean.

Lau. 2014an, Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko ministroak izango du Aurrekontuei buruzko 47/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 26koak, 53.2.b) artikuluan xedatutako kreditu-sortzeak baimentzeko eskumena, kreditu horiek Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bateginak, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, hogeita bigarren xedapen gehigarrian adierazitako diru-sarrerren ondorio direnean.

Aurreko lerrokadan adierazitakoaren ondorioz kreditua sortuz gero Estatuak Gizarte Segurantzari egindako transferentziek Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren gastu-aurrekontuan izan ditzaketen ondorioak adieraztearren, Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko ministroak baimena eman ahal izango du erakunde horren gastu-aurrekontuan beharrezko diren kreditu-handitzeak egiteko.

Beti ere, aurreko lerrokadan adierazitako aurrekontu-aldaketak, baimendu ondoren, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioi Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiarri adierazi beharko zaizkio, jakinaren gainean egon dadin.

Bost. 2014an soilik, Ekonomia eta Lehiakortasun ministroak izango ditu berariazko eskumen hauek, aurrekontu-aldaketen alorrean:

1. Kreditu-sortzeak baimentzea 27.13.463B.740, 27.13.463B.750, 27.13.463B.760, 27.13.463B.770 eta 27.13.463B.780 aplikazioetan, Lege honen hamaikagarren xedapen gehigarrian jasotako laguntza itzulgarriak itzultzearen ondoriozko diru-sarrerengatik (ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko xedek dituzten laguntza itzulgarriei buruzkoa da xedapen hori).

2. Bere saileko aurrekontuan, azpisektoreen arteko transferentzia arruntei eta kapital-transferentziei eragiten dieten kreditu-transferentziak baimentzea, transferentzia horiek erakunde publikoei deialdi publikoen bidez laguntzak ematearen ondorio direnean, eta 463B Programaren bidez («Ikerketa zientifiko eta teknikoaren sustatzea eta koordinatzea») nahiz 467C Programaren bidez («Ikerketa eta garapen teknologiko-industrialak») finantzatzen direnean.

Sei. 2014an, lege honen 1. artikuluan e) paragrafoan zehaztutako erakunde publikoen aurrekontuetan kreditu-aldaketak egiteko, Estatuak aurrekontuetan aplikatu beharreko prozedura bera jarraitu beharko da, baldin eta erakunde horiek Estatuak gastu-aurrekontuaren kontura finantzatzen badira.

Zazpi. Gobernuak, hiru hilean behin, artikuluan honetan aipatutako transferentzia guztiei buruzko informazioa igorriko die Gorte Nagusiei, eragindako partidak zein haien zenbatekoa eta xedea zehaztuta. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

11. artikulua. *Aurrekontuen mugak.*

Bat. Aurrekontuei buruzko 47/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 26koak, 52.1.a), kapital-eragiketetatik eragiketa arruntetara kreditu-transferentziak egiteko adierazitako mugak ez dira aplikatuko honako transferentzia hauetan:

a) Ezbeharrek, hondamendiek eta beste gertaera batzuek eragindako premiei erantzuteko, lege-lerruneko arauen bidez ezarritako edonolako betekizunei erantzuteko beharrezko diren transferentziak.

b) Ikerketa Zientifikoa eta Teknikoa Garatzeko Funts Nazionalako, Azpiegitura Zientifiko eta Teknologikoen Funts Estrategikoko, eta Ikerketa Zientifikorako eta Teknikorako Nazioarteko Funtseko kredituak banatzeko beharrezko diren transferentziak.

c) Defentsako Etxebizitza, Azpiegitura eta Ekipamendu Institutuaren aurrekontuan bidezko diren transferentziak, Estatuan Indar Armaturen eragiketa- eta inbertsio-beharrei erantzuteko funtsak sartzeko.

Bi. Aurrekontuei buruzko 47/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 26koak, 52.1.b) artikuluan adierazitako mugak ez dira aplikatuko transferentzia horiek lege honen 10.Bat artikuluan 2, 4 eta 5 paragrafoetan adierazitako baimenaz baliatuz egiten direnean.

Hiru. 2014an, errendimendua sustatzeko kredituen gehikuntza dakarten kreditu-sortzeak baimentzeko eskumena ez baldin badagokio Ogasuneko eta Herri Administrazioetako ministroari, sail horren aldeko txostena beharko da aldez aurretik.

Lau. 2014an, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 50. artikuluan jasotako mugak ez dira aplikatuko honako aurrekontu-aplikazio hauetan egiten diren kreditu-gehikuntzak finantzatzeari dagokionez: 27.04.923O.351 aurrekontu-aplikazioan (Arriskuak estaltzea altxorrek emandako abaletan, aurreko ekitaldien arriskuak barne), eta 27.04.923O.355 aurrekontu-aplikazioan (Altxorren aurreko abalak gauzatzearen ondoriozko konpentsazioak), baldin eta ondorengo lege hauetan jasotako finantza-neurrien ondorio badira: urriaren 13ko 7/2008 Errege Lege Dekretuan, Euroguneko Herrialdeen Itunpeko Ekintza Planari lotutako Ekonomia eta Finantza Arloko Neurri Urgenteei buruzkoan; Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarrian; Bankuak berregituratzeko eta kreditu-erakundeen bitarteko propioak indartzeko ekainaren 26ko 9/2009 Errege Lege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian; maiatzaren 28ko 9/2010 Errege Lege Dekretuaren artikulua bakarrean, non Estatu Administrazio Orokorrari baimena ematen zaion finantzaketa-eragiketa jakin batzuetarako abalak eman ditzan, finantzak egonkortzeko Europako mekanismoaren esparruan; 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 39/2010 Legearen 49. artikuluan Bi.b) paragrafoan; 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen 52. artikuluan Bi.b) eta Bi.e) paragrafoetan, eta 2013rako Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen 54. artikuluan Bi.b) paragrafoan.

Bost. Gobernuak, hiru hilean behin, aldi horretako Estatuaren aurrekontua gauzatzeko eragiketen berri emango die Gorte Nagusiei Aurrekontu Bulegoaren bitartez, artikulua honetan xedatutakoa betetzen dela jakinaraztearren. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

## 12. artikulua. *Kredituak zabaltzea eta eranstea.*

Bat. Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 54. artikuluan xedatutako helburuetarako, II. eranskinean jasota dauden kredituak joko dira zabalgarritzat.

Bi. Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 58.a) artikuluan xedatutako helburuetarako, 2014ko ekitaldiko kredituetan sar daitezke lege honen VII. eranskinean jasota dauden soberakinak.

## III. KAPITULUA

**Gizarte Segurantzza**13. artikulua. *Gizarte Segurantzza.*

Bat. Osasun-laguntzaren finantziazioa, Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren aurrekontuaren bidez, Estatuaren bi xede-ekarpenen bidez egingo da: bata, eragiketa arruntak egiteko, 211.084,65 mila eurokoa, eta bestea, kapital-eragiketarako, 11.191,18 mila eurokoa, eta erakunde horri lotutako beste edozein diru-sarrerara, 1.072,46 mila eurokoa izatea kalkulatu dena.

Bi. Estatuak 7.633.020,00 mila euro ematen dizkio Gizarte Segurantzako sistemari, sistema horretako pentsioak gutxienera iristeko osagarriak finantzatzeko.

Pentsioak gutxienera iristeko osagarriak finantzatzeko kreditu hori gauzatzeko erritmoa Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren finantza-beharretara egokituko da, bai eta Estatuaren aurrekontua gauzatzearen beharretara ere; hartarako, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak aldeko txosten bat egin beharko du ordain-agindu bakoitzeko.

Hiru. Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren aurrekontua 2014ko ekitaldian finantzatuko da Estatuaren ekarpenen bidez: eragiketa arruntak egiteko 3.646.779,09 mila euro, eta kapital-eragiketarako 6.125,00 mila euro, eta erakunde horri lotutako beste edozein diru-sarrerara, 56.860,19 mila eurokoa izatea kalkulatu dena.

Lau. Itsasoko Gizarte Institutuaren kotizaziopekoa ez den osasun-laguntza finantzatzeko, Estatuak bi ekarpen egingo ditu; bata eragiketa arruntetarako, 2.855,00 mila eurokoa, eta bestea kapitaleko eragiketarako, 20,00 mila eurokoa. Halaber, Estatuaren ekarpenaren bidez finantzatuko dira Institutu horren gizarte-zerbitzuak, 13.452,83 mila euroko transferentzia arrunt baten bidez, eta kapital-eragiketarako 1.200,00 mila euroko transferentzia baten bidez.

## IV. KAPITULUA

**Gorte Nagusiei informazioa ematea**14. artikulua. *Gorte Nagusiei inbertsioei eta gastu publikoari buruzko informazioa ematea.*

Gobernuak, sei hilean behin, inbertsioaren egikaritze-mailari buruzko informazioa emango die Gorte Nagusiei Aurrekontu Bulegoaren bitartez, eta, egoki izanez gero, Estuari eta erakunde autonomoei dagokien lurralde-banaketaren arabera zehaztuko du informazio hori. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

## II. TITULUA

**Aurrekontu-kudeaketa**

## I. KAPITULUA

**Irakaskuntzako aurrekontuen kudeaketa**15. artikulua. *Itunpeko ikastetxeei laguntzeko funts publikoak banatzeko modulu ekonomikoa.*

Bat. Eskola-unitateko modulu ekonomikoaren zenbatekoa, itunpeko ikastetxeak sostengatzeko 2014ko funts publikoen zenbateko globala banatzeko, Lege honen IV. eranskinean finkatutakoa da, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege

Organikoaren 117. artikulua bigarren eta hirugarren paragrafoetan eta hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

116.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, 15.2 artikuluan adierazitakoarekin lotuta, Haur Hezkuntzako irakaskuntzetan itundutako unitateak lege honen IV. eranskinean zehaztutako modulu ekonomikoen arabera finantzatu dira.

Erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloak lege honen IV. eranskinean zehaztutako modulu ekonomikoen arabera finantzatu dira. Eskola-unitate bakoitzeko 30 ikasletik beherako ratioa izateko baimena duten lanbide-heziketako unitate itunduen beste gastu batzuetarako partidan, 0,015eko koefiziente murriztailea aplikatuko da dagokion baimenean gehieneko ikasle-kopurutik kentzen den ikasle bakoitzeko.

Erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloetan, Lantokiko Prestakuntzaren finantzaketa, ikasleen praktiken garapenean enpresek parte hartzeari dagokionez, ikastetxe publikoetarako ezarrita dagoen bezala egingo da.

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetarako itundutako unitateak lege honen IV. eranskinean zehaztutako modulu ekonomikoaren arabera finantzatu dira; hala ere, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetarako itunek izaera berezia izango dute.

Halaber, Batxilergoko irakaskuntza ematen duten unitate itunduak lege honen IV. eranskinean zehaztutako modulu ekonomikoaren arabera finantzatu dira.

Autonomia-erkidegoek egokitu ditzakete aipatu eranskinean xedatutako moduluak, ikasketa bakoitzarentzat ezarritako curriculumaren eskakizunak aintzat hartuta, baldin eta horrek ez badakar modulu horien zenbatekoak murriztea lege honetan finkatutako kopuru berezietan.

Irakasleen ordainsarietarako 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak, funts publikoekin guztiz edo zati batez sostengatuko Irakaskuntza Pribatuko Enpresen dagozkien Hitzarmen Kolektiboak, itunpeko ikastetxeetan hezkuntza-maila bakoitzari aplikatu beharrekoak, sinatzen diren egunari kalterik egin gabe. Administrazioak konturako ordainketak onartu ahal izango ditu dagokion hitzarmena sinatzen den arte, betiere enpresaburuen elkarte guztiek berariaz eta batera eskatuta eta aipatutako hitzarmen kolektiboak negoziatzen dituzten sindikatuak kontsulta eginda; konturako ordainketa horiek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak. «Beste gastu batzuk» moduluaren osagaiak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Irakasleen ordainsarietarako zehaztutako zenbatekoak, gizarte-kargak barne hartuta, zuzenean ordainduko ditu Administrazioak, irakasleen eta dagokion ikastetxearen titularraren arteko lan-harremanari kalterik egin gabe. «Gastu aldakorak» osatzen dituzten zenbatekoen banaketa itunen erregimena arautzeko xedapenetan ezarritakoaren arabera egingo da.

«Beste gastu batzuk» helburu dituen zenbatekoa hileroko ordainduko da, eta ikastetxeek, dagokion ekitaldi ekonomikoa amaitzean, ikastetxeko irakaskuntza itundu guztientzat batera justifikatu ahal izango dute haren aplikazioa. Erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloek 1.300 edo 1.400 orduko iraupena baldin badute, hezkuntza-administrazioek erabaki ahal izango dute bigarren ikasturteko beste gastu batzuen partida, IV. eranskineko moduluan zehaztutakoa, lehenengo ikasturtekoarekin batera ordaintzea, baina zenbateko globala handitu gabe.

Bi. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasturte guztietan unitate itunduak dituzten ikastetxeei finantzaketa emango zaie Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 23koak, 22.3 artikuluan adierazitako hezkuntza-orientazioko zerbitzuetarako. Hornidura hori kalkulatzeko, eginkizun horiek betetzeko profesional egoki baten lanaldia osoa hartuko da oinarritzat, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 25 unitate itunduko. Horrenbestez, ikastetxe itunduek profesional horri dagokion lanaldia jasotzeko eskubidea izango dute, itunduta duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako unitate kopuruaren arabera. Hezkuntza-administrazioek, beren eskumenen eremuan, eta xedagarri duten aurrekontuaren arabera, hezkuntza-orientazioko zerbitzuaren finantzaketa handitu ahal izango dute.

Hiru. Hezkuntza-administrazioek, beren eskumen-esparruan, itunaren xede den maila bakoitzean indarrean dagoen ikasketa-plana emateko irakasle/unitate itundu harreman egokiak finka ditzakete; horiek kalkulatzeko astean hogeita bost irakastordu dituen irakaslearen lanaldia hartuko da oinarritzat.

Administrazioak ez du onartuko ez ordainsarien gorakadarik, ez orduen murrizketarik, ez beste inolako egoerarik, halakoen ondorioz IV. eranskineko modulu ekonomikoetan aurreikusitakoa gainditzen bada.

Halaber, Administrazioak ez du onartuko hitzarmen kolektiboan finkatutako ordainsari-gorakadarik, irakaskuntza-maila desberdinetako irakaskuntza publikoko irakasleentzat xedatutako portzentajea baino handiagoa izanez gero, non eta Administrazioak ez duen berariaz baiesten eta horretarako aurrekontu-izendapena egiten, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, 117.4 artikuluan adierazitako pixkanakako parekatzearen mesedetan.

Lau. Hezkuntza-administrazioek, bere eskumenen barruan, ikastetxe itunduen irakaslea/unitatea harremanak handitu ditzakete Lege hau indarrean jarri arte hartu diren birkokatze neurriek eragindako eta une honetan ordainketa eskuordetuaren nominan dauden irakasleen kopuru osoaren arabera, bai eta irakaskuntzako taldeen pixkanakako sendotzearen arabera; hori guztia hezkuntza-itunen arloan indarrean dagoen araudiaren ondorioz ikastetxe itunduetan gertatzen diren unitate-aldaketei kalterik egin gabe.

Bost. Ikastetxe itunduei konpentsazio ekonomiko eta profesionalak emango zaizkie, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, 117.3 artikuluan adierazitako zuzendaritza-funtzioa gauzatzeko.

Sei. Irakaskuntza arautuetan, derrigorrezkoak ez diren irakaskuntza-mailetarako sinatutako itun berezien araubiderako esleitutako funts publikoen bidezko finantzaketaren osagarri, ikastetxeek ikasleengandik jaso ditzaketen gehienezko zenbatekoak hauek dira:

a) Goi-mailako heziketa-zikloak: 18 eta 36 euro bitartean ikasleko/hileko hamar hilabetez, 2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

b) Batxilergoa: 18 eta 36 euro bitartean ikasleko/hileko hamar hilabetez, 2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

Ikastetxeek ikasleei zenbateko horiek kobratzearen ondorioz lortutako finantzaketa Administrazioak «Beste gastu batzuk» finantzatzeko zuzenean emandako zenbatekoaren osagarri izango da.

2013an kuota horiek baino handiagoak kobratzeko baimena zuten ikastetxeek 2014an ere kuota berdinak kobratzen jarrai dezakete.

Administrazioak emandako zenbatekoa ezin izango da lege honen IV. eranskinean zehaztutako modulu ekonomikoetako «Beste gastu batzuk» osagaiari 3.606,08 euro kenduta geratzen den kopurua baino txikiagoa izan. Hezkuntza-administrazio eskudunek beharrezkoa den araudia ezarri ahal izango dute, horri dagokionez.

Zazpi. Irakaskuntza itunduaren finantzaketa Ceutan eta Melillan: Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, 117.3 artikuluan adierazitakoari jarraiki, ikastetxeek zuzendaritza-taldeak izan ditzaten, eta, lege horren beraren 22.3 artikuluan adierazitako hezkuntza-orientazioko zerbitzuen finantzaketa handitzearen, funtzio horietarako profesional egoki baten lanaldi osoaren baliokidea oinarri hartuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 16 unitate itunduko, Ceutako eta Melillako lurralde-eremuko eskola-unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren zenbatekoa lege honen V. eranskinean zehaztutakoa izango da.

Zortzi. Artikulu honetan xedatutakoa ikastetxe itundu guztien finantzaketan izango da aplikagarri –sexu bakarreko ikasleak eskolatzen dituzten hezkuntza bereizikoetan ere bai–, edozein dela ere ikastetxeek, beren eskumenen eremuan, ikasleak taldekatzeko erabiltzen duten eredu.

16. artikulua. *Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko (UNED) langileen kostuak baimentzea.*

Abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak, Unibertsitateei buruzkoak, lehen xedapen gehigarrian adierazitakoari jarraiki, eta lege honen III. tituluan ezarritakoari lotuta, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko (UNED) irakasleak (funtzionarioak eta kontratudunak) eta administrazioko eta zerbitzuetako langileak (funtzionarioak eta kontratu finkoa dutenak) ordaintzeko kostuak baimentzen dira 2014rako, lege honen IV. eranskinean esleitutako zenbatekoak kontuan hartuta.

## II. KAPITULUA

### Osasunaren eta Gizarte Zerbitzuen aurrekontuen kudeaketa

17. artikulua. *Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren eta Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren aurrekontuak aldatzeko berariazko eskumenak.*

Ogasuneko eta Herri Administrazioetako ministroak izango du Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren eta Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren aurrekontuetan honako aldaketa hauek egiteko baimena emateko eskumena:

1. Langileen gastuetan edota Aurrekontuen Lege Orokorraren 44. artikuluko Bi paragrafoan adierazitako gainerako aurrekontu-kredituetan eragina duten kreditu-transferentziak.
2. Aurrekontuen Lege Orokorraren 58. artikuluan araututako soberakin-eransketak.

18. artikulua. *Diruzaintzako soberakinak Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren aurrekontuan aplikatzea.*

Urte bakoitzeko abenduaren 31n Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren alde dauden soberakinak Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren gastu-aurrekontua finantzatzera bideratu ahal izango dira. Hurrengo ekitaldian egin daitezkeen aldaketak finantzatzeko ere erabili ahal izango dira.

Nolanahi ere, Estatuak 2013ko kotizazio gabeko erretiro- eta baliaezintasun-pentsioak finantzatzean dauden soberakinen ondorioz sor litezkeen diruzaintzako geldikinak, Gizarte Segurantzaren Kontu Hartzaitza Nagusiak ziurtatuak, kotizazio gabeko erretiro- eta baliaezintasun-pentsioei erantzuteko kredituetan gerta litezkeen gabeziak finantzatzeko baino ezin izango dira aplikatu 2014an.

## III. KAPITULUA

### Aurrekontuak kudeatzeko beste arau batzuk

19. artikulua. *Zerga Administrazioko Estatu Agentzia.*

Bat. Zerga-bilketaren likidazio- eta kudeaketa-ekintzetatik edota Zerga Administrazioko Estatu Agentziak erabakitako beste administrazio-ekintza batzuetatik 2014an lortutako bilketa gordinaren 100eko 5eko partaidetza-portzentajea izango du.

Bi. Abenduaren 27ko 31/1990 Legearen 103. artikulua (Bost.b) puntuaren laugarren lerrokadan xedatutako ondorioetarako, aipatutako partaidetzaren ondorioz Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren baliaibide-aldaketa Ogasuneko eta Herri Administrazioetako ministroak baimendu beharreko kreditu-sortzearen bidez bideratuko da. Haren zenbatekoa kalkulatzeko, aurreko puntuan adierazitako portzentajea aplikatuko da.

Hiru. Zerga-bilketaren likidazio- eta kudeaketa-ekintzetatik edota Zerga Administrazioko Estatu Agentziak erabakitako beste administrazio-ekintza batzuetatik

sortutako bilketa, 2013ko abenduko Estatuko Diru-sarreraren Aurrekontuari aplikatuta, kreditua sortu ahal izango du 2014rako Estatuko Aurrekontuko kontzeptu berean edo baliokide batean, artikuluko honen Bat atalean xedatutako portzentajearen, 1993ko martxoaren 4ko Aginduan xedatutako prozedurari jarraiki. Agindu horrek 39/1992 Legearen (1993rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legea) 97. artikulua garatzen du.

### III. TITULUA

#### Langile-gastuak

#### I. KAPITULUA

##### Sektore publikoaren zerbitzurako langileen gastuak

20. artikulua. *Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzurako langileen gastuen alorrean.*

Bat. Kapitulu honetan xedatutako ondorioetarako, honako hauek osatzen dute sektore publikoa:

- a) Estatuko Administrazio Orokorrek, bere erakunde autonomoek, estatu-agentziek eta haren eskumeneko unibertsitateek.
- b) Autonomia-erkidegoetako administrazioek, beren mendeko erakundeek eta haien eskumeneko unibertsitateek.
- c) Toki-korporazioek eta beren mendeko erakundeek.
- d) Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileek eta zerbitzu erkideek.
- e) Estatuko organo konstituzionalek, Konstituzioaren 72.1 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.
- f) Merkataritza-sozietate publikoek; hots, artikuluko honetan adierazitako administrazioen eta erakundeen aldetik ehuneko 50 baino gehiagoko partaidetza dutenak haien kapital sozialean, zuzenean edo zeharka.
- g) Enpresa-entitate publikoek eta Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko gainerako erakunde publiko eta entitateek.
- h) Sektore publikoko fundazioek eta sektore publikoa osatzen duten administrazio nahiz erakunde gehiengo partaidetza duten partzuergoek.
- i) Espainiako Bankuak, bere autonomiari buruzko 13/1994 Legeak, ekainaren 1ekoak, xedatutako baldintzetan.

Bi. 2014an, sektore publikoko langileen ordainsariak ezin izango dute inolako igoyerarik izan, 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziatzen hartuta, alderatutako bi aldiak homogeneoak izanik, bai langile-kopuruari, bai antzinakotasunari erreparatuta.

Hiru. 2014ko ekitaldian, artikuluko honen Bat paragrafoan adierazitako administrazio, erakunde eta sozietateek ezingo dute enplegu-planetarako ekarpenik egin, ez eta erretiroa estaltzen duten aseguru kolektiboen kontraturik ere.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa gorabehera, betiere erreferentziako administrazioaren soldata-masaren gehikuntzarik ez badago, Lege honetan xedatutako moduan, aipatutako administrazioek, erakundeek eta sozietateek aseguru kolektiboko kontratuak egin ahal izango dituzte, erretiroarenak ez diren gertakarien estaldura jasota. Halaber, eta administrazio horren soldata-masaren gehikuntzarik ezean, Lege honetan xedatutako moduan, pentsio-planetara edo erretiroko gertakaria barnean hartzen duten aseguru kolektiboko kontratuetarako ekarpenak egin ditzakete, betiere aipatutako plan edo aseguru-kontratu horiek 2011ko abenduaren 31 baino lehen izenpetu badira.

Lau. 2014an, ezin izango da kontratupeko langileen soldata-masa handitu. Soldata-masan, soldatako eta soldataz kanpoko ordainsariak sartzen dira, eta langile horiek 2013an eragindako gizarte-ekintzako gastuak, alderatutako bi aldiak homogeneoak izanik, eta artikuluko honen Bi paragrafoan xedatutakoa aintzat hartuta.



Nolanahi ere, honako hauek salbuespen izango dira:

- Gizarte Segurantzaren prestazioak eta kalte-ordainak.
- Enplegatzaileak Gizarte Segurantzako sistemara egindako kotizazioak.
- Lekualdatzei, etendurei edo kaleratzei dagozkien kalte-ordainak.
- Langileak egindako gastuengatiko kalte-ordainak edo ordezteak.

Bost. 1. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 76. artikulua aplikagarri zaien funtzionarioek, abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan jasota badaude aipatutako Oinarrizko Estatutu horren azken xedapenetako laugarrenean edo berau garatzeko emandako Funtzio Publikoari buruzko Legeetan xedatutako moduan, soldata eta hirurtekoen kontzeptuan, 2014ko urtarriletik abendura arteko nomina aruntetan, ondoren adierazitako zenbatekoak jasoko dituzte hamabi hilerokotan:

Taldea/Azpitaldea, 7/2007 Legea	Soldata, eurotan	Hirurtekoak, eurotan
A1	13.308,60	511,80
A2	11.507,76	417,24
B	10.059,24	366,24
C1	8.640,24	315,72
C2	7.191,00	214,80
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (7/2007 Legea)	6.581,64	161,64

2. Aurreko puntuan adierazitako funtzionarioek ondorengo zenbateko hauek jasoko dituzte 2014ko ekaineko eta abenduko aparteko ordainsari bakoitzean, soldata eta hirurteko gisa:

Taldea/Azpitaldea, 7/2007 Legea	Soldata, eurotan	Hirurtekoak, eurotan
A1	684,36	26,31
A2	699,38	25,35
B	724,50	26,38
C1	622,30	22,73
C2	593,79	17,73
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (7/2007 Legea)	548,47	13,47

Sei. Aurreko paragrafoan xedatutako helburuetarako, funtzionario publikoek jaso beharreko ordainsariak, 2007rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea onetsi arte, Funtzio Publikoaren Erreformatarako Neurriei buruzko 30/1984 Legeak, abuztuaren 2koak, 25. artikuluan xedatutako titulazio-taldean arabera erabakitzen ziren. Harrezkero, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Legeak, apirilaren 12koak, 76. artikuluan eta hirugarren xedapen iragankorrean ezarritako lanbide-sailkapeneko talde eta azpitaldeak hartzen ditu oinarri, lege honen bidez egindako aldaketekin. Bi sailkapen-sistema horien arteko baliokidetasunak hauek dira:

- A taldea (30/1984 Legea): A1 azpitaldea (7/2007 Legea).
- B taldea (30/1984 Legea): A2 azpitaldea (7/2007 Legea).
- C taldea (30/1984 Legea): C1 azpitaldea (7/2007 Legea).
- D taldea (30/1984 Legea): C2 azpitaldea (7/2007 Legea).
- E taldea (30/1984 Legea): Profesionalen multzoak (7/2007 Legea).

Zazpi. Aurreko paragrafoetan xedatutakoak ez dio kalterik egingo ohiz kanpoko kasuetan ordainsarietan egokitzapenak egiteari, beharrezko direnean lanpostuen edukiagatik, programa bakoitzari esleitutako langile kopuruen aldaketagatik, edo programarako finkatutako helburuen lortze-mailagatik.

Zortzi. Ordainsarien gorakada dakarten akordio, hitzarmen edo itunak egokitu egin beharko dira; edonolako gorakada ezartzen duten klausulak ezin izango dira aplikatu.

Bederatzi. Lege honetan ordainsariei aipamena egiten zaien guztietan, ordainsari osoei egiten zaie.

Hamar. Artikulu honetan ezarritako mugak sektore publikoko langileen merkataritza-kontratuen ordainsariei aplikatuko zaizkie.

Hamaika. Artikulu honek oinarritzko izaera du, eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean emana dago. Gainera, Hiru paragrafoa Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 29. artikuluan xedatutakoa aplikatuz eman da.

21. artikulua. *Enplegu publikorako eskaintza edo langile-beharrari erantzuteko antzeko kudeaketa-tresna.*

Bat. 1. 2014ko ekitaldian ez da langile berririk sartuko aurreko artikuluan mugatutako sektore publikoan, merkataritza-sozietate publikoetan izan ezik (Lege honen hogeigarren xedapen gehigarrian eta Estatuko Konstituzio Organoek xedatutakoaren arabera zuzenduko dira horiek), betiere aurreko ekitaldietako lan-eskaintza publikoei dagozkien hautatze-prozesuaren ondorioz gertatutako sarrerak ez badira edo hamahirugarren xedapen gehigarrian finkatutako kopurura iristeko behar diren soldadutzako eta marineltzako militar profesionalen plazak ez badira.

Aurreko lerrokan jasotako mugak eragina du Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren laugarren xedapen iragankorrean aurreikusitako finkatze-prozesuetan dauden lanpostuetan.

2. Betiere I. kapituluan gastu-aurrekontuetarako xedatutako aurrekontu erabilgarriak errespetatuz, aurreko paragrafoan adierazitako muga ez da aplikatuko honako sektore eta administrazio hauetan, horietan birjarpen-tasa gehienez ere ehuneko 10 izango baita:

A) Herri-administrazioetan, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa garatzeko hezkuntza-eskumenak badituzte, hezkuntzako funtzionarioen kidegoetan sartzeko plaza kopurua ezartzeari dagokionean.

B) Osasun alorreko eskumenak dituzten herri-administrazioetan, Osasun Sistema Nazonaleko ospitaleetako eta osasun-zentroetako lanpostuei dagokienez.

C) Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetan, lurraldean polizia-kidego autonomoak dituzten autonomia-erkidegoetan, eta, Toki Administrazioaren esparruan, udaltzaingoetako langileetan, lanpostu horiek betetzeari dagokionez.

Udaltzaingoan lanpostuei dagokienez, toki-erakundeak birjartze-tasaren ehuneko 100era iritsi ahal izango dira, ez badituzte gaintzen toki-ogasunen araudiak edo, bere kasuan, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak zorpetze-eragiketak baimentzeko ezarritako mugak. Gainera, egonkortasun-printzipioa bete beharko dute aurreko ekitaldiko aurrekontua eta indarrean dagoen aurrekontua likidatzean. Printzipio hori Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 11.4 artikuluan dago jasota. Indarrean dagoen aurrekontuari dagokionez, toki-erakundeetako osoko bilkurek plan ekonomiko-finantzario bat onartu beharko dute; bertan, xedapen honetan aipatutako neurria jaso beharko dute, eta, era berean, adierazi beharko dute aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa betetzen dutela. Dagokion toki-erakundeak, lanpostuen deialdia egin baino lehen, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren aurrean egiaztatu beharko du lerrokada honetan adierazitakoa.

D) Indar Armatuetan, karrerako militarren eta militar osagarrien lanpostuei dagokienez, Karrera Militarari buruzko azaroaren 19ko 39/2007 Legean xedatutakoaren arabera.

E) Herri Administrazioetan, zergen, lanaren, diru-laguntza publikoen nahiz Gizarte Segurantzaren arloetako iruzurra kontrolatzeko eta horren aurka borrokatzeko, bai eta baliabide publikoen esleipen eraginkorra kontrolatzeko ere.

F) Herri Administrazioetan, baliabide publikoen aholkularitza juridikoari eta kudeaketari dagokionez.

G) Justizia Administrazioan eta Estatuaren Kanpo Harremanetan.

H) Herri Administrazioetan, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuetako lanpostuak betetzeari dagokionez.

Prebentzio, Su Itzalketa, eta Salbamendu Zerbitzuko lanpostuei dagokienez, toki-erakundeak birjartze-tasaren ehuneko ehunera iritsi ahal izango dira, ez badituzte gainditzen toki-ogasunen araudiak edo, bere kasuan, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak zorpetze-eragiketak baimentzeko ezarritako mugak. Gainera, egonkortasun-printzipioa bete beharko dute aurreko ekitaldiko aurrekontua eta indarrean dagoen aurrekontua likidatzean. Printzipio hori Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 11.4 artikuluan dago jasota. Indarrean dagoen aurrekontuari dagokionez, toki-erakundeetako osoko bilkurek plan ekonomiko-finantzario bat onartu beharko dute; bertan, xedapen honetan aipatutako neurria jaso beharko dute, eta, era berean, adierazi beharko dute aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa betetzen dutela. Dagokion toki-erakundeak, lanpostuen deialdia egin baino lehen, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren aurrean egiaztatu beharko du lerrokada honetan adierazitakoa.

I) Herri Administrazioetan, Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legean zehaztutako ikerketa-erakunde publikoetako ikertzaile doktoreen lanpostuei dagokionez.

Aurreikuspen hori unibertsitateetako ikertzaileen kidegoetako lanpostuei ere aplikatuko zaie, baldin eta haien ardura duten herri-administrazioek deialdiak baimentzen badituzte, eta aldeztu aurretik egiaztatzen badute lanpostu horiek betetzeko antolatutako enplegu publikoaren eskaintzak ez diela kalterik egiten dagokion unibertsitateerako ezarritako aurrekontu-egonkortasunerako helburuak betetzeari, ez eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoan, apirilaren 27an, ezarritako mugei ere.

Salbuespenez, eta aurreko lerrokadan ezarritako eskakizunak bete ondoren, Unibertsitateetako ikertzaileen kidegoei, hau da, Unibertsitateko Katedradunen Kidegoari eta Unibertsitateko Irakasle Titularren Kidegoari dagokien ehuneko 10eko birjarpen-tasaren muga aplikatzearen ondoriozko plaza batzuk, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 56. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, irakasle kontratatu doktore gisa sartzeko eskaini ahal izango dira aipatutako Lege Organikoaren 52. artikuluan xedatutako moduan.

J) Herri Administrazioetan, balore-merkatuak eta horietan parte hartzen dutenak ikuskatzeari eta ikertzeari dagokionez.

K) Aire-segurtasunari dagozkion plazetan, aire-segurtasuna eta hegaldiak ikuskatzen eta ikertzen dituzten langileei dagokionez; itsas segurtasunarekin lotutako langileen plazetan, itsas salbamendu eta prebentzioko lana eta itsas kutsaduraren aurkako borroka egiten dutenean.

L) Espetxe Administrazioan.

M) Segurtasun Nuklearerako Kontseiluan, instalazio erradiaktibo eta nuklearrak zuzendu, aztertu eta ebaluatu, ikuskatu eta kontrolatzeko eginkizunak egiten dituzten Segurtasun Nuklear eta Babes Erradiologikorako Kidegoko goi-eskalako funtzionarioen plazei dagokionez.

3. Birjartze-tasa kalkulatzeko, aurreko paragrafoan aipatutako gehieneko ehunekoa aplikatuko da bi hauen arteko aldeari: 2013ko aurrekontu-ekitaldian aurreko paragrafoan aurreikusitako sektore, eremu, kidego edo kategoria bakoitzean zerbitzuak emateari utzi dioten langile finkoen kopurua, batetik, eta horrelakoetan aipatutako ekitaldian sartu diren langile finkoen kopurua, bestetik; lan-eskaintza publikotik datozenak edo lanpostuak erreserbatzea ez dakarten egoeretatik itzuli direnak kontuan hartu gabe, betiere. Ondorio

horietarako, zerbitzu-prestazioa honako arrazoi hauek direla-eta uztea hartuko da kontuan: erretiroa, heriotza, uko egitea, lanpostua erreserbatu gabeko eszedentzia-egoeran deklaratzeko, karrerako funtzionarioko izaera galtzea edo lan-kontratua amaitzea, edota lanpostua erreserbatzea edo lanpostua uzten den administrazioaren aldetik ordainsariak jasotzea ez dakarren beste edozer administrazio-egoera.

Barne-sustapeneko prozesuen bidez betetzeko deitzen diren plazak ez dira kontuan hartuko birjartze-tasak ekarritako plazen gehieneko mugaren barruan.

Bi. 2014an ez da aldi baterako langilerik kontratatuko, eta ez da izendatuko aldi baterako estatutu-langilerik, ez eta bitarteko funtzionarioik, salbuespenezko kasuetan izan ezik, urgentziatzeko premia atzeraezinak betetzeko, lehentasunezkoztat jotzen diren edota funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduan eragiten duten sektore, funtzio eta kategoria profesionaletan soilik.

Salbuespen gisa eta 2014rako, 25 plaza baimendu dira Ikerketako erakunde publikoentzat, langile ikertzaile doktoreak, 13 ziurtagiria dutenak, ikertzaile bikaineko modalitatean erakunde horietan kontratupeko langile finko gisa kontratatuzeko, betiere plaza horien lan-eskaintza publikoak Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoan, apirilaren 27an jarritako mugei eragiten ez badie, eta edozelan ere, aipatutako erakunde eta unibertsitate horiei dagozkien gastu-aurrekontuen I. kapituluko aurrekontu-baliabideak errespetatuta.

Hiru. Artikulu honen Bat.2 paragrafoan adierazitako enplegu publikoaren eskaintza, Estatuko Administrazio Orokorraren, bere organismo publikoen edota Estatuko gainerako erakunde publikoen esku dagoenean, Gobernuak onartu beharko du, eskumena duten sailek edo erakundeek hala eskatzen diotenean, eta Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren proposamenari jarraiki. Horrelakoetan, sektore bakoitzari dagokion birjartze-tasa aplikatzearen ondoriozko lanpostuak pila daitezela proposatu ahal izango da lehentasunezkoak diren kidego edo eskalatan, edota funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduari eragiten diotenenetan. Indar Armaturen kasuan, onetsi aurretik, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren txostena beharko da, eta Defentsako ministroak egin beharko du proposamena. Kasu guztietan, langileen kostuetan izango duen eraginari buruzko alde aurreko balioespina eta txostena beharko dira.

2014an, ez da baimenik emango enpresa-entitate publikoetan eta Estatuko sektore publikoko erakundeetan kontratupeko langileentzako deialdiak egiteko edo hutsik dauden lanpostuak betetzeko, salbuespenezko kasuetan izan ezik, urgentziatzeko premia atzeraezinak estaltzeko; halako kasuetan, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren berriarazo eta aurrearazo baimena jaso beharko da, Aurrekontu eta Gastuetako eta Herri Administrazioetarako Estatu Idazkaritzaren bitartez. Bestalde, sektore publikoan diren giza baliabideak optimizatzeko asmoz, bi Estatu Idazkaritzek Estatuko sektore publikoko sail edo erakunde publikoetan xedea duten funtzionarioak edota kontratupeko langile finkoak kontratatuzeko baimena eman ahal izango diete enpresa-entitate publikoei eta erakunde publikoei. Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak zehaztuko du halako kontratazioetan zein prozedura jarraituko den, publikizitatea eta lehia askea bermatzeko.

Lau. Aldi baterako kontratupeko langileak kontratatuzeko eta bitarteko funtzionarioak nahiz aldi baterako estatutu-langileak izendatzeko, artikulu honen Bi paragrafoan xedatutako baldintzetan, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren alde aurreko baimena beharko da.

Halaber, aldi baterako laneko enpresekin eskura jartzeko kontratuak artikulu honen Bi paragrafoan adierazitako baldintzetan soilik egin ahal izango dira, eta Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren alde aurreko baimena beharko da.

Atzerrian langile finkoak edo aldi baterakoak kontratatuzeko, tokiko legediaren arabera edota, hala badagokio, Espainiako legediaren arabera, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren alde aurreko baimena beharko da.

Bost. Artikulu honen Bat.2 paragrafoan jasotako baimena baliozkoa izan dadin, Bat.3 paragrafoan zehaztutako birjarpen-tasa aplikatzearen ondoriozko plazak lan-eskaintza publiko batean jasota egon beharko dira, eta berau, apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 70. artikuluan 2 paragrafoan ezarritakoaren arabera, herri-administrazioen dagokien

gobernu-organoek onartu beharko dute; horretaz gain, autonomia-erkidegoko edo, hala dagokionean, Estatuko aldizkari ofizialean ere argitaratu beharko da 2014 amaitu aurretik.

Artikulu honen Bat.2 paragrafoan jasotako baimena baliozkoa izan dadin, halaber, plazen deialdia, autonomia-erkidegoko edo, hala badagokio, Estatuko aldizkari ofizialean argitaratuta, hiru urteko epe luzaezinean egin beharko da, aipatutako plaza horiek jasotzen dituen lan-eskaintza publikoa argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuta, aurreko lerrokadan ezarritako baldintzekin, apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 70. artikulua 1 paragrafoan xedatutakoaren arabera.

Sei. Artikulu honetako Bat, Bi eta Bost paragrafoek oinarrizko izaera dute, eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean eman dira.

## II. KAPITULUA

### Ordainsarien araubideak

22. artikulua. *Estatuko Gobernuko, haren organo aholku-emaileetako eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen nahiz zuzendaritzako beste langile batzuen ordainsariak.*

Bat. 2014an, Estatuko Gobernuko eta haren organo aholku-emaileetako goi-kargudunen ordainsariak ez dute gorakadarik izango 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko; horrenbestez, hamabi hilabeteri dagozkien ondorengo zenbateko hauek jasoko dituzte –ez dute aparteko ordainsariak jasotzeko eskubiderik izango, baina bai indarrean dagoen araudiaren arabera dagozkien antzintasun-ordainsaria–:

	Eurotan
Gobernuko presidentea . . . . .	78.185,04
Gobernuko presidenteordea . . . . .	73.486,32
Gobernuko ministroa . . . . .	68.981,88
Estatu Kontseiluko presidentea . . . . .	77.808,96
Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko presidentea . . . . .	85.004,28

Bi. 2014an, estatu-idazkarien, idazkariordeen, zuzendari nagusien eta parekoen ordainsariak ez dute gorakadarik izango 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko; horrenbestez, hamabi hilabeteri dagozkien honako soldata eta lanpostu-osagarri hauek jasoko dituzte, eta urteko berariazko osagarria emango zaie, 2008rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 26ko 51/2007 Legearen 26.Bi artikuluan xedatutakoari jarraiki.

	Estatu-idazkaria eta parekoak (eurotan)	Idazkariordeak eta parekoak (eurotan)	Zuzendari nagusia eta parekoak (eurotan)
Soldata	12.990,72	13.054,68	13.117,44
Lanpostu-osagarria	21.115,92	17.080,44	13.814,76
Berariazko osagarria	32.948,67	29.316,27	23.900,13

Ekaineko eta abenduko aparteko ordainsarietako bakoitzean, aurreko lerrokadaren eta koadroaren arabera jasoko dituzten hileko lanpostu-osagarriaren zenbatekoen gain, ondorengo koadroan soldata gisa zehaztutako zenbatekoa ere jasoko dute:

	Estatu-idazkaria eta parekoak (eurotan)	Idazkariordeak eta parekoak (eurotan)	Zuzendari nagusia eta parekoak (eurotan)
Soldata . . . . .	655,84	703,38	751,45

Goi-kargudun horietako bakoitzak saileko titularrak esleitutako produktibitate-osagarria jasoko du, hala badagokio, lege honek 24.Bat.E artikuluan xedatutakoaren arabera, horretarako aurreikusitako kredituen barruan. Goi-kargudunei esleitutako zenbatekoak ez du gorakadarik izango, karguen kopuruari eta motari begira, 2013ko abenduaren 31n zeukatenarekiko; nolahi ere, ordainduko diren banakako zenbatekoak desberdinak izan ahalko dira, osagarri hori arautzen duen araudiari jarraiki.

Hiru. 2014an, honako kargu hauek ez dute ordainsarian gorakadarik izango 2013ko abenduaren 31n zutenarekiko: estatu-agentzietako presidentee; enpresa-entitate publikoetako eta gainerako erakunde publikoetako presidente eta presidenteordeek; eta, hala badagokio, aipatutako erakundeetako zuzendari nagusiek eta zuzendariek, maila goreneko funtzio betearazleak gauzatzea baldin badagokie. Ogasuneko eta Herri Administrazioetako ministroari dagokio ordainsari horiek finkatzea. Ordainsari horiek ezin izango dituzte gainditu martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuak, enpresa-sektore publikoko eta beste entitate batzuetako arduradun eta zuzendari nagusien ordainsari-arabidea jasotzen duenak, eta hura aplikatzeko emandako aginduek, xedatutako gehienezko mugak.

Estatuko sektore publikoko fundazioen eta gehienbat Estatuko Administrazio Orokorraren eta haren erakundeen partaidetza duten partzuergoen arduradun gorenen ordainsariak finkatuko dira martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuak, enpresa-sektore publikoko eta beste entitate batzuetako arduradun eta zuzendari nagusien ordainsari-sistema arautzen duenak, eta hura aplikatzeko emandako aginduek xedatutakoaren arabera, eta ezingo dute inolako gehikuntzarik izan, 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziatzen hartuta.

Lau. Artikulu honen Bi eta Hiru paragrafoetan xedatutakoak ez dio eragingo indarrean dagoen araudiaren arabera legokiekeen antzintasun-ordainsaria hamalau hilabete-saritan jasotzeari.

Bost. 1. 2014an, Estatu Kontseiluko aholkulari iraunkorren eta idazkari nagusiaren ordainsariak ez dute gora egingo, 2013ko abenduaren 31an indarrean zeudenak erreferentziatzen hartuta; horrenbestez, honako soldata eta lanpostu-osagarri hauek ezartzen dira, hamabi hilabete-sari kontuan hartuta, eta urteko berariazko osagarria emango da, abenduaren 26ko 51/2007 Legeak, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak, 26.Lau.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki:

	Eurotan
Soldata . . . . .	13.054,68
Lanpostu-mailako osagarria . . . . .	22.817,28
Osagarri espezifikoa . . . . .	35.521,60

Ekaineko eta abenduko aparteko ordainsarietako bakoitzean, aurreko taularen arabera jasoko dituzten hileko lanpostu-osagarriaren zenbatekoek gain, ondorengo taulan soldata gisa zehaztutako zenbatekoa ere jasoko dute:

	Eurotan
Soldata . . . . .	703,38

2. Estatuko Kontseiluko presidentee produktibitate-osagarria esleitu ahal izango die bertako kide iraunkorrei eta idazkari nagusiari, lege honen 24.Bat.E) artikuluan xedatutakoari jarraiki. Kargu horietarako xedatutako zenbatekoak ez du gorakadarik izango, karguen kopuruari eta motari dagokionez, 2013ko abenduaren 31n esleitura zegoenarekiko.

3. Goi-kargudun horiek, gainera, organoak berak antzintasuna egokitzeko onartutako akordioetan finkatutako ordainsariak jasoko dituzte, hala badagokie. Aldez aurretik funtzionario publiko izan badira –funtzionario gisa aktiboan edota erretiratuta egoteari erreparatu gabe–, egoera hartan aitortu zitzaizkien hirurtekoak jasotzen

jarraitzeko eskubidea izango dute, kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudiari jarraiki; eta araudi horren arabera zenbatekoa handiagoa izanez gero aipatutako akordioetan onetsitakoa baino, diferentzia hori jasotzeko eskubidea izango dute, hamalau hilabete-saritan.

23. artikulua. *Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko, Konstituzio Auzitegiko eta Kontuen Auzitegiko kideen ordainsariak.*

Bat. 2014an, indarrean jarraituko dute Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko, Konstituzio Auzitegiko eta Kontuen Auzitegiko kideentzat 2013ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak. Ondorengo koadroan, aipatutako zenbatekoak ageri dira, urteko kopuruetan adierazita:

1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

1.1 Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentea:

Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa) . . . . .	26.448,38 €;
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak) . . . . .	103.704,24 €;
OROTARA. . . . .	130.152,62 €;

1.2 Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kidea:

Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa) . . . . .	28.004,20 €;
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak) . . . . .	84.245,40 €;
OROTARA. . . . .	112.249,60 €;

1.3 Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko idazkari nagusia:

Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa) . . . . .	26.825,40 €;
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak) . . . . .	82.836,60 €;
OROTARA. . . . .	109.662,00 €;

2. Konstituzio Auzitegia.

2.1 Konstituzio Auzitegiko presidentea:

Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa) . . . . .	41.428,10 €;
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak) . . . . .	87.843,36 €;
OROTARA. . . . .	129.271,46 €;

2.2 Konstituzio Auzitegiko presidenteordea:

Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa) . . . . .	41.428,10 €;
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak) . . . . .	80.437,68 €;
OROTARA. . . . .	121.865,78 €;

2.3 Konstituzio Auzitegiko ataleko presidentea:

Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa) . . . . .	41.428,10 €;
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak) . . . . .	74.764,80 €;
OROTARA. . . . .	116.192,90 €;

## 2.4 Konstituzio Auzitegiko magistratua:

Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa) . . . . .	41.428,10 €;
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak) . . . . .	69.091,92 €;
OROTARA . . . . .	110.520,02 €;

## 2.5 Konstituzio Auzitegiko idazkari nagusia:

Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa) . . . . .	34.620,04 €;
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak) . . . . .	62.023,56 €;
OROTARA . . . . .	96.643,60 €;

## 3. Kontuen Auzitegia.

## 3.1 Kontuen Auzitegiko presidentea:

Urteko ordainsariak (14 hilabete-saritan jasotzekoak) . . . . .	112.578,34 €;
---	---------------

## 3.2 Kontuen Auzitegiko ataleko presidentea:

Urteko ordainsariak (14 hilabete-saritan jasotzekoak) . . . . .	112.578,34 €;
---	---------------

## 3.3 Kontuen Auzitegiko kontu-aholkularia:

Urteko ordainsariak (14 hilabete-saritan jasotzekoak) . . . . .	112.578,34 €;
---	---------------

## 3.4 Kontuen Auzitegiko idazkari nagusia:

Urteko ordainsariak (14 hilabete-saritan jasotzekoak) . . . . .	96.921,72 €;
---	--------------

Bi. Kargudun horiek, gainera, organoak berak antzintasuna egokitzeko onartutako akordioetan finkatutako ordainsariak jasoko dituzte, hala badagokie. Aldez aurretik funtzionario publiko izan badira –funtzionario gisa aktiboan edota erretiratuta egoteari erreparatu gabe–, egoera hartan aitortu zitzaizkien hirurtekoak jasotzen jarraitzeko eskubidea izango dute, kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudiari jarraiki; eta araudi horren arabera zenbatekoa handiagoa izanez gero aipatutako akordioetan onetsitakoa baino, diferentzia hori jasotzeko eskubidea izango dute, hamalau hilabete-saritan.

24. artikulua. *Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan dauden Estatuko funtzionarioen ordainsariak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen azken xedapenetako laugarrenean adierazitakoaren arabera.*

Bat. 2014an, funtzionarioen ordainsariak honako hauek izango dira:

A) Funtzionarioari dagokion kidego edo eskala sailkatuta dagoen taldeari edo azpitaldeari dagozkion soldata eta hirurtekoak, lege honen 20.Bost.1 artikuluan adierazitako zenbatekoetan.

B) Aparteko ordainsariak –urtean bi izango dira: bata ekainean eta bestea abenduaren–, 1988rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren 33/1987 Legeak, abenduaren 23koak, 33. artikuluan xedatutakoaren arabera emango direnak. Aparteko ordainsari horietako bakoitzak barne hartuko ditu lege honen 20.Bost.2 artikuluan finkatutako soldataren eta hirurtekoen zenbatekoak, bai eta lanpostu-osagarriarena ere.



Funtzionarioek lanaldi murriztua izan badute ekainaren edo abenduaren aurreko sei hilabeteetan, aparteko ordainsariaren zenbatekoa ere proportzio berean murriztuko da.

C) Betetzen den lanpostuari dagokion lanpostu-osagarria, honako zenbateko hauen arabera, hamabi hilabete-saritan:

Maila	Zenbatekoa – Eurotan
30	11.625,00
29	10.427,16
28	9.988,80
27	9.550,20
26	8.378,40
25	7.433,64
24	6.995,04
23	6.556,92
22	6.118,08
21	5.680,20
20	5.276,40
19	5.007,00
18	4.737,48
17	4.467,96
16	4.199,16
15	3.929,28
14	3.660,12
13	3.390,36
12	3.120,84
11	2.851,44
10	2.582,28
9	2.447,64
8	2.312,52
7	2.178,00
6	2.043,24
5	1.908,48
4	1.706,52
3	1.505,04
2	1.302,84
1	1.101,00

Unibertsitateko irakaskuntzaren eremuan, aurreko eskalan finkatutako lanpostu-osagarria aldatu egin ahal izango da, egoki izanez gero, indarrean dagoen araudiaren arabera; nolana ere, horrek ez du aldaketarik eragingo lanpostuari esleitutako lanpostu-osagarriaren mailan.

D) Betetzen den lanpostuari esleitutako berariazko osagarria, halakorik balego. Osagarri horren urteko zenbatekoak ez du gehikuntzarik izango, 2013ko abenduaren 31n indarrean zegoena erreferentziatzat hartuta, lege honen 20.Zazpi artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Urteko berariazko osagarria hamalau ordainsari berdinetan jasoko da; horietako hamabi hiler jasoko dira, eta bi gehigarri, hilekoaren zenbateko berdinekoak, ekainean eta abenduan.

Funtzionario publikoek lanpostu-osagarriaren eta berariazko osagarriaren kontzeptuan jasotzen dituzten ordainsariak, edozelan ere, indarreko araudian aurreikusitako prozeduren arabera betetzen duten lanpostuari dagozkionak izango dira, eta egiten dituzten zeregin zehatzek ezin dute aurrekoa ez betetzea ekarri, aipatutako araudiak bestelako zenbatekoak onartzen dizkien kasuetan izan ezik; eta, nolana ere, 30/1984

Legearen 21.2 artikuluan araututako lanpostu-mailaren bermeari zein dagozkion zenbatekoak jasotzeko eskubideari kalterik egin gabe, 1991erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 31/1990 Legearen 33.Bi artikulua aplikatuta.

E) Produktibitate-osagarria, lanpostuetan jardutean errendimendu berezia, aparteko jarduera eta arduraldia, eta interesa edo ekimena saritzeko.

Ministerio-sail bakoitzak erabakiko du, erabil dezakeen guztirako kredituaren barruan –urteko guztirako horrek ez du gorakadarik izango 2013ko abenduaren 31koarekiko–, eremu organikoen, lurraldeen, funtzioen edo lanpostu-motaren arabera esleituko dituen zenbateko partzialak. Halaber, produktibitate-osagarriaren banakako zenbatekoak banatzeko eta finkatzeko irizpideak ezarriko ditu, arau hauek aintzat hartuta:

1. Produktibitatea balioestean, lanpostu-motari eta jardunari lotutako baldintza objektiboak hartu beharko dira aintzat, eta, egoki izanez gero, dagokion programari esleitutako emaitzak edo helburuak lortzean izandako parte-hartze maila.

2. Produktibitate-osagarri gisa aldi baterako esleitutako zenbatekoek ez dute inola ere banako eskubiderik sortuko ondorengo aldietarako balioespenetan edo balioigoeretan.

F) Ohiz kanpoko zerbitzuengatik haborokinak, ministerio-sailek edo erakunde publikoek emango dituztenak, esleitutako kredituen barruan, 2013ko abenduaren 31n esleituta zeudenak ez gainditzea helburu hartuta.

Haborokin horiek ohiz kanpokoak izango dira, ohiko lanalditik kanpo emandako aparteko zerbitzuengatik soilik eman ahal izango dira, eta inola ere ezingo dira finkoak izan, zenbatekoari eta aldizkakotasunari dagokienez, eta ezingo dute ondorengo aldietarako banakako eskubiderik eragin.

G) Mantendu egingo dira 7/2007 Legean adierazitako E taldea/profesionalen multzoa taldeari dagozkion ordainsariak, maila pertsonalean, 26/2009 Legearen 24. Bat.B).b) artikuluan xedatutakoari jarraiki; ordainsari horien zenbatekoak 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenak izango dira.

Bi. Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak aldatu egin ahal izango du produktibitate-osagarriari, ohiz kanpoko zerbitzuengatik haborokinei eta errendimendua sustatzeari dagokien kreditu globalen zenbatekoa, programa bakoitzari esleitutako langile kopuruari eta helburuen lorpen-mailari egokitzeko. Ministerio-sailek sustagarri horiek esleitzeko irizpideen eta banakako zenbatekoen berri emango diote Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioari, aplikatutako irizpideak zehaztuta.

Hiru. Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen aplikazio-eremuan dauden bitarteko funtzionarioek bitarteko gisa izendatuta dauden kidegoa edo eskala sailkatuta dagoen taldeari edo azpitaldeari dagozkion oinarrizko ordainsariak jasoko dituzte, hiru urtekoak barne hartuta, bai eta betetzen duten lanpostuari dagozkion ordainsari osagarriak ere, karrerako funtzionario izateari lotutakoak izan ezik, edota Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak onetsitakoak, lanposturik betetzen ez duten bitarteko funtzionarioen kasuan. Kolektibo horri artikuluko honen Bat paragrafoko B) lerrokadan xedatutakoa aplikatuko zaio.

Lau. Aldi baterako langileek Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak haien funtzioak sailkatzean berdintzat jotako talde edo azpitaldeari dagozkion soldadak eta aparteko ordainsariak jasoko dituzte, eta aldi baterako langileentzat gordetako lanpostuari dagozkion ordainsari osagarriak. Kolektibo horri artikuluko honen Bat paragrafoko B) lerrokadan xedatutakoa aplikatuko zaio.

Aktiboan edo zerbitzu berezietan dauden karrerako funtzionarioek betetzen badituzte aldi baterako langileentzat gordetako lanpostuak, haien sailkapeneko taldeari edo azpitaldeari dagozkion oinarrizko ordainsariak jasoko dituzte, hiru urtekoak barne hartuta, bai eta betetzen duten lanpostuari dagozkion ordainsari osagarriak ere.

Bost. Produktibitate-osagarria esleitu ahal izango zaie, egoki izanez gero, bitarteko funtzionarioei, denboraldi baterako estatutu-langileei eta aldi baterako langileei, bai eta praktikak egiten ari diren funtzionarioei ere, praktika horiek egitean lanpostu bat betetzen

badute, baldin eta baimenduta badago lanpostu berdinak betetzen dituzten karrerako funtzionarioei aplikatzea, osagarri hori karrerako funtzionario izateari lotuta dagoen kasuetan izan ezik.

Sei. Baldin eta praktiketako funtzionarioen izendapena sartu nahi dena baino titulazio txikiagoa duen beste kidego bateko edo talde edo azpitaldeen eskala bateko karrerako funtzionarioei egiten bazaie, praktikaldiari edo hautatzeko ikastaroari dagokion denboran, betetzen dituzten hirurtekoak jasoko dituzte horiek oraindik, eta aldi hori, hirurtekoak betetzeko eta eskubide pasiboetarako, kidego edo eskala berrian betetakotzat hartuko da, betiere amaieran azken horietan karrerako funtzionario benetan bilakatuz gero.

Zazpi. Lege honetan xedatutakoa atzerrian diharduten funtzionarioen ordainsariei ere aplikatuko zaie –Estatuko lurraldean eurotan jasoko luketenari–, indarrean dagoen araudiaren arabera moduluak aplikatzeari kalterik egin gabe.

#### 25. artikulua. *Estatuko sektore publikoko kontratupeko langileak.*

Bat. Lege honen ondorioetarako, Estatuko sektore publikoan diharduten kontratupeko langileen soldata-masa legearen 20.Lau artikuluan zehaztutakoa izango da. Soldata-masa horrek Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako ezarritako muga errespetatu beharko du.

Bi. 2014ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Estatuko sektore publikoan diharduten kontratupeko langileen soldata-masak ez du igoerarik izango, Lege honen 20.Bi artikuluan xedatutakoaren arabera; betiere ministerio-sailei, erakunde publikoei, gainerako entitate publikoei, Estatuko merkataritza-sozietateei, Estatuko sektore publikoko fundazioei eta Estatuko sektore publikoa osatzen duten administrazioen eta erakundeen gehiengo partaidetza duten partzuergoei esleitutako helburuak betetzeagatik etor litekeenari kalte egin gabe, produktibitatea handituz edo lana antolatzeko sistemak edo lanbide-sailkapena aldatuz, aurreko paragrafoan adierazitako txostena egin ostean.

Kontratu bidezko lotura duten eta hitzarmen bati lotuta ez dauden gainerako langileen ordainsariei ere ez dute inolako gorakadarik izango, edozein dela ere haien tipologia, modalitatea edo izaera, eta sektore publikoko zuzendaritza-taldeetako langileen ordainsariei ere ez.

Hiru. 2014an, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak ministerio-sailen, Estatu-agentzien, enpresa-entitate publikoen eta gainerako erakunde publikoen, eta Estatuko merkataritza-sozietateen soldata-masa baimenduko du, baita Estatuko sektore publikoko fundazioena eta Estatuko sektore publikoa osatzen duten Administrazioen eta erakundeen gehiengo partaidetza duten partzuergoena ere.

Baimendutako soldata-masa kontuan hartuko da eragindako kontratupeko langileen ordainsariei dagozkien kredituak homogeneotasunez zehazteko. Soldata-masa baimentzea ezinbestekoa da 2014an egingo diren hitzarmen edo akordio kolektiboak negoziatzen hasteko.

Estatuko merkataritza-sozietateen kasuan, baimendutako soldata-masa Enpresa Publikoen Negoziazio Kolektiboaren Jarraipen Batzordeari bidaliko zaio. Batzorde horren presidentea Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeak izendatuko du.

Soldata-masa gordinaren aldaketak urtebeterako eta homogeneotasunez kalkulatu dira alderatutako bi aldietan, bai langileei eta haien antzinasunari dagokienez, bai lanaren, lanaldiaren, aparteko orduen eta beste lan-baldintza batzuen erregimen pribatiboari dagokienez; kontzeptu horiek eragindako aldaketen zenbatekoak berezita konputatuko dira.

Aurreko lerroketan xedatutakoa soldata-masaren muga maximoa izango da; soldata-masaren banaketa eta banakako aplikazioa negoziazio kolektiboaren bidez zehaztuko dira, hala badagokio.

Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak zehaztuko ditu, Estatuko merkataritza-sozietateei, Estatuko sektore publikoko fundazioei, eta Estatuko sektore publikoa osatzen duten Administrazioen eta erakundeen gehiengo partaidetza duten partzuergoei

dagokienez, paragrafo honetan araututako baimena emateko prozeduraren forma, irismena eta ondorioak.

Lau. Hitzarmen kolektiboaren mende ez dauden langileak badira, eta haien ordainsariak banakako kontratuen bidez zehaztuta badaude, oso-osorik edo neurri batean, Ogasun eta Administrazio Publikoetako ministerioari jakinarazi behar zaizkio 2013an ordaindutako eta sortutako ordainsariak, Aurrekontu eta Gastuetako Estatu Idazkaritzaren bidez.

Bost. Kontratupeko langileen indemnitzazio edo ordainak, berariazko araudiaren bidez antolatuko direnak, ez dute inolako gehikuntzarik izango, 2013 erreferentziazat hartuta.

Sei. Ministerio-sailek, Estatu-agentziek, enpresa-entitate publikoek eta gainerako erakunde publikoek, eta Estatuko merkataritza-sozietateek, baita Estatuko sektore publikoko fundazioek eta Estatuko sektore publikoa osatzen duten Administrazioen eta erakundeen partaidetza gehiengoduna duten partzuergoek ere, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera ezar daitezkeen ordurkredituak eta bestelako sindikatu-eskubideak igorriko dizkiote Funtzio Publikoetako Zuzendaritza Nagusiari, aurretik baimen ditzan. Aurrez onartutako akordioek aipaturiko baimena jaso beharko dute 2014an aplikatu ahal izateko.

Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak paragrafo honetan araututako baimen-prozeduraren forma, irismena eta ondorioak zehaztuko ditu.

#### 26. artikulua. *Indar Armatuetako langileen ordainsariak.*

Bat. 2014an, Indar Armatuetako langileen ordainsariak eta beste ordainketa batzuek, haien oinarritzko ordainsariak Estatuko eta bere erakunde publikoen Aurrekontu Orokorretako gastuen egitura ekonomikoari buruzko 10. artikuluan jasota baldin badaude, ez dute gorakadarik izango 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, dagozkien antzinasun-ordainsariei kalterik egin gabe. Halaber, Sailaren titularrak esleitutako osagarriak jasoko dituzte, arduraldi bereziagatik edo produktibitateagatik, horretarako xedatutako kredituen artean. Langile horientzat xedatutako kredituen zenbatekoak ez du gorakadarik izango, karguen kopuruari eta motari dagokionez, 2013ko abenduaren 31n esleituta zegoenarekiko.

Bi. Karrera militarari buruzko azaroaren 19ko 39/2007 Legean jasotako militar profesionalak, aurreko paragrafoan sartuta ez daudenek, ordainsari hauek jasoko dituzte 2014an:

A) Enplegua sailkatuta dagoen taldeari edo azpitaldeari dagozkion soldata eta hirurtekoak –hirurtekoak alde batera utzita, araudiak hala xedatutako kasuetan–, 20. Bost.1 artikuluan ezarritako zenbatekoan.

B) Aparteko ordainsariak, urtean bitan emango direnak; haietako bakoitzak barne hartuko ditu lege honen 20.Bost.2 artikuluan finkatutako soldatak eta hirurtekoak, enpleguari dagokion taldearen edo azpitaldearen arabera, eta hilero jasoko den lanpostu-osagarria.

Hirurtekoen eta aparteko ordainsarien balioespena eta sortzapena langile horiei aplikatu beharreko berariazko araudiaren arabera gauzatuko da, eta, ordezkio moduan, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriari buruzko 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, aplikatzeko eremuan dauden funtzionarioen araudiaren arabera, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutua onesten duen apirilaren 12ko 7/2007 Legeak adierazitakoari jarraiki.

C) Enplegu-osagarriak, berariazko osagarriak eta dagozkien gainerako ordainsariak ez dute gorakadarik izango, 2013ko abenduaren 31n zeudenekiko, lege honen 20.Zazpi artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

D) Arduraldi bereziari dagokion ordainsaria, arreta etengabearen kontzeptua barne hartuta, eta ohiz kanpoko zerbitzuengatik haborokina. Zenbateko horiek Defentsa ministroak erabakiko ditu, xede horietarako esleituko diren kredituen barruan. Kreditu horiek ez dute gehikuntzarik izango, urteko zenbatekoari dagokionez, 2013ko abenduaren 31n ezarrita zeudenak erreferentziazat hartuta.

Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak aldatu egin ahal izango du arduraldi bereziari eta ohiz kanpoko zerbitzuengatiko haborokinei dagokien kredituen zenbatekoa, programa bakoitzari esleitutako langile kopuruari eta helburuen lorpen-mailari egokitzeko.

Arduraldi bereziari dagokion osagarriak edota ohiz kanpoko zerbitzuengatiko haborokinak emateko esleitutako zenbatekoek ez dute inolaz ere banako eskubiderik sortuko ondorengo aldietarako balioespenetan edo balio-igoeretan.

E) Zerbitzuan emandako urteengatiko pizgarria. Defentsako ministroak finkatuko ditu pizgarri horren zenbatekoak eta baldintzak, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren bidez, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak aldeko txostena egin ostean.

Hiru. Defentsa Ministerioak itunak sinatu baditu unibertsitateekin, Saileko osasun-erakundeak erabiltzeko, urriaren 11ko 1652/1991 Errege Dekretuan haien araubiderako ezarritako oinarrien arabera, zentro horietan lanpostuak betetzen dituzten mediku militarrek eta osasun-alorreko militarrek dagozkien oinarritzko ordainsariak jasoko dituzte 2014an, eta, ordainsari osagarri gisa, lanpostu-osagarriak, berariazko osagarriak eta produktibitate-osagarriak jasoko dituzte, aipatutako Errege Dekretuko Hamahirugarren. Zortzi, 4, 5 eta 6.a) eta b) oinarria aplikatuz ezarritako zenbatekoetan.

Langile horiek jantziarako laguntza jaso ahal izango dute, bai eta arduraldi bereziari dagokion osagarria ere, etengabeko arretagatik, aurreko zenbakiko D) paragrafoan ezarritakoari jarraiki. Gainera, sariengatiko pentsioak eta dagozkien prestazio familiarrak jaso ahal izango dituzte.

Lau. Ministerioaren edo erakunde autonomoen lanpostu-zerrendetan jasotako lanpostuak betetzen dituzten indar armatuetako kideek beren enplegu militarri dagozkion oinarritzko ordainsariak eta betetzen duten postuari esleitutako osagarriak jasoko dituzte 2014an, Lege honetan abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan jasotako Estatuko funtzionarioentzat ezarritako zenbatekoen arabera, eta apirilaren 12ko 7/2007 Legearen azken xedapenetako laugarrenean adierazitakoari jarraiki; halere, ordainsari militarren ondoriozko pentsioak eta haborokinak jasoko dituzte oraindik, bai eta jantziarako laguntza ere, indar armatuetako gainerako langileen baldintza beretan.

Artikulu honetan xedatutakoak ez dio kalterik egingo indarrean dagoen araudian Indar Armatuetako kontzeptu eta langile zehatz batzuetarako xedatutakoari.

#### 27. artikulua. *Guardia Zibilaren Kidegoko langileen ordainsariak.*

Bat. 2014an, Guardia Zibileko Kidegoko langileen ordainsariak eta beste ordainketa batzuek, haien oinarritzko ordainsariak Estatuaren Aurrekontu Orokorretako gastuen egitura ekonomikoari buruzko 10. artikuluan jasota baldin badaude, ez dute gorakadarik izango 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, dagozkien antzinatasun-ordainsariei kalterik egin gabe. Halaber, Sailaren titularrak esleitutako produktibitate-osagarria jasoko dute, hala badagokie, horretarako xedatutako kredituen bidez. Langile horientzat xedatutako kredituen zenbatekoak ez du gorakadarik izango, karguen kopuruari eta motari dagokionez, 2013ko abenduaren 31n esleituta zegoenarekiko.

Bi. Aurreko paragrafoan aurreikusita ez dauden Guardia Zibilaren Kidegoko langileek ordainsari hauek jasoko dituzte 2014an:

A) Enplegua sailkatuta dagoen taldeari edo azpitaldeari dagozkion soldata eta hirurtekoak, lege honen 20.Bost.1 artikuluan ezarritako zenbatekoetan.

B) Aparteko ordainsariak, urtean bitan emango direnak, haietako bakoitzak barne hartuta lege honen 20.Bost.2 artikuluan finkatutako soldatak eta hirurtekoak, enpleguari dagokion taldearen edo azpitaldearen arabera, eta hilero jasoko den lanpostu-osagarria.

Hirurtekoen eta aparteko ordainsarien balioespena eta sortzapena langile horiei aplikatu beharreko berariazko araudiaren arabera gauzatuko da, eta, ordezkio moduan, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzko 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, aplikatzeko eremuan dauden funtzionarioen araudiaren arabera, Enplegatutako Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren 7/2007 Legeak, apirilaren 12koak, adierazitakoari jarraiki.

C) Ordainsari osagarri finko eta aldizkakoak, inolako gehikuntzarik izango ez dutenak, 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziatzen hartuta, lege honen 20.Zazpi artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

D) Produktibitate-osagarria eta ohiz kanpoko zerbitzuengatik haborokinak. Ordainsari horiek lege honen 24. artikuluan aplikazio-eremuko Estatuko funtzionarioentzat ezarritako arauen bidez xedatuko dira, eta Barne Ministerioak finkatuko ditu zenbatekoak, xede horietarako esleituko diren kredituen barruan. Kreditu horiek ez dute gehikuntzarik izango, urteko zenbatekoari dagokionez, 2013ko abenduaren 31n esleituta zeudenak erreferentziatzen hartuta.

## 28. artikulua. *Polizia Nazionalaren Kidegoko langileen ordainsariak.*

Bat. 2014an, Polizia Nazionalaren Kidegoko langileen ordainsariak eta beste ordainketa batzuek, haien oinarriko ordainsariak Estatuko eta bere erakunde publikoen Aurrekontu Orokorretako gastuen egitura ekonomikoari buruzko 10. artikuluan jasota baldin badaude, ez dute gorakadarik izango 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, dagozkien antzintasun-ordainsariei kalterik egin gabe. Halaber, Sailaren titularrak esleitutako produktibitate-osagarria jasoko dute, hala badagokio, horretarako xedatutako kredituen bidez. Langile horientzat xedatutako kredituen zenbatekoak ez du gorakadarik izango, karguen kopuruari eta motari dagokionez, 2013ko abenduaren 31n esleituta zegoenarekiko.

Bi. Aurreko paragrafoan aurreikusita ez dauden Polizia Nazionalaren Kidegoko funtzionarioek ordainsari hauek jasoko dituzte 2014an:

A) Enplegua sailkatuta dagoen taldeari edo azpitaldeari dagozkion soldata eta hirurtekoak, xede ekonomikoak aintzat hartuta, lege honen 20.Bost.1 artikuluan ezarritako zenbatekoan.

B) Aparteko ordainsariak, urtean bitan emango direnak, haietako bakoitzak barne hartuta lege honen 20.Bost.2 artikuluan finkatutako soldaten eta hirurtekoen zenbatekoak, kategoriari dagokion talde edo azpitaldearen arabera, eta hilerio jasoko den lanpostu-osagarria.

Hirurtekoen eta aparteko ordainsarien balioespena eta sortzapena langile horiei aplikatu beharreko berariazko araudiaren arabera gauzatuko da, eta, ordezkio moduan, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriari buruzko 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, aplikatzeko eremuan dauden funtzionarioen araudiaren arabera, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren 7/2007 Legeak, apirilaren 12koak, adierazitakoari jarraiki.

C) Ordainsari osagarri finko eta aldizkakoak, inolako gehikuntzarik izango ez dutenak, 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziatzen hartuta, lege honen 20.Zazpi artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

D) Produktibitate-osagarria eta ohiz kanpoko zerbitzuengatik haborokinak. Ordainsari horiek lege honen 24. artikuluan aplikazio-eremuko Estatuko funtzionarioentzat ezarritako arauen bidez xedatuko dira, eta Barne Ministerioak finkatuko ditu zenbatekoak, xede horietarako esleituko diren kredituen barruan. Kreditu horiek ez dute gehikuntzarik izango, urteko zenbatekoari dagokionez, 2013ko abenduaren 31n esleituta zeudenak erreferentziatzen hartuta.

## 29. artikulua. *Karrera Judizialeko eta Fiskaleko, Idazkari Judizialen Kidegoko eta Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen ordainsariak.*

Bat. 2014 urtean, lege honen 20.Bi artikuluan xedatutakoari jarraiki, karrera judizial eta fiskaleko kideen ordainsariak, gehikuntzarik izango ez dutenak 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, honako hauek izango dira:

1. Soldata, maiatzaren 26ko 15/2003 Legeak, karrera judizial eta fiskaleko ordainsarien araubideari buruzkoak, I. eta IV. eranskinetan aipatutakoa, honako zenbateko hauen arabera izango da 2014an, hamabi hilabete-saritan:

	Eurotan
<i>Karrera judiziala</i>	
Auzitegi Nazionaleko presidentea (ez Auzitegi Goreneko magistratua) . . . . .	23.937,24
Auzitegi Nazionaleko Salako presidentea (ez Auzitegi Goreneko magistratua) . . . . .	22.676,88
Justizia Auzitegi Nagusiko presidentea . . . . .	23.108,76
Magistratua . . . . .	20.541,84
Epailea . . . . .	17.973,60
<i>Karrera fiskala</i>	
Autonomia Erkidegoko fiskal nagusia . . . . .	23.108,76
Fiskala . . . . .	20.541,84
Abokatu fiskala . . . . .	17.973,60

2. Antzinakotasunagatiko ordainsaria edo dagozkion hirurtekoak, halakorik balego.

3. Aparteko ordainsariak abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan jasotako funtzionarioei aplikatu beharreko araudiaren arabera sortuko dira, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen azken xedapenetako laugarrenean adierazitakoari jarraiki; urtean bi egongo dira eta, kasuak kasu, soldata, antzinatasun edo hirurtekoen hilabete-sari baten zenbatekoa izango du bakoitzak, bai eta 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 39/2010 Legearen X. eranskinean adierazitako zenbatekoa ere.

4. Ordainsari osagarriak eta karrera judizial eta fiskaleko kideen ordainsari aldakor eta bereziak; halakoek ez dute gorakadarik izango 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

Karrera judizial eta fiskaleko kideentzat 15/2003 Legearen I. tituluko III. kapituluan eta II. tituluan adierazitako helburuen arabera ordainsari aldakorretarako guztirako kreditua ezin izango da karrera judizialeko eta fiskaleko kideen ordainsari finkoen zenbateko osoaren ehuneko 5etik gorakoa izan, hurrenez hurren.

5. Paragrafo honetan xedatutakoak ez dio kalterik egingo 15/2003 Legearen 9.2 artikuluan xedatutakoari.

Bi. Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoa arautzen duen abenduaren 30eko 50/1981 Legea aldatzen duen urriaren 9ko 24/2007 Legea garatuta, fiskalak eremu-fiskaltza bateko fiskalburu izendatzen badituzte, eta fiskaltza hori badago probintziako hiriburua ez den beste egoitza batean probintziako auzitegiko atal bat dagoen tokian, probintziako fiskaltzako egoitzako fiskalei dagokien populazio-taldearen irizpidearen arabera lanpostu-osagarria jasoko dute fiskal horiek, bai eta ordezkartzaren kontzeptuko lanpostu-osagarria, berariazko osagarria eta probintziako fiskaltzako fiskalburuordeari dagozkion aparteko ordainsarietan jaso beharreko zenbatekoa ere.

Eremu-fiskaltza bateko gainerako fiskalburuek Probintzia Fiskaltzako fiskalburuordeari dagokion berariazko osagarria jasoko dute.

Probintzia Fiskaltzako fiskalburuek eta fiskalburuordeek Probintzia Auzitegiko fiskalburuei eta fiskalburuordeei hurrenez hurren dagozkien ordainsari osagarriak eta aparteko ordainsarietan sartu beharreko zenbatekoak jasoko dituzte.

Estatuko Fiskaltza Nagusiko Idazkaritza Teknikoko fiskalburuordeak Estatuko Fiskaltza Nagusiko fiskalburuorde ikuskariari dagozkion ordainsari osagarriak eta aparteko ordainsarietan sartu beharreko zenbatekoak jasoko ditu.

Estatuko Fiskaltza Nagusiko saletako fiskalei atxikitako fiskalek eta Estatuko Fiskaltza Nagusiko Laguntza Unitateko fiskalek Estatuko Fiskaltza Nagusiko Idazkaritza Teknikoko fiskalei dagokien zenbatekoa jasoko dute berariazko osagarri gisa.

Probintzia-fiskaltzetako lurralde-ataletako fiskal dekanoei fiskal koordinatzaileei dagokien zenbatekoa jasoko dute berariazko osagarri gisa.

Espezializatutako ataletako fiskal dekanoei lurralde-ataletako fiskal dekanoei dagokien ordainsari osagarriak eta aparteko ordainsariak jasoko dituzte.

Autonomia-erkidegoko fiskaltzetako bigarren kategoriako fiskalek, koordinatzaileak ez direnek, baita fiskaltza horietako lurralde-ataletakoek ere, autonomia-erkidegoko fiskaltzako fiskalburuordeei dagozkien aparteko ordainsarrietan jaso beharreko lanpostu-osagarria eta zenbatekoa jasoko dituzte, fiskaltza organikoki bitan banatuta ez duten autonomia-erkidegoetan izan ezik (autonomia-erkidegoko fiskaltza eta egoitza duen probintziako probintzia-fiskaltza).

Hiru. 2014an, lege honen 20.Bi artikuluan xedatutakoari jarraiki, Idazkari Judizialen Kidegoko eta Justizia Administrazioaren zerbitzuko kideen ordainsariak –ez dute gehikuntzarik izango 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko– honako hauek izango dira:

1. Soldata, ondorengo xehetasunen arabera, eta antzinasunagatik eta hiru urtekoengatik legezkiekeen ordainsariak.

a) Idazkari Judizialen Kidegoko kideen soldatak honako zenbateko hauek izango ditu 2014an, hamabi hilabete-saritan:

	Eurotan
Lehenengo kategoriako idazkari judizialak.....	17.973,60
Bigarren kategoriako idazkari judizialak .....	17.083,44
Hirugarren kategoriako idazkari judizialak.....	15.872,16

b) Justizia Administrazioaren zerbitzuko kidegoetako funtzionarioen 2014rako soldata honako zenbateko hauen arabera izango da, hamabi hilabete-saritan:

	Eurotan
Toxikologiako eta Auzitegi Zientzietako Institutu Nazionalako auzitegi-mediku eta profesionalak. . . . .	15.406,20
Prozesu- eta administrazio-kudeaketa . . . . .	13.303,32
Prozesu- eta administrazio-izapidetzea . . . . .	10.934,16
Laguntza judiziala . . . . .	9.917,88
Toxikologiako eta Auzitegi Zientzietako Institutu Nazionalako teknikari espezialistak . .	13.303,32
Toxikologiako eta Auzitegi Zientzietako Institutu Nazionalako laborategiko laguntzaileak. . . . .	10.934,16

c) Abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatu zuenak, iraugitako Justizia Administrazioaren zerbitzura ari diren Kidegoetan 2004ko urtarrilaren 1a baino lehen osatutako hiru urtekoen zenbatekoak honako hauek izango dira 2014an, hamabi hilabete-saritan:

	Eurotan
Ofizialen kidegoa . . . . .	532,56
Laguntzaileen kidegoa . . . . .	410,52
Agente judizialen kidegoa . . . . .	354,48
Teknikari espezialisten kidegoa . . . . .	532,56
Laborategiko laguntzaileen kidegoa . . . . .	410,52
Laborategiko agenteen kidegoa (iraugitzeaz). . . . .	354,48
7.000 biztanletik gorako udalerrietako bake-epaitegietako idazkarien kidegoa (iraugitzeaz). . . . .	599,16

Auzitegi medikuen eta medikuntza-teknikarien kidegoetako langileek 1995ko urtarrilaren 1a baino lehen osatutako hiru urtekoak 642,12 eurokoak izango dira urtean, 2014rako, hamabi hilabete-saritan.



2. Aparteko ordainsariak abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan jasotako funtzionarioei aplikatu beharreko araudiaren arabera sortuko dira, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen azken xedapenetako laugarrenean adierazitakoari jarraiki; urtean bi egongo dira eta, kasuak kasu, soldata, antzintasun edo hirurtekoen hilabete-sari baten zenbatekoa izango du bakoitzak, bai eta 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 39/2010 Legearen XI. eranskinean adierazitako zenbateko osagarria ere.

3.a) Idazkari Judizialen Kidegoko funtzionarioei esleitutako postuen osagarri orokorra, abenduaren 30eko 2033/2009 Errege Dekretua aplikatu beharreko kasuetan, honako zenbateko hauen arabera izango da 2014an, hamabi hilabete-saritan:

	Eurotan
I. motako lanpostuak . . . . .	16.107,48
II. motako lanpostuak . . . . .	13.758,36
III. motako lanpostuak . . . . .	13.136,16
IV. motako lanpostuak . . . . .	13.036,92
V. motako lanpostuak . . . . .	9.427,20

Aurreko paragrafoan adierazitako funtzionarioen gainerako ordainsari osagarri orokor, aldakor eta bereziek ez dute gora egingo, 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziatzat hartuta, lege honen 20.Zazpi artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

3.a) zenbaki honetako lehenengo paragrafoan adierazi gabeko postuak betetzen dituzten Idazkari Judizialen Kidegoko kideek jasoko dituzte irailaren 5eko 1130/2003 Errege Dekretuan ezarritako ordainsari orokor, aldakor eta bereziak, gehikuntzarik izango ez dutenak, 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziatzat hartuta.

3.b) Justizia Administrazioaren zerbitzura ari diren kidegoetako funtzionarioei atxikitako lanpostuetarako osagarri orokorra, artikuluko honetako Hiru.1.b) paragrafoan adierazitakoa, uztailaren 20ko 1033/2007 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat, honako hau izango da 2014an, hamabi hilabete-saritan:

	Mota	Azpimota	Eurotan
Toxikologiako eta Auzitegiko Zientzia Institutu Nazionaleko teknikari espezialistak eta prozesu- eta administrazio-kudeaketa.	I	A	3.982,92
	I	B	4.757,76
	II	A	3.667,20
	II	B	4.442,04
	III	A	3.509,40
	III	B	4.284,24
	IV	C	3.351,60
	IV	D	3.509,76
Toxikologiako eta Auzitegiko Zientzia Institutu Nazionaleko auzitegiko laborategi-laguntzaileak eta prozesu- eta administrazio-izapidetzea.	I	A	3.456,96
	I	B	4.231,92
	II	A	3.141,48
	II	B	3.916,32
	III	A	2.983,56
	III	B	3.758,40
	IV	C	2.825,88

	Mota	Azpipimota	Eurotan
Laguntza judiziala.	I	A	2.715,48
	I	B	3.490,44
	II	A	2.399,76
	II	B	3.174,72
	III	A	2.241,96
	III	B	3.016,92
	IV	C	2.084,16
Toxikologiako eta Auzitegi Zientzietako Institutu Nazionalako auzitegi-mediku eta profesionalak.	I		18.808,32
	II		18.565,68
	III		18.322,92
Prozesu- eta administrazio-kudeaketako eskala, 7.000 biztanletik gorako udalerrietako bake-epaitegietako idazkarien kidegotik datozenak (iraungitzear)			5.085,96

Aurreko paragrafoan adierazitako funtzionarioen gainerako ordainsari osagarri orokor, aldakor eta bereziek ez dute inolako gehikuntzarik izango, 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziatzat hartuta, lege honen 20.Zazpi artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

4. Presidentzia Ministerioaren maiatzaren 18ko 1230/2009 Aginduaren bidez argitaratutako 2009ko maiatzaren 8ko Ministro Kontseiluaren akordioaren bigarren paragrafoan ordainsari gehigarri osagarriaren kontzeptuan aitortutako kopuruak jasota daude aurreko 3.a) eta 3.b) zenbakietan aipatutako ordainsari osagarrietan.

Lau. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak 145.1 artikuluan adierazitako funtzionarioei dagozkien oinarritzko ordainsariak eta ordainsari osagarriak, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan jasotako idazkeran, ez dute 2014an inolako gorakadarik izango, 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, lege honen 22.Zazpi artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Bost. Botere Judizialeko eta Fiskaltzako kideen ordainsariak, ondorengo zenbakietan adierazitakoek, ez dute 2014an inolako gorakadarik izango, 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko. Haietako bakoitzerako finkatutako ondorengo zenbateko hauek jasoko dituzte:

1. Auzitegi Goreneko presidenteordeak zenbateko hauek jasoko ditu:

Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa) . . . . .	29.801,36 €;
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak) . . . . .	86.659,86 €;
OROTARA. . . . .	116.461,22 €;

Auzitegi Goreneko salako presidentek eta Auzitegi Nazionalako presidentek (Auzitegi Goreneko magistratuak) zenbateko hauek jasoko dituzte:

Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa) . . . . .	27.518,12 €;
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak) . . . . .	82.261,44 €;
OROTARA. . . . .	109.779,56 €;

Auzitegi Goreneko magistratuak eta Auzitegi Nazionalako salako presidentek (Auzitegi Goreneko magistratuak) zenbateko hauek jasoko dituzte:

Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa) . . . . .	26.069,96 €;
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak) . . . . .	80.853,00 €;
OROTARA. . . . .	106.922,96 €;

2. Estatuko fiskal nagusiak 113.838,96 euro jasoko ditu, hamabi hilabete-saritan; ez du aparteko ordainsariak jasotzeko eskubiderik izango.

Auzitegi Goreneko fiskalburuordeak zenbateko hauek jasoko ditu:

Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa) . . . . .	27.518,12 €;
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak) . . . . .	82.261,44 €;
OROTARA . . . . .	109.779,56 €;

Fiskalburu ikuskariak, Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltzako fiskalburuak eta Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzako fiskalburuak zenbateko hauek jasoko dituzte:

Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa) . . . . .	26.069,96 €;
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak) . . . . .	82.261,44 €;
OROTARA . . . . .	108.331,40 €;

Kontuen Auzitegiko Fiskaltzako fiskalburuek, Estatuko fiskal nagusiaren Idazkaritza Teknikoko eta Laguntza Unitateko fiskalburuek, Fiskaltza berezietako fiskalburuek (drogaren, ustelkeriaren eta kriminalitate antolatuen aurkakoak) eta Auzitegi Goreneko salako fiskalek zenbateko hauek jasoko dituzte:

Soldata (14 hilabete-saritan jasotzekoa) . . . . .	26.069,96 €;
Beste ordainsari batzuk (12 hilabete-saritan jasotzekoak) . . . . .	80.853,00 €;
OROTARA . . . . .	106.922,96 €;

3. Paragrafo honetako aurreko zenbakietan aipatutako Botere Judizialeko eta Fiskaltzako kideek antzinatasunagatik edo hirurtekoengatik legokiekeen ordainsariaren hamalau hilabete-sari jasoko dituzte, hurrengo lerrokadan arautzen den Estatuko fiskal nagusiak izan ezik. Halaber, urtean bi ordainsari jasoko dituzte 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 39/2010 Legearen X. eranskinean kargu bakoitzarentzat zehaztutako zenbatekoarekin. Abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan jasotako funtzionarioei aplikatu beharreko aparteko ordainsariei buruzko araudiaren arabera izango dira zenbateko horiek.

Estatuko fiskal nagusiak, paragrafo honen 2 zenbakian adierazitako zenbatekoaz gain, antzinatasunagatik edo hirurtekoengatik legozkiekeen ordainsariak jasoko ditu, bai eta abenduaren 26ko 51/2007 Legeak, 2008rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 32.Lau artikuluko 3 zenbakiko bigarren lerrokadaren aplikazioak dakartzanak, 2010erako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko 26/2009 Legeak 32.Bost.B) artikuluko 3 zenbakiko bigarren lerrokadan zehaztutako zenbatekoen arabera.

4. Paragrafo honetako 1. eta 2. puntuetan adierazitako Botere Judizialeko eta Fiskaltzako kideen soldata eta ordainsari osagarriak puntu horietan bertan eta paragrafo bereko 3. puntuan finkatutakoak izango dira; helburu horietarako, ez zaie aplikatuko maiatzaren 26ko 15/2003 Legea, karrera judizialeko eta fiskaleko ordainsariak arautzen dituen, lehen aipatutako 26/2009 Legearen 32.Bost.B) artikuluko 4 zenbakian xedatutako zenbatekoen arabera ordainsari bereziak jasotzeko eskubideari kalterik egin gabe.

30. artikulua. *Estatutupeko langileen eta Gizarte Segurantzako estatutupekoak ez diren langileen ordainsariak.*

Bat. 2014an, Gizarte Segurantzaren Administrazioari funtzionarioek, Estatuko Administrazio Orokorreko gainerako langileekin jada homologatuta, lege honen 24. artikuluan xedatutako ordainsariak jasoko dituzte.

Bi. 2014an, Osasunaren Institutu Nazionaleko estatutupeko langileen ordainsariei buruzko irailaren 11ko 3/1987 Errege Lege Dekretuaren aplikazio-eremuan dauden

langileek lege honen 24.Bat.A), B) eta C) artikuluan kontzeptu horietarako zehaztutako zenbatekoetan jasoko dituzte oinarrizko ordainsariak eta lanpostu-osagarria, aipaturiko Errege Lege Dekretuaren bigarren, Bi, xedapen iragankorraean ezarritakoari kalterik egin gabe, eta aipaturiko 24.Bat artikuluaen C) idatz-zatian finkatutako lanpostu-osagarria hamalau hilabete-saritan jasotzekari kalterik egin gabe.

Aipatutako estatutupeko langile horiei lege honen 24.Bat.B) artikuluan ezarritakoa aplikatzeko, aparteko ordainsari bakoitzari dagokion lanpostu-osagarriaren zenbatekoa ere hamalau hilabete-saritan jasoko dute. Zenbateko hori 24.Bat.C) artikuluan adierazitako kopuruaren hamabirena izango da.

Langile horiei dagozkien berariazko nahiz etengabeko arretagatiko osagarrien zenbatekoek ez dute gehikuntzarik izango, 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziatzen hartuta, lege honen 20.Zazpi artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

3/1987 Errege Dekretu Legearen 2.Hiru.c) artikuluan eta hirugarren xedapen iragankorrean, bai eta berau garatzeko emandako gainerako arauetan ere, adierazitako irizpideen arabera zehaztuko da produktibitate-osagarriaren zenbateko indibiduala.

Hiru. 2014an, artikulua honen aplikazio-eremuko gainerako funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariak ez dute gehikuntzarik izango, 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

### III. KAPITULUA

#### Langile aktiboen araubidearen alorreko beste xedapen batzuk

31. artikulua. *Ohiz kanpoko diru-sarrerak jasotzeko debekua.*

Lege honen aplikazio-eremuaren barruko langile publikoek, zerga-erregimenaren menpekoak kenduta, ezin dute administrazioari edo edozer botere publikori dagozkion tributuen, komisioen edo diru-sarreraren partaidetzarik jaso edozer zerbitzu edo jurisdikzioaren ordainetan, ez eta edozer partaidetza edo saririk ere ezarritako isunetan, araudian haiei egotzita egonik ere; hala, ordainsarien araubide egokia bakarrik jasoko dute, eta bateraezintasunen sistema aplikatzeak dakarrenari kalte egin gabe, ezta betetako kargu edo lanagatik etxebizitza edukitzeari buruzko berariazko araudian xedatutakoari ere.

32. artikulua. *Sariak, gurutzeak, dominak eta mutilazio-pentsioak.*

Bat. 2014an, sari, gurutze, domina eta elbarri-pentsioengatik jasoko diren zenbatekoek ez dute gehikuntzarik izango, 2013ko abenduaren 31n baietsita zeudenak erreferentziatzen hartuta.

Bi. San Fernandoren Gurutze Ohoratua eta banakako Domina Militarra euren araubide bereziaren bidez eraenduko dira.

Hiru. San Hermenegildoren Errege Orden Militarraren erregelamendua onartzen duen ekainaren 23ko 1189/2000 Errege Dekretuan xedatutakoaren bidez eraenduko dira Konstantziarako Gurutzea eta San Hermenegildoren Errege Orden Militarraren kategoriak.

33. artikulua. *Beste arau komun batzuk.*

Bat. Administrazioeko kontratupeko langileek, Tokiko Osasun Kidegoetako funtzionarioek, eta 2013ko ordainsariak 17/2012 Legearen (2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea, abenduaren 27koa) III. tituluaren orokorrean ezarritakoekin bat etorri ez eta lege honen titulu berean berariaz ezarritakoak aplikatu behar ez zaizkien langileek 2014an ere jasoko dituzte 2013ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak.

Bi. Estatuko Administrazio Orokorrean, bere erakunde autonomoetan eta estatu-agentzietan, funtzionarioen bat 2014an betetzen ari den lanpostuari dagokion ordainsari-araubideaz beste batera atxikita egonez gero, funtzionario horrek betetzen ari den lanpostuari dagozkion ordainsariak jasoko ditu; aurrez, oinarrizko ordainsariak esleituko

zaizkio, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak baimenduta, interesa duten ministerio-sailen proposamenari jarraiki.

Aurreko lerrokadan adierazitako esleipenaren ondorioetarako, antzintasun-ordainsariaren zenbatekoa funtzionarioaren jatorrizko ordainsari-araubidearen arabera izateko baimena eman ahal izango da.

Hiru. Zerbitzuagatik kalte-ordainen zenbatekoa 2013an indarrean zegoen berbera izango da.

34. artikulua. *Kontratupeko langileen eta funtzionarioak ez diren ordainsariak finkatzeko edo aldatzeko baldintzak.*

Bat. Honako erakunde hauetako kontratupeko langileen eta funtzionarioak ez diren ordainsariak finkatzeko edo aldatzeko, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren aldeko txostena beharko da 2014an:

- a) Estatuko Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoak.
- b) Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak.
- c) Estatu-agentziak, beren berariazko araudiaren arabera.
- d) Gainerako enpresa-entitate publikoak eta gainerako erakunde eta entitate publikoak, Ordainsarien Ministerioarteko Batzordeak horretarako ezarritako baldintza eta prozeduren arabera, haien berariazko ezaugarriak aintzat hartuta.

Bi. Funtzionarioak ez diren langileen ordainsari-baldintzak finkatzen edo aldatzen dituzten eragiketak ondorengo hauek dira:

- a) Lanpostu berrien ordainsariak erabakitzea.
- b) Aurreko Bat paragrafoan adierazitako erakundeek hitzarmen kolektiboak, akordioak edo gisa horretako agiriak sinatzea, bai eta horien berrikuspenak, eranskinak edo luzapenak ere.
- c) Estatuko Administrazio kontratupeko langileei Hitzarmen bakarra eta sektoreko hitzarmen kolektiboak aplikatzea, bai eta horien berrikuspenak, eranskinak edo luzapenak ere.
- d) Ordainsariak banako kontratu bidez finkatzea, langile finkoak edo epe jakin baterako kontratatutakoak izan, betiere hitzarmen kolektibo bidez guztiz edo zati batez araututa ez badaude; horretatik kanpo geratzen dira izaera bereziko lan-harremanari lotutako aldi baterako langileak, berau Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren 2. artikulua 1 paragrafoaren e) idatz-zatian araututa. Nolanahi ere, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioari azken langile horien ordainsariei buruzko informazioa helarazi beharko zaio. Salbuespena izango da, halaber, martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuak, enpresa-sektore publikoko eta beste entitate batzuetako arduradun eta zuzendari nagusien ordainsari-erregimena arautzen duenak, adierazitako ordainsariak finkatzea, horretarako aipaturiko arauan xedatutakoa beteko baita.
- e) Alde bakarreko edonolako soldata-hobekuntzak ematea, banaka edo kolektiboki, nahiz eta funtzionario publikoen ordainsari-erregimenaren aplikazioa hedatzearen ondorio izan.
- f) Kanpoan kontratatutako langileei dagozkien ordainsariak erabakitzea.

Hiru. Artikulu honen Bat paragrafoan aipatutako txostenak eragina izango du a), b) eta c) idatz-zatietan adierazitako erakunde, entitate eta agentzia guztietan izango du eragina, bai eta d) paragrafoan adierazitakoetan ere, Ordainsarien Ministerioarteko Batzordeak erabakiko duen moduan. Txostena ondorengo puntuetan zehaztutako prozedurari jarraiki emango da, eta adierazitako irismena izango du:

1. Eraginpeko erakundeek, hitzarmen kolektiboa edo banakako kontratuak onartu edo sinatu baino lehen, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioari bidali beharko diote dagokion proiektua, alderdi ekonomiko guztien balioespenarekin batera.

2. 2.Txostenak (hitzarmen kolektiboen kasuan hamabost eguneko epean bideratu behar da, proiektua eta balioespena aurkeztutako egunetik kontatzen hasita) gastu publikoan ondorioak zuzenean edo zeharka dakartzaten arlo guztiak jakinarazi behar ditu, bai 2014rako bai geroko ekitaldietarako ere, eta bereziki, dagokion soldata-masa erabakitzeari eta haren hazkundera kontrolatzeari dagokionez; betiere Lege honen 25. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Lau. Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak finkatuko eta, hala badagokio, eguneratuko ditu atzerrian diharduten kontratupeko langileen ordainsariak, herrialde bakoitzaren berariazko egoera aintzat hartuta.

Bost. Erabat deusezak izango dira gai honetan hartutako erabakiak, txostena izapidetu gabe edota ezezko txosten baten kontra egiten badira, bai eta ondorengo ekitaldietarako soldata-gehikuntzak eragiten dituzten itunak ere, etorkizuneko aurrekontu-legeen xedapenen aurkakoak izanez gero.

Artikulu honetan ezarritako baldintzak bete gabe ezingo da baimendu 2014rako ordainsariak aplikatzearen ondorioz eragindako gasturik.

35. artikulua. *Kontratupeko langileak inbertsio-kredituen kontura kontratatzea.*

Bat. Ministerio-sailek, erakunde autonomoek estatu-agentziek zein Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileek eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak aldi baterako langileak kontratatu ahal izango dituzte 2014an obrak egiteko edo zerbitzuak emateko, erakunde bakoitzari dagozkion inbertsio-kredituen kontura, honako baldintza hauek betez gero:

a) Kontratuaren xedea obrak zuzenean gauzatzea, Estatuaren kontratuen legedia aplikatuz, edota inbertsio-izaera duten zerbitzuak ematea izatea.

b) Obra edo zerbitzu horiek Estatuko Aurrekontu Orokorretan aurreikusita eta onetsita dauden inbertsioekin lotuta egotea.

c) Obra edo zerbitzu horiek plantillako langile finkoen bidez egitea ezinezkoa izatea, eta aurrekontu-kredituan langileak kontratatzeko erabilgarritasun nahikoa ez egotea.

Bi. Kontratazioak aurrekontu-ekitaldia gainditu ahal izango du ekitaldi hori gainditu beharreko obrak edo zerbitzuak direnean, betiere urte anitzeko inbertsio-proiektuen barruan badaude; horretaz gain, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 47. artikuluan edota 2014rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearan bertan haientzat xedatutako baldintzak ere bete beharko dituzte.

Hiru. Kontratu horiek formalizatu baino lehen, Estatuko Abokatzak aztertu egingo ditu dagokion sailean, erakunde edo entitatean edota, hala dagokionean, Gizarte Segurantzaren Administrazioako abokatuak aztertuko ditu; bereziki, erabilitako kontratazio mota egokia den adieraziko dute, eta kontratuaren klausulak lanaren arloko legediak zehaztutako baldintzekin eta formaltasunekin bat ote datozen.

Lau. Beharrezkoa den kasuetan, artikulu honetan araututako kontratuak aldeztu aurretik fiskalizatuko dira, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 152. artikulutik 156. artikulura bitartean xedatutakoaren arabera. Ondorio horietarako, inbertsio-kredituak egokiak izango dira aldi baterako langileak kontratatzeko, aurrekontu-kontzeptuan xede horretarako berariaz esleitutako nahikoa kreditu ez baldin badago.

Kontu-hartzeko eginkizunik ez duten Estatuko erakunde autonomoetan, kontratu horiek egiteko, dagokion ikuskatzaile eskuordetuak aldeko txostena prestatu beharko du. Txosten horretan, adierazi beharko du aurrekontu-kontzeptuan ez dagoela nahikoa kreditu aldi baterako langileak dagokion kapituluan kontratatzeko. Erakunde autonomoa edo enpresa-entitate publikoa ez badago txostenarekin ados, Ogasun eta Herri Administrazio Ministeriora bidali ahal izango du espedientea, ebatz dezan.

36. artikulua. *Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen kostuen alorrean duen eskumena.*

Ministerio-sailen, erakundeen, estatu-agentzien, enpresa-erakunde publikoen eta Estatuko sektore publikoaren gainerako entitate publikoen esparruan eginiko akordio, hitzarmen, itun edo antzeko tresna guztiak, bai eta horiek betetzeko edo garatzeko hartzen diren neurriak ere, guztiz eraginkorrak izan daitezzen, aurretik haien gaineko aldeko txosten bat egin beharko du Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak, Aurrekontuen eta Gastuen Estatuko Idazkaritzaren bitartez; hala, erabat deusezak izango dira txosten hori gabe egiten direnak, eta horrelakoek ezin izango dute ekarri, zuzenean edo zeharka, langile-kostuen arloko gastu publikoa handitzea eta/edo lansariak handitzea.

## IV. TITULUA

### Pentsio publikoak

#### I. KAPITULUA

##### Pentsioen errebalorizazioa

37. artikulua. *Pentsioen errebalorizazioa.*

Gizarte Segurantzako sistemak ordaindutako pentsioak eta Klase Pasiboenak oro har ehuneko 0,25 igoko dira 2014an, lege honetan adierazitako moduan.

#### II. KAPITULUA

##### Estatuko Klase Pasiboen Araubideko pentsioen eta gerrako pentsio berezien hasierako zehaztapena

38. artikulua. *Estatuko Klase Pasiboen Araubideko pentsioen hasierako zehaztapena.*

Bat. Estatuko Klase Pasiboen Araubidearen estaldura-esparruan jasotako honako langile hauek, beren edo senideen alde, eragindako pentsio arruntei eta apartekoei aplikatuko zaie artikulua honetan xedatutakoa, arautzen duen legediaren arabera betiere:

1. Honako langile hauei aplikatzen zaie Estatuko Klase Pasiboen Legearen Testu Bateginak, apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, I. tituluaren ezarritakoa:

a) Estatuko, justiziako, gorte nagusietako eta legedi arautzaileak horrela xedatzen duen Estatuko edo konstituzioko beste organo batzuen administrazio-ko karrerako funtzionario zibilei, autonomia erkidegoetara eskualdatutakoei, bai eta karrerako langile militarren, langile militar osagarriei eta erretiro-adinera arte indar armatuetan egoteko eskubidea duten soldadutza eta marineltza profesionaleko eskaletakoei, betiere 1984ko abenduaren 31ren ostean administrazio-egoeran badaude edo egun hori baino lehen erretiroa hartu ez badute.

b) 1986ko urtarrilaren 1etik aurrera praktikak egiten aritu diren funtzionarioei, eta 1985eko urtarrilaren 1etik aurrera eskola edo akademia militarren bateko ikasle izan, eta zaldun alferrez kadete, alferrez ikasle, sarjentu ikasle edo itsaszain mailetara igo direnei.

c) 1965eko urtarrilaren 1a baino lehen izendatutako bitarteko funtzionarioei, Estatuko Aurrekontu Orokorretan zehaztutako soldata jaso badute langileentzako partidatik, eta eskubide pasiboak eragin dituen gertakaria 1985eko abenduaren 31tik aurrera gertatu bada.

2. Honako langile hauei aplikatzen zaie 1984ko abenduaren 31n indarrean zegoen legedia, Estatuko Klase Pasiboen Legearen Testu Bateginaren II. tituluaren adierazitako aldaketekin:

a) Estatuko, justiziako, gorte nagusietako eta legedi arautzaileak horrela xedatzen duen Estatuko edo konstituzioko beste organo batzuen administrazioko karrerako funtzionario zibilei, autonomia erkidegoetara eskualdatutakoei, bai eta karrerako langile militarren, langile militar osagarriei eta erretiro-adinera arte indar armatuetan egoteko eskubidea duten soldadutza eta marineltza profesionaleko eskaletakoei, baldin eta 1985eko urtarrilaren 31 baino lehen hil badira edo erretiroa hartu badute.

b) 1965eko urtarrilaren 1a baino lehen izendatutako bitarteko funtzionarioei, Estatuko Aurrekontu Orokorretan zehaztutako soldata jaso badute langileentzako partidatik, eta eskubide pasiboak eragin dituen gertakaria 1986ko urtarrilaren 1a baino lehen gertatu bada.

Bi. Artikulu honen Bat.1 paragrafoan adierazitako langileek eragindako pentsioen hasierako zehaztapenerako, honako hartzeko arautzaile hauek hartuko dira kontuan 2014rako:

a) 1985eko urtarrilaren 1etik aurrera, kidego, eskala, lanpostu, enplegu edo administrazio-kategoriaren batean sartutako langileen hartzeko arautzaileak:

Taldea/Azpitaldea 7/2007 Legea	Hartzeko arautzailea Euro urtean
A1	40.158,22
A2	31.605,54
B	27.675,77
C1	24.273,59
C2	19.204,44
E (30/1984 Legea) eta profesionalen multzoak (7/2007 Legea)	16.373,31

b) 1985ko urtarrilaren 1a baino lehen sartutako langileen hartzeko arautzaileak:

#### ESTATUKO ADMINISTRAZIO ZIBIL ETA MILITARRA

Proporzionaltasun-indizea	Hartzeko arautzailea Euro urtean
10	40.158,22
8	31.605,54
6	24.273,59
4	19.204,44
3	16.373,31

#### JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

Indize biderkatzailea	Hartzeko arautzailea Euro urtean
4,75	40.158,22
4,50	40.158,22
4,00	40.158,22
3,50	40.158,22
3,25	40.158,22
3,00	40.158,22
2,50	40.158,22
2,25	31.605,54
2,00	27.675,78
1,50	19.204,44
1,25	16.373,31



## KONSTITUZIO AUZITEGIA

Kidegoa	Hartzeko arautzailea Euro urtean
Idazkari nagusia . . . . .	40.158,22
Letraduak . . . . .	40.158,22
Gerentea . . . . .	40.158,22

## GORTE NAGUSIAK

Kidegoa	Hartzeko arautzailea Euro urtean
Letraduak . . . . .	40.158,22
Artxibozain-liburuzainak . . . . .	40.158,22
Goi-mailako aholkulariak . . . . .	40.158,22
Erredaktoreak, takigrafoak eta estenotipistak . . . . .	40.158,22
Teknikari-administrariak . . . . .	40.158,22
Administraria . . . . .	24.273,59
Atezainak . . . . .	19.204,44

Hiru. Artikulu honen Bat.2 paragrafoan adierazitako langileek eragindako pentsioen hasierako zehaztapena egiteko, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera ondorio ekonomikoak izan ditzaten, honako arau hauek aplikatzearen ondorioz ateratzen diren oinarri arautzaileak aintzat hartuko dira:

a) Eragileari soldataren eta, hala badagokio, graduaren kontzeptuengatik dagokion zenbatekoa hartuko da, kidegoaren arabera edota hura sartuta dagoen kidego, karrera, eskala, plaza, enplegu edo kategoriak 1984ko abenduaren 31n esleituta duen indize biderkatzaile edo proportzionaltasun-indizearen eta administrazio-karrera mailaren arabera; horiek honakoak dira:

## ESTATUKO ADMINISTRAZIO ZIBIL ETA MILITARRA

Proportzionaltasun- Zenbatetik indizea	Maila	Maila berezia	Soldata eta graduko kontzeptuagatik zenbatekoa urtean – Eurotan
10 (5,5)	8		26.921,08
10 (5,5)	7		26.181,19
10 (5,5)	6		25.441,35
10 (5,5)	3		23.221,71
10	5		22.843,92
10	4		22.104,08
10	3		21.364,23
10	2		20.624,30
10	1		19.884,43
8	6		19.209,96
8	5		18.618,18
8	4		18.026,37
8	3		17.434,56
8	2		16.842,78
8	1		16.250,96

Proporzionaltasun- Zenbatetik indizea	Maila	Maila berezia	Soldata eta graduko kontzeptuagatiko zenbatekoa urtean – Eurotan
6	5		14.634,46
6	4		14.190,75
6	3		13.747,10
6	2		13.303,35
6	1	(100eko 12)	14.349,56
6	1		12.859,62
4	3		10.828,79
4	2	(100eko 24)	12.921,43
4	2		10.532,92
4	1	(100eko 12)	11.432,36
4	1		10.237,01
3	3		9.349,93
3	2		9.128,03
3	1		8.906,18

## JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

Indize biderkatzailea	Soldatagatiko zenbatekoa urtean – Eurotan
4,75	43.962,88
4,50	41.649,04
4,00	37.021,35
3,50	32.393,68
3,25	30.079,86
3,00	27.766,01
2,50	23.138,34
2,25	20.824,51
2,00	18.510,69
1,50	13.883,01
1,25	11.569,18

## KONSTITUZIO AUZITEGIA

Kidegoa	Soldatagatiko zenbatekoa urtean – Eurotan
Idazkari nagusia . . . . .	41.649,04
Letraduak . . . . .	37.021,35
Gerentea . . . . .	37.021,35

## GORTE NAGUSIAK

Kidegoa	Soldatako kontzeptuagatiko zenbatekoa urtean – Eurotan
Letraduak . . . . .	24.228,21
Artxibozain-liburuzainak . . . . .	24.228,21
Goi-mailako aholkulariak . . . . .	24.228,21
Erredaktoreak, takigrafoak eta estenotipistak . . . . .	22.249,09
Teknikari-administrariak . . . . .	22.249,09
Administraria . . . . .	13.399,19
Atezainak . . . . .	10.598,91

b) Aurreko idatz-zatian xedatutako ariketatik ateratzen den kopuruari honako biderketa honen emaitza gehitu behar zaio: egiaztatutako hiru urtekoen kopurua bider eragileari zerbitzu emandako kidegoaren, karreraren, eskalaren, lanpostuaren, enpleguaren edo kategoriaren arabera hiru urteko bakoitzeko dagokion balioa. Hala badagokio, ondorengo koadroetan esleitutako proportzionaltasun-indizeak edo indize biderkatzaileak hartuko dira kontuan:

## ESTATUKO ADMINISTRAZIO ZIBIL ETA MILITARRA

Proportzionaltasun-indizea	Hiru urtekoaren unitate-balioa urtean – Eurotan
10	869,68
8	695,76
6	521,78
4	347,90
3	260,91

## JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

Indize biderkatzailea	Hiru urtekoaren unitate-balioa urtean – Eurotan
3,50	1.619,67
3,25	1.504,00
3,00	1.388,30
2,50	1.156,90
2,25	1.042,65
2,00	925,55
1,50	694,15
1,25	578,47

## KONSTITUZIO AUZITEGIA

Kidegoa	Hiru urtekoaren unitate-balioa urtean – Eurotan
Idazkari nagusia . . . . .	1.619,67
Letraduak . . . . .	1.619,67
Gerentea . . . . .	1.619,67

## GORTE NAGUSIAK

Kidegoa	Hirurtekoaren unitate-balioa urtean – Eurotan
Letraduak . . . . .	990,64
Artxibozain-liburuzainak . . . . .	990,64
Goi-mailako aholkulariak . . . . .	990,64
Erredaktoreak, takigrafoak eta estenotipistak . . . . .	990,64
Teknikari-administrariak . . . . .	990,64
Administraria . . . . .	594,40
Atezainak . . . . .	396,24

Lau. Artikulu honetan araututako pentsioen hileroko zenbatekoa zehazteko, aurreko paragrafoetan xedatutako arauetan eta aplikagarri den legedian oinarrituz kalkulatu den urteko zenbatekoa 14 zatitan banatuko da.

39. artikulua. *Gerrako pentsio berezien hasierako zehaztapena.*

Bat. Irailaren 18ko 5/1979 Legearen babesean gerra zibilaren ondorioz hildakoen senideen alde baietsitako pentsioak 2014an ezingo dira izan txikiagoak, Gizarte Segurantzako 65 urtetik gorakoentzako alargun-pentsioen gutxieneko zenbatekoa baino, langile ez-funtzionarioek ezinduak ez dauden umezurtzen alde eragindako pentsioak izan ezik. Kasu horretan zenbatekoa izango da 1.824,37 eurokoa urtean.

Bi. 1. Ekainaren 26ko 35/1980 Legearen babesean Errepublikaren eremuko gudari ohi gerra-elbarriei aitortutako pentsioak, eragileak Indar eta Institutu Armatuak militar profesionalak ez baziren, honako zenbateko hauetakoak izango dira 2014rako:

a) Elbarri-pentsioa kalkulatu da 4.962,30 euroko urteko zenbatekoari ezintasun-maila bakoitzarentzat ezarritako ehunekoak aplikatuta.

b) Oinarrizko ordainsaria, hirurtekoen ordezkiko ordainsaria, eta jaso ez diren ordainsariak konpentsatzeko ordainsari gehigarriak, guztira, 13.383,22 eurokoak izango dira urtean.

c) Gizarte Segurantzako 65 urtetik gorakoentzako alargun-pentsioen gutxieneko zenbatekoaren berdina izango da senideen aldeko pentsioen zenbatekoa, ezinduak ez dauden umezurtzen aldeko pentsioen kasuan izan ezik, haien zenbatekoa 1.824,37 eurokoa izango baita urtean.

2. Militar profesionaltzat hartutako gudari ohien senideen aldeko pentsioen zenbatekoa –35/1980 Legearen babesean daude onartuta horiek– ezingo da txikiagoa izan Gizarte Segurantzaren sistemako 65 urtetik gorakoentzako alargun-pentsioen gutxieneko zenbatekoa baino.

Hiru. Martxoaren 29ko 6/1982 Legeak, gerrako elbarri zibilen oinarrizko ordainsariei buruzkoak, emandako babesean baietsitako pentsioek honako zenbateko hauek dituzte 2014rako:

a) Bigarren, hirugarren edo laugarren mailako ezintasuna aitortuta daukatenen oinarrizko ordainsaria urtean 9.368,25 eurokoa izango da.

b) Senideen aldeko pentsioen zenbatekoa Gizarte Segurantzako sisteman 65 urtetik gorakoentzako ezarritako alargun-pentsioen gutxieneko zenbatekoaren berdina izango da.

Lau. Martxoaren 5eko 670/1976 Dekretuaren babesean aitortutako 2014ko pentsioak kalkulatzeko, Aberriaren aldeko gerra-mutilatu zaldunen kidegoan sartu ezin izan ziren gerra-mutilatuen aldekoak, urtean 5.945,47 euroko zenbatekoari ezintasun-maila bakoitzerako finkatutako ehunekoak aplikatuko zaizkio.

Bost. Gerra zibilean Indar Armatueta, Ordena Publikoko Indarren eta Errepublikako Karabineroen Kidegoko kide izan zirenen eskubideak eta emandako zerbitzuak aintzatesten dituen urriaren 22ko 37/1984 Legeak II. tituluan ezarritakoaren babesean aitortutako pentsioek 2014an izango duten zenbatekoa kalkulatzeko, soldatari eta mailari dagokien zenbatekoa aplikatuko zaio aurreko 38.Hiru.a) artikuluan jasotako edukari.

Pentsio horien gutxieneko zenbatekoak ondoko hauek izango dira:

a) Eragileen aldeko pentsioetan, Gizarte Segurantzako sisteman ezkontidea ardurapean daukaten 65 urtetik gorakoentzat ezarritako erretiro-pentsioen gutxieneko zenbatekoa.

b) Alargun-pentsioetan, Gizarte Segurantzako sisteman 65 urtetik gorakoentzat ezarritako alargun-pentsioen gutxieneko zenbatekoa.

Sei. Artikulu honetan araututako pentsioen hileroko zenbatekoa zehazteko, aurreko paragrafoetan xedatutako arauetan eta aplikagarri den legedian oinarrituz kalkulatu den urteko zenbatekoa 12 zatitan banatuko da.

Ohiko hamabi hilabete-sariekin batera, aparteko bi hilabete-sari ordainduko dira, zenbateko berdinekoak, ekainaren 26ko 35/1980 Legearen babesean aitortutako mutilazio-pentsioetan izan ezik.

Aurreko paragrafoaren azken tartekian xedatutakoa gorabehera, mutilatuak, aipaturiko legean xedatutakoaren arabera gai gisa sailkatuta dagoenean, adierazitako aparteko ordainsariak jasotzeko eskubidea izango du.

### III. KAPITULUA

#### **Pentsio publikoen hasierako zehaztapenerako mugak**

40. artikulua. *Pentsio publikoen hasierako zehaztapenerako mugak.*

Bat. 1989rako Estatuko Aurrekontu Orokorren 37/1988 Legeak, abenduaren 28koak, 42. artikuluan adierazitako pentsio publikoen hasierako zehaztapenaren ondorioz 2014an jaso beharreko zenbatekoak ezin izango du hilean 2.554,49 euro baino handiagoa izan, titularrari legezkiokkeen aparteko ordainsariei kalterik egin gabe. Aparteko ordainsari horien zenbatekoak ere muga berdina izango du.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, pentsiodunak 14 ordainsari baino gutxiago edo gehiago jasotzeko eskubidea izanez gero –aparteko ordainsariak barne hartuta– hilabete-sarien muga hori egokitu beharko da, urtean 35.762,86 euroko zenbateko osoa ez gainditzeko.

Bi. Titular batek bi pentsio publiko edo gehiagorako eskubidea aldi berean duenean, horien guztien hasierako zehaztapenaren ondorioz batera jaso beharreko zenbatekoak aurreko paragrafoan ezarritako mugak izango ditu.

Horretarako, zehaztuko da, lehenik eta behin, pentsio publiko bakoitzaren zenbateko osoa, eta guztien batura 2.554,49 eurotik gorakoa izanez gero, proportzionalki murriztuko dira, zenbateko horretara egokitzeko.

Hala eta guztiz ere, pentsioen bat abenduaren 28ko 37/1988 Legearen 42.1.c) artikuluan adierazitako funtzionarioen mutualitateetako baten funts bereziaren konturakoa izanez gero, murrizketa edo ezabapena pentsio horren zenbateko osoari aplikatuko zaio lehentasunez, eta, ahal izanez gero, aitortzeko garaian. Beharrezkoa izanez gero, ondoren gainerako pentsioak proportzionalki murriztuko dira, guztien baturak gehienezko muga gainditu ez dezan.

Hiru. Pentsio publiko bat aurretik beste bat edo batzuk jasotzen ari den norbaiten alde hasieran zehazten denean, horien guztien zenbateko osoaren baturak artikuluko honen Bat paragrafoan ezarritako mugak gainditzen baditu, aipaturako muga gainditzen duen zatia kenduko da pentsio berriaren zenbateko osotik.

Hala eta guztiz ere, pentsio berriak aurtengo edo aurreko ekitaldi ekonomikoetan errenta salbuetsiaren izaera badu, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen

duen legedian xedatutakoaren arabera, interesdunak lehen eragindako pentsio publikoak murriztuko edo ezabatuko dira, titularrak hala eskatuz gero. Kasu horietan, erregularizazioaren ondorioek eskaera egindako urteko urtarrilaren 1era arte egingo dute atzera, edota pentsio berriaren lehenengo ordainketaren datara arte, data hori gerokoagoa izanez gero.

Lau. Aurreko paragrafoetan adierazitako hasierako zehaztapena egitean, erakunde edo entitate eskudunek ezin badute jakin onuradunari dagozkion beste pentsio batzuen zenbatekoa eta izaera zein diren, hasierako zehaztapena behin-behinekoa izango da, dagozkion egiaztapenak egin bitartean.

Behin-behineko zehaztapenak behin betiko erregularizatzean, pentsioaren titularrari, hala badagokio, bidegabeki jasotakoa itzul dezala eskatu beharko zaio. Itzultze hori pentsioaren hurrengo hilabete-sarien kontura egin ahal izango da.

Bost. Artikulu honen Bi eta Hiru paragrafoetan adierazitako hasierako zehaztapenaren zenbatekoa murriztu edo ezabatu ondoren, titularrak jasotzen dituen gainerako pentsio publikoen zenbatekoa edo osaera aldatzen bada, edozein arrazoi dela medio, egindako mugaketak berraztertu egingo dira, ofizioz edota interesdunak hala eskatuta. Berrikuspen horrek aldaketa egin den hilabetearen hurrengoaren lehenengo egunetik hasita izango ditu eraginak.

Dena dela, pentsio publikoak aldi berean jasotzean egindako hasierako zehaztapenak aldi berean berraztertuko dira.

Sei. Arau mugatzaileak aplikatzearen ondorioz pentsio publikoen hasierako zehaztapenen zenbatekoa murrizteak edo ezabatzeak ez ditu kaltetuko pentsioa aitortzearekin batera baiesten diren beste eskubideak.

Zazpi. Artikulu honetan xedatutako gehienezko muga ez zaie aplikatuko 2014an eragindako pentsio hauei:

a) Ekintza terroristen ondorioz sortutako Gizarte Segurantzako sistemako eta Estatuko Klase Pasiboen Araubideko ohiz kanpoko pentsioei.

b) Zerga, Administrazio eta Gizarte Alorreko Neurriei buruzko 62/2003 Legeak, abenduaren 30ekoak, berrogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren babesean aitortutako ohiz kanpoko pentsioei.

c) Atentatu terroristen ondorioz eragindako ohiz kanpoko pentsioei, ekainaren 23ko 6/2006 Errege Lege Dekretuaren babesean aitortutakoei.

Zortzi. Pentsio publikoen hasierako zehaztapena egitean titular batek aurreko paragrafoan adierazitako pentsio bat edo batzuk jasotzen dituenean, edota ekintza terroristen ondorioz aitortutakoak, uztailaren 10eko 851/1992 Errege Dekretuak, ekintza terroristen ondorioz sortutako ohiz kanpoko pentsio batzuk arautzen dituenak, II. tituluaren xedatutakoaren arabera Gizarte Segurantzako edozein araubide publikotan pentsioa jasotzeko eskubiderik ez dutenen alde, artikulu honetan adierazitako arau mugatzaileak ekintza terroristen ondorio ez direnei soilik aplikatuko zaizkie.

#### IV. KAPITULUA

##### **Pentsio publikoen balioak handitzea eta aldatzea**

41. artikulua. *Pentsio publikoen balioak handitzea eta aldatzea.*

Bat. Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko sistemaren bidez ordaindutako pentsioek, bai eta Estatuaren Klase Pasiboen pentsioek ere, ehuneko 0,25eko igoera izango dute 2014an, Lege honen 37. artikuluan xedatutakoari jarraiki, kapitulu honetako hurrengo salbuespenei kalterik egin gabe, eta aurreko 39. artikuluan gerra zibilaren legedi bereziaren babesean aitortutako pentsioei dagokienez ageri diren berme-zenbatakoei kalterik egin gabe.

1984ko abenduaren 31n indarrean zegoen legediaren babesean 2014an sortutako Estatuko Klase Pasiboen erretiro- eta alargun-pentsioen hasierako zenbatekoa, ekitaldi

ekonomiko honetan era horretako pentsioentzat ezarritako oinarri arautzaileen arabera kalkulaturik, 2004, 2006, 2007 eta 2008rako ezarritako ehuneko 1eko eta 2ko portzentajea aplikatuz zuzenduko da, dagokionaren arabera; 2004, 2006, 2007 eta 2008rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 61/2003, abenduaren 29ko 30/2005, abenduaren 28ko 42/2006 eta abenduaren 26ko 51/2007 Legeen bosgarren eta seigarren xedapen gehigarrien Lau paragrafoan, bai eta hamargarren xedapen gehigarrian ere, dago ezarrita portzentaje hori.

Bi. Estatuako Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzari buruzko Legearen testu bateginaren –ekainaren 23ko 4/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartua– seigarren xedapen gehigarriaren Bat puntuan xedatutakoarekin bat, Estatuako Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorren Funts Berezian jasotako pentsioek, baldin eta 2008ko abenduaren 31ren ostean eragin badira, 2014ko urtarrilaren 1ean murrizketa izango dute 2013ko abenduaren 31n jasotako zenbatekoekiko; aipatutako murrizketa 1978ko abenduaren 31ko zenbatekoaren –edo Erakunde Sindikaleko Funtzionarioen Montepioaren kasuan, 1977ko abenduaren 31koaren– eta 1973ko abenduaren 31koaren arteko aldearen ehuneko 20koa izango da.

Hiru. Abenduaren 28ko 37/1988 Legearen 42. artikuluan adierazitako aurreikuspen-erregimen edo sistemen kontura ordaintzen diren pentsioek, artikulua honetako aurreko paragrafoetan adierazita ez badaude, dagokien gorakada izango dute 2014an, 2013ko abenduaren 31n jasotako zenbatekoekiko, araudiari jarraituz betiere, eta kapitulu honetako ondorengo artikuluetan jasotako salbuespenak aintzat hartuta.

#### 42. artikulua. *Balioa handitu ezin duten pentsioak.*

Bat. Ondorengo pentsio publiko hauek ez dira igoko 2014an:

a) Abenduaren 28ko 37/1988 Legearen 42. artikuluan adierazitako edozein aurreikuspen-erregimen edo sistemen kontura ordaintzen diren pentsioak, baldin eta haien hileko zenbateko osoa, titularrak jasotzen dituen beste pentsio publiko batzuen hileko zenbateko osoari gehituta, 2.554,49 eurotik gorakoa bada hilean, zenbateko hori aurreko 40. artikuluan azaldutako moduan ulertuta.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko ekintza terroristen ondorioz sortutako Estatuako Klase Pasiboen Araubideko eta Gizarte Segurantzako sistemako ohiz kanpoko pentsioei, ez eta atentatu terroristen ondorioz sortutako eta ekainaren 23ko 6/2006 Errege Lege Dekretuaren babesean aitortutako ezohizko pentsioei, ez eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Alorreko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 62/2003 Legeak berrogeita hirugarren xedapen gehigarrian adierazitakoari jarraiki aitortutako pentsioei ere.

b) Estatuako Bidezainen alde 1985eko urtarrilaren 1a baino lehen aitortutako Klase Pasiboen pentsioak, salbu eta titularrak bidezain gisako pentsio hau bakarrik jasotzen badu.

c) 2013ko abenduaren 31n jada 1973ko abenduaren 31n zegozkion zenbatekoetara iritsitako Estatuako Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorren Funts Berezian sartuta dauden Mutualitateen pentsioak.

Bi. Estatuaren, autonomia-erkidegoen, toki-korporazioen edo erakunde autonomoen partaidetza nagusia duten enpresa edo sozietateetako langileak babesten dituzten mutualitate, montepio edo gizarte-aurreikuspeneko entitateen kasuan, erakunde edo entitate publiko horien funtsen bidez finantzatzen badira, edota erakunde edo entitate horiek pentsio osagarriak ordaintzen badizkiete zuzenean babes-ekintzan hartutako langileei, edozein kontzeptugatik, aplikatu beharreko araubide orokorrei ordaintzekoez gain, 41. artikuluan adierazitako balio-handitzeak gehienezko mugatzat hartuko dira, eta zilegi izango da pentsio osagarri horiei koefiziente txikiagoak aplikatzea, bai eta unitatea baino txikiagoak ere, bakoitzaren araudiaren edo adostutako itunen arabera.

43. artikulua. *Pentsio publikoen balioa handitzeko muga.*

Bat. 2014 urtean, pentsio publikoen balioa handitzeak ez du urteko 35.762,86 eurotik gorako balio oso bat eragingo.

Bi. Titular batek bi pentsio publiko edo gehiago jasotzen baditu, dagozkien balio-handitzeak egin ondoren haien guztien urteko zenbateko osoen baturak ezingo du gainditu adierazitako gehieneko muga. Gainditzen badu, balio-handitzearen zenbatekoa murriztuko da proportzionalki, muga horretara egokitu arte.

Horretarako, pentsioen balioa handitzeko entitate edo erakunde eskudun bakoitzak erabakiko du bere kontura diren pentsioen gehieneko muga urtean. Muga hori zifra bat izango da, eta zifra horrek 35.762,86 euroko urteko zenbateko osoarekiko duen proportzioak izan behar du, ezinbestean, pentsioen edo pentsioen zenbateko horrek titularrak jasotako pentsio publiko guztien baturarekiko duen proportzioaren berdina.

Aipatutako muga (L) honako formula hau aplikatuz kalkulatu da:

$$L = \frac{P}{T} \times 35.762,86 \text{ euro urtean}$$

«P» izanik 2013ko abenduaren 31n erakunde eskudunaren konturako pentsioak edo pentsioek lortutako urteko balio teoriko osoa, eta «T» izanik zifra horri titular berak egun horretan dituen gainerako pentsio guztien urteko balio osoa eranstearen emaitza.

Hala eta guztiz ere, interesdunak jasotzen duen pentsio publikoetako bat abenduaren 28ko 37/1988 Legearen 42.1.c) artikuluan zehaztutako Funtzionarioen Mutualitateetako baten Funts Bereziaren kontura izanez gero, edota lege honen 42.Bi artikuluan adierazitako entitateren baten konturako pentsioa balitz, balioa handituko ez duena, aurreko lerroketan jasotako arauak erregelamendu bidez egokituko dira, jaso daitekeen gehieneko mugara iristeko.

Hiru. Aurreko 40. artikuluko Lautik Zortzira bitarteko paragrafoetan xedatutakoa, biak barne hartuta, batera jasotzeko pentsioen balioa handitzen den kasuetan aplikatuko da, hala badagokio.

## V. KAPITULUA

**Gutxieneko pentsioen osagarriak**44. artikulua. *Klase Pasiboen pentsioetan gutxienekoetarako osagarriak aitortzea.*

Bat. Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginaren 27.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, gutxieneko zenbatekora iristeko osagarriak jasotzeko eskubidea izango dute Estatuko Klase Pasiboetako pentsiodunek, 2014an, baldin eta lanak edo kapitalak eragindako diru-sarrerarik ez badute, edota, haiek jasota ere urtean 7.080,73 euroko zenbatekoa gainditzen ez badute. Xede horietarako, gainbalioak edo ondare-irabaziak ere diru-sarrera horien artean zenbatuko dira.

Lanak edo kapitalak eragindako diru-sarrerak egiaztatzeko, haien aitortpena eta, egoki izanez gero, egindako zerga-aitorpenak aurkez ditzala eskatu ahal izango zaio pentsiodunari.

Hala eta guztiz ere, adierazitako kontzeptuengatik paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako zenbatekoa baino gehiago jasotzen duten Estatuko Klase Pasiboen pentsiodunek gutxienekoetarako osagarri bat jasotzeko eskubidea izango dute, diru-sarrera horien urteko zenbatekoaren eta balioa handitutako pentsioen batura txikiagoa izanez gero 7.080,73 euroko zenbatekoari pentsio mota horri xedatutako urteko gutxieneko zenbatekoa erantsita ematen duena baino. Kasu horretan, gutxienekoetarako osagarria bi batura horien arteko aldea izango da; betiere, diferentzia horren ondorioz



interesdunak hilean guztira jasotzen dituen pentsioa eta osagarria ez badira hilean dagokion gutxieneko pentsioa baino handiagoak.

Aurreko paragrafoetan ezarritako baldintzak betetzen direla joko da interesdunak 2013an jasotako diru-sarrerak 7.063,07 eurokoak edo gutxiagokoak izanez gero. Administrazioak eskuratutako frogen ondorioz, presuntzio hori bertan behera utzi ahal izango da.

Gutxienekoetarako osagarriak bermatzeko soilik, gizarte-aurreikuspeneko oinarritzko edozein araubide publikoren kontura ez diren pentsio publikoak lanak eragindako diru-sarrerekin parekatuko dira.

Lege-aurreikuspenei jarraiki, alargun-pentsioaren zati proportzional bat aitortuta dagoen kasuetan, gutxieneko pentsioen osagarria, hala badagokio, pentsioa aitortzeko aintzat hartu zen proportzio berean aplikatuko da.

Osagarriak aitortzearen ondorio ekonomikoak eskaera egindako urteko urtarrilaren 1era arte atzeraeragingo dira, edota pentsioa jasotzen hasitako egunera arte, urtarrilaren 1az gerokoa izanez gero.

Nolanahi ere, hori aitortzeko eskaera aurreko ekitaldiko gertaera eragilea duen pentsio bat kobratzeko eskubidea erabiltzeko unean egiten bada, ondorio ekonomikoak hura hasteko egunekoak izan ahalko dira, eta gehienez urtebeteko atzeraeragina egongo da eskaeratik.

Bi. Interesdunaren adierazpenengatik 2014an egiten diren osagarri ekonomikoen aitortzeak behin-behinekoak izango dira, harik eta adierazitakoaren errealitatea edo eraginkortasuna egiaztatzen den arte.

Administrazioak, aldi behin, osagarri ekonomikoak aitortzeko ebazpenak berrikusi ahal izango ditu, ofizioz edota interesdunak hala eskatuta. Berrikuspen horien ondorioz, pentsioaren titularrari bidegabeki jasotakoa itzul dezala eskatu ahal izango dio, hala badagokio. Itzultze hori pentsioaren hurrengo hilabete-sarien kontura egin ahal izango da.

Hiru. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera eragindako pentsioei dagokienez, pentsioen gutxienekora iristeko osagarriko eskubidea edukitzeko beharrezkoa izango da Espainiako lurraldean bizitzea. Adierazitako datatik aurrera eragindako pentsioen kasuan, osagarrien zenbatekoa ezin izango da urtean 5.122,60 eurotik gorakoa izan; kopuru hori lege honen 46.Bat artikuluan dago zehaztuta, erretiro- eta baliaezintasun-pentsioetarako, kotizaziopekoak ez diren kasuetan.

Lau. Klase Pasiboen urteko pentsioen gutxieneko zenbatekoak honako hauek izango dira 2014an:

Pentsio mota	Zenbatekoa		
	Ardurapeko ezkontiderekiko Euro urtean	Ezkontiderik gabe: pertsona bakarreko unitate ekonomikoa Euro urtean	Ezkontidearen ardurarik ez Ezkontidearen ardurarik ez Euro urtean
Erretiro-pentsioa.	10.932,60	8.860,60	8.404,20
Alargun-pentsioa.	8.860,60		
Alargun-pentsioa ez den pentsio familiarra, N pentsioaren edo pentsioen onuradunen kopurua izanik.	8.635,20 N		

Bost. Artikulu honen aurreko paragrafoetan araututako osagarri ekonomikoak ez zaizkie aplikatuko gerra zibilaren ondorioz sortutako legedi bereziaren babesean aitortutako pentsioei –horien zenbatekoak lege honen 39. artikuluan finkatu dira–; hala ere, salbuespen gisa, ondoko pentsio hauei aplikatu egingo zaizkie: urriaren 22ko 37/1984 Legearen II. tituluaren babesean aitortutako umezurtz-pentsioei, eta irailaren 18ko 5/1979 Legearen eta ekainaren 26ko 35/1980 Legearen babesean ezinduta ez dauden 21 urtetik gorako umezurtzen alde funtzionarioak ez diren langileek eragindako pentsioei.

45. artikulua. *Gizarte Segurantzako pentsioetan gutxienetarako osagarriak aitortzea.*

Bat. Erregelamendu bidez xedatutakoaren arabera, Gizarte Segurantzako sistemako kotizaziopeko pentsiodunek pentsioen gutxieneko zenbatekora iristeko osagarri ekonomikoak jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta 2014an ez badute lanak, kapitalak, jarduera ekonomikoak edo ondare-irabaziak eragindako diru-sarrerarik jasotzen, errenta horiei dagokienez pertsona fisikoen errentaren gaineko zergak ezarritako kontzeptuaren arabera, eta ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzaren lege Orokorren testu bateginaren 50. artikuluari jarraiki zenbatuta, edota, haiek jasota ere, urtean 7.080,73 euroko zenbatekoa gainditzen ez badute.

Errentak eta diru-sarrerak egiaztatzeko, haien aitortpena eta, egoki izanez gero, egindako zerga-aitorpenak aurkez ditzala eskatu ahal izango dio erakunde kudeatzaileak pentsiodunari.

Hala eta guztiz ere, adierazitako kontzeptuengatik paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako zenbatekoa baino gehiago jasotzen duten Gizarte Segurantzako kotizaziopeko modalitateko pentsiodunek gutxienekoetarako osagarri bat jasotzeko eskubidea izango dute, diru-sarrera horien urteko zenbatekoaren eta balioa handitutako pentsioaren batura txikiagoa izanez gero 7.080,73 euroko zenbatekoari pentsio mota horri xedatutako urteko gutxieneko zenbatekoa erantsita ematen duena baino. Kasu horretan, gutxienekoetarako osagarria bi batura horien arteko aldea izango da; betiere, diferentzia horren ondorioz interesdunak hilean guztira jasotzen dituen pentsioa eta osagarria ez badira hilean dagokion gutxieneko pentsioa baino handiagoak. Gutxienekoetarako osagarriak bermatzeko soilik, gizarte-aurreikuspeneko oinarritzko edozein araubide publikoren kontura ez diren pentsio publikoak lanak eragindako diru-sarrerekin parekatuko dira.

Espainiak eta Erresuma Batuak 2006ko irailaren 18an egindako hitzarmenaren babesean Espainiar pentsiodunei konpentsazio gisa emandako oroharreko zenbatekoak eta aldian behingo ordainketak ez dira kontuan hartuko pentsioen gutxieneko zenbatekora iristeko osagarriak aitortzeko ondorioetarako.

Bi. Aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen direla joko da, baldin eta interesdunak adierazten badu 2014an Bat paragrafoan esandako moduan zenbatutako etekinak eskuratu behar dituela, eta horiek, gehienez, 7.080,73 eurokoak direla.

Gizarte Segurantzako kotizaziopeko pentsiodunek, 2014ko ekitaldian, aurreko lerrokadak adierazitako zenbatekoa baino errenta metatu handiagoak eskuratzen badituzte, horren berri eman beharko diete erakunde kudeatzaileei, hori gertatu eta hilabeteko epean.

Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileek, errentak eta diru-sarrerak egiaztatzeko, haien aitortpena eskatu ahal izango diete uneoro osagarrien jasotzaileei, bai eta haien ondare-ondasunen gaineko aitortpen bat ere, eta, hala badagokio, aurkeztutako zerga-aitorpenak aurkezteko.

Hiru. Artikulu honetan xedatutako ondorioetarako, hauxe izango da pentsioaren titularraren ardurapeko ezkontidea: pentsiodunarekin bizi dena eta ekonomikoki haren mendean dagoena.

Honako baldintza hauek betetzen direnean egongo da mendekotasun ekonomikoa:

a) Pentsiodunaren ezkontidea ez izatea gizarte-aurreikuspeneko oinarritzko araubide publiko baten konturako pentsio baten titularra. Kontzeptu horren barruan, ondoko hauek egongo dira: beste Estatu batek aitortutako pentsioak, gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko subsidioak, hirugarren pertsona baten laguntzagatiko subsidioak –azken biak azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako desgaitasunik duten pertsonen eskubideei eta haiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateginean xedatuta daude– eta uztailaren 21eko 45/1960 Legean araututako laguntza-pentsioak.

b) Pentsiodunak edo ezkontideak jasotako edozein motatako errendimenduak, artikulu honen Bat paragrafoan adierazitako moduan zenbatuak, urtean 8.259,75 eurotik beherakoak izatea.

Aurreko lerrokan adierazitako urteko errendimenduen eta osatuko den pentsioaren urteko zenbatekoaren arteko batura txikiagoa izanez gero 8.259,75 euroko zenbatekoaren eta ezkontidea ardurapean izanda dagokion gutxieneko pentsioaren urteko zenbatekoaren arteko batura baino, diferentzia horren kopuru bereko osagarria aitortuko zaio, dagozkion hilabete-saritan banatuta.

Lau. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera eragindako pentsioei dagokienez, pentsioen gutxienekora iristeko osagarriko eskubidea edukitzeko beharrezkoa izango da Espainiako lurraldean bizitzea. Adierazitako datatik aurrera eragindako pentsioetan, aipatutako osagarrien zenbatekoa ezin izango da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bateginaren, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 50. artikuluko 2 paragrafoan zehaztutakoa baino handiagoa izan.

Bost. Gizarte Segurantzako sistemako kotizaziopeko modalitateko pentsioen urteko gutxieneko zenbatekoak honako hauek izango dira 2014an, pentsio mota eta titularrak bete beharreko baldintzak kontuan hartuta:

Pentsio mota	Titularrak		
	Ardurapeko ezkontiderekiko Euro urtean	Ezkontiderik gabe: pertsona bakarreko unitate ekonomikoa Euro urtean	Ezkontidearen ardurarik ez Ezkontidearen ardurarik ez Euro urtean
<i>Erretiroa</i>			
65 urteko titularra . . . . .	10.932,60	8.860,60	8.404,20
65 urtetik beherako titularra . . . . .	10.246,60	8.288,00	7.831,60
Baliaezintasun handiko 65 urteko titularra . . . . .	16.399,60	13.291,60	12.607,00
<i>Ezintasun iraunkorra</i>			
Baliaezintasun handia . . . . .	16.399,60	13.291,60	12.607,00
Absolutua . . . . .	10.932,60	8.860,60	8.404,20
Guztira: 65 urteko titularra . . . . .	10.932,60	8.860,60	8.404,20
Guztira: 60 urtetik 64 urtera bitarteko titularra . . . . .	10.246,60	8.288,00	7.831,60
Guztira: Gaixotasun arrunta duen 60 urtetik beherako titularra . . . . .	5.510,40	5.510,40	% 55 araubide orokorraren kotizazioaren gutxieneko oinarria
Partziala, lan-istripuen araubidekoa: 65 urteko titularra . . . . .	10.932,60	8.860,60	8.404,20
<i>Alarguntasuna</i>			
Familia-zamak dituen titularra . . . . .		10.246,60	
65 urteko titularra edo ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duena . .		8.860,60	
60 urtetik 64 urtera bitarteko titularra . . . . .		8.288,00	
60 urtetik beherako titularra . . . . .		6.707,40	

Pentsio mota	Euro urtean
<i>Zurztasuna</i>	
Onuradun bakoitzeko . . . . .	2.706,20
Zurztasun absolutuan, gutxienekoa urtean 6.707,40 eurokoa izango da, eta onuradunen artean banatuko da, hala badagokio.	
Ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duen 18 urtetik beherako onuradun bakoitzeko . . . . .	5.325,60
<i>Senideen alde</i>	
Onuradun bakoitzeko . . . . .	2.706,20

Pentsio mota	Euro urtean
Alargun edo umezurtz pentsiodunik ez badago:	
– Hirurogeita bost urteko onuradun bakarra .....	6.542,20
– Hirurogeita bost urtetik beherako onuradun bakarra .....	6.161,40
Hainbat onuradun: Bakoitzari esleitutako gutxienekoa urtean 4.001,20 euroko zenbatekoa onuradunen kopuruaren artean hainbanatuta ateratzen den zenbatekoan handituko da.	

## VI. KAPITULUA

**Pentsio publikoen alorreko beste xedapen batzuk**

46. artikulua. *Gizarte Segurantzako kotizaziopekoak ez diren pentsioen hasierako zehaztapena eta balioa handitzea.*

Bat. 2014an, Gizarte Segurantzako sistemako erretiro- eta baliaezintasun-pentsioen zenbateko osoa, kotizaziopekoa ez den modalitatean, urtean 5.122,60 eurokoa izango da.

Bi. 2014rako, pentsioaren osagarri bat ezartzen da, 525 eurokoa urtean, pentsiodunik egiaztatuz gero etxebizitzaren jabe ez dela, eta etxebizitza bat alokatu duela bere ohiko bizileku izan dadin. Etxebizitza horren jabea ezin da izan pentsiodunaren ahaide (hirugarren maila arte), ez eta ezkontide ere, ez eta pentsiodunarekin harreman egonkorra eta ezkontideen arteko erlazio afektiboaren antzeko bizikidetzat partekatzen duen pertsona ere. Kotizaziopekoak ez diren pentsioak jasotzen dituzten hainbat pentsioduneko familia-unitateen kasuan, alokatze-kontratuaren titularrak soilik jaso ahal izango du osagarria; titularrak bat baino gehiago izanez gero, berriz, haietatik lehenengoak soilik.

Osagarri hori aitortzeko arauak abuztuaren 3ko 1191/2012 Errege Dekretuan xedatutakoak izango dira; errege-dekretu horrek Gizarte Segurantzako kotizaziopekoak ez diren pentsiodunentzat etxebizitza alokatzeko pentsio-osagarriak aitortzen ditu. Bertan 2012. urteari egiten zaizkion erreferentziak 2014.ari egiten zaizkiola ulertu beharko da.

47. artikulua. *Jada iraungita dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsioak.*

Bat. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, jada iraungita dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsioen zenbatekoa urtean 5.667,20 eurokoa izango da; betiere, titularrak beste pentsio publiko batzuk jasotzen ez baditu.

Xede horietarako, honako hauek ez dira aldi bereko pentsiotzat hartuko: martxoaren 18ko 3/2005 Legearen babesean adingabeak zirela gerra zibilaren ondorioz atzerriaritutako herritar espainiarrei aitortutako prestazio ekonomikoa, Espainiako gerra zibilaren ondoriozko mutilatu baliagarriek edo lehen graduko desgaituek jasotako pentsioa –araudi arautzailea edozein dela ere–, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako desgaitasunik duten pertsonen eskubideei eta haiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean aurreikusitako hirugarren pertsonaren laguntzagatiko subsidioak, eta terrorismo-ekintzen ondoriozko aparteko pentsioak.

Bi. Jada iraungita dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsioen zenbatekoa 5.504,80 eurokoa izango da urtean, Gizarte Segurantzaren sistemaren araubideren bateko alargun-pentsioekin batera edo horietako pentsio batekin batera jasotzen denean, bai eta, gainera, alarguntsako beste pentsio publiko batekin batera jasotzen denean, horien guztien zenbatekoen baturari Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritako muga aplikatzeari kalterik egin gabe, betiere interesdunek ez badute zenbateko handiagorik aitortuta 2005eko irailaren 1a baino lehenago; azken kasu horretan balio-handitzeari buruzko arau orokorrak aplikatuko dira, baldin eta, arau horien ondorioz, batera jaso beharreko pentsioen zenbatekoen batura oraindik muga horretatik gorakoa bada.

Hiru. Iraungitako Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruari dagozkion pentsioen balioa handituko da 2014an, aurreko paragrafoan adierazi gabeko beste pentsio publiko batzuekin batera jasotzen direnean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, batera jasotzen diren pentsioen urteko zenbatekoen (balioa handitu ostean) eta aipatutako Zahartzaro eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruari dagozkion zenbatekoen batura txikiagoa izanez gero, aseguru horri dagokion pentsioarentzat artikulu honen Bi paragrafoan ezarritako zenbatekoa baino, Zahartzaro eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruari dagokion pentsioen balioa handituko da, bi kopuruen arteko aldearen berdina izango den zenbatekoan. Diferentzia hori ez da finkagarria, eta interesdunak jasotzen dituen zenbatekoen edozein igoeraren bidez (balioak handitzeagatik edo aldian behingo prestazio berriak baiesteagatik) berdin daiteke.

Lau. Jada iraungita dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsio bat aitortzeko, Gizarte Segurantzako nazioarteko arau bidez aurreikusitakoaren arabera Espainiari lotutako beste herrialde batzuetan betetako aseguru-aldiak edo egoitza-aldiak hartu badira kontuan, hainbanatutako pentsiotik Espainiari dagokion zenbatekoa ezin izango da txikiagoa izan une bakoitzean dagokion Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruko pentsioen zenbatekoaren ehuneko 50 baino.

Berre hori bera jada iraungita dagoen Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Aseguruaz bestelako pentsioen titularrei ere aplikatuko zaie, baldin eta pentsio horietako bat jasotzeko eskaera egin badute, eta pentsioa eragin zuen gertaeraren egunean aseguru horrek eskatutako baldintza guztiak betetzen bazituzten.

## V. TITULUA

### Finantza-eragiketak

#### I. KAPITULUA

##### Zor publikoa

48. artikulua. *Zor publikoa.*

Bat. Ekonomiako eta Lehiakortasuneko ministroari Estatuaren Zorra handitzeko baimena ematen zaio, honako muga honekin: zor horren saldo biziak, 2014ko abenduaren 31n, ez dezala gainditu 2014ko urtarrilaren 1ekoa 72.958.280,98 mila eurotik gorako kopuruan.

Bi. Muga horrek ekitaldiaren amaieran izango du eraginkortasuna; hortaz, ekitaldiak irauten duen bitartean, muga hori gainditu ahal izango da. Honako gorabehera hauen bitartez, automatikoki berrikusita geratuko da:

- a) I. kapitulutik VIII. kapitulura bitarteko aurrekontu-kredituen aldaketa garbien zenbatekoa.
- b) Lege honetan jasotako diru-sarreraren aurreikuspenen eta diru-sarrera horien benetako bilakaeraren arteko aldea.
- c) I. kapitulutik VIII. kapitulura bitarteko guztirako aurrekontu-kredituen eta ekitaldian aipatutako kapituluetan baietsitako obligazioen zenbateko osoaren arteko aldea.
- d) Legez xedatutako aurrekontukoak ez diren eragiketek sortutako aldaketa garbiak eta diruzaintzako aurrerakinak.
- e) Estatuaren eskubide eta betebeharrak baietsietan –diru-sarrerak edo ordainketak egiteke– aldaketa garbia.

Berrikuspen horien ondorioz, aurreko paragrafoan adierazitako muga handitu edota txikitu egingo da, Estatuaren finantzaketa-premia areagotzen edota murrizten duten, hurrenez hurren.

49. artikulua. *Organismo publikoei baimendutako kreditu-eragiketak.*

Bat. Lege honen III. eranskinean adierazitako erakunde publikoei baimena ematen zaie 2014an kreditu-eragiketak hitzartzeko, aipatutako eranskinean erakunde bakoitzarentzat adierazitako zenbatekoaren arabera.

Halaber, III. eranskin horretan adierazitako enpresa-entitate publikoei 2014an kreditu-eragiketak hitzartzeko baimena ematen zaie, aipatutako eranskinean entitate bakoitzarentzat adierazitako zenbatekoetan. Kasu horretan, baimena urtearen barruan hitzartzen eta kitatzen ez diren kreditu-eragiketarako izango da, Aurrekontuen Lege Orokorraren 111.4 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Bi. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren mende dauden Ikerketako erakunde publikoek (Nekazaritzaren eta Elikaduraren arloko Ikerketa eta Teknologiako Institutu Nazionala; Ikerketa Zientifikoaren Goi Kontseiluaren Estatu Agentzia; Espainiako Geologia eta Meatzaritza Institutua; Karlos III.a Osasun Institutua; Kanarietako Astrofisika Institutua; Espainiako Ozeanografia Institutua eta, Energia, Ingurumen eta Teknologia Ikerketa Zentroa), Defentsa Ministerioaren mende dagoen Esteban Terradas Teknika Aeroespazialeko Institutu Nazionalak eta Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak kreditu-eragiketak hitzartu ahal izango dituzte Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren edo Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren aurrekontuko 8 kapituluaren kontura ematen zaizkien aurrerakin itzulgarrien ondorioz.

Europako Eskualde Garapenerako Funtzaren kontura finantzatzen diren gastuak, justifikatutakoan, zati batez ordaintzeko funts erabilgarriak egon daitezen ematen diren aurrerakinei bakarrik aplikatu ahal izango zaie baimen hori.

Hiru. Aipatutako III. eranskinean ageri diren Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren mendeko erakundeek, dagozkien eragiketan hitzartu aurretik eta zorpetzearen xedea egiaztatzeko, baimena eskatu beharko diote Aurrekontuen eta Gastuen estatuko Idazkaritzari; horretaz gain, eragiketa justifikatzen duen ekonomia- eta finantza-plan bat ere aurkeztu beharko dute, bai eta zorpetzea erakundeak Europako funtsekin batera finantzatzeko eragiketen ordainketen eta ordainketa horiei dagozkien Erkidegoaren itzulkinen arteko desoreken ondorioz gertatzen diren diruzaintza-defizitak estaltzeko eskatzen denean ere.

50. artikulua. *Hornitzaileei Egin Beharreko Ordainketak Finantzatzeko Funtzaren zorpetze-eragiketak baimentzea.*

Hornitzaileei Egin Beharreko Ordainketak Finantzatzeko Funtzari baimena ematen zaio 2014an zorpetu ahal izateko, honako baldintza honekin: zor biziaren bolumenak, 2014ko abenduaren 31n, diruzaintzako eta epe laburreko aktiboetako saldoa kenduta, ez du gainditu beharko 47.500.000 mila euroko gehieneko muga.

51. artikulua. *Estatuaren zorraren bilakaerari buruzko informazioa Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioari, Diputatuen Kongresuari eta Senatuari ematea; eta Altxorrek Espainiako Bankuan edo beste finantza-erakunde batzuetan zabalduetako kontuei buruzko informazioa Diputatuen Kongresuari eta Senatuari ematea.*

Estatuko edo honek bere gain hartutako zorra, hartutakoa finantza-karga bakarrik bada ere, kudeatzeaz arduratzen diren organismo publikoek honako informazio hau helaraziko diote Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Altxor eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiari: hiru hilean behin, egindako ordainketei buruzkoa eta hiru hilekoko azken egunean zorrak duen egoerari buruzkoa, eta urtearen hasieran, ekitaldirako finantza-gastuen eta amortizazioen aurreikuspenari buruzkoa.

Estatuak eta erakunde autonomoek hitzartutako finantza-eragiketen saldo zehatza jakinaraziko die gobernua Gorte Nagusiei Aurrekontu Bulegoaren bitartez, bai eta Altxorrek Espainiako Bankuan edo beste finantza-erakunde batzuetan irekitako kontu kopurua zein saldoen zenbatekoak eta bilakaera ere. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

52. artikulua. *Banku Berregituraketa Ordenaturako Funtsekoak ez diren baliabideak.*

Kreditu-erakundeak berregituratzeari eta suntsiarazteari buruzko azaroaren 14ko 9/2012 Legearen 53.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, 2014ko ekitaldian, Banku Berregituraketa Ordenaturako Funtsekoak ez diren baliabideak ez dira 63.500.000 mila eurotik gorakoak izango.

## II. KAPITULUA

**Abal publikoak eta beste berme batzuk**

53. artikulua. *Estatuaren abalen zenbatekoa.*

Bat. Estatuko Administrazio Orokorrak 2014ko ekitaldian emango dituen abalen gehieneko zenbatekoa ez da 3.725.000 mila eurotik gorakoa izango.

Bi. Aurreko paragrafoan adierazitako guztirakoan, honako zenbateko hauek erreserbatuko dira:

a) 3.000.000 mila euro ondorengo artikuluan xedatutako aktiboen titulizazio-funtsen bidez jaulkitako errenta finkoko baloreak bermatzeko abaletarako.

b) 225.000 mila euro; Afrika, Karibe eta Ozeano Bareko herrialdeei (AKOB) eta itsasoz harandiko herrialde eta lurraldeei (IHHL) bere baliabideen kontura eta Cotonou IIIko akordioen ondorioz eman ahal dizkien kredituek ekarritako betebeharrak bermatzeko, Europako Inbertsio Bankuarekin izapidetzen den berme-kontratuak finkatzen duen moduan.

c) Aurreko paragrafoetan erreserbatuta ez dauden 500.000 mila euroko zenbatekoan, 40.000 mila euroko gehieneko muga ezartzen da Espainian egoitza duten ontzi-enpresek hitzartutako kreditu-eragiketen ondoriozko betebeharrak bermatzeko, betiere horrelakoak Espainiako merkataritza-ontzidia berritzera eta modernizatzerara bideratuta badaude, merkataritzako itsasontzi berriak, eraikitzen ari direnak edo gehienez bost urteko antzinatasuna duten itsasontzi erabiliak erosteko aukerarekin alokatuz edo erosteko aukerarekin finantza-errentamendua gauzatuz.

Itsasontziaren erosketa formalizatu eta sei hilabete igaro ondoren aurkeztutako abal-eskaerak ezin izango dira aintzat hartu.

Itsasontziaren erosketa formalizatu baino lehen emandako abala eraginkorra izan dadin, formalizazio hori sei hilabeteko epea agortu baino lehen egin beharko da, abala eman izana jakinarazitako egunetik kontatzen hasita.

Abalatutako zenbatekoa ez da izango finantzatutako itsasontziaren prezio osoaren ehuneko 35 baino handiagoa.

Sistema honen bidez asegura daitezkeen maileguen baldintzak martxoaren 11ko 442/1994 Errege Dekretuan, ontzigintzarako primei eta finantzaketari buruzkoan, edo hura aldatzen duten ondorengo xedapenetan ezarritakoak izango dira, gehienez ere.

Edonola ere, eragiketaren bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren eta arriskuaren ebaluazioa oinarri hartuta baimenduko dira abalak.

Abal horien eskaerak, emateak eta baldintzak lege honetan, urriaren 14ko PRE/2986/2008 Aginduan, edo agindu hori aldatzen duten ondorengo xedapenetan ezarritakoaren arabera eraenduko dira. Aipaturiko aginduaren bidez, akordio hau argitaratu zen: Espainiako merkataritza-ontzidia berritzeko eta modernizatzerako kreditu-eragiketak finantzatzeko, Estatuak eman ditzakeen abalak bideratzeko prozedura ezartzen duen Gai Ekonomikoetarako Gobernu Batzorde Eskuordetuaren akordioa.

Hiru. Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiari baimena ematen zaio Estatuak bermatutako obligazioei dagozkien ordainketak altxortegi-eragiketen bidez egiteko, xede horretarako ezarritako kontzeptuaren kontura, ondoko abal hauek gauzatzean: 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorraren abenduaren 22ko 39/2010 Legearen Bi.b) paragrafoko abalak, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorraren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen Bi.b) eta Bi.e) paragrafoko abalak, 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorraren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen 54. artikuluan Bi.b) paragrafoko abalak, eta urriaren 13ko 7/2008 Errege Lege Dekretuaren, Euroguneko Herrialdeen Itunpeko Ekintza Planari lotutako Ekonomia eta Finantza Arloko Neurri Urgenteei buruzkoaren, 1. artikuluan adierazitakoak.

Hala egin ondoren, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiak ekitaldian egindako ordainketak behin betiko sartuko ditu gastuen aurrekontuan, urtero abenduan egindako ordainketak izan ezik, horiek hurrengo urteko aurrekontuan sartuko baititu.

54. artikulua. *Aktiboen titulizazio-funtsen bidez jaulkitako errenta finkoko baloreak bermatzeko abalak.*

Bat. Estatuak, 2014ko ekitaldian, abalak eman ahal izango ditu, 3.000.000 mila euroko gehienezko zenbatekora arte, Estatuako Administrazio Orokorrak eta Balore Merkatuko Batzorde Nazionalen inskribatutako aktiboen titulizazio-funtsak kudeatzen dituzten sozietateek sinatutako hitzarmenen babesean eraturako aktiboen titulizazio-funtsen bidez jaulkitako errenta finkoko baloreak bermatzeko, enpresen ekoizpen-jarduera finantzatzearren. Kreditu-kalifikazioa duten aktiboen titulizazio-funtsen bidez jaulkitako errenta finkoko baloreen serie edo mota bakoitzeko bonoen balio nominalaren ehuneko 80 arte abalatu ahal izango da, gutxienez A1, A+ edo parekoa den abala eman izana aintzat hartu gabe.

Titulizazio-funtsari lagatako aktiboak egoitza Espainian duten mota guztietako enpresa ez-finantzarioei emandako maileguak edo kredituak izango dira. Hala ere, sektore jakin bati lagatako aktiboak, 2009ko Jarduera Ekonomikoen Saillkapen Nazionalaren banaketa-mailaren arabera, ezin izango du titulizazio-funtsari lagatako aktiboaren guztizkoaren ehuneko 25 gainditu. Ondorio horietarako mailegutzat edo kreditutzat ere hartuko dira *leasing*-eragiketen ondoriozko aktiboak.

Aktiboen titulizazio-funtsak modu irekian eratu ahal izango dira, maiatzaren 14ko 926/1998 Errege Dekretuaren 4. artikuluan adierazitakoari jarraiki. Xedapen horrek aktiboen titulizazio-funtsak eta titulizazio-funtsen kudeatzaile diren sozietateak arautzen ditu, eratzen direnetik gehienez ere bi urteko epean, baldin eta titulizazio-funtsari lagatako aktiboak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera emandako maileguak edo kredituak badira.

Titulizazio-funts bat eratzeko, kreditu-entitate interesdunek egoitza Espainian duten mota guztietako enpresa ez-finantzarioei emandako mailegu eta kredituak laga beharko dituzte. Lagatako maileguen eta kredituen gutxienez ehuneko 50 enpresa txiki eta ertainei emana egon behar da, eta maileguen eta kredituen saldo biziaren gutxienez ehuneko 25en hasierako amortizazio-epea gutxienez urtebetekoa izan behar da.

Maileguak eta kredituak lagatzen dituen entitateak egoitza Espainian duten mota guztietako enpresa ez-finantzarioei lagatako mailegu edo kredituetan berrinbertitu beharko du titulizazio-prozesuaren ondorioz lortutako likidezia; eta enpresa horien ehuneko 80, gutxienez, enpresa txiki eta ertainak izan beharko dira. Berrinbertsioaren ehuneko 50, gutxienez, urtebeteko epean egin beharko da, likidezia eskuratu den egunetik kontatzen hasita; gainerakoa, bi urteko epean berrinbertitu beharko da. Xede horietarako, entitateak eraketaren unean titulizazio-funtsari lagatako aktiboei dagokien zenbatekoa izango da eskuratutako likidezia, bai eta, funtsaren izaera irekiaren ondorioz, lehen aipatutako bi urteko epean egindako geroko lagapenetakoa ere.

Bi. Aurreko paragrafoan adierazitako aktiboen titulizazio-funtsen bidez jaulkitako errenta finkoko baloreak bermatzeko Estatuak emandako abal guztien zenbateko bizi metatua ezin izango da 9.100.000 mila eurotik gorakoa izan 2014ko abenduaren 31n.

Hiru. Artikulu honetako 1 paragrafoan adierazitako abalak ematea Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak hitzartu beharko du funtsa eratzean eta nahitaezko espedientea izapidetu aurretik.

Lau. Aktiboen titulizazio-funtsak kudeatzen dituzten sozietateek abalen ondorioz Estatuak bere gain hartutako arriskua kontrolatzeko beharrezkoa den informazioa eman beharko diote Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiari; batez ere, aktiboen titulizazio-funtsen bidez jaulkitako errenta finkoko baloreetan amortizatu gabe dagoen muinaren guztirako bolumenari buruzkoa, eta titulizatutako zorroko aktibo ordaingabeen edo kobraezinen tasari buruzkoa.

Bost. Aurreko paragrafoetan adierazitako aktiboen titulizazio-funtsak eratzean, ez da notario-zergarik ordaindu beharko, ez eta erregistro-zergarik ere.

Sei. Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiari baimena ematen zaio, artikulu honetan azaldutako Estatuaren abalak eta aurreko ekitaldietan emandakoak gauzatzean, bermatutako obligazioei dagozkien ordainketak egin ditzan, aurrekontukoak ez diren eragiketen bidez, horretarako berariaz sortutako kontzeptu baten kontura.



Hala egin ondoren, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiak ekitaldian egindako ordainketak behin betiko sartuko ditu gastuen aurrekontuan, ekitaldiaren amaieran egindako ordainketak izan ezik, horiek hurrengo urteko aurrekontuan sartuko baititu.

Zazpi. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioari ahalmena ematen zaio artikuluko honetako Bat paragrafoan adierazitako hitzarmenek bete beharreko arau eta baldintzak ezar ditzan.

Zortzi. Industriaren eta Enpresa Txiki eta Ertainen Zuzendaritza Nagusiaren titularrari baimena ematen zaio eskabideak aurkezteko epea berrieki dezan, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarekin aurrez adostuta, aurreko prozesuetan ez denean artikuluko honetako Bat paragrafoan adierazitako aurrekontu-zuzkidura agortu.

55. artikulua. *Enpresa-entitate publikoen eta Estatuko merkataritza-sozietateen abalak.*

Partaidetza Industrialen Estatu Sozietateari baimena ematen zaio 2014ko ekitaldian abalak eman ditzan, gehienez ere 1.210.000 mila euroko mugara arte, hitzartutako kreditu-eragiketei dagokienez, eta aipaturiko ekitaldian kapitalean zuzeneko edo zeharkako partaidetza duten merkataritza-sozietateek esleitze-lehiaketetatik eratorritako obligazioei dagokienez.

56. artikulua. *Emandako abal publikoei buruzko informazioa.*

Gobernuak, hiru hilean behin, emandako abal publikoen zenbatekoa eta ezaugarri nagusiak jakinaraziko dizkie Gorte Nagusiei bere Aurrekontu Bulegoaren bitartez. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

### III. KAPITULUA

#### **Estatuaren eta Kreditu Ofizialeko Institutuaren arteko harremanak**

57. artikulua. *Garapena Sustatzeko Kooperazio Funtza (FONPRODE).*

Bat. Garapena Sustatzeko Funtserako zuzkidura 235.230 mila eurokoa izango da 2014an, 12.03.143.874 «Garapena Sustatzeko Funtza (FONPRODE)» aurrekontu-aplikazioaren kontura, eta urriaren 22ko 36/2010 Legeak, Garapena Sustatzeko Funtzari buruzkoak, 2. artikuluan xedatutako helburuetara bideratuko da.

Bi. Ministroen Kontseiluak FONPRODE funtsaren konturako eragiketak egiteko baimena eman ahal izango du 2014an, 375.000 mila euroko zenbatekora arte.

Hiru. 2014an, eragiketa itzulgarriak soilik baimendu ahal izango dira FONPRODE funtsaren kontura, bai eta funtsaren kudeaketatik eratorritako gastuei aurre egiteko beharrezko diren eragiketak ere, edota funtsak formalizatutako eragiketei lotutako bestelako gastuei aurre egiteko beharrezko direnak.

Baimena eman ahal izango da, halaber, aurrez Funtzaren kontura emandako kredituak birfinantzatzea xede duten eragiketak egiteko, herrialde mailegu-hartzaileen kanpo-zorra birnegoziatzearen Espainia parte-hartzaile dela adostutako alde biko edo alde anitzeko akordioak betetzeko egiten badira.

Lau. FONPRODE funtsaren aktiboetatik datozen itzulkin guztiak funts horretarako aurreikusitako zuzkiduraren baliabide gehigarri izango dira, itzulkin horiek Kanpo Arazoetako eta Lankidetzarako Ministerioaren ekimenez onetsitako eragiketen ondorio badira. FONPRODE funtsaren kontu korranteetan dauden zenbatekoak ere funtsaren baliabide izango dira, bai eta Altxorraren Zuzendaritza Nagusian aurreko ekitaldietako aurrekontu-zuzkiduren kontura FONPRODE funtsaren izenean fiskalizatutako eta gordailutatutako zenbatekoak ere, jatorria edonolakoa izanda ere. Baliabide horiek edozein konpromisor erantzuteko erabili ahal izango dira, funtsari aplikagarri zaion araudian aurreikusitako prozeduren arabera konpromiso hori FONPRODE funtsaren kontura egitea erabaki bada.

Bost. Kreditu Ofizialeko Institutuari esleitu zaion funtzioa betetzean sortutako gastuak estal ditzan urtero eman beharreko konpentsazioa, Garapena Sustatzeko Funtzari buruzko urriaren 22ko 13/2010 Legeak 14. artikuluan xedatutakoa, FONPRODE funtsaren baliabideen kontura gauzatuko da, Ministroen Kontseiluaren akordioaren bidez baimena jaso ostean.

58. artikulua. *Uraren eta Saneamenduaren Lankidetzaren Funtza.*

Abenduaren 26ko 51/2007 Legeak, 2008rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak, hirurogeita batgarren xedapen gehigarrian aipatutako Uraren eta Saneamenduaren Lankidetzaren Funtza 15.000 mila eurokoa izango da 2014an, eta xedapen gehigarri horren hirugarren atalean aurreikusitako xedeetarako bideratuko da.

Ministroen Kontseiluak Funtzaren konturako eragiketak egiteko baimena eman ahal izango du 2014an, 28.296,00 mila euroko zenbatekora arte. Itzulketetatik datozen funtsekin itzulgarriak ez diren eragiketak baino ezin izango dira baimendu, eta funtsaren kontrako aldeek zenbateko horiek itzultzen dituzten neurrian. Gainerako kasuetan eragiketa itzulgarriak soilik baimendu ahal izango dira, bai eta funtsaren kudeaketatik eratorritako gastuei aurre egiteko beharrezko diren eragiketak ere, edota funtsak formalizatutako eragiketei lotutako bestelako gastuei aurre egiteko beharrezko direnak.

Uraren eta Saneamenduaren Lankidetzaren Funtzaren aktiboetatik datozen itzulkin guztiak funts horretarako aurreikusitako zuzkiduraren baliabide gehigarri izango dira, itzulkin horiek Kanpo Arazoetako eta Lankidetzarako Ministerioaren ekimenez onetsitako eragiketen ondorio badira. Uraren eta Saneamenduaren Lankidetzaren Funtzaren baliabideak ere izango dira funtsaren kontu korranteetan lagatuko zenbatekoak. Baliabide horiek edozein konpromisori erantzuteko erabili ahal izango dira, funtsari aplikagarri zaion araudian aurreikusitako prozeduren arabera konpromiso hori Uraren eta Saneamenduaren Lankidetzaren Funtzaren kontura egitea erabaki bada.

Gobernuak, urtearen lehen seihilekoan, aurreko urtean Ministroen Kontseiluak funts horren kontura baimendutako eragiketak jakinaraziko dizkie Gorte Nagusiei bere Aurrekontu Bulegoaren bitartez. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

59. artikulua. *Enpresa Nazioartekotzeko Funtza (FIEM).*

Bat. Enpresa Nazioartekotzeko Funtserako hornidura 238.087,60 mila eurokoa izango da 2014an, 27.09.431A.871 aurrekontu-aplikazioaren kontura: «Enpresa Nazioartekotzeko Funtza (FIEM)», eta ekainaren 28ko 11/2010 Legeak, Espainiako enpresak nazioartekotzeko finantza-laguntzen sistema erreformatzen duenak, 4. artikuluan xedatutako helburuetara bideratuko da.

Bi. FIEMen konturako eragiketak baimen daitezke 2014an, 500.000 mila euro arte.

Muga horretatik kanpo geratzen dira funtsaren kontura lehendik emandako kredituak birfinantzatzea xede duten eragiketak, herrialde mailegu-hartzaileen kanpo-zorra birnegoziatzearen Espainia parte-hartzaile dela adostutako aldebiko edo alde anitzeko akordioak betetzeko egiten badira.

Ministroen Kontseiluak nazioartekotzearen arloko banakako proiektuak gauzatzeko baimena eman ahal izango du, haien zenbatekoari erreparatuta garrantzi handikoak direnean, eta, egoki izanez gero, proiektuaren zati bat lehen lerrokadan aurreikusitako mugaren barruan egoztea erabaki ahal izango du, eta proiektuaren ondorengo zenbatekoak hurrengo ekitaldietan egoztea, urteko aurrekontuei buruzko legetan xedatutako mugak aintzat hartuta.

2014an, itzulgarriak ez diren eragiketak ezingo dira baimendu FIEMen kontura. Muga horretatik kanpo geldituko dira funtsaren kudeaketak eragindako gastuei aurre egiteko beharrezko eragiketak; edozelan ere, jarduera doituko du finantzaketa-beharrik ez izateko, Nazio Kontuen Sistema Europarraren arabera neurtuta.

Hiru. FIEMerako aurreikusitako horniduraz gain, baliabide gehigarriak izango dira 2014 ekitaldi ekonomikoan gauzatuko diren itzulkinak, FIEMen eragiketen edota

Garapenerako Laguntza Funtzaren kontura Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak onetsitako eragiketen ondorio direnak.

Lau. Kreditu Ofizialeko Institutuari esleitu zaion funtzioa betetzean sortutako gastuak estal ditzan urtero eman beharreko konpentsazioa, ekainaren 28ko 11/2010 Legeak, Espainiako enpresak nazioartekotzeko finantza-laguntzen sistema erreformatzen duenak, 11.4. artikuluan xedatutakoa, FIEM funtzaren baliabideen kontura gauzatuko da, Ministroen Kontseiluaren akordioaren bidez baimena jaso ostean.

Bost. Gobernuak, urtero, FIEM funtzaren kontura baimendutako eragiketa, proiektu eta jardueren berri emango die Gorte Nagusiei eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari bere Aurrekontu Bulegoaren bidez. Halaber, finantzaketaren helburuen nahiz onuradunen, finantza-baldintzen eta ebaluazioen berri emango die, eta epe horretan abian dauden eragiketen bilakaerari buruzko xehetasunak emango dizkie. Gorte Nagusietako Aurrekontu Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

60. artikulua. *Estatuak Kreditu Ofizialeko Institutuari egindako diru-itzulketak.*

Bat. Estatuak Kreditu Ofizialeko Institutuari CARI sistemaren kudeaketaren ondorioz egindako diru-itzulketak. Estatuak honako zenbateko hauek itzuliko dizkio Kreditu Ofizialeko Institutuari 2014an: institutuak finantza-erakundeei emandako zenbatekoak – Ekintzaileei eta beraien nazioartekotzea laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legearen 58. artikuluan aurreikusitako interesak doitzeko eragiketak ordaintzeko–, bai eragiketa horien kudeaketak Kreditu Ofizialeko Institutuari eragindako kostuak.

Helburu horretarako, CARI (Interesen Elkarrekiko Doikuntzarako Hitzarmena) sistemarako zuzkidura 27.09.431A.444 aurrekontu-partidan adierazitakoa izango da 2014an.

2014ko abenduaren 31n sisteman Kreditu Ofizialeko Institutuaren aldeko saldo positiboak egonez gero, institutuak izan dituen kudeaketa-gastuak kendu ondoren, saldo horiek Altxorrean sartuko dira.

2014ko ekitaldian baietsitako interesak doitzeko eragiketen barruan, maiatzaren 7ko 677/1993 Errege Dekretuaren bidez onetsitako araudiaren 4.2 artikuluan adierazitako esportazio-kredituen zenbatekoari dagokionez, 480.000 mila euro onetsi ahal izango dira 2014an.

Kreditu Ofizialeko Institutuak, interesen elkarrekiko doikuntzarako eragiketen finantza-kudeaketa optimizatzearen, interes-tasen bilakaerak Altxorrari sor diezaiokkeen arriskua estaltzea helburu duten finantza-trukerako eragiketak hitzartu ahal izango ditu, bere kabuz edo bitartekaritzako finantza-agenteen bidez, aurreko lerrokadan adierazitako diru-sarrera eta zuzkiduren kontura, eta institutuaren beraren Estatutuetan eta jarduteko arauetan xedatutakoari jarraiki; aldez aurretik, nolahi ere, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiak aldeko txostena egin beharko du, eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioiko Merkataritza eta Inbertsio Zuzendaritza Nagusiak baimena eman.

Bi. Estatuak Kreditu Ofizialeko Institutuari beste jarduera batzuen ondorioz egindako diru-itzulketak:

Estatuak diruz lagundutako interesen kasuan, Kreditu Ofizialeko Institutuaren bidez gauzatutako finantza-eragiketetan, Ministroen Kontseiluaren edo Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordearen akordioek Estatuko Aurrekontu Orokorretan kredituak erreserbatzeari edo haien ondoriozko gastua finantzatzeko moduari buruzko informazioa ere jasoko dute.

61. artikulua. *Finantza Erakunde Multilateralen akzioak eta partaidetzak erostea.*

Bat. 2014an, ezin izango da Finantza Erakunde Multilateralen akzioak eta partaidetzak erosteko eragiketarik egin, ez eta haietan eratutako funtsetarako ekarpenik ere, defizit publikoan eragina badute eta 27.04.923O.895 eta 27.06.923P.895 «Finantza Erakunde Multilateralak» aurrekontu-aplikazioen kontura finantzatzen badira.

Bi. Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa betetze aldera, bai Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiak, bai Analisi Makroekonomikoaren eta Nazioarteko Ekonomiaren Zuzendaritza Nagusiak, aurrekontu-aplikazio horien konturako finantzaketa-proposamenekin batera, txosten bat aurkeztu beharko dute, defizit publikoan duten eraginari buruzkoa; txosten hori Estatuko Administrazioaren Esku-hartze Orokorrak dagokion eskaera egin ostean gauzatuko da.

## VI. TITULUA

## Tributu-arauak

## I. KAPITULUA

## Zuzeneko zergak

1. atala. *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga*62. artikulua. *Eskuratze-balioa eguneratzeko koefizienteak.*

Bat. Azaroaren 28ko 35/2006 Legeak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak eta Sozietateen gaineko Zerga, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga eta Ondarearen gaineko Zerga partzialki aldatzen dituenak, 35. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako xedeetarako, jarduera ekonomikoei lotu gabeko ondasun higiezinaren transmisioentzat, eskuratze-balioa eguneratzeko koefizienteak hauek izango dira 2014an:

Eskuratze-urtea	Koefizientea
1994 eta aurrekoak	1,3299
1995	1,4050
1996	1,3569
1997	1,3299
1998	1,3041
1999	1,2807
2000	1,2560
2001	1,2314
2002	1,2072
2003	1,1836
2004	1,1604
2005	1,1376
2006	1,1152
2007	1,0934
2008	1,0720
2009	1,0510
2010	1,0406
2011	1,0303
2012	1,0201
2013	1,0100

Hala ere, inbertsioak 1994ko abenduaren 31n egindakoak izanez gero, 1,4050eko koefizientea aplikatuko zaie.

Unitateaz bestelako koefizientea aplikatzeko, ezinbestekoa izango da urtebete baino gehiago igarotzea inbertsioa egin zenetik ondasun higiezinaren transmisioa egin bitartean.

Bi. Aurreko paragrafoan aurreikusitako eskuratze-balioa eguneratzeko helburuetarako, jarduera ekonomikoei lotutako ondasun higiezinari aplikatu beharreko koefizienteak izango dira Sozietateen gaineko Zergarako ezarrita daudenak, lege horren 66. artikuluan.

Hiru. Eguneratutako ondare-elementuak izanik (presazko zerga-neurriak eman eta jarduera ekonomikoa sustatu eta liberalizatzeari buruzko ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege Dekretuko 5. artikuluan aurreikusitakoari, edo finantza publikoak kontsolidatzeko eta ekonomia-jarduera bultzatzeko tributuen arloko hainbat neurri onartzeko abenduaren 27ko 16/2012 Legearen 9. artikuluari jarraiki), honako arau hauek aplikatuko dira:

1. Aurreko paragrafoan adierazten diren eguneratze-koefizienteak erosi den prezioaren eta hari dagozkion amortizazio kontabilizatuen gainean aplikatuko dira, eguneratze-jardueretatik eragindako balioaren gehikuntza garbia kontuan hartu gabe.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa aplikatzean zehaztutako kantitateen arteko diferentzia kendu egingo zaio ondare-elementuaren aurreko balioaren zenbatekoari

Eguneratutako ondasunaren aurreko balioa zehazteko, eguneratze-koefizienteak aplikatzeko erabilitako balioak hartuko dira.

3. Aurreko zenbakian deskribatutako eragiketetatik eragindako zenbatekoa kendu egingo zaio 7/1996 Errege Lege Dekretuan edo 16/2012 Legean aurreikusitako eguneratze-jardueretatik eragindako balioaren gehikuntza garbiari, eta, beraz, ateratako diferentzia positiboa izango da monetaren balio-galeraren zenbatekoa.

4. Ondare-irabazia edo -galera honako hau izango da: aurreko zenbakian aipatzen den monetaren balio-galtzearen zenbatekoari kontabilitate-balioaren eta eskualdatze-balioaren arteko diferentzia kentzean lortzen den zenbatekoa.

63. artikulua. *Enplegua mantendu edo sortzeagatik jarduera ekonomikoen etekin garbia murriztea.*

2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldatu egin da pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen eta sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga partzialki aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legearen hogeita zazpigarren xedapen gehigarria, eta honela idatzita geldituko da:

«Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. *Enplegua mantendu edo sortzeagatik jarduera ekonomikoen etekin garbia murriztea.*

1. 2009, 2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014ko zergaldi bakoitzean, jarduera ekonomikoetan aritzen diren zergadunek, baldin eta haien guztien negozio-zifraren zenbateko garbia 5 milioi eurotik beherakoa bada eta batez beste 25 langile baino gutxiago badituzte, 100eko 20 bat murriztu ahal izango dute aitortutako etekin garbi positiboa, hala dagokionean Lege honen 32. artikuluan xedatutako murrizketak eginda, enplegua mantentzen edo sortzen dutenean.

Horretarako, zergadunak enplegua sortu edo mantentzen duela ulertuko da zergaldi horietako bakoitzean jarduera ekonomiko guztietan batez beste erabilitako langile kopurua 2008ko zergaldiko batez besteko unitatea eta langile kopurua baino txikiagoa ez denean.

Horrela kalkulaturako murrizketaren zenbatekoa ez da ekitaldian langile guztiei ordaindutako lansarien ehuneko 50 baino handiagoa izango.

Murrizketa bereiz aplikatuko da baldintza hauek betetzen diren zergaldi bakoitzean.

2. Erabilitako batez besteko langile kopurua, aurreko 1 paragrafoan aipatutakoa, kalkulatzeko, enplegatutako pertsonak hartuko dira oinarritzat, lan arloko legediak xedatutako moduan, kontratatutako lanaldia, lanaldi osoarekiko, eta lan-harreman horren iraupena, zergaldiko egun kopuru osoarekiko, kontuan harturik.

Hala ere, zergadunak ez badu jarduera ekonomikorik egin 2008ko urtarrilaren 1a baino lehen, eta 2008ko zergaldian ekin badio, bertako batez besteko langile kopurua kalkulatzeko, jarduera hasi denetik igarotako denbora hartuko da kontuan.

Zergadunak ez badu jarduera ekonomikorik egin 2009ko urtarrilaren 1a baino lehen, eta data horren ostean ekin badio, 2008ko zergaldiko batez besteko langile kopurua zero izango da.

3. Negozio-zifraren zenbateko garbia zehazteko orduan, Sozietateen gaineko Zergaren Legearen testu bateginaren 108. artikulua 3 paragrafoan ezarritakoa hartuko da aintzat.

Zergaldiren batean jarduera ekonomikoaren iraupena urtebete baino txikiagoa izan bada, negozio-zifraren zenbateko garbia urtebetera luzatuko da.

4. Zergadunak ez badu jarduera ekonomikorik egin 2009ko urtarrilaren 1a baino lehen eta 2009, 2010, 2011, 2012, 2013 edo 2014an horri ekiten badio, jarduera hasten den zergaldiko batez besteko langileak zero baino gehiago eta unitatea baino gutxiago badira, xedapen gehigarri honetako 1 paragrafoan ezarritako murrizketa jarduera hasteko zergaldian aplikatuko da, betiere hurrengo zergaldian batez besteko langileak unitatea baino gutxiago ez badira.

Aurreko lerrokadan azaldutako baldintza betetzen ez bada, ez da murrizketarik aplikatuko jarduera ekonomikoa hasteko zergaldian, eta autolikidazio osagarri bat aurkeztu beharko da, berandutzako interesak barne, baldintza betetzen ez den egunetik hori gertatzen den zergaldian aitortpena egiteko dagoen arauzko epea bukatu arteko denboran.»

#### 64. artikulua. *Estatuko kuota osoaren zerga osagarria.*

2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, honako aldaketa hauek txertatuko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen eta Sozietateen gaineko Zerga, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga eta Ondarearen gaineko Zerga partzialki aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legean:

Bat. Aldatu egin da hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria, eta honela idatzita geratu da:

«Hogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. *Estatu-kuota osoaren zerga osagarria 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietan defizit publikoa murrizteko.*

1. 2012, 2013 eta 2014ko zergaldietan, Lege honen 62. artikuluan aipatutako estatu-kuota osoari zenbateko hauek gehituko zaizkio:

a) Oinarri likidagarri orokorrari eskala honetako tasak aplikatzean ateratzen dena:

Oinarri likidagarri orokorra – Euro arte	Gehikuntza estatuko kuota osoan – Eurotan	Oinarri likidagarri orokorraren gainerakoa – Euro arte	Aplikatu beharreko tasa – Ehunekoak
0	0	17.707,20	0,75
17.707,20	132,80	15.300,00	2
33.007,20	438,80	20.400,00	3
53.407,20	1.050,80	66.593,00	4
120.000,20	3.714,52	55.000,00	5
175.000,20	6.464,52	125.000,00	6
300.000,20	13.964,52	Hortik aurrera	7

Ateratzen den zenbatekoari honako hau kenduko zaio: lege honek 56. artikuluan aipatutako gutxieneko pertsonal eta familiarrari dagokion oinarri likidagarri orokorrari a) idatz-zati honetan aurreikusitako eskala aplikatzean ateratzen den zenbatekoa.

Zergapekoak seme-alabak elikatzeko zenbateko bat ordaintzen badu urtero epaile-erabakiz, eta zenbateko horiek txikiagoak badira, oinarri likidagarri orokorra

baino, a letra honetan aurreikusitako eskala aplikatuko zaie, berezita, elikagaiei urtean dagokien zenbatekoari eta oinarri likidagarri orokorraren gainerakoari. Ateratzen den zenbatekoari honako hau kenduko zaio: gutxieneko pertsonal eta familiarrari dagokion oinarri likidagarri orokorrari, urtean 1.600 euroko kopuruan gehituta, a) idatz-zati honetan aurreikusitako eskala aplikatzean ateratzen den zenbatekoa; eta kenketa horren emaitza ezingo da negatiboa izan.

b) Aurrezkiaren oinarri likidagarriari, lege honek 56. artikuluan aipatutako gutxieneko pertsonal eta familiarrarekin bat ez datorren zatian, halakorik balego, ondorengo eskalako tasak aplikatzearen ondorioa:

Aurrezkiaren oinarri likidagarria – Euro arte	Gehikuntza estatuko kuota osoan – Eurotan	Aurrezkiaren oinarri likidagarriaren gainerakoa – Euro arte	Aplikatu beharreko tasa – Ehuneko
0	0	6.000	2
6.000,00	120	18.000	4
24.000,00	840	Hortik aurrera	6

2. 2012, 2013 eta 2014ko zergaldietan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudiaren 85. artikuluko 1 eta 2 paragrafoetan aipatzen den atxikipen-kuota gehituko da atxikipen-tasa kalkulatzeko oinarriari ondorengo eskalan aurreikusitako atxikipen-tasak aplikatzearen ondorioz ateratzen den zenbatekoan:

Atxikipen-tasa kalkulatzeko oinarria – Euro arte	Atxikipen-kuota – Eurotan	Atxikipen-tasa kalkulatzeko oinarriaren gainerakoa – Euro arte	Aplikatu beharreko tasa – Ehuneko
0	0	17.707,20	0,75
17.707,20	132,80	15.300,00	2
33.007,20	438,80	20.400,00	3
53.407,20	1.050,80	66.593,00	4
120.000,20	3.714,52	55.000,00	5
175.000,20	6.464,52	125.000,00	6
300.000,20	13.964,52	Hortik aurrera	7

Ateratzen den zenbatekoari honako hau kenduko zaio: zergaren araudiaren 84. artikuluan aipatutako atxikipen-tasa kalkulatzeko gutxieneko pertsonal eta familiarrari dagokion zenbatekoari paragrafo honetan aurreikusitako eskala aplikatzean ateratzen den zenbatekoa; eta kenketa horren emaitza ezingo da negatiboa izan.

Lan-etekin hartzailleak seme-alabak elikatzeko zenbateko bat ordaintzen badu urtero epaile-erabakiz, eta zenbateko hori txikiagoa bada, atxikipen-tasa kalkulatzeko oinarri likidagarria baino, paragrafo honetan aurreikusitako eskala aplikatuko zaie, berezita, urteko zenbateko horri eta atxikipen-tasa kalkulatzeko oinarriaren gainerakoari. Ateratzen den zenbatekoari honako hau kenduko zaio: atxikipen-tasa kalkulatzeko gutxieneko pertsonal eta familiarrari dagokion zenbatekoari, urtean 1.600 eurotan gehituta, paragrafo honetan aurreikusitako eskala aplikatzean ateratzen den zenbatekoa; eta kenketa horren emaitza ezingo da negatiboa izan.

Aipatutako zergaldietan erregularizazioak egitean, aplikatu beharreko atxikipen-tasa berria ez da inoiz izango ehuneko 52 baino handiagoa. Portzentaje hori ehuneko 26koa izango da lan-etekin guztiak Ceutan eta Melillan eskuratutakoak

izanez gero, lege honen 68.4 artikuluan aurreikusitako kenketaren onuradun baldin badira.

Erregelamenduz aldatu ahal izango dira paragrafo honetan aurreikusitako zenbateko eta ehunekoak.

3. 2012ko urtarrilean ordaindutako lan-etekinei dagozkien atxikpenak eta konturako diru-sarrerak, hilabete horri dagozkionak badira eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudiaren 80.1.1 eta 82 artikuluetan jasotako atxikipenatarako prozedura orokorra aplikatu behar bazaie, aurreko 2 paragrafoan adierazitakoa aintzat hartu gabe egin beharko dira.

2012ko otsailaren 1etik aurrera ordaindutako etekinetan, urtarrilari dagozkion etekinak ez baldin badira, ordaintzaileak atxikipen-mota kalkulatu behar du, aurreko 2 paragrafoan xedatutakoa aintzat hartuta, eta erregularizatuko da, egoki izanez gero, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian adierazitakoaren arabera, ordaindu beharreko lehen lan-etekinetan.

4. 2012, 2013 eta 2014ko zergaldietan, Lege honen 101. artikuluan xedatutako ehuneko 19eko konturako ordaintzen portzentajea eta Lege honen 92.8 artikuluan aipatutako konturako diru-sarreraren portzentajea ehuneko 21era igoko dira.

Halaber, aurreko lerrokadan adierazitako zergaldietan, lege honen 101. artikuluko 2 paragrafoan aurreikusitako ehuneko 35eko atxikipen-portzentajea ehuneko 42ra igoko da.»

Bi. Aldatu egin da hogeita hirugarren xedapen iragankorraren titulua, eta honela idatzita geratuko da:

«Hogeita hirugarren xedapen iragankorra. *Jarduera profesionalen etekinei eta lanaren etekin jakin batzuei aplikatu beharreko atxikipen-tasa.*»

65. artikulua. *Langileak komunikazioaren eta informazioaren teknologia berriak erabiltzen ohitzeko gastuak eta inbertsioak.*

2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, honako aldaketa hauek txertatuko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen eta Sozietateen gaineko Zerga, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga eta Ondarearen gaineko Zerga partzialki aldatzen dituen azaroaren 28ko 35/2006 Legean:

Bat. Honela gelditu da idatzita hogeita bosgarren xedapen gehigarriaren 1 paragrafoa:

«1. Langileak komunikazioaren eta informazioaren teknologia berriak erabiltzen ohitzeko 2007an, 2008an, 2009an, 2010ean, 2011n, 2012an, 2013an eta 2014an egindako gastu eta inbertsioek, baldin eta lantokitik eta lan-ordutegitik kanpo baino ezin badira egin, honako zerga-tratamendua izango dute:

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga: aipatutako gastu eta inbertsioak prestakuntza-gastutzat hartuko dira, Lege honen 42.2.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Sozietateen gaineko zerga: aipatutako gastu eta inbertsioek eskubidea emango dute kenkaria aplikatzeko; kenkari hori Sozietateen gaineko Zergaren Legearen testu bateginaren —4/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartua— 40. artikuluan dago aurreikusita.»



Bi. Hogeigarren xedapen iragankorra honela egongo da idatzita:

«Hogeigarren xedapen iragankorra. *Langileak komunikazioaren eta informazioaren teknologia berriak erabiltzen ohitzeko gastuak eta inbertsioak.*

Lege honen bigarren xedapen indargabetzailean xedatutakoari eragin gabe, luzatu egingo da martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako sozietateen gaineko zergaren Legearen testu bateginaren 40. artikulua indarraldia 2011n, 2012an, 2013an eta 2014an, langileak komunikazioaren eta informazioaren teknologia berriak erabiltzen ohitzeko gastuei eta inbertsioei dagokienez.»

## 2. atala. Sozietateen gaineko zerga

### 66. artikulua. Moneta-zuzenketarako koefizienteak.

Bat. 2014an hasitako zergaldien ondorioetarako, Sozietateen gaineko Zergaren Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 15.9.a) artikuluan aurreikusitako koefizienteak ondoko hauek izango dira, transmititutako ondasuna eskuratzeko unea aintzat hartuta:

	Koefizientea
1984ko urtarrilaren 1a baino lehenago . . . . .	2,3130
1984ko ekitaldian . . . . .	2,1003
1985eko ekitaldian . . . . .	1,9397
1986ko ekitaldian . . . . .	1,8261
1987ko ekitaldian . . . . .	1,7396
1988ko ekitaldian . . . . .	1,6619
1989ko ekitaldian . . . . .	1,5894
1990eko ekitaldian . . . . .	1,5272
1991ko ekitaldian . . . . .	1,4750
1992ko ekitaldian . . . . .	1,4423
1993ko ekitaldian . . . . .	1,4235
1994ko ekitaldian . . . . .	1,3978
1995eko ekitaldian . . . . .	1,3418
1996ko ekitaldian . . . . .	1,2780
1997ko ekitaldian . . . . .	1,2495
1998ko ekitaldian . . . . .	1,2333
1999ko ekitaldian . . . . .	1,2247
2000ko ekitaldian . . . . .	1,2186
2001eko ekitaldian . . . . .	1,1934
2002ko ekitaldian . . . . .	1,1790
2003ko ekitaldian . . . . .	1,1591
2004ko ekitaldian . . . . .	1,1480
2005eko ekitaldian . . . . .	1,1328
2006ko ekitaldian . . . . .	1,1105
2007ko ekitaldian . . . . .	1,0867
2008ko ekitaldian . . . . .	1,0530
2009ko ekitaldian . . . . .	1,0303
2010eko ekitaldian . . . . .	1,0181
2011ko ekitaldian . . . . .	1,0181
2012ko ekitaldian . . . . .	1,0080
2013ko ekitaldian . . . . .	1,0000
1992ko ekitaldian . . . . .	1,0000

Bi. Koefizienteak honela aplikatuko dira:

- a) Eskuratzeko-prezioaren edo ekoizpen-kostuaren gainean, ondasuna eskuratu edo ekoiztu zen urtea aintzat hartuta. Hobekuntzei aplikatu beharreko koefizientea hobekuntza horiek egindako urteari dagokiona izango da.
- b) Amortizazio kontabilizatuen gainean, egindako urtea aintzat hartuta.

Hiru. Ekainaren 7ko 7/1996 Errege Lege Dekretuko 5. artikuluan edo abenduaren 27ko 16/2012 Legearen 9. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki eguneratutako ondare-elementuak izanik, koefizienteak erosi den prezioari eta hari dagozkion amortizazio kontabilizatuari aplikatuko zaizkie, eguneratze-eragiketek eragindako balioaren gehikuntza garbiaren zenbatekoa kontuan hartu gabe.

Aurreko paragrafoan zehaztutakoa aplikatzean zehaztutako kantitateen arteko diferentzia kendu egingo zaio ondare-elementuaren aurreko balioaren zenbatekoari; hala dagokionean, sozietateen gaineko zergari buruzko Legearen testu bateginaren 15. artikuluko 9 paragrafoko c) idatz-zatian aipatzen den koefizientea aplikatuko zaio emaitzari.

Aurreko lerrokadan deskribatutako eragiketen emaitza den zenbatekoa kendu egingo zaio 7/1996 Errege Lege Dekretuan edo 16/2012 Legean aurreikusitako eguneratze-jardueretatik eragindako balioaren gehikuntza garbiari, eta, beraz, ateratako diferentzia positiboa izango da monetaren balio-galeraren zenbatekoa, sozietateen gaineko zergari buruzko legearen testu bateginako 15. artikuluko 9 paragrafoan adierazten dena.

Eguneratutako ondare-elementuaren aurreko balioa zehazteko, Bat paragrafoan zehaztutako koefizienteak aplikatzeko kontuan hartu diren balioak hartuko dira.

67. artikulua. *Balorazio-arauak: egoitza aldaketak, establezimendu iraunkorren jarduerari uztea, paradisu fiskaletan egoitza duten pertsona edo entitateek nahiz beraiekin batera burututako eragiketak, eta atxiki beharreko kopuruak. Arau bereziak.*

2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin eta indarraldi mugagabearekin, lerrokada bat gehituko da Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen, martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoaren, testu bateginaren 17. artikuluko 1 paragrafoan; honela idatzita egongo da:

«1. Tributu-oinarrian sartuko da ondorengo ondare-elementuen merkatuko ohiko balioaren eta kontabilitate-balioaren arteko diferentzia:

- a) Egoitza Espainiako lurraldetik kanpora eramaten duen Espainiako erakunde egoiliar baten jabetza direnak, betiere ondare-elementu horiek aipatutako erakundearen Espainiako lurraldean kokaturiko establezimendu iraunkor bati atxikita gelditzen ez badira. Kasu horretan, ondarezko elementu horiei 85. artikuluan jasotakoa aplikatuko zaie.
- b) Jarduera uzten duen Espainiako lurraldean kokaturiko establezimendu iraunkor bati atxikita daudenak.
- c) Aurretik Espainiako lurraldean kokaturiko establezimendu iraunkor bati atxikita egonik, atzerrira eramandakoak.

Aurreko a) edo c) idatz-zatiak aplikatzearen ondoriozko zerga-zorren ordainketa, Europar Batasuneko estatu kide batera eramandako ondare-elementuei dagokienez, tributuen administrazioak geroratuko du, subjektu pasiboak eskatuz gero, dagozkion ondare-elementuak hirugarrenei eskualdatzeko eguna arte; eta Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean eta berau garatzeko araudian xedatutakoa aplikatuko da berandutzako interesen sortzapenari eta geroratze horretarako bermeak eratzeari dagokionez.»

68. artikulua. *Sozietateen gaineko zergaren ordainketa zatikatua.*

2014an hasiko diren zergaldiei dagokienez, Sozietateen gaineko Zergaren Legearen testu bateginak, martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 45. artikuluko 4 paragrafoan adierazitako portzentajea ehuneko 18 izango da artikuluko horretako 2 paragrafoan aurreikusitako ordainketa zatikatuentzat. Paragrafo horretan adierazitako kenkari eta hobariekin subjektu pasiboari aplikatu beharreko guztiak bilduko dituzte.

Sozietateen gaineko Zergaren Legearen testu bateginaren 45. artikuluko 3 paragrafoan aurreikusitako modalitaterako, ehunekoa haxe izango da: biribildutako zerga-tasa bider bost zazpiren eragiketaren emaitza.

Aurreko lerrokadan adierazitako modalitatea subjektu pasiboek aplikatu beharko dute, haien eragiketa-bolumena, Balio Erantsiaren Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 121. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulaturik, 6.010.121,04 euro baino handiagoa izan bada zergaldiak hasi aurreko hamabi hilabeteetan, 2014ren barruan.

Sozietateen gaineko Zergaren Legearen testu bateginaren 45. artikuluko 3 paragrafoan xedatutako ordainketa zatikatuen modalitatea aplikatzean, kontuan hartu beharko da honako artikuluko hauekin xedatutakoa: osasun-sistema nazionalaren kalitatea eta kohesioa hobetzeko, zergen arloa sendotzeko, eta 2011n Estatuaren abalen gehieneko zenbatekoa igotzeko neurriei buruzko abuztuaren 19ko 9/2011 Errege Lege Dekretuaren 9. Lehen Batartikuluan xedatutakoa, eta ingurumen-fiskalitateari buruzko zenbait neurri ezartzeko eta beste zerga- eta finantza-neurri batzuk ezartzeko urriaren 29ko 16/2013 Legearen 2. Hirugarren artikuluan xedatutakoa.

69. artikulua. *Eskualdaketan sortutako errenten araubidea.*

2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin eta indarraldi mugagabearekin, lerrokada bat gehituko da Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen, martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoaren, testu bateginaren 84. artikuluko 1 paragrafoaren a) eta c) idatz-zatietan; honela idatzita egongo da:

«1. Aurreko artikuluan aipatutako eragiketa horietatik eratorritako errenta hauek ez dira tributu-oinarrian sartuko:

a) Espainiako erakunde egoiliarrek bertan kokatutako ondasunen eta eskubideen gainean egindako eskualdaketan ondorioz agerian geratutakoak.

Entitate eskuratzailerak egoitza atzerrian duenean, Espainian dagoen establezimendu iraunkor bati atxikitako elementuak eskualdatzean sortu diren errentak bakarrik kenduko dira tributu-oinarritik.

Elementu horiek lurralde espainiarretik kanpora aldatzeak berarekin ekarriko du establezimendu iraunkorraren tributu-oinarrian sartzea, aldaketa egin den zergaldian, merkatuko ohiko balioaren eta ondorengo artikuluan aipatutako balio gutxituaren arteko diferentzia. Gutxipena, hala behar denean, fiskalki kenkaridunak izan diren eta kontabilitatean jaso diren amortizazioen eta beste balio zuzenketa batzuen zenbatekoarena izango da.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa aplikatzearen ondoriozko zerga-zorren ordainketa, Europar Batasuneko estatu kide batera eramandako ondare-elementuei dagokienez, tributuen administrazioak geroratuko du, subjektu pasiboak eskatuz gero, dagozkion ondare-elementuak hirugarrenei eskualdatzeko eguna arte; eta Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean eta berau garatzeko araudian xedatutakoa aplikatuko da berandutzako interesen sortzapenari eta geroratze horretarako bermeak eratzeari dagokionez.

b) Espainiako entitate egoiliarrek Europako Batasunekoak ez diren estatuen lurraldean kokatuta dauden establezimendu iraunkorrak Espainian egoitza duten entitateen alde eskualdatzean sortutako errentak.

c) Espainian kokatutako establezimendu iraunkorren gainean lurralde espainiarreko entitate ez-egoiliarrek egindako eskualdaketen ondorioz sortutako errentak.

Entitate eskuratzailleak egoitza atzerrian duenean, Espainian dagoen establezimendu iraunkor bati atxikitako elementuak eskualdatzean sortu diren errentak bakarrik kenduko dira tributu-oinarririk.

Elementu horiek lurralde espainiarretik kanpora aldatzeak berarekin ekarriko du establezimendu iraunkorraren tributu-oinarrian sartzea, aldaketa egin den ekitaldian, merkatuko ohiko balioaren eta ondorengo artikuluan aipatutako balio gutxituaren arteko diferentzia. Gutxipena, hala behar denean, fiskalki kenkaridunak izan diren eta kontabilitatean jaso diren amortizazioen eta beste balio zuzenketa batzuen zenbatekoarena izango da.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa aplikatzearen ondoriozko zerga-zorraren ordainketa, Europar Batasuneko estatu kide batera eramandako ondare-elementuei dagokienez, tributuen administrazioak geroratuko du, subjektu pasiboak eskatuz gero, dagozkion ondare-elementuak hirugarrenei eskualdatzeko eguna arte; eta Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean eta berau garatzeko araudian xedatutakoa aplikatuko da berandutzako interesen sortzapenari eta geroratze horretarako bermeak eratzeari dagokionez.»

1 paragrafoaren gainerakoan ez da ezertxo ere aldatu.

70. artikulua. *Sozietateen gaineko Zergako karga-tasa murriztua, enplegua mantendu edo sortzeagatik.*

Aldatu egingo da Sozietateen gaineko Zergaren Legearen testu bateginaren – martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartua– hamabigarren xedapen gehigarria, eta aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izango ditu ondorioak. Honela egongo da idatzita:

«Hamabigarren xedapen gehigarria. *Sozietateen gaineko Zergako karga-tasa murriztua, enplegua mantendu edo sortzeagatik.*

1. 2009an, 2010ean, 2011n, 2012an, 2013an eta 2014an hasitako zergaldietan, negozio-zifraren zenbateko garbia 5 milioi euro baino gutxiagokoa duten erakundeek, batez beste 25 langile baino gutxiago badituzte, zergak ondoko eskalaren arabera ordainduko dituzte, salbu eta, Lege honen 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, orokorra ez den beste tasa batekin ordaindu behar badituzte:

- a) 0 eta 120.202,41 euro bitarteko tributu-oinarriagatik, ehuneko 20ko tasan. 2011n, 2012an, 2013an eta 2014an hasitako zergaldietan, tasa hori 0 eta 300.000 euro bitarteko tributu-oinarriagatik aplikatuko da.
- b) Gainerako tributu-oinarriaren zatiagatik, ehuneko 25eko tasan.

Zergaldiak urtebete baino gutxiago irauten duenean, Lege honen 114. artikulua azken lerrokadan ezarritakoa aplikatuko da.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako eskala aplikatzeko, dena den, zergaldi horietako bakoitza hasi ondoko hamabi hilabeteetan erakundearen batez besteko plantilla ez da unitatea baino txikiagoa izango, ezta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldia hasi aurreko hamabi hilabeteetako plantillaren batez bestekoa baino txikiagoa ere.

Erakunde hamabi hilabeteko aurreko epe horren barruan eratu baldin bada, aldi horretako batez besteko plantilla hartuko da.

Eskala aplikatzeko eskakizunak bereiz hartuko dira aintzat zergaldi horietako bakoitzean.

Paragrafo honetan ezarritako baldintza bete ezean, erregularizazioa xedapen gehigarri honen 5 paragrafoan ezarritako moduan egingo da.

3. Batez besteko plantilla kalkulatzeko, lanari buruzko legeriak xedatu bezala enplegatutako pertsonak hartuko dira aintzat; betiere, lanaldi osoaren aldean kontratatutako lanaldia kontuan harturik.

2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldia hasi aurreko hamabi hilabeteetako batez besteko plantilla zero dela joko da erakundea egun horren ostean eratu denean.

4. Negozio-zifraren zenbateko garbia zehazteko orduan, Lege honen 108. artikulua 3 paragrafoan ezarritakoa hartuko da aintzat.

Erakundea sortu berria denean, edo xedapen gehigarri honetako 1 paragrafoan aipatutako zergaldietako bat urtebete baino laburragoa denean, edo jarduera epe laburrago batez egin denean, negozio-zifraren zenbateko garbia urtebetetera luzatuko da.

5. Erakundea 2009an, 2010ean, 2011n, 2012an, 2013an edo 2014an eratu bada eta lehen zergaldia hasi ondorengo hamabi hilabeteetako batez besteko langileak zero baino gehiago eta unitatea baino gutxiago badira, xedapen gehigarri honen 1 paragrafoan zehaztutako eskala erakundea eratu zeneko zergaldian aplikatuko da, baldintza honekin: zergaldi hori amaitu ondorengo hamabi hilabeteetan batez besteko langile kopurua bat baino gehiago izatea.

Baldintza hori betetzen ez bada, ez-betetzea gertatzen den zergaldiko kuotarekin batera, aipatutako lehen zergaldi horren tributu-oinarriaren ehuneko 5 aplikatzearen emaitza ere ordaindu beharko du subjektu pasiboak, baita berandutzako interesak ere.

6. Subjektu pasiboari lege honen 45. artikulua 3 paragrafoan ezarritako ordainketa zatikatuaren modalitatea aplikagarria zaionean, aurreko 1 paragrafoan aipatutako eskala ez da aplikatuko zatikatutako ordainketak zenbatzeko orduan.»

### 3. atala. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga

#### 71. artikulua. Zergaren karga-tasa.

Aldatu egin da hirugarren xedapen gehigarria Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bateginean, martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsian, eta honela idatzita geratu da:

«Hirugarren xedapen gehigarria. *Zergaren 2012ko, 2013ko eta 2014ko ekitaldietarako karga-tasa.*

2012ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31ra arte, biak barne hartuta, lege honen 19.2 eta 25.1.f) artikuluetan aipatutako ehuneko 19ko karga-tasak ehuneko 21era igoko dira.

Halaber, aurreko paragrafoan adierazitako aldian, lege honen 25.1.a) artikuluan aurreikusitako ehuneko 24ko karga-tasa ehuneko 24,75era igoko da.»

### 4. sekzioa. Ondarearen gaineko zerga

#### 72. artikulua. Ondarearen gaineko Zerga 2014an zehar.

2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ondarearen gaineko zerga aldi baterako ezartzen duen irailaren 16ko 13/2011 Errege Lege Dekretuaren artikulua bakarraren bigarren paragrafoa aldatu egin da, eta honela gelditu da idatzita:

«Bigarrena. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako aldaketa hauek izango ditu ondarearen gaineko zergaren ekainaren 6ko 19/1991 Legeak:

Bat. Aldatu egin da 33. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«33. artikulua. *Kuota osoaren hobari orokorra.*

Zergak ordaintzeko betebeharrak pertsonalagatiko edo errealagatiko subjektu pasiboek % 100eko hobaria aplikatuko zaie zergaren kuota osoaren gainean.»

Bi. 6., 36., 37. eta 38. artikulua indargabetu egin dira.»

#### 5. atala. Zerga bereziak

73. artikulua. *Higiezinaren Katastroari buruzko Legearen testu bateginaren 32.2 artikulua katastro-balioak eguneratzeko koefizienteak.*

Bat. Higiezinaren Katastroari buruzko Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 1/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onetsiaren, 32. artikulua 2 paragrafoan aipatutako katastro-balioak eguneratzeko koefizienteak honako koadro honen arabera finkatu dira 2014rako:

Balio-ponentzia indarrean jartzeko urtea	Eguneratze-koefizientea
1984, 1985, 1986 eta 1987	1,13
1988	1,12
1989	1,11
1990, 1994, 1995, 1996, 1997, 1998, 1999, 2000, 2001 eta 2002	1,10
2003	1,06
2006	0,85
2007	0,80
2008	0,73

Bi. Aurreko paragrafoan xedatutako koefizienteak kasu hauei aplikatuko zaizkie:

a) Higiezinaren katastroan jasotako datuen arabera baloratutako ondasun higiezinak direnean, ondasun horiei 2013rako esleitutako balioaren gainean aplikatuko da.

b) 2013ko ekitaldian jakinarazitako katastro-balioak direnean, aipatutako ekitaldian onartutako balio-ponentzia partzialak aplikatuz lortu badira, balio horien gainean aplikatuko da.

c) Higiezinaren katastroan jasota dauden ezaugarriak aldatu dituzten ondasun higiezinak direnean, baldin eta aldaketa horiek ez badute eraginkortasunik izan, udalerriko ondasun higiezinaren gainerako katastro-balioak finkatzeko oinarritzat hartutako moduluak aplikatuta katastroaren zuzendaritza nagusiak egoera berriaren arabera higiezin horiei esleitutako balorearen gainean aplikatuko da koefizientea.

## II. KAPITULUA

### Zeharkako zergak

#### 1. atala. Balio erantsiaren gaineko zerga

74. artikulua. *Salbuespenak barne-eragiketetan.*

Aldatu egin da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 20. artikulua Bat paragrafoko 8. zenbakia. Aldaketa horrek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina, eta epe mugagabea egongo da indarrean. Aurrerantzean, honela izango da:

«8. Jarraian adierazten diren gizarte-laguntzako zerbitzuak, gizarte-izaerako zuzenbide publikoko erakundeek edo entitate edo establezimendu pribatuek eginak:

a) Haurrak eta gazteak babestea. Honako jarduera hauek hartuko dira haur eta gazteen babeserako jardueratzat: haur eta gazteen birgaikuntza eta heziketarako jarduerak; bularreko haurrei laguntzeko jarduerak; haur eta gazteentzako ikastaroak, ibilaldiak, kanpamenduak edo bidaiak egitea hogeita bost urtetik beherako pertsonen alde.

- b) Hirugarren adinekoei laguntzea.
- c) Minusbaliotasuna duten pertsonentzako heziketa berezia eta laguntza.
- d) Gutxiengo etnikoei laguntzea.
- e) Errefuxiatu eta iheslariei laguntzea.
- f) Oinezkoei laguntzea.
- g) Familia-zamak bakarrik jasaten dituzten pertsoneri laguntzea.
- h) Gizarte-ekintza komunitario eta familiarra.
- i) Preso-ohiei laguntzea.
- j) Gizarteratzea eta delinkuentziaren prebentzioa.
- k) Alkoholikoei eta toxikomanoei laguntzea.
- l) Garapenerako lankidetzak.

Salbuespenak aurrekoen osagarri diren elikadura-, ostatu- edo garraio-zerbitzuak barne hartzen ditu, aipatutako establezimendu edo entitateek norbere edo besteren baliabideekin eginak.»

#### 75. artikulua. *Zerbitzu-prestazioak egiteko lekua.*

Aldatu egin da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 70. artikulua Bi paragrafoa. Aldaketa horrek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina, eta epe mugagabea egongo da indarrean. Aurrerantzean, honela izango da:

«Bi. Halaber, zergaren aplikazio-lurraldean emandakotzat joko dira jarraian adierazitako zerbitzuak, baldin eta, zerbitzu horiei aplikatu beharreko lokalizazio-arauen arabera, erkidegoan egindakotzat jotzen ez badira ere haien egiazko erabilera edo ustiapena lurralde horretan egiten bada:

1. Lege honen 69. artikulua Bi paragrafoaren a) eta m) idatz-zatien artekoetan adierazitakoak, haien hartzailea horrelakotzat jotzen duen enpresaburu edo profesional bat bada, eta 69. artikulua Bi paragrafo horretako n) idatz-zatian adierazitakoak, hartzailea edonor dela ere.
2. Besteren izenen eta konturako bitartekotzakoak, hartzailea horrelakotzat jotzen duen enpresaburu edo profesional bat bada.
3. Garraiobideak alokatzekoak.»

#### 76. artikulua. *Sortzapena erkidego barneko eragiketetan.*

2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin eta indarraldi mugagabearekin, ezabatu egin dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 75. artikulua Bat paragrafoko 6. zenbakia eta 76. artikulua hirugarren lerrokada.

#### 77. artikulua. *Jasanarazitako zerga-kuotak zuzentzea.*

Aldatu egin da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 89. artikulua Hiru paragrafoa. Aldaketa horrek 2014ko urtarrilaren 1etik

aurrera izango du eragina, eta epe mugagabeen egongo da indarrean. Aurrerantzean, honela izango da:

«Hiru. Aurreko paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, jasanarazitako zerga-kuotak ez dira zuzenduko honako kasu hauetan:

1. Zuzenketa lege honek 80. artikuluan jasotako arrazoiengatik egiten ez denean; zuzenketa berarekin jasanarazitako kuoten gehikuntza dakarrenean, eta eragiketen hartzaileak zergaren enpresari edo profesional moduan jarduten ez direnean, zerga-tasen legezko igoeraren kasuetan izan ezik. Azken kasu horietan, zerga-tasa berriak indarrean jartzen diren hilabetean eta hurrengoan egin ahal izango da zuzenketa.

2. Baldin eta tributuen administrazioak, dagokien likidazioen bitartez, nabarmentzen dituen sortutako eta jasanarazi gabeko zerga-kuotak subjektu pasiboak aitortutakoak baino handiagoak badira, eta datu objektuen bidez egiaztatzen bada aipatutako subjektu pasibo horrek iruzur batean parte hartu duela, edota iruzur baten parte zen eragiketa bat egiten ari zela zekiela edo jakin behar zuela, hartarako arrazoizko eginbide bat erabiliz.»

#### 78. artikulua. *Hainbanaketa orokorra.*

Aldatu egin da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 104. artikuluan Hiru paragrafoko 1. zenbakia. Aldaketa horrek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina, eta epe mugagabeen egongo da indarrean. Aurrerantzean, honela izango da:

«1. Zergaren aplikazio-lurraldetik kanpo kokaturiko establezimendu iraunkorretatik egindako eragiketak.»

#### 79. artikulua. *Nahitaez betearazteko administrazio- eta epaile-prozedurak.*

Aldatu egin da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legearen seigarren xedapen gehigarria. Aldaketa horrek 2012ko urriaren 31tik aurrera izango du eragina, eta epe mugagabeen egongo da indarrean. Aurrerantzean, honela izango da:

«Seigarren xedapen gehigarria. *Nahitaez betearazteko administrazio- eta epaile-prozedurak.*

Nahitaez betearazteko prozedura administratibo eta judizialean, zerga honen ondorioetarako enpresari- edo profesional-izaera bereganatua duten esleipendunek honako hau egiteko ahalmena izango dute subjektu pasiboaren izenean eta kontura, prozedura horietan egiten diren ondasun-entrega eta zerbitzu-prestazioei dagokienez:

1. Eragiketa dokumentatzen duen faktura egitea.
2. Lege honen 20. artikuluko bi paragrafoan aipatzen diren salbuespenei uko egitea, hala badagokio.
3. Zergaren kuota egindako fakturan jasanaraztea; dagokion aitorten-likidazioa aurkeztea, eta ondoriozko zerga-zenbatekoa sartzea, salbu eta, ondasun-entregetan eta zerbitzu-prestazioetan, horien subjektu pasiboa haien hartzailea bada Lege honen 84.Bat.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ahalmen horiez baliatzeko baldintzak eta betekizunak erregelamenduz finkatuko dira.»



*2. atala. Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga*80. artikulua. *Handitasunen eta noble-tituluen eskualdaketen eta birgaitzeen eskala.*

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Legearen testu bateginak, irailaren 24ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 43. artikulua lehengo lerrokadan aipatzen duen eskala honako hau izango da, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak:

Eskala	Zuzeneko transmisioak – Eurotan	Zeharkako transmisioak – Eurotan	Birgaitzeak eta atzerriko tituluak aitortzea – Eurotan
1. Handitasun-titulu bakoitzeko . . . . .	2.672	6.699	16.061
2. Titulu gabeko handitasun bakoitzeko. . . .	1.911	4.789	11.466
3. Handitasunik gabeko titulu bakoitzeko. . .	761	1.911	4.597

*3. atala. Zerga bereziak*81. artikulua. *Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia.*

2014ko urtarrilaren 1etik eta eperik gabeko indarraldiarekin, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean aldaketa hauek egin dira:

Bat. ñ) idatz-zatia erantsi da 66. artikulua 1 paragrafoan, eta aldatu egin da 2 paragrafoa; honela geratu dira idatzita:

«ñ) Beste estatu kide batean matrikulaturiko garraiobideak, Espainian gehienez hiru hilabetez egoitza izan duten pertsonak edo erakundeak beste estatu kide bateko hornitzaile bati alokatu dizkionean, betiere paragrafo honetako c) idatz-zatian aurreikusitako salbuespena ez bada aplikatu behar.

2. Aurreko paragrafoko a), b), c), d), f), g), h), k), m) eta ñ) idatz-zatietan jasotzen diren salbuespenak aplikatzeko, tributuen administrazioak hura onartu beharko du aurretiaz, erregelamendu bidez zehazten den moduan. d) idatz-zatian aipatzen den salbuespenaren kasuan bereziki, Gizarte Zerbitzuetako Institutu Nazionalak edo eskumena duten entitate kudeatzaileek minusbaliotasunagatik edo baliaezintasunagatik ziurtagiria eman beharko dute aurretiaz.»

Bi. Beste artikulua bat, 70 bis, erantsi da; hauxe dio:

«70 bis artikulua. *Zergaren kuota.*

1. Tributu-oinarriari 70. artikuluan araututako karga-tasak aplikatzearen emaitza izango da tributu-kuota.

2. Nolanahi ere, garraiabideak zerga aplikatu beharreko lurraldean erabiltzen diren hilabete edo hilaren zatiki bakoitzeko finkatuko da tributu-kuota honako kasu hauetan:

a) Beste Estatu kide batean matrikulatutako ibilgailuak beste estatu kide batean finkatutako pertsonak edo erakundeak egoitza Espainian duen pertsona fisiko baten eskura jarritakoak direnean; betiere, ondoko baldintza hauek betetzen badira:

1) Pertsona fisiko egoiliararekin duen soldatazko edo soldatarik gabeko lan-harremanaren ondorioz jartzea ibilgailua haren esku.

2) Ibilgailuari erabilera nagusia zerga ezarriko den lurraldean ematea.

b) Beste estatu kide batean matrikulatutako garraiobideak direnean, eta horiek Espainian gutxienez hiru hilabetez egoitza izan duten pertsonak edo entitateek beste estatu kide bateko hornitzaile bati alokatuak direnean.

1 paragrafoaren arabera zehaztutako zenbatekoa honako portzentaje hauetaz biderkatzearen emaitza izango da zehazki tributu-kuota:

- Lehen 12 hilabeteetan: 100eko 3.
- 13 eta 24 hilabete bitartean: 100eko 2.
- 25 hilabete edo gehiago: 100eko 1.

Paragrafo honetan ezarritakoaren arabera zehaztutako tributu-kuotaren zenbatekoa ezingo da handiagoa izan 1 paragrafoaren arabera kalkulaturiko zenbatekoa baino.»

Hiru. Hemendik aurrera, idazketa hau izango du 71. artikulua 1 paragrafoak:

«1. Subjektu pasiboak zerga autolikidatu eta ordaindu beharko du Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak agindutako toki, modu, epe eta inprimakietan.

Baldin eta tributu-kuota 70 bis artikulua 2 paragrafoan ezarritakoaren arabera zehaztu bada, betiere tributuen administrazioaren organoek beharrezkotzat jotzen badute, dagokion autolikidazioarekin batera tributu-kuota 70 bis artikulua 1 paragrafoan ezarritakoaren arabera xedatu izan balitz ordaindu beharko zen gainerako zenbatekoa ere bermatuko da, kreditu-erakunde edo elkarren bermerako sozietate baten abal solidario bidez edota kauzio-ziurtagiri bidez.

Bermearen zenbatekoa itzuliko da garraiobidea zerga ezarri behar den lurraldetik kanpora bidali dela egiaztatu ondoren.

Zerga ezarri behar den lurraldearen barruan garraiobidea aitortutakoan baino denbora handiagoan erabiltzen bada subjektu pasiboak erregularizatu gabe, zergaren tributu-kuota likidatuko da 70 bis artikulua 1 paragrafoan ezarritakoaren arabera kalkulaturik, ateratzen den zenbatekoari aurretik ordaindutako zenbatekoa kenduta betiere.»

### III. KAPITULUA

#### Beste tributu batzuk

82. artikulua. *Tasak.*

Bat. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, Estatuko Ogasunaren zenbateko finkoko tasak handitu egingo dira, 2013an galdagarri zen zenbatekoari 1,01 koefizientea aplikatuz, 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legeak 73. Bat artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa ez zaie aplikatuko 2013an sortutako tasei, ez eta urte horretan emandako agindu bidez berriaz eguneratutakoei ere.

Trafikoko Buruzagitza Zentralak eska ditzakeen tasak, arestian adierazitako koefizientea aplikatu ostean, euroaren 10 zentimoren goiko multiplo hurbilenaren arabera doitu dira, doitu beharreko kopurua euroaren 10 zentimoren multiploa denean salbu.

Bi. Berriazko eguneratze-araubidea aplikatuko zaie irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen Testu Bateginean ezarritako okupazio- eta jarduera-tasen zenbatekoei.

Hiru. Zenbateko finkoko tasatzat joko dira oinarriaren portzentaje baten bidez zehazten ez direnak, edota moneta-unitatetan zenbatesten ez den oinarria dutenak.

Lau. 2014an, 2013ko zenbatekoetan mantenduko dira zorte-, enbido- edo zori-jokoen alderdi zigortzaile, administratibo eta fiskalak arautzen dituen otsailaren 25eko 16/1977 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulua 4 paragrafoan adierazitako tasa eta

zenbateko finkoak, 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen 73.Hiru artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

83. artikulua. *Telekomunikazioen alorreko tasak.*

Bat. Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorraren I. eranskinaren 3 paragrafoan jabari publiko irrati-elektroa erreserbatzeagatik ezarritako tasa ondoko formula honen arabera kalkulatu behar da:

$$T = [N \times V] / 166,386 = [S \text{ (km}^2\text{)} \times B \text{ (kHz)} \times F (C_1, C_2, C_3, C_4, C_5)] / 166,386$$

non:

T = urteko tasaren zenbatekoa, eurotan.

N = irrati-elektroko erreserba unitate kopurua (URR) S x B-ren emaitza gisa kalkulaturik; hau da, zerbitzu-eremuaren kilometro koadroko azalera bider kHz-tan adierazitako banda-zabalera erreserbatuaz.

V = URR-ren balioa, C bost koefizienteen arabera zehaztuta; koefiziente horiek Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorrean ezarrita daude, eta kuantifikazioa, aipatutako Lege horren arabera, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean zehaztuko da.

F (C<sub>1</sub>, C<sub>2</sub>, C<sub>3</sub>, C<sub>4</sub>, C<sub>5</sub>) = funtzio hau aurretik adierazitako bost koefizienteen emaitza da.

Estatuko lurralde osoan eragiten duten jabari publiko irrati-elektroaren erreserbetan, tasa kalkulatzeko kontuan hartu beharreko S azaleraren balioa 505.990 kilometro koadrokoa izango da.

Irrati-komunikazioetako zerbitzuetan, hala badagokio, kontuan hartu beharreko S azaleraren barruan Espainiako jurisdikziopeko urak edo aire-esparrua ere jaso ahal izango dira.

Irrati-komunikazioetako zerbitzu bakoitzean C<sub>1</sub> eta C<sub>5</sub> arteko koefizienteen balioa zehazteko, aintzat hartu da Telekomunikazioen Lege Orokorrak eta berau garatzen duten erregelamenduek ematen dieten esanahia; hots:

1. C<sub>1</sub> koefizientea: Banden erabilera- eta pilaketa-maila, eremu geografiko guztietan. Kontzeptu hauek baloratzen dira:

Emakida edo baimen bakoitzeko maiztasun kopurua.  
Hiriko edo landako gunea.  
Zerbitzu-eremua.

2. C<sub>2</sub> koefizientea: Zerbitzuari emango zaion erabilera mota, eta, bereziki, zerbitzua ematen duena Telekomunikazioen Lege Orokorraren III. tituluan zerbitzu publikoetarako ezarritako betebeharrak betetzera derrigortuta dagoen. Kontzeptu hauek baloratzen dira:

Beste sare batzuetarako euskarria (azpiegitura).  
Hirugarrenentzako prestazioa.  
Autoprestazioa.  
Eskubide eksklusiboak dituzten telefonia-zerbitzuak.  
Irrati-difusioko zerbitzuak.

3. C<sub>3</sub> koefizientea: Espektoaren banda edo azpibanda. Kontzeptu hauek baloratzen dira:

Bandaren ezaugarri irrati-elektroak (eskatutako zerbitzurako banda egokia den).  
Bandari emango zaion erabilera.  
Azpibandaren erabilera eksklusiboa edota partekatua.

4.  $C_4$  koefizientea: Erabiliko diren tresneria eta teknologia. Kontzeptu hauek baloratzen dira:

Sare konbentzionalak.  
Ausaz esleitutako sareak.  
Irrati-loturako modulazioa.  
Erradiazio-diagrama.

5.  $C_5$  koefizientea: Erreserbatutako jabari publikoaren erabilerak edo aprobetxamenduak eragindako balio ekonomikoa. Kontzeptu hauek baloratzen dira:

Esperientzia ez-komertzialak.  
Zerbitzuaren errentagarritasun ekonomikoa.  
Bandaren interes soziala.  
Merkatuko eskariaren ondorio diren erabilerak.  
Biztanleriaren dentsitatea.

Tasa zehazteko orduan aintzat hartu beharreko faktore guztiak kontuan harturik, zerbitzu bakoitzerako hainbat modalitate ezarri dira, eta horietako bakoitzari identifikazio-kode bat esleitu zaio.

Ondoren, koefizienteak haztatzeko faktoreak datoz adierazita, bai eta erreferentzia-balioarekiko izan dezaketen balorazio-marjina ere. Erreferentzia-balioa lehenetsita hartzen da, eta, zerbitzuaren edo egindako erreserbaren izaeragatik, dagokion koefizientea aplikatzerik ez dagoen kasuetan ezartzen da.

$C_1$  koefizientea: Koefiziente honen bidez, zerbitzu jakin baterako maiztasun-banden okupazio-maila hartzen da kontuan. Horretarako, maiztasun-marjinetako tabulazio bat egin da; beheko eta goiko muturretan, dagozkien zerbitzuetan erabili ohi diren bandak daude jasota. Koefiziente honek erabilera-eremu geografikoa ere hartzen du kontuan; oro har bi hauek bereizten ditu: interes eta erabilera handiko eremuak (hirigune handiak), eta interes eta erabilera txikiko eremuak (landaguneak esaterako). Hasteko, pilaketa txikieneko eta erabilera eskaseko eremu geografikoetarako erreferentzia- edo unitate-balio bat finkatzen da, eta kontzeptu hauengatik kostu erlatiboa gehienez bira igotzen da, gehien eskatutako maiztasun-bandetan eta interes edo erabilera handiko eremuetan.

Kontzeptua	Balio-eskala	Oharrak
Erreferentzia-balioa.	1	Zerbitzu bakoitzean, modalitate batean edo hainbatetan aplikatu beharrekoa.
Balio-marjina.	1 eta 2 artean	—
Erabilera handiko/txikiko eremua.	+ % 25	Eragindako modalitate eta kontzeptuetan, zerbitzu eta maiztasun-bandengatik irizpide espezifikoaren arabera aplikatu beharrekoak.
Bandaren eskaria.	Gehienez + % 20	
Emakidak eta erabiltzaileak.	Gehienez + % 30	

$C_2$  koefizientea: Koefiziente honen bidez, autoprestazioko sareak eta hirugarrenei, kontraprestazio ekonomiko baten truke, irrati-komunikazioen zerbitzu bat eskaintzeko xedea dutenak bereizten dira. Azken horien barruan, zerbitzu publiko izaera hartu da kontuan; hala, koefiziente honen balioan, aintzat hartu da Telekomunikazioen Lege Orokorraren I. eranskinean zerbitzu publikoetarako ezarritako hoberia, eta parametro honetarako ezarritako balioan jasota gelditu da.

Kontzeptua	Balio-eskala	Oharrak
Erreferentzia-balioa.	1	Zerbitzu bakoitzean, modalitate batean edo hainbatetan aplikatu beharrekoa.
Balio-marjina.	1 eta 2 artean	—
Hirugarrenentzako prestazioa/ autoprestazioa.	Gehienez + % 10	Eragindako modalitate eta kontzeptuetan, zerbitzu eta maiztasun-bandengatik irizpide espezifikoaren arabera aplikatu beharrekoak.

$C_3$  koefizientea:  $C_3$  koefizientearen bidez, maiztasun jakin baten edo maiztasunen azpibanda jakin baten jabari publiko irrati-elektikoaren erreserba emateko modalitateak hartzen dira kontuan, bakarrik edo eremu geografiko zehatz batean beste erabiltzaile batzuekin partekatuta. Aukera horiek zerbitzu mugikorrari ere aplikatzen zaizkio. Beste zerbitzu batzuetan, jabari publiko irrati-elektikoaren erreserbak eskusiboa izan behar du, bere izaera dela-eta. Frekuentziak Esleitzeko Koadro Nazionalako (CNAF) erabilera-joeren eta aurreikuspenen arabera zerbitzurako egokiak ez diren bandetan eskatutako erreserbek tasa handiagoa izango dute, erabilera irrati-elektikoak harmonizatzeko joera laguntzarren; hori koefiziente honen balorazioan islatzen da.

Kontzeptua	Balio-eskala	Oharrak
Erreferentzia-balioa.	1	Zerbitzu bakoitzean, modalitate batean edo hainbatetan aplikatu beharrekoa.
Balio-marjina.	1 eta 2 artean	—
Maiztasun eskusiboa/partekatua.	Gehienez + % 75	Eragindako modalitate eta kontzeptuetan, zerbitzu eta maiztasun-bandengatik irizpide espezifikoaren arabera aplikatu beharrekoak.
Maiztasun-bandaren egokitasuna.	Gehienez + % 60	

$C_4$  koefizientea: Koefiziente honen bidez, beste modu batean hazta daitezke erabilitako teknologiak edo sistemak, eta espektro irrati-elektikoa eraginkortasun handienez erabiltzen dutenak lagundu. Esate baterako, sare mugikorretan, kanala ausaz esleitzeko sistemak erabiltzea hobesten da, esleipen finkoko tradizionalak erabili beharrean. Irrati-loturei dagokienez, erabilitako modulazio mota faktore erabakigarria da banda-zabalerako unitate bakoitzak informazioa igortzeko duen gaitasuna baloratzeko orduan, eta hori kontuan hartu da, oro har, maiztasun-bandaren arabera erabilgarri dauden teknologiei so eginez. Irrati-difusioan, kontuan hartu dira irrati-difusio soinu-duneko sistema berriak, analogiko klasikoez gain.

Kontzeptua	Balio-eskala	Oharrak
Erreferentzia-balioa	2	Zerbitzu bakoitzean, modalitate batean edo hainbatetan aplikatu beharrekoa.
Balio-marjina	1 eta 2 artean	—
Erabilitako teknologia / erreferentziako teknologia	Gehienez + % 50	Eragindako modalitate eta kontzeptuetan, zerbitzu eta maiztasun-bandengatik irizpide espezifikoaren arabera aplikatu beharrekoak.

$C_5$  koefizientea: Koefiziente honen bidez, zerbitzu jakin batek ikuspegi irrati-elektrotik antzekoak diren beste zerbitzu batzuen aurrean duen gizarte-garrantzia aztertzen da. Eskaintako zerbitzuaren interes ekonomiko edo errentagarritasun erlatiboa ere baloratzen du; hala, banda-zabalerako unitate bakoitzeko, gehiago kargatzen ditu interes eta errentagarritasun handiko zerbitzuak, ikuspegi irrati-elektrotik antzekoak izanik, oso bestelako errentagarritasuna duten eta hainbesteko gizarte-garrantzirik ez duten beste batzuk baino.

Irrati-difusioan, zerbitzuaren berezitasunak direla kausa, jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserba jakin baten tasa finkatzeko orduan, faktore erabakigarria izan da aipatutako irratia zerbitzu-eremuan dagoen biztanle-dentsitatea.

Maiztasunak emisio esperimentalak egiteko erreserbatu direnean, titularrarentzat kontraprestazio ekonomikorik gabe, eta xedea denbora mugatu eta zehatz batez teknologia berriak ikertu eta garatzea denean,  $C_5$  koefizientearen balioa balio orokorraren 100eko 15 izango da.

Kontzeptua	Balio-eskala	Oharrak
Erreferentzia-balioa.	1	Zerbitzu bakoitzean, modalitate batean edo hainbatetan aplikatu beharrekoa.
Balio-marjina.	> 0	—
Errentagarritasun ekonomikoa.	Gehienez + % 30	Eragindako modalitate eta kontzeptuetan, zerbitzu eta maiztasun-bandengatik irizpide espezifikoaren arabera aplikatu beharrekoak.
Zerbitzuaren interes soziala.	Gehienez – % 20	
Udalerrria.	Gehienez + % 100	
Esperientzia ez-komertzialak.	– % 85	

Jabari publiko irrati-elektrikoa erreserbatzeagatiko tasaren kalkulua.

Zerbitzu irrati-elektrikoak eta kontuan hartutako modalitateak.

Ondoko talde edo sailkapen hauek jaso dira:

1. Zerbitzu mugikorrak.
  - 1.1 Lurreko zerbitzu mugikorra eta lotutako zerbitzuak.
  - 1.2 Estaldura nazionalako lurreko zerbitzu mugikorra.
  - 1.3 Komunikazio elektronikoen zerbitzuak (hirugarrenentzako prestazioa).
  - 1.4 Itsasoko zerbitzu mugikorra.
  - 1.5 Zerbitzu mugikor aeronautikoa.
  - 1.6 Satelite bidezko zerbitzu mugikorra.
  - 1.7 Banda zabaleko lurreko komunikazio mugikorren sistemak.
  - 1.8 Trenbide bidezko komunikazioen Europako sistema (GSM-R).
2. Zerbitzu finkoa.
  - 2.1 Puntutik punturako zerbitzu finkoa.
  - 2.2 Puntutik puntu anitzerako zerbitzu finkoa.
  - 2.3 Satelite bidezko zerbitzu finkoa.
3. Irrati-difusioeko zerbitzuak.
  - 3.1 Soinudun irrati-difusioa.
  - 3.2 Telebista.
  - 3.3 Irrati-difusioaren zerbitzu osagarriak.
4. Bestelako zerbitzu batzuk.
  - 4.1 Irrati-nabigazioa.
  - 4.2 Irrati-determinazioa.
  - 4.3 Irrati-lokalizazioa.
  - 4.4 Satelite bidezko zerbitzuak: ikerketa espaziala, eragiketa espazialak, eta abar.
  - 4.5 Aurreko paragrafoetan jaso gabeko zerbitzuak.

Kontuan hartuz gero zerbitzu irrati-elektrikoaren talde horiek, zerbitzua eskaintzeko maiztasun-bandak eta bost koefizienteak –zerbitzu jakin bateko jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserben tasa kalkulatzeko aintzat hartu beharreko kontzeptuak edo faktoreak barne–, jarraian adierazitako modalitateak lortzen dira.

## 1. ZERBITZU MUGIKORRAK.

## 1.1 Lurreko zerbitzu mugikorra eta lotutako zerbitzuak.

Sailkapen honen barruan, lurreko zerbitzu mugikorraren sareetarako jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserbak eta bestelako modalitate batzuk daude jasota; hala nola portuetako eta itsasontziak mugitzeko eragiketak, eta kanal bakarreko banda estuko loturak.

Telekomunikazioen Lege Orokorraren I. eranskinaren 3.1 paragrafoan ezarritako bost koefizienteetan oinarrituta, hainbat modalitate bereizi behar dira lurreko zerbitzu mugikorraren sareetan, eta bereiz ebaluatu behar dira erreserba jakin baten tasa finkatzeko irizpideak.

Modalitate bakoitzean, tasa kalkulatu ahal izateko nahitaez bereizi behar diren maiztasun-marjinak tabulatu dira, maiztasun-banden okupazio erlatiboa aintzat hartzeko, bai eta Telekomunikazioen Lege Orokorrean jasotako beste alderdi batzuk ere; adibidez, maiztasun-banda jakin bat aurreikusitako zerbitzurako egokia den edo ez.

Maiztasun-marjina horien barruan, Frekuentziak Esleitzeko Koadro Nazionalak (CNAF) zerbitzuari erreserbatutako maiztasun-bandetan soilik erreserbatu ahalko da jabari publiko irrati-elektrikoa.

Zerbitzu mugikorraren sareei dagokienez, tasa kalkulatzeko orduan, erabilera handiko eremu geografikoaren modalitatea erabiltzen da oro har; betiere, sare-estaldurak 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerrak barne hartzen baditu, osotasunean edo partzialki. Maiztasunak hainbat bandatan dauzkaten sareen kasuan, bakoitzari modu independentean aplikatuko zaio eremu geografikoaren kontzeptua.

1.1.9 paragrafoan epigrafe honetan jasotako modalitateentzat xedatutakoari kalterik egin gabe, kanalizazioaren balioa (12,5 kHz edo 25 kHz) eta erabilitako maiztasun kopurua biderkatzearen emaitza da kontuan hartu beharreko B bandaren zabalera.

1.1.1 Zerbitzu mugikorra, esleipen finkoa/maiztasun partekatua/erabilera txikiko eremua/autoprestazioa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri dena da. Kalkulua egiteko, 1.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 100 MHz .....	1,2	1,25	1	1,3	0,4707	1111
100-200 MHz .....	1,7	1,25	1	1,3	0,5395	1112
200-400 MHz .....	1,6	1,25	1,1	1,3	0,4937	1113
400-1.000 MHz .....	1,5	1,25	1,2	1,3	0,5049	1114
1.000-3.000 MHz .....	1,1	1,25	1,1	1,3	0,4590	1115
> 3.000 MHz .....	1	1,25	1,2	1,3	0,4590	1116

1.1.2 Zerbitzu mugikorra, esleipen finkoa/maiztasun partekatua/erabilera handiko eremua/autoprestazioa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri dena da. Kalkulua egiteko, 1.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 100 MHz .....	1,4	1,25	1	1,3	0,4707	1121
100-200 MHz .....	2	1,25	1	1,3	0,5395	1122
200-400 MHz .....	1,8	1,25	1,1	1,3	0,4937	1123
400-1.000 MHz .....	1,7	1,25	1,2	1,3	0,5049	1124
1.000-3.000 MHz .....	1,25	1,25	1,1	1,3	0,4590	1125
> 3.000 MHz .....	1,15	1,25	1,2	1,3	0,4590	1126

1.1.3 Zerbitzu mugikorra, esleipen finkoa/maiztasun eskusiboa/erabilera txikiko eremua/autoprestazioa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri dena da. Kalkulua egiteko, 1.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 100 MHz .....	1,2	1,25	1,5	1,3	0,4707	1131
100-200 MHz .....	1,7	1,25	1,5	1,3	0,5395	1132
200-400 MHz .....	1,6	1,25	1,65	1,3	0,4937	1133
400-1.000 MHz .....	1,5	1,25	1,8	1,3	0,5049	1134
1.000-3.000 MHz .....	1,1	1,25	1,65	1,3	0,4590	1135
> 3.000 MHz .....	1	1,25	1,8	1,3	0,4590	1136

1.1.4 Zerbitzu mugikorra, esleipen finkoa/maiztasun eskusiboa/erabilera handiko eremua/autoprestazioa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri dena da. Kalkulua egiteko, 1.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 100 MHz .....	1,4	1,25	1,5	1,3	0,4707	1141
100-200 MHz .....	2	1,25	1,5	1,3	0,5395	1142
200-400 MHz .....	1,8	1,25	1,65	1,3	0,4937	1143
400-1.000 MHz .....	1,7	1,25	1,8	1,3	0,5049	1144
1.000-3.000 MHz .....	1,25	1,25	1,65	1,3	0,4590	1145
> 3.000 MHz .....	1,15	1,25	1,8	1,3	0,4590	1146

1.1.5 Zerbitzu mugikorra, esleipen finkoa/maiztasun eskusiboa/edozein eremu/hirugarrentzako prestazioa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri dena da. Kalkulua egiteko, 1.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.



Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 100 MHz .....	1,4	1,375	1,5	1,3	0,4707	1151
100-200 MHz .....	2	1,375	1,5	1,3	0,5395	1152
200-400 MHz .....	1,8	1,375	1,65	1,3	0,4937	1153
400-1.000 MHz .....	1,7	1,375	1,8	1,3	0,5049	1154
1.000-3.000 MHz .....	1,25	1,375	1,65	1,3	0,4590	1155
> 3.000 MHz .....	1,15	1,375	1,8	1,3	0,4590	1156

1.1.6 Zerbitzu mugikorra, ausazko esleipena/maiztasun eskusiboa/edozein eremu/autoprestazioa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri dena da. Kalkulua egiteko, 1.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 100 MHz .....	1,1	1,25	2	1	0,1491	1161
100-200 MHz .....	1,6	1,25	2	1	0,21468	1162
200-400 MHz .....	1,7	1,25	2	1	0,1491	1163
400-1.000 MHz .....	1,4	1,25	2	1	0,1640	1164
1.000-3.000 MHz .....	1,1	1,25	2	1	0,1491	1165
> 3.000 MHz .....	1	1,25	2	1	0,1491	1166

1.1.7 Zerbitzu mugikorra, ausazko esleipena/maiztasun eskusiboa/edozein eremu/hirugarrenentzako prestazioa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri dena da. Kalkulua egiteko, 1.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 100 MHz .....	1,1	1,375	2	1	0,1491	1171
100-200 MHz .....	1,6	1,375	2	1	0,1491	1172
200-400 MHz .....	1,7	1,375	2	1	0,1097	1173
400-1.000 MHz .....	1,4	1,375	2	1	0,1491	1174
1.000-3.000 MHz .....	1,1	1,375	2	1	0,1491	1175
> 3.000 MHz .....	1	1,375	2	1	0,1491	1176

1.1.8 Irrati-bilaketa (maiztasun eskusiboa/edozein eremu/hirugarrenentzako prestazioa).

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri dena da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 50 MHz .....	1	2	1	2	19,5147	1181
50 - 174 MHz .....	1	2	1	1,5	0,3444	1182
> 174 MHz .....	1	2	1,3	1	0,3444	1183

1.1.9 Irismen laburreko gailuak: Teleagintek, alarmak, datuak, etab./edozein eremu.

Multzo honetan, irismen laburreko sistemak sartzen dira; betiere, sarearen zerbitzu-erradioa 3 kilometro baino handiagoa ez bada. Kontuan hartu beharreko S azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da.

Estaldura handiagoko sareetarako, gainerako zerbitzu mugikorren edo zerbitzu finkoen artetik egokia den modalitatea aplikatuko da, zerbitzuaren izaera eta sarearen berezko ezaugarriak aintzat hartuta.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera haxe izango da: kanalizazio-balioa (10, 12,5, 25, 200 kHz, etab.) erabilitako maiztasun kopuruaz biderkatzearen emaitza. Emisioaren ezaugarri teknikoaren ondorioz, adierazitako kanalizazioetako bat ere aplikatzerik ez badago, emisioaren izendapenaren banda-zabalera hartuko da, eta, halakorik ez badago, CNAF koadroan aplikazio horietara zuzendutako maiztasun-banda osoa aplikatuko da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 50 MHz .....	1,7	1,25	1,5	1	19,5147	1191
50-174 MHz .....	2	1,25	1,5	1	19,5147	1192
406-470 MHz .....	2	1,25	1,5	1	19,5147	1193
862-870 MHz .....	1,7	1,25	1,5	1	19,5147	1194
> 1.000 MHz .....	1,7	1,25	1,5	1	19,5147	1195

1.2 Estaldura nazionaleko lurreko zerbitzu mugikorra.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera, kanalizazio-balioa (12,5 kHz, 25 kHz, etab.) erabilitako maiztasun kopuruaz biderkatzearen emaitza da.

1.2.1 Zerbitzu mugikorra, esleipen finkoa/estaldura nazionaleko sareak.

Kontuan hartu beharreko S azalera lurralde nazional osoari dagokiona da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 100 MHz .....	1,4	1,375	2	1,25	12,809 10 <sup>-3</sup>	1211
100-200 MHz .....	1,6	1,375	2	1,25	12,809 10 <sup>-3</sup>	1212
200-400 MHz .....	1,44	1,375	2	1,25	12,809 10 <sup>-3</sup>	1213
400-1.000 MHz .....	1,36	1,375	2	1,25	12,809 10 <sup>-3</sup>	1214
1.000-3.000 MHz .....	1,25	1,375	2	1,25	12,809 10 <sup>-3</sup>	1215
> 3.000 MHz .....	1,15	1,375	2	1,25	12,809 10 <sup>-3</sup>	1216

## 1.2.2 Zerbitzu mugikorra, ausazko esleipena/estaldura nazionalako sareak.

Kontuan hartu beharreko S azalera lurralde nazional osoari dagokiona da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 100 MHz . . . . .	1,1	1,375	2	1	0,164010	1221
100-200 MHz . . . . .	1,6	1,375	2	1	0,236148	1222
200-400 MHz . . . . .	1,7	1,375	2	1	0,164010	1223
400-1.000 MHz . . . . .	1,4	1,375	2	1	0,164010	1224
1.000-3.000 MHz . . . . .	1,1	1,375	2	1	0,164010	1225
> 3.000 MHz . . . . .	1	1,375	2	1	0,164010	1226

## 1.3 Komunikazio elektronikoen zerbitzuak (hirugarrenentzako prestazioa).

## 1.3.1 Komunikazio elektronikoen lurreko sistemak (hirugarrenentzako prestazioa).

Kontuan hartu beharreko S azalera eta B banda-zabalera jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri direnak izango dira.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
790-821 MHz, 832-862 MHz, 880-915 MHz, eta 925-960 MHz bandak.	2	2	1	1,8	3,543 10 <sup>-2</sup>	1321
1710-1785 MHz eta 1805-1880 MHz bandak.	2	2	1	1,6	3,190 10 <sup>-2</sup>	1331
1900-1980, 2010-2025 eta 2110-2170 MHz bandak.	2	2	1	1,5	4,251 10 <sup>-2</sup>	1351
2500-2690 MHz banda.	2	2	1	1,5	9,182 10 <sup>-3</sup> K	1381

Biztanle gutxiko autonomia-erkidegoetan lizitazio-prozedura baten bidez esleitutako emakidetan, 2500-2690 MHz bandan, C<sub>5</sub> koefizientea biztanleriaren funtzioko K faktore baten bidez haztatzen da. K koefizientearen puntuzko balioak eta eragindako autonomia-erkidegoak hauek dira: Gaztela-Mantxa, K=0,284; Extremadura, K=0,286; Gaztela eta Leon, K=0,293; Aragoi, K=0,304; Nafarroa, K=0,66; eta Errioxa, K=0,688.

## 1.3.2 Aireontzien barruko komunikazio-zerbitzu mugikorak (hirugarrenentzako prestazioa).

Kontuan hartu beharreko S azalera 1 kilometro koadrokoa izango da 200 aireontziko edo zatiki bakoitzeko.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera erabilitako teknologiaren arabera erreserbatutako guztia izango da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
CNAFen aurreikusitako bandetan . . . . .	1,4	2	1	1	1,20	1371

## 1.3.3 Itsasontzien barruko komunikazio-zerbitzu mugikorak (hirugarrenentzako prestazioa).

Kontuan hartu beharreko S azalera 1 kilometro koadrokoa izango da 200 itsasontziko edo zatiki bakoitzeko.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera erabilitako teknologiaren arabera erreserbatutako guztia izango da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
CNAFen aurreikusitako bandetan . . . . .	1,4	2	1	1	1,40	1391

#### 1.4 Itsasoko zerbitzu mugikorra.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri dena da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera, kanalizazio-balioa (12,5 kHz, 25 kHz, etab.) erabilitako maiztasun kopuruaz biderkatzearen emaitza da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 30 MHz . . . . .	1	1,25	1,25	1	0,1146	1411
f ≥ 30 MHz . . . . .	1,3	1,25	1,25	1	0,9730	1412

#### 1.5 Zerbitzu mugikor aeronautikoa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektrikoaren erreserban ageri dena da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera, kanalizazio-balioa (12,5 kHz, 25 kHz, etab.) erabilitako maiztasun kopuruaz biderkatzearen emaitza da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 30 MHz . . . . .	1	1,25	1,25	1	0,1146	1511
f ≥ 30 MHz . . . . .	1,3	1,25	1,25	1	0,1146	1512

#### 1.6 Satellite bidezko zerbitzu mugikorra.

Kontuan hartu beharreko S azalera sistema edo estazio horretan baimendutako zerbitzu-eremuaren areari dagokiona izango da. Kalkulua egiteko, 100.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera, maiztasun bakoitzean sistemari erreserbatutako banda-zabaleraren batura izango da, goranzko zein beheranzko lotura zenbatuta.

##### 1.6.1 Satellite bidezko lurreko zerbitzu mugikorra.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
CNAFen aurreikusitako bandetan . . . . .	1	1,25	1	1	1,950 10 <sup>-3</sup>	1611

## 1.6.2 Satelite bidezko zerbitzu mugikor aeronautikoa.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
10-15 GHz banda . . . . .	1	1	1	1	0,865 10 <sup>-5</sup>	1621
1500-1700 MHz banda . . . . .	1	1	1	1	7,852 10 <sup>-5</sup>	1622

## 1.6.3 Satelite bidezko itsasoko zerbitzu mugikorra.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
1500-1700 MHz banda . . . . .	1	1	1	1	2,453 10 <sup>-4</sup>	1631

1.6.4 Satelite bidezko komunikazio elektronikoen sistemak, lurreko mendeko osagaia barne, hala badagokio (hirugarrentzako prestazioa).

Paragrafo hau satelite bidezko mugikorraren sistema integratuetarako espektro-erreserbei ere aplikatuko zaie, 2008/626/EE Erabakiarekin bat etorri maiztasun berak erabiltzen dituen lurreko mendeko sarea barne hartuta, hala badagokio.

Kontuan hartu beharreko S azalera lurralde nazional osoari dagokiona da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabaleraz dagokion jabari publiko irrati-elektikoaren erreserban ageri dena izango da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
1980-2010 MHz eta 2170-2200 MHz bandak . . . . .	1	1,25	1	1	0,65 10 <sup>-3</sup>	1641

## 1.7 Banda zabaleko lurreko komunikazio mugikorren sistemak.

Paragrafo hau komunikazio mugikorren lurreko sistemarako espektro-erreserbei aplikatu behar zaie, baldin eta 1.3.1 epigrafean zehaztutakoez bestelako maiztasun-bandetan funtzionatzen badute, eta 1 MHz baino gehiagoko transmisioko banda-zabalerako eta 3 kilometro baino gehiagoko zerbitzu-eremuko erradioak dituzten kanal irrati-elektikoak erabiltzen badituzte.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektikoaren erreserban ageri dena da. Kalkulua egiteko, 100 kilometro koadroko gutxienezko azalera ezarri da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabaleraz, kanalizazio-balioa erabilitako maiztasun kopuruaz biderkatzearen emaitza da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 100 MHz . . . . .	1,4	1,375	1,5	1	9,6	1711
100-200 MHz . . . . .	2	1,375	1,5	1	11	1712
200-400 MHz . . . . .	1,8	1,375	1,6	1	11	1713
400-1.000 MHz . . . . .	1,7	1,375	1,8	1	9,2	1714
1.000-3.000 MHz . . . . .	1,25	1,375	1,6	1	9	1715
> 3.000 MHz . . . . .	1,15	1,375	1,6	1	9	1716

## 1.8 Trenbide bidezko komunikazioen Europako sistema (GSM-R).

Kontuan hartu beharreko S azalera, maiztasunen erreserba egiten den ibilbide guztien luzeraren batura (kilometrotan) hamar kilometroko zabaleraz biderkatzearen emaitza da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera, dagokion jabari publiko irrati-elektikoaren erreserban ageri den banda-zabalera osoa izango da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
CNAF UN 40. ....	2	2	1	1,8	0,02812	1361

## 2. ZERBITZU FINKOA.

Paragrafo honetan, zerbitzuaren modalitateetako maiztasunen erreserba zehatzez gain, banda-erreserba deitutakoak ere jasotzen dira; horrelakoetan, erreserbak hartutako espektrio-zatiari esker, hainbat kanal irrati-elektiko batera erabil ditzake operadoreak, eremu geografiko berean.

Operadore batek azpiegitura irrati-elektikoak era masiboan hedatzen dituenean, banda-erreserbak justifikatuta daude hirugarrentzako zerbitzuak emateko komunikazio-sare elektronikoentzat soilik edota ikus-entzunezko zerbitzuen seinale-garraioentzat, zirkulazio-pilaketaren beharrak direla-eta irrati-elektikoki elkarrekin bateragarriak diren kanal taldeak eduki behar diren eremu geografikoetan.

### 2.1 Puntutik punturako zerbitzu finkoa.

Oro har, erabilera handiko eremu geografikoaren modalitatea banako baoetan edo sare irrati-elektiko zabalaren parte direnetan aplikatuko da, baldin eta baoko muturreko estazioetakoren bat 250.000 biztanle baino gehiagoko herriren batean kokaturik badago, edo inguruan, edota baoaren irrati-loturaren sorta nagusiak aipatutako eremuaren bertikala zeharkatzen badu.

Erabilitako maiztasun bakoitzean, haren balio nominala hartuko da kontuan, kanalaren muturrek tabulatutako maiztasun-marjinetako bi barne hartu ala ez; eta balio nominala mutur horietako batekin bat badator, tasaren zenbateko txikiena duen marjina hartuko da.

2.1.1 Zerbitzu finkoa, puntutik puntura/maiztasun eskusiboa/erabilera txikiko eremua/autoprestazioa.

Tasaren zenbateko osoa, sareko bao irrati-elektiko bakoitzaren banako tasen baturaren emaitza izango da, aipatutako baoaren ezaugarrien arabera kalkulaturik.

Bao bakoitzean kontuan hartu beharreko S azalera, kilometrotan duen luzera kilometro bateko zabalera biderkatzearen emaitza izango da.

Bao bakoitzean kontuan hartu beharreko B banda-zabalera, erabilitako kanalizazioaren balioa edo, horren ezean, emisioaren izendapenaren arabera banda-zabalera, transmisioaren bi noranzkoetan erabilitako maiztasun kopuruaz biderkatzearen emaitza izango da. Polarizazio bikoitzeko maiztasunak erreserbatuta dituzten bao irrati-elektikoetan, tasa kalkulatzeko orduan, maiztasun kopuru bikoitza erreserbatu dela hartuko da; dena den, banako tasaren balioari ehuneko 25eko murrizketa aplikatuko zaio.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 1.000 MHz. ....	1,3	1	1,3	1,25	0,26033	2111
1.000-3.000 MHz. ....	1,25	1	1,45	1,2	0,26033	2112
3.000-10.000 MHz. ....	1,25	1	1,15	1,15	0,24413	2113
10-24 GHz. ....	1,2	1	1,1	1,15	0,21967	2114
24-39,5 GHz. ....	1,1	1	1,05	1,1	0,21967	2115
> 39,5 GHz. ....	1	1	1	1	0,04981	2116

2.1.2 Zerbitzu finkoa, puntutik puntura/maiztasun eskusiboa/erabilera handiko eremua/autoprestazioa.

Tasaren zenbateko osoa, sareko bao irrati-elektriko bakoitzaren banako tasen baturaren emaitza izango da, aipatutako baoaren ezaugarrien arabera kalkulaturik.

Bao bakoitzean kontuan hartu beharreko S azalera, kilometrotan duen luzera kilometro bateko zabaleraz biderkatzearen emaitza izango da.

Bao bakoitzean kontuan hartu beharreko B banda-zabalera, erabilitako kanalizazioaren balioa edo, horren ezean, emisioaren izendapenaren arabera banda-zabalera, transmisioaren bi noranzkoetan erabilitako maiztasun kopuruaz biderkatzearen emaitza izango da. Polarizazio bikoitzeko maiztasunak erreserbatuta dituzten bao irrati-elektrikoetan, tasa kalkulatzeko orduan, maiztasun kopuru bikoitza erreserbatu dela hartuko da; dena den, banako tasaren balioari ehuneko 25eko murrizketa aplikatuko zaio.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 1.000 MHz . . . . .	1,6	1	1,3	1,25	0,26033	2121
1.000-3.000 MHz . . . . .	1,55	1	1,45	1,2	0,26033	2122
3.000-10.000 MHz . . . . .	1,55	1	1,15	1,15	0,24413	2123
10-24 GHz . . . . .	1,5	1	1,1	1,15	0,21967	2124
24-39,5 GHz . . . . .	1,3	1	1,05	1,1	0,21967	2125
> 39,5 GHz . . . . .	1,2	1	1	1	0,04981	2126

2.1.3 Zerbitzu finkoa, puntutik puntura/maiztasun eskusiboa/hirugarrenentzako prestazioa.

Tasaren zenbateko osoa, sareko bao irrati-elektriko bakoitzaren banako tasen baturaren emaitza izango da, aipatutako baoaren ezaugarrien arabera kalkulaturik.

Bao bakoitzean kontuan hartu beharreko S azalera, kilometrotan duen luzera kilometro bateko zabaleraz biderkatzearen emaitza izango da.

Bao bakoitzean kontuan hartu beharreko B banda-zabalera, erabilitako kanalizazioaren balioa edo, horren ezean, emisioaren izendapenaren arabera banda-zabalera, transmisioaren bi noranzkoetan erabilitako maiztasun kopuruaz biderkatzearen emaitza izango da. Polarizazio bikoitzeko maiztasunak erreserbatuta dituzten bao irrati-elektrikoetan, tasa kalkulatzeko orduan, maiztasun kopuru bikoitza erreserbatu dela hartuko da; dena den, banako tasaren balioari 100eko 25eko murrizketa aplikatuko zaio.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 1.000 MHz . . . . .	1,3	1,03	1,3	1,25	0,20806	2151
1.000-3.000 MHz . . . . .	1,25	1,03	1,7	1,2	0,20806	2152
3.000-10.000 MHz . . . . .	1,25	1,03	1,15	1,15	0,195185	2153
10-24 GHz . . . . .	1,2	1,03	1,1	1,15	0,175615	2154
24-39,5 GHz . . . . .	1,1	1,03	1,05	1,1	0,175615	2155
> 39,5 GHz . . . . .	1	1,03	1	1	0,039964	2156

2.1.4 Zerbitzu finkoa, puntutik puntura/banda-erreserbak Espainia osoan.

Tasa kalkulatzeko orduan, erreserbatutako banda-zabalera hartuko da kontuan, Espainia osoko azaleraren gainean, esleitutako banda osoa edo zati bat berrerabili den edo ez alde batera utzita.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 1.000 MHz . . . . .	1,3	1	1,3	1,25	2,430 10 <sup>-3</sup>	2161
1.000-3.000 MHz . . . . .	1,25	1	1,2	1,2	2,430 10 <sup>-3</sup>	2162
3.000-10.000 MHz . . . . .	1,25	1	1,15	1,15	2,430 10 <sup>-3</sup>	2163
10-24 GHz . . . . .	1,2	1	1,1	1,15	2,430 10 <sup>-3</sup>	2164
24-39,5 GHz . . . . .	1,1	1	1,05	1,05	2,430 10 <sup>-3</sup>	2165
> 39,5 GHz . . . . .	1	1	1	1	0,595 10 <sup>-3</sup>	2166

### 2.1.5 Zerbitzu finkoa, puntutik puntura, dentsitate handikoa, edozein eremutan

Dentsitate handiko puntutik punturako zerbitzu finkoari dagokionez, eremu bereko beste erabilera-baimen batzuekin koordinatu gabeko maiztasunetan, baimendutako bao bakoitzeko kontuan hartu beharreko S azalera 1,5 kilometroko luzera nominala kilometro bateko zabaleraz biderkatzearen emaitza izango da.

Baimendutako kanal bakoitzerako kontuan hartu beharreko B banda-zabalera, loturan erabilitako kanalizazioari dagokiona izango da (50 MHz, 100 MHz, etab.), eta, halakorik ezean, emisioaren izendapenaren araberrako banda-zabalera.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
< 64 GHz . . . . .	1,12	1	1,10	2	0,1103	2171
64-66 GHz . . . . .	1,12	1	1,05	2	0,1103	2172
> 66 GHz . . . . .	1,12	1	1	2	0,1103	2173

### 2.1.6 Zerbitzu finkoa, puntutik puntura/probintziako edo probintzia anitzeko banda-erreserbak.

Paragrafo hau probintzia baterako edo gehiagorako banda-erreserbei aplikatu behar zaie, haien estaldura-eremua gehienez ere 250.000 kilometro koadrokoa den kasuetan.

Tasa kalkulatzeko orduan, erreserbatutako banda-zabalera hartuko da kontuan, zerbitzu-eremuaren azaleraren gainean, esleitutako maiztasun guztiak edo batzuk berrerabili diren edo ez alde batera utzita.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
F < 1.000 MHz . . . . .	1,3	1	1,3	1,25	4,627 10 <sup>-3</sup>	2181
1.000-3.000 MHz . . . . .	1,25	1	1,2	1,2	4,627 10 <sup>-3</sup>	2182
3-10 GHz . . . . .	1,25	1	1,15	1,15	4,627 10 <sup>-3</sup>	2183
10-24 GHz . . . . .	1,2	1	1,1	1,15	4,627 10 <sup>-3</sup>	2184
24-39,5 GHz . . . . .	1,1	1	1,05	1,05	4,627 10 <sup>-3</sup>	2185
> 39,5 GHz . . . . .	1	1	1	1	1,157 10 <sup>-3</sup>	2186

### 2.2 Puntutik puntu anitzerako zerbitzu finkoa.

Erabilitako maiztasun bakoitzean, haren balio nominala hartuko da kontuan, kanalaren muturrek tabulatutako maiztasun-marjinetako bi barne hartu ala ez; eta balio nominala mutur horietako batekin bat badator, tasaren zenbateko txikiena duen marjina hartuko da.



2.2.1 Zerbitzu finkoa, puntutik puntu anitzera/maiztasun eskusiboa/edozein eremu/autoprestazioa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektikoaren erreserban adierazitako zerbitzu-eremua izango da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera emisioaren ezaugarri teknikoetatik aterako da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 1.000 MHz . . . . .	1,5	1	1,3	1,25	0,072467	2211
1.000-3.000 MHz . . . . .	1,35	1	1,25	1,2	0,061557	2212
3.000-10.000 MHz . . . . .	1,25	1	1,15	1,15	0,036270	2213
10-24 GHz . . . . .	1,2	1	1,1	1,15	0,054403	2214
24-39,5 GHz . . . . .	1,1	1	1,05	1,1	0,054403	2215
> 39,5 GHz . . . . .	1	1	1	1	0,008887	2216

2.2.2 Zerbitzu finkoa, puntutik puntu anitzera/maiztasun eskusiboa/edozein eremu/hirugarrenentzako prestazioa.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektikoaren erreserban adierazitako zerbitzu-eremua izango da; salbuespen gisa, hala ere, 2235 modalitateko kode-erreserben kasuan, kalkulua egiteko, 80 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera emisioaren ezaugarri teknikoetatik aterako da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 1.000 MHz . . . . .	1,5	1	1,3	1,25	0,0505	2231
1.000-3.000 MHz . . . . .	1,35	1	1,25	1,2	0,0428	2232
3.000-10.000 MHz . . . . .	1,25	1	1,15	1,15	0,0253	2233
10-24 GHz . . . . .	1,2	1	1,1	1,15	0,0377	2234
24-39,5 GHz . . . . .	1,38	1	1,05	1,1	0,0377	2235
> 39,5-105 GHz . . . . .	1	1	1	1	0,0062	2236

2.2.3 Zerbitzu finkoa, puntutik puntu anitzera/banda-erreserbak Espainia osoan.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera dagokion jabari publiko irrati-elektikoaren erreserban adierazitakoa izango da, Espainia osoari dagokion S azalaren gainean, esleitutako banda osoa edo zati bat berrerabili den edo ez alde batera utzita.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 1.000 MHz . . . . .	1,3	1	1,3	1,25	2,649 10 <sup>-3</sup>	2241
1.000-3.000 MHz . . . . .	1,35	1	1,25	1,2	2,649 10 <sup>-3</sup>	2242
3.000-10.000 MHz . . . . .	1,25	1	1,15	1,15	2,649 10 <sup>-3</sup>	2243
10-24 GHz . . . . .	1,2	1	1,1	1,15	2,649 10 <sup>-3</sup>	2244
24-39,5 GHz . . . . .	1,1	1	1,05	1,05	2,649 10 <sup>-3</sup>	2245
> 39,5 GHz . . . . .	1	1	1	1	0,649 10 <sup>-3</sup>	2246

2.2.4 Zerbitzu finkoa, puntutik puntu anitzera/probintziako edo probintzia anitzeko banda-erreserbak.

Paragrafo hau probintzia baterako edo gehiagorako espektrorreserbei aplikatu behar zaie, haien zerbitzu-eremua gehienez ere 250.000 kilometro koadrokoa den kasuetan.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera dagokion jabari publiko irrati-elektikoaren erreserban adierazitakoa izango da, estalitako azaleraren gainean, esleitutako banda osoa edo zati bat berrerabili den edo ez alde batera utzita.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 1.000 MHz . . . . .	1,3	1	1,3	1,25	0,27243	2251
1.000-3.000 MHz . . . . .	1,35	1	1,25	1,2	0,27243	2252
3.000-10.000 MHz . . . . .	1,25	1	1,15	1,15	0,27243	2253
10-24 GHz . . . . .	1,2	1	1,1	1,15	0,27243	2254
24-39,5 GHz . . . . .	1,1	1	1,05	1,05	0,27243	2255
> 39,5 GHz . . . . .	1	1	1	1	0,06809	2256

### 2.3 Satellite bidezko zerbitzu finkoa.

Kontuan hartu beharreko S azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da; oro har, eta bestelakorik zehaztu ezean, eremu hori Espainia osoko azalera dagokiona izango da. Nolanahi ere, kalkulua egiteko, epigrafeetarako ondoren zehaztutako gutxieneko azalera aplikatuko dira.

Maiztasun bakoitzerako kontuan hartu beharreko banda-zabalera emisioaren izendapenean zehaztutakoa izango da, eta goranzko zein beheranzko loturen banda-zabalerak hartuko dira kontuan, dagokien azalera barne. Horretatik kanpo gelditzen dira irrati-difusioko konexio-loturak; horrelakoetan banda-zabalera bakarrik hartuko da kontuan, goranzko lotura bakarrik baita.

2.3.1 Satellite bidezko puntutik punturako zerbitzu finkoa, satellite bidezko zerbitzu mugikorren konexio-loturak barne hartuta, bai eta satellite bidezko irrati-difusioko kontribuzio-loturak ere (puntutik puntu anitzera).

Puntutik punturako loturetan, goranzko loturan zein beheranzkoan, 31.416 kilometro koadroko S azalera hartuko da kontuan. Kategoria honetan, puntutik punturako irrati-difusioko kontribuzio-loturak ere jasoko dira. Puntutik puntu anitzeko kontribuzio-loturetan, 31.416 kilometro koadroko S azalera hartuko da kontuan goranzko loturarako; beheranzkoan, berriz, zerbitzu-eremuaren azalera, zeina, oro har, Espainia osoaren azalera izango den; dena den, kalkulua egiteko, 100.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 3.000 MHz . . . . .	1,50	1,25	1,50	1,20	1,950 10 <sup>-4</sup>	2311
3-17 GHz . . . . .	1,25	1,25	1,15	1,15	1,950 10 <sup>-4</sup>	2312
> 17 GHz . . . . .	1,0	1,25	1,0	1,20	0,360 10 <sup>-4</sup>	2315

2.3.2 Satellite bidezko irrati-difusio (soinuduna eta telebista) zerbitzuaren konexio-loturak.

Satellite bidezko irrati-difusio (soinuduna eta telebista) zerbitzuaren konexio-loturei dagokienez (goranzko lotura), kalkulua egiteko, 31.416 kilometro koadroko S azalera hartuko da kontuan.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 3.000 MHz.....	1,50	1,25	1,50	1,20	1,7207 10 <sup>-4</sup>	2321
3-30 GHz .....	1,25	1,25	1,50	1,20	1,7207 10 <sup>-4</sup>	2322
> 30 GHz .....	1,0	1,25	1,0	1,20	1,7207 10 <sup>-4</sup>	2324

2.3.3 VSAT (satellite bidezko datu-sareak) eta SNG (satellite bidezko erreportajeen lotura garraigarriak) erako zerbitzuak.

Zerbitzu-eremuaren azalera hartuko da kontuan; kalkulua egiteko 10.000 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da. SNG loturei dagokienez, 20.000 kilometro koadroko azalera hartuko da kontuan. Aurreko kasu guztietan, azalera igorpenean zein harreran hartuko da, igortzeko eta hartzeko estazioen kopurua edozein dela ere.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
f < 3.000 MHz.....	1,50	1,25	1,50	1,20	1,7207 10 <sup>-4</sup>	2331
3-17 GHz .....	1,25	1,25	1,50	1,20	1,7207 10 <sup>-4</sup>	2332
> 17 GHz .....	1,0	1,25	1,0	1,20	4,21 10 <sup>-5</sup>	2334

### 3. IRRATI DIFUSIOKO ZERBITZUA

Ondoko alderdi hauek irrati-difusio zerbitzuari aplikatu beharrekoak dira, soinuaren zein telebistaren modalitateetan.

Kontuan hartu beharreko S azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da. Espainia osoa estaltzen duten irrati-difusio zerbitzuetan, zerbitzu-eremuaren azalera Espainia osoaren azalera izango da, eta tasa ez da estaldura hori lortzeko beharrezko den estazio bakoitzeko banan-banan ebaluatuko. Autonomia-erkidegoa estaltzen duten irrati-difusio zerbitzuetan (soinuduna eta telebista), zerbitzu-eremuaren azalera dagokion autonomia-erkidegoarena izango da, eta tasa ez da estaldura hori lortzeko beharrezko den estazio bakoitzeko banan-banan ebaluatuko.

Espainia osoa edota edozein autonomia-erkidego estaltzen duten irrati-difusio zerbitzuetan, aplikatu beharreko B banda-zabalera zerbitzu motari dagokiona izango da, eta banaka hartutako zerbitzu-estazio bati aplikatuko litzaiokeen berbera.

Eremu geografikoa kalifikatzen den zerbitzu-modalitateetan, eremua interes eta errentagarritasun handikoa izango da zerbitzu-eremuaren barruan probintziaren edo autonomia-erkidegoaren hiriburua dagoenean, edota 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerriren bat.

Irrati-difusio zerbitzuan, C<sup>5</sup> koefizientea k faktore batekin haztatzen da; faktore hori biztanle-dentsitatearen funtzioa da, eta zerbitzu-eremuan indarrean dagoen biztanle-errodaren bidez lortzen da, ondoko taula honi jarraiki:

Biztanle-dentsitatea	k faktorea
Gehienez 100 biztanle/km <sup>2</sup> . . . . .	0,015
100 bizt/km <sup>2</sup> baino gehiago eta gehienez 250 bizt/km <sup>2</sup> . . . . .	0,05
250 bizt/km <sup>2</sup> baino gehiago eta gehienez 500 bizt/km <sup>2</sup> . . . . .	0,085
500 bizt/km <sup>2</sup> baino gehiago eta gehienez 1.000 bizt/km <sup>2</sup> . . . . .	0,12
1.000 bizt/km <sup>2</sup> baino gehiago eta gehienez 2.000 bizt/km <sup>2</sup> . . . . .	0,155
2.000 bizt/km <sup>2</sup> baino gehiago eta gehienez 4.000 bizt/km <sup>2</sup> . . . . .	0,19
4.000 bizt/km <sup>2</sup> baino gehiago eta gehienez 6.000 bizt/km <sup>2</sup> . . . . .	0,225
6.000 bizt/km <sup>2</sup> baino gehiago eta gehienez 8.000 bizt/km <sup>2</sup> . . . . .	0,45
8.000 bizt/km <sup>2</sup> baino gehiago eta gehienez 10.000 bizt/km <sup>2</sup> . . . . .	0,675
10.000 bizt/km <sup>2</sup> baino gehiago eta gehienez 12.000 bizt/km <sup>2</sup> . . . . .	0,9
12.000 bizt/km <sup>2</sup> baino gehiago. . . . .	1,125

Edonola ere, CNAFen zehaztutakoak izango dira irrati-difusioko zerbitzuak eskaintzeko maiztasun-bandak; dena den, Telekomunikazioetako eta Informazioaren Gizarterako Estatuko Idazkariak koadro horietan jaso gabeko aldi baterako edo esperimenezko erabilerak baimendu ahalko ditu, betiere legez baimendutako estazio irrati-elektroi eragozten ez badiete. Aldi baterako edota esperimenezko diren erabilera horiek ere tasa bat ordaindu beharko dute jabari publiko irrati-elektroi erreserbatzeagatik; tasaren zenbatekoa zehazteko orduan, antz handiena duen zerbitzuaren irizpide orokorrak aplikatuko dira, edota, hala badagokio, erreserbatutako maiztasun-bandari dagozkion irizpideak.

Satelite bidezko irrati-difusio zerbitzuan, lurralde nazionalako goranzko loturak baino ez dira kontuan hartuko; lotura horiek konexio-lotura gisa tipifikatuta daude, satelite bidezko zerbitzu finkoaren 2.3.2 paragrafoan.

Satelite bidezko irrati-difusioko kontribuzio-loturak ere hala tipifikatuta daude, satelite bidezko zerbitzu finkoaren 2.3.1 paragrafoaren barruan.

### 3.1 Soinudun irrati-difusioa.

#### 3.1.1 Uhin luzeko eta uhin ertaineko soinudun irrati-difusioa.

S azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera 9 kHz-koa izango da alboko banda bikoitzeko modulazio-sistemetan, eta 4,5 kHz-koa alboko banda bakarrekoko modulazio-sistemetan.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
148,5 eta 283,5 kHz bitartean	1	1	1	1,25	650,912 k	3111
526,5 eta 1.606,5 kHz bitartean	1	1	1,5	1,25	650,912 k	3112

#### 3.1.2 Uhin laburreko soinudun irrati-difusioa.

Espainiaren azalera dagokion S azalera eta Espainiako biztanle-dentsitateari dagokion biztanle-dentsitatea hartuko dira kontuan.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera 9 kHz-koa izango da alboko banda bikoitzeko modulazio-sistemetan, eta 4,5 kHz-koa alboko banda bakarrekoko modulazio-sistemetan.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
3 eta 30 MHz bitartean CNAFen arabera . .	1	1	1	1,25	325,453 k	3121

3.1.3 Maiztasun-modulazioa duen soinudun irrati-difusioa, interes eta errentagarritasun handiko eremuetan.

S azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera 180 kHz-koa izango da sistema monofonikoetan, 256 kHz-koa sistema estereofonikoetan, eta 300 kHz-koa azpigarraiatazale osagarriak dituzten sistemetan.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
87,5 eta 108 MHz bitartean . . . . .	1,25	1	1,5	1,25	13,066 k	3131

3.1.4 Soinudun irrati-difusioa, beste eremu batzuetan maiztasun-modulazioa duena.

S azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera 180 kHz-koa izango da sistema monofonikoetan, 256 kHz-koa sistema estereofonikoetan, eta 300 kHz-koa azpigarraiatazale osagarriak dituzten sistemetan.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
87,5 eta 108 MHz bitartean . . . . .	1	1	1,5	1,25	13,066 k	3141

3.1.5 Lurreko soinudun irrati-difusioa digitala, interes eta errentagarritasun handiko eremuetan.

S azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera 1.536 kHz-koa izango da UNE ETS 300 401 araua duten sistemetan.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
195 eta 223 MHz bitartean . . . . .	1,25	1	1,5	1	0,3756 k	3151
1.452 eta 1.492 MHz bitartean. . . . .	1,25	1	1	1	0,3756 k	3152

3.1.6 Lurreko soinudun irrati-difusioa digitala, beste eremu batzuetan.

S azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera 1.536 kHz-koa izango da UNE ETS 300 401 araua duten sistemetan.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
195 eta 223 MHz bitartean . . . . .	1	1	1,5	1	0,3756 k	3161
1.452 eta 1.492 MHz bitartean. . . . .	1	1	1	1	0,3756 k	3162

## 3.2 Telebista.

S azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da beti.

## 3.2.1 Lurreko telebista digitala, interes eta errentagarritasun handiko eremuetan.

Paragrafo hau Espainia osoaren eta autonomia-erkidegoaren eremura zabaltzen diren espektrorreserbei aplikatu beharrekoa da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera 8.000 kHz-koa izango da UNE ETS 300 744 araua duten sistemetan.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
470 eta 862 MHz bitartean . . . . .	1,25	1	1,3	1	0,7023 k	3231

## 3.2.2 Lurreko telebista digitala, beste eremu batzuetan.

Paragrafo hau Espainia osoaren eta autonomia-erkidegoaren eremura zabaltzen diren espektrorreserbei aplikatu beharrekoa da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera 8.000 kHz-koa izango da UNE ETS 300 744 araua duten sistemetan.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
470 eta 862 MHz bitartean . . . . .	1	1	1,3	1	0,7023 k	3241

## 3.2.3 Tokiko eremuko lurreko telebista digitala, interes eta errentagarritasun handiko eremuetan.

Paragrafo hau tokiko eremuko espektrorreserbei aplikatu beharrekoa da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera 8.000 kHz-koa izango da UNE ETS 300 744 araua duten sistemetan.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
470 eta 862 MHz bitartean . . . . .	1,25	1	1,3	1	0,3512 k	3251

## 3.2.4 Tokiko eremuko lurreko telebista digitala, beste eremu batzuetan.

Paragrafo hau tokiko eremuko espektrorreserbei aplikatu beharrekoa da.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera 8.000 kHz-koa izango da UNE ETS 300 744 araua duten sistemetan.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
470 eta 862 MHz bitartean . . . . .	1	1	1,3	1	0,3512 k	3261

## 3.3 Irrati-difusioaren zerbitzu osagarriak.

## 3.3.1 Foniako lotura mugikorak, irrati bidezko erreportaje eta saioetarako.

Kontuan hartu beharreko S azalera dagokion jabari publiko irrati-elektikoaren erreserban ageri dena izango da; 100 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

Zenbatu beharreko B banda-zabalera, erabilitako kanalari dagokiona izango da (300 kHz, 400 kHz, etab.).

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
CNAFen aurreikusitako bandetan . . . . .	1	1	1	2	0,8017	3311

3.3.2 Estudioen eta irratiaren arteko soinudun irrati-difusioko saioak garraiatzeko loturak.

Kontuan hartu beharreko S azalera, bao guztien luzeren batura kilometro bateko zabalera biderkatzearen emaitza izango da; 10 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da.

B banda-zabalera erabilitako kanalari dagokiona izango da (300 kHz, 400 kHz, etab.).

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
CNAF UN 111 . . . . .	1,25	1	1,25	2	5,72	3321
CNAF UN 47 . . . . .	1,15	1	1,10	1,90	5,72	3322
CNAF UN 88 . . . . .	1,05	1	0,75	1,60	5,72	3323
CNAF UN 105 eta 106 . . . . .	1,5	1	1,3	2	5,72	3324

3.3.3 Telebistako lotura mugikorak (ENG).

Kalkulua egiteko, maiztasun-erreserba bakoitzeko 10 kilometro koadroko azalera ezarri da, Espainiako edozein tokitan maiztasun eta erabilera berean funtzionatzen duten ekipoen kopurua edozein dela ere.

Kontuan hartu beharreko banda-zabalera erabilitako kanalari dagokiona izango da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
CNAFen aurreikusitako bandetan . . . . .	1,25	1	1,25	2	0,7177	3331

#### 4. BESTELAKO ZERBITZU BATZUK.

##### 4.1 Irrati-nabigazio zerbitzua.

Kontuan hartu beharreko S azalera, baimendutako zerbitzuak erradiotzat duen zirkuluarena izango da.

B banda-zabalera emisioaren izendapenetik lortuko da zuzenean.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
CNAFen aurreikusitako bandetan . . . . .	1	1	1	1	0,0100	4111

##### 4.2 Irrati-determinazio zerbitzua.

Kontuan hartu beharreko S azalera, baimendutako zerbitzuak erradiotzat duen zirkuluarena izango da.

B banda-zabalera emisioaren izendapenetik lortuko da zuzenean.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
CNAFen aurreikusitako bandetan . . . . .	1	1	1	1	0,0602	4211

#### 4.3 Irrati-lokalizazio zerbitzua.

Kontuan hartu beharreko S azalera, baimendutako zerbitzuak erradiotzat duen zirkuluarena izango da.

B banda-zabalera emisioaren izendapenetik lortuko da zuzenean.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
CNAFen aurreikusitako bandetan . . . . .	1	1	1	1	0,03090	4311

4.4 Satelite bidezko zerbitzuak, hala nola eragiketa espazialak, lurraren satelite bidezko esplorazioa, eta beste batzuk.

Kontuan hartu beharreko S azalera zerbitzu-eremuari dagokiona izango da; kalkulua egiteko, 31.416 kilometro koadroko gutxieneko azalera ezarri da, hala igorpenean, nola harreran.

Kontuan hartu beharreko B banda-zabalera, igorpenean zein harreran, sistemak kasuan kasu eskatzen duena izango da.

Maiztasunak	Indizeak					Modalitate-kodea
	C <sub>1</sub>	C <sub>2</sub>	C <sub>3</sub>	C <sub>4</sub>	C <sub>5</sub>	
Eragiketa espazialak (teleagintea, teleneurria eta jarraipena) . . . . .	1	1	1	1	1,977 10 <sup>-4</sup>	4412
Lurraren satelite bidezko esplorazioa . . . . .	1	1	1	1	0,7973 10 <sup>-4</sup>	4413
Beste zerbitzu espazialak . . . . .	1	1	1	1	3,904 10 <sup>-3</sup>	4411

### 5. AURREKO PARAGRAFOETAN JASO GABEKO ZERBITZUAK.

Aurreko paragrafoetan jaso gabeko zerbitzu eta sistemetan, edo aurreko arauak aplikatzerik ez dagoenetan, irizpide hauen arabera finkatuko da tasa:

- Aipatutako zerbitzuren baten antzeko ezaugarri teknikoak izatea.
- Teknikoki beharrezkoa den jabari irradi-elektikoaren kopurua.
- Egindako erreserbak estalitako azalera.
- Bestelako teknologien bidez, antzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten sistemak sorrarazitako tasaren zenbatekoa.

Bi. Jabari publiko irradi-elektikoa erreserbatzeagatik tasa arautzen duten erregelamendu-xedapenek indarrean jarraituko dute artikulu honetan adierazitakoaren kontra ez doan guztian.

84. artikulua. Trafikoko Buruzagitza Zentralaren tasak: Gidabaimenak.

Herri-administrazioen ondareari buruzko azaroaren 3ko 16/1979 Legearen 6. artikulua II taldeko 3 puntua aldatu egiten da; aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta epe mugagabea egongo da indarrean. Hona nola geratzen den idatzita:

«3. Gidabaimenak edo gidatzeko lizentzia lortzea puntuen kreditua galtzeagatik edo trukatzegatik, hartarako gidatzeko azterketa praktikorik egin



behar ez denean, bai eta A gidabaimena ematea ere eskatutako prestakuntza azterketarik gabe gainditu ostean.»

85. artikulua. *Hurbiltze-tasa.*

Lege honen 82. artikuluan xedatutakoa gorabehera, 2014an 2013ko zenbatekotan mantenduko dira hurbiltze-tasak, 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen 76. artikuluan adierazitakoarekin bat.

86. artikulua. *Aena Aeropuertos, SAren ondare-prestazio publikoak.*

Bat. Aena Aeropuertos, SAren ondare-prestazio publikoak 100eko 0,9 handituko dira 2013an eskatutako zenbatekoekiko –Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legearen VI tituluaren I eta II kapituluetan ezarrita daude–. Prestazio horiek 2014ko martxoaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak eta epe mugagabeen egongo dira indarrean.

Aurreko lerrokadan adierazitako gehikuntza ez zaio aplikatuko PMR prestazio publikoaren zenbatekoari –Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legearen 78. artikuluan 1 paragrafoan ezarrita–. Prestazio horren zenbatekoa izozturik geldituko da; bidaiari bakoitzeko 0,61 eurokoa izango da, hortaz, aireportu guztietan.

Bi. Lurreratze eta aerodromoko zirkulazio-zerbitzuen kontzeptuan eragiketa bakoitzeko ordaindu beharreko gutxieneko zenbatekoa –Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legearen 75. artikuluan 4 paragrafoan jasota– Bat paragrafoan xedatutakoaren arabera eguneratuko da aireportu hauetan: Madril Barajas, Bartzelona El Prat, Alacant, Kanaria Handia, Málaga Costa del Sol, Palma eta Tenerife Hegoaldea.

Gainerako aireportuetan lurreratze eta aerodromoko zirkulazio-zerbitzuen kontzeptuan eragiketa bakoitzeko ordaindu beharreko gutxieneko zenbatekoa –Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legearen 75. artikuluan 4 paragrafoan araututa–, zenbateko hauetan finkatuko da 2014ko martxoaren 1etik aurrera eta indarraldi mugagabearekin:

Aireportua	Lurreratze-eragiketaren gutxieneko zenbatekoa – Eurotan	Aerodromoko zirkulazio-zerbitzuen gutxieneko zenbatekoa – Eurotan
Bilbo, Fuerteventura, Girona, Eivissa, Lanzarote, Menorca, Santiago, Sevilla, Tenerife iparraldea eta Valentzia. . . . .	14,66	7,84
Coruña, Almería, Asturias, FGL Granada-Jaén, Jerez, La Palma, Murtzia-San Javier, Reus, Santander, Vigo eta Zaragoza . . . . .	10,82	6,18
Albacete, Algeciras, Badajoz, Burgos, Ceuta, Córdoba, Cuatro Vientos, Hierro, Huesca-Pirinioak, Gomera, León, Logroño, Melilla, Iruñea, Sabadell, Salamanca, Donostia, San Bonet, Valladolid, Gasteiz eta Aena Aeropuertos SAK kudeatutako gainerako aireportuak. . .	5,86	4,31

87. artikulua. *Interes orokorreko portuetan ontzien, bidaiarien eta salgaien tasei aplikatzeko hobariak.*

Estatuko Portuei eta Merkataritzako Ontzidiari buruzko Legearen testu bateginak, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 182. eta 245. artikuluetan aurreikusitako hobariak, portu-agintaritzek okupazio-tasei eta ontzien, salgaien eta bidaiarien tasei 2014an aplikatzekoak, eta, hala badagokio, aplikazio-baldintzak, lege honen X. eranskinean zehaztutakoak izango dira.

88. artikulua. *Interes orokorreko portuetan ontzien, bidaiarien eta salgaien tasei aplikatzeko koefiziente zuzentzaileak.*

Estatuko Portuei eta Merkataritzako Ontzidiari buruzko Legearen testu bateginak, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 166. artikuluan aurreikusitako koefiziente zuzentzaileak, portu-agintaritzek ontzien, salgaien eta bidaiarien tasei aplikatu beharrekoak, taula honetan ageri direnak izango dira:

Portuko Agintaritza	Ontzien tasa	Salgaien tasa	Bidaiarien tasa
Coruña . . . . .	1,30	1,30	1,05
Alacant . . . . .	1,20	1,25	1,10
Almería . . . . .	1,26	1,24	1,26
Avilés . . . . .	1,19	1,05	1,00
Algecirasko badia . . . . .	0,95	0,95	0,95
Cádizko badia . . . . .	1,18	1,18	1,10
Balearrak . . . . .	1,00	0,90	0,70
Bartzelona . . . . .	1,00	1,00	1,00
Bilbo . . . . .	1,05	1,05	1,05
Cartagena . . . . .	0,95	0,96	0,80
Castelló . . . . .	1,05	1,15	1,05
Ceuta . . . . .	1,30	1,30	1,30
Ferrol-San Cibrao . . . . .	1,10	0,95	0,92
Gijón . . . . .	1,25	1,20	1,10
Huelva . . . . .	1,00	0,95	0,70
Las Palmas . . . . .	1,20	1,30	1,30
Málaga . . . . .	1,20	1,30	1,30
Marín eta Pontevedrako itsasadarra . . . . .	1,06	1,08	1,00
Melilla . . . . .	1,30	1,30	1,30
Motril . . . . .	1,30	1,30	1,15
Pasaia . . . . .	1,25	1,15	0,95
Santa Cruz Tenerifekoa . . . . .	1,20	1,30	1,30
Santander . . . . .	1,05	1,05	1,05
Sevilla . . . . .	1,18	1,18	1,10
Tarragona . . . . .	1,00	1,00	0,70
Valentzia . . . . .	1,20	1,20	1,00
Vigo . . . . .	1,10	1,20	1,00
Vilagarcía . . . . .	1,25	1,15	1,00

89. artikulua. *Okupazio-tasaren karga-tasa.*

Aldatu egin da Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bateginaren, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 176. artikulua; aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta epe mugagabearen egongo da indarrean. Hona nola geratu den idatzita:

«176. artikulua. *Karga-tasa.*

1. Tributu-oinarriari aplikatu beharreko urteko karga-tasa honako hau izango da:

a) Emateko tituluan xedatutakoaren arabera, portuko lurrak eta urak honako jarduera hauetarako okupatzeari dagokionez:

1. Garraio-moduen arteko trukearekin zerikusia duten portu-jardueretarako, portu-zerbitzuak garatzeari buruzkoetarako, bai eta merkataritzako, arrantzako eta ur-kiroletako bestelako jardueretarako: ehuneko 5,5.

2. Portu-jardueren jarduera lagungarri edo osagarrietarako, bai eta logistikako, biltegitratzeko eta industria- edo merkataritza-enpresei dagozkien jardueretarako ere: ehuneko 6,5.

3. Portu-hiria interakzioarekin lotutako erabilerei buruzko jardueretarako: ehuneko 7,5.

b) Urpeko lurren edo eremuen hegalaren edo lurpearen okupazioari dagokionez: lurrei edo urei dagokien tributu-oinarriaren balioaren ehuneko 2,75, betiere horien erabilerak gainazala erabiltzea eragozten ez badu; horrelakoetan karga-tasa aurreko a) idatz-zatian xedatutakoaren arabera dagokiona izango da.

c) Emateko tituluan xedatutakoaren arabera, obrak eta instalazioak honako jarduera hauetarako okupatzeari dagokionez:

1. Garraio-moduen arteko trukearekin lotutako portu-jardueretarako, portu-zerbitzuak garatzeari buruzko jardueretarako eta merkataritzako, arrantzako eta ur-kiroletako bestelako portu-jardueretarako: lurren eta ur-espazioaren balioaren ehuneko 5,5; obren eta instalazioen balioaren ehuneko 3,5, eta esleitutako urteko balio-galeraren ehuneko 100. Arrantzako lonjei eta arrantza-jarduerarekin lotutako bestelako obrei eta instalazioei dagokienez, obraren edo instalazioaren balioari aplikatu beharreko karga-tasa ehuneko 0,5 izango da.

2. Portu-jardueren jarduera lagungarri edo osagarrietarako, bai eta logistikako, biltegitratzeko eta industria- edo merkataritza-enpresei dagozkien jardueretarako ere: lurren, ur-eremuaren eta obren eta instalazioen balioaren ehuneko 6,5, eta esleitutako urteko balio-galeraren ehuneko 100.

3. Portu-hiria interakzioarekin lotutako erabilerei buruzko jardueretarako: lurren, ur-eremuaren eta obren eta instalazioen balioaren ehuneko 7,5, eta esleitutako urteko balio-galeraren ehuneko 100.

d) Ahitzeko erabilerari dagokionez: kontsumitutako materialen balioaren ehuneko 100.

2. Itsasontziak edo ontziak eraikitzea konpontzea edo desegitea emakidaxedetzat duten lurrei eta instalazioei aplikatu beharreko kargak portzentajezko 1,5 puntu txikiagoak izango dira portuko jardueri dagozkienak baino.»

#### 90. artikulua. *Jarduera-tasaren karga-tasa.*

Aldatu egin da Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bateginaren, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 188. artikulua; aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta epe mugagabea egongo da indarrean. Hona nola geratu den idatzita:

«188. artikulua. Karga-tasa finkatzeko irizpideak eta mugak.

Portu Agintaritzak jabari publikoa egoki ustiatzen dela bermatu beharko duen karga-tasa finkatzeko orduan:

a) Honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan, besteak beste:

1. Jarduera bakoitzaren ezaugarri eta baldintza bereziak eta lehiarako egoera.
2. Jardueraren portu-interesa, eta dagoen zirkulazioa finkatzeko eta zirkulazio berriak erakartzeko duen eragina.
3. Inbertsio pribatuaren maila.
4. Jardueraren ekonomia- eta finantza-informazioaren arrazoizko aurreikuspenak.

b) Honako muga hauek beteko ditu, edozelan ere:

1. Goiko muga:

Aurreko artikuluko a), b), c), d) eta e) idatz-zatietan xedatutako kasuetan, tasaren urteko kuota osoak ez du gaindituko aplikagarri zaizkion balio hauetan handiena:

1. 1. Jabari publikoa okupatzeko tasaren urteko kuota likidoaren ehuneko 100.

1. 2. Manipulatutako portu-zirkulazioaren bolumenari honako karga-tasa hauek aplikatuta ateratzen den zenbatekoa:

0,60 € solteko karga likidoko tona bakoitzeko.

0,90 € solteko karga solidoko tona bakoitzeko.

1,20 € solteko salgai orokorreko tona bakoitzeko.

10,00 € 20' edo gutxiagoko edukiontzi normalizatuko unitate bakoitzeko, 6,10 m arteko plataforma bat eta 6,10 m arteko kutxa duen ibilgailu zurruna barne, hala badagokio.

20,00 € gutxienez 20' dituen edukiontzi normalizatuko unitate bakoitzeko, hauek ere barne, hala badagokio: 6,10 m-tik gorako garraio-plataforma bat, erdiatoi edo atoi bat eta 6,10 m-tik gorako kutxa edo plataforma duen ibilgailu zurrun bat, eta 16,50 m luze arteko kutxa duen ibilgailu artikulatu bat.

25,00 € atoaia duen ibilgailu zurruneko unitate bakoitzeko (errepide-trena).

1,50 € salgaitzat hartzen ez den garraio- edo karga-elementuko unitate huts bakoitzeko.

4,00 € 2.500 kg-tik gorako salgai-erregimeneko ibilgailu bakoitzeko.

2,00 € gehienez 2.500 kg-ko salgai-araubideko ibilgailu bakoitzeko.

1,80 € bidaiari bakoitzeko.

2,00 € motozikleta, bi gurpileko ibilgailu, automobil eta antzeko ibilgailu bakoitzeko, atoian eramandako elementuak barne, bidaia-araubidean.

10,00 € autokar eta garraio kolektiboko ibilgailu bakoitzeko.

Gehieneko tasa horiek urtero eguneratuko dira urrian Estatu osoko kontsumorako prezioen indize orokorrak urrian izandako urtetik urterako aldaketaren ehuneko 75aren proportzio berean. Eguneratze horrek hurrengo urteko urtarilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

1. 3. Negozio-zifraren urteko zenbateko garbiaren edo, bestela, portuan baimenaren babesean garatutako negozio-bolumenaren ehuneko 6.

Aurreko artikuluko f) idatz-zatian xedatutako kasuan, urteko kuota osoa ez da handiagoa izango negozio-zifraren urteko zenbateko garbiaren edo, bestela, baimen edo lizentziaren babesean portuan garatutako negozio-bolumenaren ehuneko 8 baino.

2. Beheko muga:

Aurreko artikuluko a), b), c), d) eta e) idatz-zatietan xedatutako kasuetan, tasaren urteko kuota osoa ez da txikiagoa izango aplikagarri zaizkion balio hauetan handiena baino, dagokionaren arabera:

2. 1. Jarduera portuko jabari publikoaren okupazio pribatiboa eginda garatzen denean, okupatutako lurren eta uren balioei dagokien okupazio-tasaren urteko kuota likidoaren ehuneko 20. Nolanahi ere, horrelakoetan, jarduera-tasaren tributu-oinarritzat zirkulazio-bolumena hartzen denean, ezingo da txikiago izan balio hau baino: finkatutako karga-tasa jabari publikoaren okupazioa gaitzen duen tituluan, hala dagokionean, konprometitutako urteko gutxieneko zirkulazio edo jarduerari aplikatuta ateratzen den balioa.

2. 2. Jarduera jabari publikoaren okupazio pribatiborik gabe egiten denean, negozio-zifraren urteko zenbateko garbiaren edo, bestela, portuan baimenaren edo lizentziaren babesean garatutako negozio-bolumenaren ehuneko bat.

Aurreko artikuluko f) idatz-zatian xedatutako kasuan, emakidaren indarraldian egiten diren berrikuspenen ondoriozko urteko kuota osoa ez da txikiagoa izango negozio-zifraren urteko zenbateko garbiaren edo, hala badagokio, portuan baimenaren babesean garatutako negozio-bolumenaren ehuneko 2 baino.»

91. artikulua. *Salgaien tasa: trenbide-garraioa.*

Aldatu egin da Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bateginaren, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 216. artikulua d) idatzi-zatia; aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta epe mugagabea egongo da indarrean. Hona nola geratu den idatzita:

«d) Portuko zerbitzu-eremutik trenbidez ateratzen edo sartzen diren itsas sarrerako edo irteerako salgaiei eta haien garraio-elementuei: 0,50.»

92. artikulua. *Interes orokorreko portu-sistemari aplikatu beharreko tasen oinarrizko zenbatekoak.*

Aldatu egin dira Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bateginaren, irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 202., 210., 217., 229. eta 235. artikulua; aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta epe mugagabea egongo da indarrean. Hona nola geratu den idatzita:

Bat. Hona hemen nola geratzen den idatzita 202. artikulua:

«202. artikulua. *Oinarrizko zenbatekoak.*

Itsasontzien tasaren oinarrizko zenbatekoen balioa (B eta S) 1,43 € eta 1,20 € izango da, hurrenez hurren, portu-agintaritza guztientzat. Balio horiek berrikusi ahal izango dira Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean edo, hala badagokio, ondorio horietarako onartzen den beste batean portuko, logistikako eta garraioko, baita garraiatutako produktuetako ere, kostuen bilakaeraren arabera, portu-nodoaren eta ekonomiaren lehiakortasunari lotutako beharrak aintzat hartuta.»

Bi. 210. artikulua honela geratu da idatzita:

«210. artikulua. *Oinarrizko zenbatekoa.*

Bidaiarien tasaren oinarrizko zenbatekoaren balioa (P) 3,23 € izango da portu-agintaritza guztientzat. Balio hori berrikusi ahal izango da Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean edo, hala badagokio, ondorio horietarako onartzen den beste batean portuko, logistikako eta garraioko, baita garraiatutako produktuetako ere, kostuen bilakaeraren arabera, portu-nodoaren eta ekonomiaren lehiakortasunari lotutako beharrak aintzat hartuta.»

Hiru. 217. artikulua honela geratu da idatzita:

«217. artikulua. *Oinarrizko zenbatekoa.*

Salgaiaren tasaren oinarrizko zenbatekoaren balioa (M) 2,95 € izango da portu-agintaritza guztientzat. Balio hori berrikusi ahal izango da Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean edo, hala badagokio, ondorio horietarako onartzen den beste batean portuko, logistikako eta garraioko, baita garraiatutako produktuetako ere,

kostuen bilakaeraren arabera, portu-nodoaren eta ekonomiaren lehiakortasunari lotutako beharrak aintzat hartuta.»

Lau. 229. artikulua honela geratu da idatzita:

«229. artikulua. *Oinarrizko zenbatekoa.*

Kirol- eta jolas-itsasontzien tasaren oinarrizko zenbatekoaren balioa (E) 0,124 € izango da portu-agintaritza guztientzat. Balio hori berrikusi ahal izango da Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean edo, hala badagokio, ondorio horietarako onartzen den beste batean portuko eta sektoreko kostuen bilakaeraren arabera, turismo-sektorearen eta, zehazki, itsas eta jolas-sektorearen lehiakortasunari lotutako beharrak aintzat hartuta.»

Bost. Hona nola geratzen den idatzita 235. artikulua:

«235. artikulua. *Oinarrizko zenbatekoa.*

Zirkulazio-eremua erabiltzeagatiko tasaren oinarrizko zenbatekoaren balioa (T) 0,105 € izango da portu-agintaritza guztientzat. Balio hori berrikusi ahal izango da Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean edo, hala badagokio, ondorio horietarako onartzen den beste batean portuko, logistikako eta garraioako, baita garraiatutako produktuetako ere, kostuen bilakaeraren arabera, portu-nodoaren eta ekonomiaren lehiakortasunari lotutako beharrak aintzat hartuta.»

93. artikulua. *Trenbide-kanonen zenbatekoa.*

Bat. Aldatu egin dira apirilaren 8ko FOM/898/2005 aginduaren, Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 74. eta 75. artikuluetan ezarritako trenbide-kanonen zenbatekoak finkatzekoaren, 1. artikuluan jasotako koadroak. Aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta epe mugagabea egongo da indarrean. Hona nola geratu diren idatzita:

«a) «Sarbide-kanonaren (A modalitatea)» zenbatekoak, apirilaren 8ko FOM/898/2005 Aginduaren 1. artikuluan 1 zenbakiaren a) idatz-zatiko koadroan ezarriak, honako hauek izango dira:

– A motako lineak:

Maila	A lineak
N1.A	60.000,00
N1.B	150.000,00
N1.C	300.000,00
N2.A	750.000,00
N2.B	1.500.000,00
N2.C	3.000.000,00
N3.A	4.500.000,00
N3.B	6.000.000,00
N3.C	7.500.000,00
N3.D	9.000.000,00
N3.A	12.000.000,00
N3.F	15.000.000,00

– Gainerako linea motak:

Maila	Gainerako lineak
N1.A	13.120,36
N1.B	32.800,91
N1.C	65.601,81
N2.A	115.028,32
N2.B	164.004,55
N2.C	360.810,01
N3.A	754.420,93
N3.B	1.541.642,76
N3.C	1.541.642,76
N3.D	1.541.642,76
N3.A	1.541.642,76
N3.F	1.541.642,76

b) «Gaitasun-erreserbako kanona (B modalitatea)» zehazteko zenbatekoak, apirilaren 8ko FOM/898/2005 Aginduaren 1. artikuluaen 1 zenbakiaren b) idatz-zatiko koadroan ezarrita, honako hauek izango dira:

Ordu-aldia	Linea mota	Zerbitzu/tren mota					
		VL1	VL2	VL3	VCM	VOT	M
		Euro/erreserbatutako tren-km					
Puntakoa.	A1	2,8090	1,4940	2,8090	1,4940	1,4940	0,5700
	A2	2,6900	1,4100	2,6900	1,4100	1,4100	0,5700
	B1	1,4100	1,4100	1,4100	1,4100	0,4000	0,5700
	C1	0,4000	0,4000	0,4000	0,4000	0,4000	0,3300
	C2	0,4000	0,4000	0,4000	0,4000	0,4000	0,3300
Arrunta.	A1	2,8090	1,4940	2,8090	1,4940	1,4940	0,5700
	A2	2,6900	1,4100	2,6900	1,4100	1,4100	0,5700
	B1	1,4100	1,4100	1,4100	1,4100	0,4000	0,5700
	C1	0,4000	0,4000	0,4000	0,4000	0,4000	0,0500
	C2	0,4000	0,4000	0,4000	0,4000	0,4000	0,0500
Zirkulazio txikikoa.	A1	2,8090	1,4940	2,8090	1,4940	1,4940	0,5700
	A2	2,6900	1,4100	2,6900	1,4100	1,4100	0,5700
	B1	1,4100	1,4100	1,4100	1,4100	0,4000	0,5700
	C1	0,2000	0,2000	0,2000	0,2000	0,2000	0,0500
	C2	0,2000	0,2000	0,2000	0,2000	0,2000	0,0500

c) «Zirkulazio-kanona (C modalitatea)» zehazteko zenbatekoak, apirilaren 8ko FOM/898/2005 Aginduaren 1. artikuluaen 1 zenbakiaren c) idatz-zatiko koadroan ezarriak, honako hauek izango dira:

Linea mota	Zerbitzu/tren mota					
	VL1	VL2	VL3	VCM	VOT	M
	Euro/Zirkulatutako tren-km					
A1	2,1800	0,8400	2,1800	0,8400	0,8400	0,5000
A2	2,0800	0,7600	2,0800	0,7600	0,7600	0,5000
B1	0,7600	0,7600	0,7600	0,7600	0,1300	0,5000
C1	0,1200	0,1200	0,1200	0,1200	0,1195	0,0600
C2	0,1200	0,1200	0,1200	0,1200	0,1195	0,0600

d) «Trafiko-kanona (D modalitatea)» zehazteko zenbatekoak, apirilaren 8ko FOM/898/2005 Aginduaren 1. artikuluaen 1 zenbakiaren d) idatz-zatiko koadroan ezarriak, honako hauek izango dira:

Ordu-aldia	Linea mota	Zerbitzu/tren mota				
		VL1	VL2	VL3	VCM	VOT
		Euro/100 plaza-km				
Puntakoa.	A1	2,3781	0,7800	1,0103	1,1246	0,0000
	A2	1,8433	0,7200	0,9742	0,8965	0,0000
	B1	0,4785	0,4785	0,4785	0,4785	0,0000
	C1	0,0000	0,0000	0,0000	0,0000	0,0000
	C2	0,0000	0,0000	0,0000	0,0000	0,0000
Arrunta.	A1	1,6207	0,5400	0,6886	0,7786	0,0000
	A2	1,2289	0,4800	0,6495	0,5977	0,0000
	B1	0,4785	0,4785	0,4785	0,4785	0,0000
	C1	0,0000	0,0000	0,0000	0,0000	0,0000
	C2	0,0000	0,0000	0,0000	0,0000	0,0000
Zirkulazio txikikoa.	A1	1,3784	0,4600	0,5856	0,6632	0,0000
	A2	0,9985	0,3900	0,5277	0,4856	0,0000
	B1	0,4785	0,3900	0,4785	0,4785	0,0000
	C1	0,0000	0,0000	0,0000	0,0000	0,0000
	C2	0,0000	0,0000	0,0000	0,0000	0,0000

Bi. Aldatu egin dira apirilaren 8ko FOM/898/2005 aginduaren, Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 74. eta 75. artikuluetan ezarritako trenbide-kanonen zenbatekoak finkatzekoaren, 2. artikuluaen 1 zenbakiko a), b) eta d) idatz-zatietan jasotako koadroak, trenbide-kanon horiek zehazteko zenbatekoak biltzen dituztenak, bai eta aipatutako 2. artikuluaen 1 zenbakiko c) eta e) idatz-zatietan ezarritako zenbatekoak ere. Aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta epe mugagabearen egongo da indarrean. Hona nola geratu diren idatzita:

«a)«Bidaiariak estazioak erabiltzeko kanona (A modalitatea)» zehazteko zenbatekoak, apirilaren 8ko FOM/898/2005 Aginduaren 2. artikuluaen 1 zenbakiaren a) idatz-zatiko koadroan ezarriak, honako hauek izango dira:

Kategoria	Ibilaldiaren iraupena/lbilbidea			
	A	B	C	D
	Euro/Bidaiaria			
1.a	1,3385	0,5396	0,2346	0,0816
2.a	0,6207	0,3871	0,1760	0,0612
3.a	0,0469	0,0469	0,0469	0,0204

b) «Aparkatzeko eta geltokietan nasak erabiltzeko kanona (B modalitatea)» zehazteko zenbatekoak, apirilaren 8ko FOM/898/2005 Aginduaren 2. artikuluaen 1 zenbakiaren b) idatz-zatiko koadroan ezarriak, honako hauek izango dira:

Kategoria	Aparkatzea		
	A	B	C
	Euro/Trena		
1.a	2,2236	3,3354	4,4472
2.a	1,1118	1,6830	2,2236
3.a	–	–	–



c) «Zabalera-aldagailuetatik igarotzeko kanona (C modalitatea)» zehazteko zenbatekoa, apirilaren 8ko FOM/898/2005 Aginduaren 2. artikulua 1 zenbakiaren c) idatz-zatiko koadroan ezarrita, 111,52 euro izango da hemendik aurrera.

d) «Bazterbideak erabiltzeko kanona (D modalitatea)» zehazteko zenbatekoak, apirilaren 8ko FOM/898/2005 Aginduaren 2. artikulua 1 zenbakiaren d) idatz-zatiko koadroan ezarriak, honako hauek izango dira:

Linea mota	Zerbitzu/tren mota	Aparkatzea			
		a	b	c	d
		Euro/Trena			
A	VL1-VL2-VL3-VCM	16,1058	2,1216	3,1314	40,1472
B-C	-	-	-	-	-

e) «Trenbide-jabari publikoa erabiltzeko baimena behar duten zerbitzuak eskaintzeko kanona (E modalitatea)» zehazteko zenbatekoa, apirilaren 8ko FOM/898/2005 Aginduaren 2. artikulua 1 zenbakiaren e) idatz-zatiko koadroan ezarrita, 0,6732 euro izango da hemendik aurrera.»

#### 94. artikulua. *Jabetza industrialeko tasak: Patenteak.*

Aldatu egin dira Patenteei buruzko martxoaren 20ko 11/1986 Legearen eranskinaren honako paragrafo hauek patenteen eta baliagarritasun-modeloen tasei dagokienez, bai eta babes-ziurtagiri osagarriak eskatzeko eta mantentzeko tasei dagokienez ere. Aldaketek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dute eragina, eta epe mugagabeen egongo dira indarrean.

«LEHENENGO TARIFA. Eskubideak hartzea eta defendatzea

1.8 Sendagaiak-Produktu Fitosatinarioak Babesteko Ziurtagiri Osagarrien (BZO) Espedienteak Izapidetzeko eskaeraren tasa: 491,01 euro.

BIGARREN TARIFA. Eskubideak mantentzea eta eskualdatzea.

#### 2.1 Urtekoak:

3. urtekoa: 18,48 euro.
4. urtekoa: 23,06 euro.
5. urtekoa: 44,11 euro.
6. urtekoa: 65,10 euro.
7. urtekoa: 107,47 euro.
8. urtekoa: 133,78 euro.
9. urtekoa: 167,88 euro.
10. urtekoa: 216,06 euro.
11. urtekoa: 270,82 euro.
12. urtekoa: 317,98 euro.
13. urtekoa: 365,05 euro.
14. urtekoa: 412,56 euro.
15. urtekoa: 440,59 euro.
16. urtekoa: 458,85 euro.
17. urtekoa: 490,00 euro.
18. urtekoa: 490,00 euro.
19. urtekoa: 490,00 euro.
20. urtekoa: 490,00 euro.

### 2.1.1 Hauek mantentzeko tasak:

Urtebete edo urtebetetik beherako iraupeneko BZO: 803,93 euro.

Bi urte edo gutxiagoko iraupeneko BZO: 1.688,24 euro.

Hiru urte edo gutxiagoko iraupeneko BZO: 2.661,05 euro.

Lau urte edo gutxiagoko iraupeneko BZO: 3.731,05 euro.

Bost urte edo gutxiagoko iraupeneko BZO: 4.908,12 euro.»

### 95. artikulua. *Isurpenen kontrolerako kanonaren oinarrizko prezioen eguneratzea.*

2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak eta indarraldi mugagabea edukita, metro kubikoko oinarrizko prezioa 0,01683 euro da hiriko hondakin-urarentzat eta 0,04207 euro industriako hondakin-urarentzat, Uraren Legearen testu bateginaren, uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak onetsiaren, 113. artikulua 3 paragrafoko bigarren lerrokadan xedatutakoaren arabera.

### 96. artikulua. *Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuaren tasa, kontu-ikuskaritza txostenak egiteagatik.*

Aldatu egin da Kontu Ikuskaritza Legearen testu bateginak, uztailaren 1eko 1/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 44. artikulua 4 paragrafoan adierazitakoa. Aldaketa horrek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta epe mugagabea egongo da indarrean; honela geratuko da aurrerantzean:

«4. Tasa horren zerga-kuota 105,84 euroko zenbateko finkoa izango da kontu-ikuskaritza txosten bakoitzeko, eta 211,69 euro interes publikoko erakunde bati buruzko kontu-ikuskaritza txosten bakoitzeko, txosten horren ondorioz fakturatutako ordainsariak 30.000 eurokoak edo gutxiagoak izanez gero.

Zenbateko finko hori 211,69 euro izango da kontu-ikuskaritza txosten bakoitzeko, eta 423,37 euro interes publikoko erakunde bati buruzko kontu-ikuskaritza txosten bakoitzeko, txosten horren ondorioz fakturatutako ordainsariak 30.000 eurotik gorakoak izanez gero.

Ondorio horietarako, interes publikoko erakunde izango da Kontu Ikuskaritza Legearen testu bateginak, uztailaren 1eko 1/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 2.5 artikuluan xedatutakoa.»

## VII. TITULUA

### Lurralde-erakundeak

#### I. KAPITULUA

### Tokiko erakundeak

#### 1. atala. *Estatuaren tributuetan parte hartzeari dagokion 2012ko behin betiko likidazioa*

### 97. artikulua. *Araubide juridikoa eta saldo zordunak.*

Bat. Behin Estatuko zerga bidezko diru-sarrerek 2004tik 2012ra izandako bariazioa ezagututa, baita beharrezko bestelako datuak ere, Estatuaren tributuetan parte hartzeari dagokion behin betiko likidazioa kalkulatu egingo da, 2012ko ekitaldiari dagokionez. Horretarako, Toki Ogasunak arautzeko Legearen testu bateginako 111-124 eta 135-146 artikuluetako baldintzak beteko dira (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onartuta), bai eta 86-89, 91 eta 92. eta 94-97 artikuluetan xedatutako arauak ere.

Bi. Aurreko paragrafoan aipatutako likidaziotik sor daitezkeen saldo zordunak, Estatuaren tributuen bidez lortutako diru-sarreraren etekinen lagapenari dagozkion finantzaketarenak, konpentsazio bidez itzuliko dituzte ukitutako toki-erakundeek likidazio

horren ostean Estatuaren tributuetan parte hartzeari dagokionez jasotzen dituzten konturako ekarpenen kontura, gehienez hiru urteko epean, hileko entrega baten ehuneko 25eko hiru hilekoko atxikipenen bidez, salbu eta, irizpide hori aplikatuta, adierazitako epea gainditzen bada; horrelakoetan, dagozkien atxikipenen maiztasuna eta zenbatekoa egokituko dira egoera hori saihesteko. Parte-hartze hori kapitulu honetako 3. atalean eta 5. ataleko 1. azpiatalean dago araututa.

Hiru. Aurreko Bat paragrafoan aipatutako likidaziotik sor daitezkeen saldo zordunak, Estatuaren tributuen bidez lortutako diru-sarrerren etekinen lagapenari dagozkion finantzaketarenak, konpentsazio bidez itzuliko dituzte ukitutako toki-erakundeek, Estatuaren tributuetan parte hartzeari dagokion likidazioa egin ondoren sor daitezkeen saldo hartzekodunen kontura. Parte-hartze hori kapitulu honetako 3. atalean eta 5. ataleko 1. azpiatalean dago araututa. Aipatutako konpentsazioa egin ondoren egon litezkeen gainerako saldo zordunak konpentsazio bidez itzuliko dituzte toki-erakundeek, lagapen hartan jasota zegoen Estatuaren zerga bakoitzeko jasotzen dituzten ekarpenetan; hala ere, ez zaizkie aurreko paragrafoan ehunekoei eta epeei dagokienez adierazitako mugak aplikatuko.

Lau. Artikulu honen bigarren paragrafoan aipatzen den behin betiko likidazioa Estatuaren aldekoa bada, eskubide gisa adieraziko da Estatuko Diru Sarrerren Aurrekontuan, IV. kapitulan.

Bost. Ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren ondorioz probintzia bakarreko autonomia-erkidegoen alde (Kantabria, Madril eta Errioxa) egin beharreko konpentsazioen behin betiko likidazioaren zenbatekoa aurrekontu-kredituetan sartu ahalko da, bidezkoak diren aldaketak eta doikuntzak eginez, eta araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema aplikatuz dagokien kopuruaren arabera. Halaber, aldez aurretik Toki Administrazioaren Batzorde Nazionalako Ekonomia, Finantza eta Zerga Araubidearen Azpibatzenordeak txosten bat igorri beharko du, eta ondoren Batzorde Mistoak onartu.

Sei. Artikulu honetan aipatutako atxikipenak eta 123. artikuluan araututakoak batera gertatzen direnean, lehenengoek izango dute lehentasuna eta ez dira aintzat hartuko aipatu artikuluen Bi paragrafoan zehaztutako ehunekoak kalkulatzeko.

## 2. atala. 2014an Estatuaren zergen bidez bildutakoa udalerriei lagatzea

98. artikulua. *Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren bidez bildutakoaren etekinak lagatzea: konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa.*

Bat. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 111. artikuluan araututako eremu subjektiboko udalerriek (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onartuta) 2014an lortuko den diru-bilketa likidoan parte hartuko dute, eta horretarako, behin betiko likidazioaren konturako ekarpen bat egingo dute hilero, hamabi guztira. Ekarpen horien zenbatekoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIRPF_m = 0,021336 \times CL_{2011m} \times IA_{2014/2011} \times 0,95$$

non:

–  $ECIRPF_m$ : Konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, m udalerriko pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren bidez bildutakoaren etekinen lagapena dela-eta.

–  $CL_{2011m}$ : Estatuaren kuota likidoa, m udalerriko pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren bidez lortutakoa 2011n (ezagutzen den azkena).

–  $IA_{2014/2011}$ : Estatuaren kuota likidoa eguneratzeko indizea, 2011tik –ezagutzen den azkena– 2014ra. Honela kalkulatu da: atxikipenen, konturako ekarpenen eta zatikako ordainketen bidez 2014rako aurreikusitako aurrekontuaren zenbatekoa zati kontzeptu horien bidez 2011n likidatutako eskubideen zenbatekoa –urte horretakoak dira udalerrien kuota likidoari dagokionez ezagutzen diren azken datuak–.

Udalerrri bakoitzari eman beharreko zenbatekoa, formula horren arabera zehaztutakoa, diru-sarreraren itzulketa moduan izapidetuko da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta udalerrri bakoitzari dagokion kuota likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Kuota likidoaren lagapena Toki Ogasunak Arazten dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 115. artikuluan dago xedatuta. Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatuko da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

99. artikulua. *Balio erantsiaren gaineko zergaren bidez bildutako zenbateko likidoa lagatzea: konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa.*

Bat. Aurreko artikuluan aipatzen diren udalerrriek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren bidez lortzen den diru-bilketa likidoan parte hartuko dute, eta horretarako, behin betiko likidazioaren konturako ekarpen bat egingo dute hiler, hamabi gutzira.

Udalerrri bakoitzari dagokion konturako ekarpenaren zenbatekoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIVA_m = PCIVA^* \times RPIVA \times ICP_i \times (P_m / P_i) \times 0,95$$

non:

– PCIVA\*: Balio erantsiaren gaineko zergaren bidez bildutakoaren etekinen lagapenaren ehunekoa, udalerrrien aldekoa. Konturako ekarpen hauen kasuan, ehuneko 2,3266 izango da.

– ECIVA<sub>m</sub>: m udalerrriaren konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez 2014rako aurreikusitako bilketaren lagapena dela-eta.

– RPIVA: Estatuari balio erantsiaren gaineko zergaren bidez 2014rako dagokion diru-bilketa likidoaren aurrekontu-aurreikuspenaren zenbatekoa.

– ICP<sub>i</sub>: i autonomia-erkidegoaren kontsumoaren behin-behineko indizea 2014. urterako. Horretarako, eskuragarri dagoen azken datua kontuan hartuko da, 2011ko behin betiko likidazioa kalkulatzeko erabilitakoa, hain zuzen ere.

– P<sub>m</sub> eta P<sub>i</sub>: m udalerrriko biztanleria eta dagokion i autonomia-erkidegoko biztanleria. Horretarako, 2014ko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen biztanleen udal-errola hartuko da kontuan zuzenbideko biztanleak zehazteko, Gobernuak ofizialki onartutakoa.

Udalerrri bakoitzari eman beharreko zenbatekoa, formula horren arabera zehaztutakoa, diru-sarreraren itzulketa moduan izapidetuko da, balio erantsiaren gaineko zergaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta BEZaren bidezko diru-bilketa likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Diru-bilketa likidoaren lagapena Toki Ogasunak Arazten dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 116. artikuluan dago xedatuta. Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatuko da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

100. artikulua. *Alkoholaren eta edari alkoholadunen gaineko zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoa lagatzea: konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa.*

Bat. 98. artikuluan aipatzen diren udalerrriek honako zerga hauen bidez lortutako diru-bilketa likidoan parte hartuko dute: Garagardoaren, Ardoaren eta Hartzitutako Edarien gaineko zergak, Tarteko Produktuen gainekoak eta Alkoholaren eta Edari Eratorrien

gaineko Zergak. Horretarako, behin betiko likidazioaren konturako ekarpen bat egingo dute hilerok, hamabi guztira.

Udalerrri bakoitzari dagokion konturako ekarpenaren zenbatekoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIIIEE(h)_m = PCIIIEE^* \times RPIIEE(h) \times ICP_i(h) \times (P_m / P_i) \times 0,95$$

non:

– PCIIIEE\*: Alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zerga berezien bidez bildutakoaren etekinen lagapenaren ehunekoa. Konturako ekarpen hauen kasuan, ehuneko 2,9220 izango da.

– ECIIIEE(h)<sub>m</sub>: m udalerrriaren konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako produktuen gaineko h zerga bereziaren bidez 2014rako aurreikusitako bilketaren lagapena dela-eta.

– RPIIEE(h): Estatuari paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako produktuen gaineko h zerga bereziaren bidez 2014rako dagokion diru-bilketa likidoaren aurrekontu-aurreikuspenaren zenbatekoa.

– ICP<sub>i</sub>(h): m udalerrria dagoen i autonomia-erkidegoko kontsumoari dagokion 2014rako behin-behineko indizea, paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako produktuen gaineko h zerga berezia dela-eta. Horretarako, eskuragarri dauden azkeneko datuak kontuan hartuko dira, hain zuzen ere 2011ko behin betiko likidazioa kalkulatzeko erabili zirenak.

– P<sub>m</sub> eta P<sub>i</sub>: m udalerrriko biztanleria eta dagokion i autonomia-erkidegoko biztanleria. Horretarako, 2014ko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen biztanleen udal-errolda hartuko da kontuan zuzenbideko biztanleak zehazteko, Gobernuak ofizialki onartutakoa.

Udalerrri bakoitzari eman beharreko zenbatekoa, formula horren arabera zehaztutakoa, diru-sarreraren itzulketa moduan izapidetuko da, paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako zerga berezi bakoitzaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Zenbateko likidoaren lagapena Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 117. artikuluan 1 eta 2 paragrafoetan dago xedatuta. Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatu da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

101. artikulua. *Hidrokarburoen eta tabako-lanen gaineko zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapena: konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa.*

Bat. 98. artikuluan aipatutako udalerrriek parte hartuko dute hidrokarburoen eta tabako-lanen gaineko zergen bidez bildutako zenbateko likidoan. Horretarako, hamabi hilabetez jaso beharreko ekarpenak zehaztuko dira, behin betiko likidazioaren kontura.

Udalerrri bakoitzari dagokion konturako ekarpenaren zenbatekoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIIIEE(k)_m = PCIIIEE^* \times RPIIEE(k) \times IP_m(k) \times 0,95$$

non:

– PCIIIEE\*: Hidrokarburoen eta tabako-lanen zerga berezien bidez bildutakoaren etekinen lagapenaren ehunekoa. Konturako ekarpen hauen kasuan, ehuneko 2,9220 izango da.

– ECIIIEE(k)<sub>m</sub>: m udalerriaren konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako produktuen gaineko k zerga bereziaren bidez 2014rako aurreikusitako bilketaren lagapena dela-eta.

– RPIIEE(k): Estatuari paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako produktuen gaineko k zerga bereziaren bidez 2014rako dagokion diru-bilketa likidoaren aurrekontu-aurreikuspenaren zenbatekoa.

– IP<sub>m</sub>(k): m udalerriaren 2014rako behin-behineko indizea, gasolina, gasolio eta fuel-olio entzegei dagokiena, bai eta tabako-saltokiei saldutakoari ere. Entrega eta salmenta horiek dagozkien zerga-tasen arabera haztatuko dira. Ondorio horietarako, eskuragarri dauden indizeen artean, azken urteari dagokiona izango da behin-behineko indizea.

Udalerri bakoitzari eman beharreko zenbatekoa, formula horren arabera zehaztutakoa, diru-sarreraren itzulketa moduan izapidetuko da, paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako zerga berezi bakoitzaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Zenbateko likidoaren lagapena Toki Ogasunak Arazten dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 117. artikuluan dago xedatuta. Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatu da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

### 3. atala. Udalerriek Estatuaren tributuetan duten partaidetza.

#### 1. azpiatala. Udalerriek Finantzaketarako Funts Osagarrian duten partaidetza.

##### 102. artikulua. Konturako ekarpenak zehaztea.

Bat. Toki Ogasunak Arazten dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 111. artikuluan adierazitako eremu subjektiboan bildutako udalerri bakoitzak 2014ko Finantzaketarako Funts Osagarrian duen partaidetza dela-eta konturako ekarpenen zenbateko osoa ondoko kontzeptu honetan kontsignatutako berariazko kredituaren kontura egingo da: 36. Sekzioa, 21. Zerbitzua, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia, Tokiko Erakundeak, 942M Programa, Tokiko Erakundeei egiteko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik.

Bi. Zenbateko hori honela kalkulatu da: 2004. oinarri-urteko Finantzaketarako Funts Osagarriaren ehuneko 95 bider Toki Ogasunak Arazten dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 121. artikuluan zehaztutakoaren arabera dagokion bilakaera-indizea.

Hiru. Aurreko paragrafoko kalkuluen arabera udalerri bakoitzari dagokion kopuruari ehuneko 95 gehituko zaio, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren erreformaren ondorioz izandako diru-sarreraren murrizketak direla-eta.

a. Behin betiko erreforma, Toki Ogasunak Arazten dituen Legea Erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa, Estatuak 2014an 2004arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

b. Erreforma gehigarria, azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoa, Estatuak 2014an 2006arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

Lau. Finantzaketarako Funts Osagarrian parte hartzea dela-eta egin beharreko konturako ekarpenak, 2014ko ekitaldian, hilero ordainduko dira; aurreko paragrafoetan jasotako arauen arabera kalkulaturako zenbateko osoaren hamabirena hil bakoitzean, hain zuzen ere.

103. artikulua. *Behin betiko likidazioa.*

Bat. Finantzaketaren Funts Osagarriari dagokionez 2014an udalerrien alde egin beharreko behin betiko likidazioa ondoko kontzeptu honetako kredituaren kontura egingo da: 36. Atala, 21. Zerbitzua, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia, Tokiko Erakundeak, 942M Programa, Tokiko Erakundeei egiteko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik, 468 Kontzeptua, aurreko urteetako behin betiko likidazioari eta finantzaketa-sistema berritik eratorritako konpentsazioei buruzkoa; guztia ere, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 119. eta 121. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Bi. Aurreko paragrafoko kalkuluen arabera udalerrri bakoitzari dagokion kopuruari konpentsazioa gehituko zaio, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren erreformaren ondorio diren diru-sarreraren murrizketak direla eta. Jarraian adierazita daude erreforma horiek:

a. Behin betiko erreforma, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legea Erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa, Estatuak 2014an 2004arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

b. Erreforma gehigarria, azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoa, Estatuak 2014an 2006arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

Hiru. Behin betiko likidazioa honela kalkulaturako da: aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera finkaturako konturako ekarpenen zenbatekoen eta behin betiko partaidetzaren arteko aldea zehaztuz.

2. azpiatala. Gainerako udalerrien partaidetza

104. artikulua. *Udalerriek 2014ko ekitaldian Estatuaren tributuetan izango duten partaidetza.*

Bat. Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 122. artikuluan adierazitako eremu subjektiboan bildutako udalerrri bakoitzari konturako ekarpenak ordaintzeko zenbateko osoa hauxe izango da: 2004. oinarri-urtean Estatuaren tributuetan duten partaidetza osoaren ehuneko 95 bider bilakaera-indizea, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 123. artikuluen arabera; betiere, arau honen hirurogeita hamahirugarren xedapen gehigarria aintzat hartuta. Ondoko kontzeptu honetan kontsignaturako berariazko kredituaren kontura egingo da ordainketa: 36. Atala, 21. Zerbitzua, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia, Tokiko Erakundeak, 942M Programa, Tokiko Erakundeei egiteko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik.

Bi. Arestian aipaturako udalerrien alde 2014ari dagokion behin betiko likidazioa egiteko, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 123. eta 124. artikuluetan jasotako arauak beteko dira, eta likidazioa 468 Kontzeptuan zehaztutako kredituaren kontura egingo da; kontzeptu hori aurreko urteetako behin betiko likidazioari eta finantzaketa-sistema berritik eratorritako konpentsazioei buruzkoa da, eta aurreko paragrafoan adierazitako atal, zerbitzu eta programan sartuta dago.

Hiru. Aurreko paragrafoetan xedatutako arauak aplikatuz lortzen den zenbateko osoa honako irizpide hauei jarraituz banatuko da:

a. Arau orokor gisa, udal bakoitzak 2003an Estatuaren tributuetan izandako partaidetzaren behin betiko likidazioaren ondorioz lortutako kopuru bera jasoko du. Zenbateko hori 2003rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 52/2002 Legearen 65. artikuluko bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren paragrafoetan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

b. Gainerakoa proportzionalki banatuko da, jarraian adieraziko diren aldagaien eta ehunekoen arabera udal bakoitzak lortuko lukeen kopuruaren eta aurreko lerrokadan aurreikusitako zenbatekoen arteko diferentzia positiboerri reparatuta. Ondorio horietarako, aldagai eta ehuneko hauek aplikatuko dira:

1. Ehuneko 75 udalerrri bakoitzean dauden zuzenbidezko biztanleen arabera (horretarako, 2014ko abenduaren 31n indarrean zegoen biztanleen udal-errola hartuko da kontuan, Gobernuak ofizialki onartuta), eta honako koefiziente hauen arabera neurtuta, biztanle-geruzen arabera:

Geruzak	Biztanle kopurua	Indizeak
1	50.000tik gora	1,40
2	20.001 eta 50.000 artean	1,30
3	5.001 eta 20.000 artean	1,17
4	5.000 arte.	1,00

2. Ehuneko 12,5 udalerrri bakoitzak 2012ko ekitaldian izandako batez besteko ahalegin fiskalari erreparatuz, zuzenbidezko biztanleen arabera haztatuta, betiere 2014ko abenduaren 31n indarrean dagoen biztanleen udal-errolaren arabera, Gobernuak ofizialki onartuta.

Ondorio horietarako, udalerrien 2012ko ahalegin fiskaltzat jotzen da honako formula hau aplikatuz lortzen dena:

$$E_{fm} = [\sum a(RcO/RPm)] \times P_i$$

Formula horretan, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

A. a faktoreak tributu bakoitzari dagokion batez besteko pisua adierazten du, 2012ko ekitaldi ekonomikoan lortutako diru-bilketa likido osoari dagokionez, borondatezko epean egina eta honako zerga hauetatik lortua: Ondasun Higiezinaren, Ekonomia Jardueren eta Trakzio Mekanikoko jardueren gaineko zergetatik. Finantzaketa-forma horretan biltzen diren udalerrri guztiei aplikatuko zaie, eta zerga-bilketa horretatik kanpo geratuko dira Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren kuota nazional eta probintzialen banaketaren ondorioz lortutako etekinak eta Probintziako Diputazioei egotz dakizkiokeen kuotak.

B. Aurreko lerrokadan aipatutako tributu bakoitzerako, udalerrri bakoitzari dagokion RcO/RPm erlazioa honela kalkulatu da:

i. Landako eta hiriko ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan, a faktorea udaleko osoko bilkurak erreferentziazko eperako finkatutako zerga-tasa errealarrekin biderkatuz; gero, kasu bakoitzean gutxieneko tasa galdagarria adierazten duten balioekin zatituz, 0,4 edo 0,3rekin hurrenez hurren, eta, era berean, udalerrri bakoitzeko gehieneko tasa galdagarriarekin zatituz. Ondorio horietarako, zergapetze-tasa erreala eta maximoa aplikatuko dira, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 72. artikuluan 1 eta 3 paragrafoetan xedatutakoa betez.



Hiriko ondasun higiezinaren gaineko zergaren zehaztutako emaitza haztatzeko, kontuan hartuko dira udalerrri bakoitzeko biztanle bakoitzeko tributu-oinarria eta dagokion geruzaren biztanle bakoitzeko batez besteko tributu-oinarria; hala dagokionean, ezaugarri bereziak dituzten ondasun higieziinei dagokiena ere barne hartuko da. Ondorio horietarako, kontuan hartu behar da Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, bederatzigarren xedapen gehigarrian adierazitakoa. Halaber, populazio-tarteak populazioaren aldagaiari esleitutako ehuneko 75 banatzeko erabili diren berberak izango dira.

ii. Ekonomia Jardueren gaineko Zergari dagokionez, a faktorea 2012ko udal-eroldaren zergaren zenbatekoarekin biderkatuz, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratuko 87. artikuluan aipatzen den egoera koefizientea aplikatzearen intzidentzia barne, 2012ko zergaldian indarrean zegoena; eta, gero, zergaren tarifetan zehaztutako gutxieneko kuoten baturarekin zatituz, berez dagokion zergarekin alderatuta, eta aipatutako legearen 86. artikuluan jasotako koefizienteekin haztatuta.

iii. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kasuan, a faktorea 1ekin biderkatuz.

iv.  $\sum a(RcO/RPm)$  batura  $P_i$  faktorearekin biderkatuko da,  $P_i$  faktorea izanik zuzenbidezko biztanleria, betiere 2014ko abenduaren 31n indarrean dagoen udal-eroldaren arabera, eta Gobernuak ofizialki onartuta.

C. Biztanle bakoitzaren batez besteko ahalegin fiskalaren koefizientea, udalerrri bakoitzari dagokiona, ezin izango da 50.000 biztanletik gorako populazio-geruzan bildutako udaletako biztanle bakoitzaren batez besteko ahalegin fiskalaren koefizientearen balio txikiaren boskoitza baino handiagoa izan.

3. Ehuneko 12,5 tributu-gaitasunaren alderantzizkoaren arabera. Tributu-gaitasuntzat joko da udal bakoitzeko biztanle bakoitzak Hiriko Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga dela-eta ordaindu beharreko tributu-oinarriaren eta dagokion geruzaren artean lortzen den kopurua. Kopuru hori udalerrri bakoitzeko zuzenbidezko biztanleekin eta partaidetza-mota honetan parte hartzen duen biztanleria osoarekin haztatuta; hartarako, 2014ko abenduaren 31n indarrean zegoen udal-errola kontuan hartuta, Gobernuak ofizialki onartuta. Ondorio horietarako, populazio-tarteak bat etorriko dira populazio-aldagaiari egokitutako ehuneko 75 banatzeko erabilitakoekin.

Aldagai hori kalkulatzeko toki-erakundeetako hiriko eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zergaren tributu-oinarriari dagozkien datuak hartuko dira kontuan, 2012ko ekitaldiari dagokionez.

Lau. Aurreko paragrafoko arauak aplikatuta lortzen den zenbatekoari diru-sarreretan izandako murrizketen konpentsazioak gehituko zaizkio, ekonomia-jardueren gaineko zergaren ondoko erreforma hauen ondorioz:

a. Behin betiko erreforma, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legea Erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa, Estatuak 2014an 2004arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

b. Erreforma gehigarria, azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoa, Estatuak 2014an 2006arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

Bost. Udalerrri turistikoaren partaidetza Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onartuaren, 125. artikuluko 4 paragrafoaren arabera erabakiko da, eta aurreko Hiru eta Lau paragrafoetan xedatutakoa betez. Ondorio horietarako arau honen 101. artikuluan jasotako lagapen-

ehunekoak hartuko dira kontuan. Horren arabera kalkulaturako lagapenaren zenbatekoak ezin izango du, inolaz ere, artikuluko honen hirugarren eta laugarren paragrafoetan xedatutakoa betez lortzen den partaidetza murriztu. Udalerrri turistikotzat joko dira 2014ko urtarrilaren 1ean aipatutako 125. artikuluko 1 paragrafoan jasotako baldintzak betetzen dituztenak.

Sei. 2014ko urtarrilaren 1ean egindako berrikuspenaren ondorioz gaur egun udalerrri turistiko gisa aitortuta dauden udalerrrien kasuan, hidrokarburoen eta tabakolanen gaineko zergen bidez bildutako zenbatekoaren lagapena, 2004. oinarri-urteari dagokionez, honela kalkulaturako da: udalerrri bakoitzak 2012ko ekitaldian hidrokarburoen eta tabakolanen gaineko zergaren bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapena zati udalerrri horretan 2004arekiko Estatuaren tributuen bidez bildutako zenbatekoaren bilakaera. Zerga horien bidez bildutako zenbatekoaren lagapena xedapen honetan aipatzen da: Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 125.4 artikuluan.

105. artikulua. *Konturako ekarpenak.*

Bat. Aurreko artikulua araberako Estatuaren tributuetako parte-hartzea dela-eta 2014ko ekitaldian egin beharreko konturako ekarpenak hileroko ordainduko zaizkie udalei, dagokien kredituaren hamabirena hil bakoitzean, hain zuzen ere.

Bi. Udalerrri bakoitzaren partaidetza behin betiko likidazioa banatzeko irizpideen arabera kalkulaturako da, aldaketa hauek kontuan hartuz:

a. 2014ko urtarrilaren 1ean indarrean dagoen udal-eroldaren arabeko populazioa hartuko da kontuan, berau Gobernuak ofizialki onartuta. Ahalegin fiskalaren aldagaia eta zerga-gaitasunaren alderantzizkoarena azkeneko behin betiko likidazioari dagokionak izango dira. Udal bakoitzari Estatuaren tributuetan duen partaidetza dela-eta eman beharreko gutxieneko zenbatekoa 2003ari dagokion behin betiko partaidetza osoaren ehuneko 95 izango da. Kopuru hori 2003rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 52/2002 Legearen 65. artikulua Bi, Hiru, Lau eta bost paragrafoetan xedatutakoaren arabera zehaztuko da.

b. Aurreko lerrokadako kalkuluen arabera udalerrri bakoitzari dagokion kopuruari ehuneko 95 gehituko zaio, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren erreformaren ondorioz izandako diru-sarreraren murrizketak direla-eta:

1. Behin betiko erreforma, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legea Erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa, Estatuak 2014an 2004arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

2. Erreforma gehigarria, azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoa, Estatuak 2014an 2006arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

Hiru. Udalerrri turistiko bakoitzaren partaidetza aurreko paragrafoan zehaztutakoaren arabera erabakiko da. Ateratzen den zenbatekoari dagokionez eragiketa hauek egingo dira: hidrokarburoen eta tabakolanen gaineko zergaren bidez bildutakoaren lagapenaren neurriko zenbatekoa kenduko zaio, 2014an 2004arekin alderatuta Estatuaren tributuen bidezko diru-sarreraren igoera-aurreikuspenaren neurri berean handituta, eta aurreko emaitza horri 2014an konturako ekarpenengatik zerga horietan legokiokeen zenbatekoa gehituko zaio –betiere Lege honen 101. artikulua Bat paragrafoko arauak aplikatuta–; nolana ere, transferitu beharreko zenbatekoa ez da txikiagoa izango aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera kalkulaturakoa baino.

4. atala. *Estatuaren zergen bidez bildutakoa probintziei, probintzia bakarreko autonomia-erkidegoei, eta uharteetako kabildo nahiz kontseiluei lagatzea*

106. artikulua. *Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren bidez bildutakoaren etekinak lagatzea: konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa.*

Bat. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onartuaren, 135. artikulua eremu subjektiboko probintziek eta antzeko erakundeek 2014an lortzen den zerga-bilketa likidoan parte hartuko dute, hileroko ekarpen bat, 12 gutzira, eginez behin betiko likidazioaren kontura.

Konturako ekarpen horien zenbateko osoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIRPF_p = 0,012561 \times CL_{2011p} \times IA_{2014/2011} \times 0,95$$

non:

–  $ECIRPF_p$ : Konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, p probintziako edo antzeko erakundeeko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren bidez bildutakoaren etekin lagapena dela-eta.

–  $CL_{2011p}$ : Estatuaren kuota likidoa, p probintziako edo antzeko erakundearen esparruko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren bidez lortutakoa 2011n (ezagutzen den azkena).

$IA_{2014/2011}$ : Estatuaren kuota likidoa eguneratzeko indizea, 2011tik –ezagutzen den azkena– 2014ra. Honela kalkulatu da: atxikipenen, konturako ekarpenen eta zatikako ordainketen bidez 2014rako aurreikusitako aurrekontuaren zenbatekoa zati kontzeptu horien bidez 2011n likidatutako eskubideen zenbatekoa –urte horretakoak dira probintziako edo antzeko erakundearen esparruko kuota likidoari dagokionez ezagutzen diren azken datuak–.

Probintzia edo antzeko erakunde bakoitzari konturako ekarpen gisa eman beharreko zenbatekoa, aurreko formularen arabera zehaztutakoa, transferentzia bidez ordainduko da, hileroko hamabirena emanez, eta diru-sarreraren itzulketa moduan izapidetuko da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta probintzia edo antzeko erakunde bakoitzari dagokion kuota likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Kuota likidoaren lagapena Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 137. artikuluan dago xedatuta. Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatu da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

107. artikulua. *Balio erantsiaren gaineko zergaren bidez bildutako zenbateko likidoa lagatzea: konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa.*

Bat. Aurreko artikuluan aipatzen diren probintziek eta antzeko erakundeek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren bidez lortzen den diru-bilketa likidoan parte hartuko dute, eta horretarako, hileroko ekarpen bat egingo dute behin betiko likidazioaren kontura.

Probintzia eta antzeko erakunde bakoitzari eman beharreko konturako ekarpenen zenbatekoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIVA_p = PCIVA^{**} \times RPIVA \times ICP_i \times (P_p/P_i) \times 0,95$$

non:

– PCIVA<sup>\*\*</sup>: Balio erantsiaren gaineko zergaren bidez bildutakoaren etekin lagapenaren ehunekoa, probintzien eta antzeko erakundeen aldekoa. Konturako ekarpen hauen kasuan, ehuneko 1,3699 izango da.

– ECIVA<sub>p</sub>: p probintziaren edo antzeko erakundearen konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez 2014rako aurreikusitako bilketaren lagapena dela-eta.

– RPIVA: Estatuari 2014rako balio erantsiaren gaineko zergaren bidez dagokion diru-bilketa likidoaren aurrekontu-aurreikuspenaren zenbatekoa.

– ICP<sub>i</sub>: i autonomia-erkidegoaren kontsumoaren behin-behineko indizea 2014. urterako. Horretarako, eskuragarri dauden azkeneko datuak kontuan hartuko dira, hain zuzen ere 2011ko behin betiko likidazioa kalkulatzeko erabili zirenak.

– P<sub>p</sub> eta P<sub>i</sub>: p probintziako edo antzeko erakundeko biztanleria eta dagokion i autonomia-erkidegoko biztanleria. Horretarako, 2014ko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen biztanleen udal-errola hartuko da kontuan zuzenbideko biztanleak zehazteko, Gobernuak ofizialki onartutakoa.

Probintzia edo antzeko erakunde bakoitzari konturako ekarpen gisa eman beharreko zenbatekoa, aurreko formularen arabera zehaztutakoa, diru-sarreraren itzulketa moduan izapidetuko da, balio erantsiaren gaineko zergaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta balio erantsiaren gaineko zergaren bidezko diru-bilketa likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Diru-bilketa likidoaren lagapena Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 138. artikuluan dago xedatuta. Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatu da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

108. artikulua. *Alkoholaren eta edari alkoholduen gaineko zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoa lagatzea: konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa.*

Bat. Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 135. artikulua eremu subjektiboan bildutako probintziek eta antzeko erakundeek hartuko dute honako zerga hauen bidez bildutako zenbateko likidoan: garagardoaren, ardoaren eta hartzitutako edarien gaineko zergak, tarteko produktuen gaineko zergak, eta alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zergak. Horretarako, hamabi hilabetez jaso beharreko ekarpenak zehaztuko dira, behin betiko likidazioaren kontura.

Probintzia edo antzeko erakunde bakoitzari eman beharreko konturako ekarpenen zenbateko osoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIIIEE(h)_p = PCIIIEE^{**} \times RPIIEE(h) \times ICP_i(h) \times (P_p / P_i) \times 0,95$$

non:

– PCIIIEE<sup>\*\*</sup>: Alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zerga berezien bidez bildutakoaren etekin lagapenaren ehunekoa, probintzien eta antzeko erakundeen aldekoa. Konturako ekarpen hauen kasuan, ehuneko 1,7206 izango da.

– ECIIIEE(h)<sub>p</sub>: p probintziaren edo antzeko erakundearen konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako produktuen gaineko h zerga bereziaren bidez 2014rako aurreikusitako bilketaren lagapena dela-eta.

– RPIIEE(h): Estatuari paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako produktuen gaineko h zerga bereziaren bidez 2014rako dagokion diru-bilketa likidoaren aurrekontu-aurreikuspenaren zenbatekoa.

–  $ICP_i(h)$ : p probintzia edo antzeko erakundea dagoen i autonomia-erkidegoko kontsumoari dagokion 2014rako behin-behineko indizea, paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako produktuen gaineko h zerga berezia dela-eta. Horretarako, eskuragarri dauden azkeneko datuak kontuan hartuko dira, hain zuzen ere 2011ko behin betiko likidazioa kalkulatzeko erabili zirenak.

–  $P_p$  eta  $P_i$ : p probintziako edo antzeko erakundeko biztanleria eta dagokion i autonomia-erkidegoko biztanleria. Horretarako, 2014ko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen biztanleen udal-errolda hartuko da kontuan zuzenbideko biztanleak zehazteko, Gobernuak ofizialki onartutakoa.

Probintzia edo antzeko erakunde bakoitzari konturako ekarpen gisa eman beharreko zenbatekoa, aurreko formularen arabera zehaztutakoa, diru-sarreraren itzulketa moduan izapidetuko da, paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako zerga berezi bakoitzaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Zenbateko likidoaren lagapena Toki Ogasunak Arazten dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 139. artikuluan dago xedatuta. Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatu da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

109. artikulua. *Hidrokarburoen eta tabako-lanen gaineko zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapena: konturako ekarpenak eta behin betiko likidazioa.*

Bat. Toki Ogasunak Arazten dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 135. artikuluan adierazitako eremu subjektiboan bildutako probintziek eta antzeko erakundeek parte hartuko dute hidrokarburoen eta tabako-lanen zergen bidez bilduko den zenbateko likidoan, behin betiko likidazioaren kontura hamabi hilabetez ekarpenak jasoz.

Probintzia edo antzeko erakunde bakoitzari eman beharreko konturako ekarpenen zenbateko osoa honako eragiketa honen bidez kalkulatu da:

$$ECIIIEE(k)_p = PCIIIEE^{**} \times RPIIEE(k) \times IPP(k) \times 0,95$$

non:

–  $PCIIIEE^{**}$ : Hidrokarburoen eta tabako-lanen zerga berezien bidez bildutakoaren etekinen lagapenaren ehunekoa, probintzien eta antzeko erakundeen aldekoa. Konturako entrega hauen kasuan, ehuneko 1,7206 izango da.

–  $ECIIIEE(k)_p$ : p probintziaren edo antzeko erakundearen konturako ekarpenen urteko zenbatekoa, paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako produktuen gaineko k zerga bereziaren bidez 2014rako aurreikusitako bilketaren lagapena dela-eta.

–  $RPIIEE(k)$ : Estatuari paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako produktuen gaineko k zerga bereziaren bidez 2014rako dagokion diru-bilketa likidoaren aurrekontu-aurreikuspenaren zenbatekoa.

–  $IPP(k)$ : p probintziaren edo antzeko erakundearen 2014rako behin-behineko indizea, gasolina, gasolio eta fuel-olio entreegi dagokiena, bai eta tabako-saltokiei saldutakoari ere. Entrega eta salmenta horiek dagozkien zerga-tasen arabera haztatuko dira. Ondorio horietarako, eskuragarri dagoen azken urteko datuak hartuko dira kontuan.

Probintzia edo antzeko erakunde bakoitzari konturako ekarpen gisa eman beharreko zenbatekoa, aurreko formularen arabera zehaztutakoa, diru-sarreraren itzulketa moduan

izapidetuko da, paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako zerga berezi bakoitzaren kontzeptuan.

Bi. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: jasotako konturako ekarpenen eta aurreko artikuluan zehaztutako zerga berezien bidez bildutako zenbateko likidoaren lagapenaren behin betiko balioaren arteko aldea zehaztuz. Zenbateko likidoaren lagapena Toki Ogasunak Arazten dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 139. artikuluan dago xedatuta. Ondorio horietarako, aurreko paragrafoan adierazitako lagapen-ehunekoa aplikatu da, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoarekin bat.

*5. atala. Probintziek, probintzia bakarreko autonomia-erkidegoek eta uharteetako kabildo nahiz kontseiluek Estatuaren tributuetan duten partaidetza*

1. azpiatala. Finantzaketarako Funts Osagarrian parte hartzea.

110. artikulua. *Konturako ekarpenak zehaztea.*

Bat. Bat. Toki Ogasunak Arazten dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 135. artikuluan adierazitako eremu subjektiboan bildutako probintzia edo antzeko erakunde bakoitzari 2013ko Finantzaketarako Funts Osagarrian duen partaidetza dela-eta eman beharreko konturako ekarpenen zenbateko osoa, arau honen hirurogeita hamargarren xedapena kontuan izanda, ondoko kontzeptu honetan kontsignatutako berariazko kredituaren kontura egingo da: 36. atala, 21. zerbitzua, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia, Diputazioen eta Uharteko Kabildoen transferentzia kredituaren kontura, Probintziako diputazioen eta Uharteko Kabildoen konturako ekarpenak, Estatuaren Aurrekontuko I eta II kapituluetakoko diru-sarreretan duten partaidetzagatik, autonomia-erkidegoei laga ezin zaizkien baliabideengatik; honako kontzeptu honetan kontsignatuta: 36. Atala, 21. Zerbitzua, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia, Tokiko Erakundeak, 942M Programa, Tokiko Erakundeei egiteko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik.

Bi. Zenbateko hori honela kalkulatu da: 2004ko Finantzaketarako Funts Osagarriaren ehuneko 95, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitakoaren, 121. artikuluan zehaztutakoaren arabera bilakaera-indizea aplikatuta.

Hiru. Aurreko paragrafoko kalkuluen arabera lortutako kopuruari ehuneko 95 gehituko zaio, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren honako erreforma hauen ondorioz izandako diru-sarreraren murrizketak direla-eta:

a) Behin betiko erreforma, Toki Ogasunak Arazten dituen Legea Erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa, Estatuak 2014an 2004arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera handitua.

b) Erreforma gehigarria, azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoa, eta 2006arekin alderatuta Estatuak 2014an tributu bidez izandako sarreraren neurri berean handitua.

Lau. Finantzaketarako Funts Osagarrian parte hartzea dela-eta egin beharreko konturako ekarpenak, 2014ko ekitaldian, hilero ordainduko zaizkie artikulua honetan aipatutako toki-erakundeei; aurreko paragrafoetan jasotako arauen arabera kalkulatu zenbateko osoaren hamabirena hil bakoitzean, hain zuzen ere.

111. artikulua. *Behin betiko likidazioa.*

Bat. Finantzaketaren Funts Osagarriari dagokionez 2014an probintzien eta antzeko erakundeen alde egin beharreko behin betiko likidazioa ondoko kontzeptu honetako kredituaren kontura egingo da: 36. Atala, 21. Zerbitzua, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia, Tokiko Erakundeak, 942M Programa, Tokiko Erakundeei egiteko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik, 468 Kontzeptua, aurreko urteetako behin betiko likidazioari eta finantzaketa-sistema berritik eratorritako konpentsazioei buruzkoa; guztia ere, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 141. eta 143. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Bi. Aurreko zenbatekoari, hala badagokio, diru-sarreretan izandako murrizketen konpentsazioen zenbatekoa gehituko zaio, ekonomia-jardueren gaineko zergaren ondoko erreforma hauen ondorioz:

a) Behin betiko erreforma, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legea Erreformatzen duen abenduaren 27ko 51/2002 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa, Estatuak 2014an 2004arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

b) Erreforma gehigarria, azaroaren 18ko 22/2005 Legearen bigarren xedapen gehigarrian araututakoa, Estatuak 2014an 2006arekin alderatuta tributuen bidez lortutako diru-sarreraren arabera eguneratua.

Probintzia bakarreko autonomia-erkidegoen alde (Kantabria, Madril eta Errioxa) egin beharreko konpentsazioen behin betiko likidazioaren zenbatekoa aurrekontu-kredituetan sartu ahalko da, bidezkoak diren aldaketak eta doikuntzak eginez, eta araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema aplikatuz dagokien kopuruaren arabera. Halaber, aldez aurretik Toki Administrazioaren Batzorde Nazionaleko Ekonomia, Finantza eta Zerga Araubidearen Azpibatzenordeak txosten bat igorri beharko du, eta ondoren Batzorde Mistoak onartu.

Hiru. Behin betiko likidazioa honela kalkulatu da: aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatuak konturako ekarpenen zenbatekoaren eta aurreko paragrafoei jarraikiz kalkulatuak behin betiko partaidetzaren arteko aldea neurtuz.

## 2. azpiatala. Osasun Laguntzarako Ekarpentzen Funtsean parte hartzea

112. artikulua. *Konturako ekarpenak zehaztea.*

Bat. Diputazioen, uharte ez diren probintzia bakarreko autonomia-erkidegoen, eta uharteetako kontseilu eta kabildoen osasun-zentro ez-psikiatrikoak mantentzeko, 653.340 mila euro esleitu dira, honako kreditu honen kontura: Uharteetako diputazio eta kabildoen transferentziak. Probintziako diputazioen eta Uharteko Kabildoen konturako ekarpenak, Estatuaren Aurrekontuko I eta II kapitulu-tako diru-sarreretan duten partaidetzagatik, autonomia-erkidegoei laga ezin zaizkien baliabideengatik; honako kontzeptu honetan kontsignatuta: 36. Atala, 21. Zerbitzua, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia, Tokiko Erakundeak, 942M Programa, Tokiko Erakundeei egiteko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik. Probintziako diputazioek, uharte ez diren probintzia bakarreko autonomia-erkidegoek, eta uharteetako kabildo nahiz kontseiluek hileroko jasoko dituzte funts horretan duten partaidetza dela-eta 2014ko ekitaldian dagozkien konturako ekarpenak; zehazki, kredituaren hamabirena jasoko dute hilabete bakoitzean. Osasun-zentroak mantentzera xedatutako kopurua proportzionalki banatuko da, kontuan hartuz 2004an Estatuaren tributuetan izandako partaidetzaren behin betiko likidazioan kontzeptu horrengatik jasotako zenbatekoa. Kopuru hori Finantzaketarako Funts Osagarriari duten partaidetzagatik dagozkien konturako ekarpenekin batera jasoko dute –ekarpen hori aurreko azpiatalean dago araututa–.

Bi. Ospitaleen kudeaketa ekonomikoa eta finantzarioa, apirilaren 25eko Osasunari buruzko 14/1986 Lege Orokorrean xedatutako moduan, dagozkien autonomia-erkidegoei eskualdatzen zaienean, erakunde horiei esleituko zaizkie zerbitzua eskualdatzen duen erakundearen partaidetzaren konturako ekarpenak, eta Estatuaren tributuetan duten partaidetzan sartu ahal izango dira dagokion batzorde mistoaren erabakiz, aurrekontu-kredituetan beharrezko aldaketak eta doikuntzak eginda. Hala ere, Toki Administrazioaren Batzorde Nazionalako Ekonomia, Finantza eta Zerga Araubidearen Azpibatzenordeak txostena egin beharko du aurretik.

113. artikulua. *Behin betiko likidazioa.*

Bat. Osasun Laguntzarako Ekarpene Funtsekin 2014ko zuzkiduraren behin betiko likidazioa, probintzietan, uharte ez diren probintzia bakarreko autonomia-erkidegoei eta uharterekin dagokiena, honako kontzeptu honetako kredituaren kontura egingo da: 36. Atala, 21. Zerbitzua, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia, Tokiko Erakundeak, 942M Programa, Tokiko Erakundeekin egiteko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik, 468 Kontzeptua, aurreko urteetako behin betiko likidazioari eta finantzaketa-sistema berritik eratorritako konpentsazioei buruzkoa; guztia ere, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 143. eta 144. artikuluetan xedatutakoarekin bat. Kalkulua egiteko oinarri gisa, 2004an Estatuaren tributuetan parte hartzeagatik egindako behin betiko likidazioaren zenbatekoak hartu dira.

Bi. Ospitale-zentroen kudeaketa ekonomikoa eta finantzarioa (apirilaren 25eko 14/1986 Osasun Lege Orokorrean xedatutakoa betez) dagozkien Autonomia Erkidegoen esku utziz gero, erakunde horiei esleituko zaizkie zerbitzua transferitu duen erakundearen partaidetzari dagozkion konturako ordainketak, aurretik aipatutako funts berean.

6. atala. *Araubide bereziak.*

114. artikulua. *Euskadiko lurralde historikoen eta Nafarroako Estatuaren tributuetan duten partaidetza.*

Bat. Euskadiko eta Nafarroako udalerriek Estatuaren tributuetan izango duten partaidetza kapitulu honen 3. ataleko 2. azpiatalean jasotako arauen arabera zehaztuko da; Kontzertu Ekonomikoaren eta Hitzarmen Ekonomikoaren esparruan, hurrenez hurren.

Bi. Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Aldundiek eta Nafarroako Foru Erkidegoak Estatuaren zergetan izango duten partaidetza martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitako Toki Ogasunak arautzeko Legearen testu bateginaren 146. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko da; Kontzertu Ekonomikoaren eta Hitzarmen Ekonomikoaren esparruan, hurrenez hurren.

115. artikulua. *Kanariar Uharteetako toki-erakundearen partaidetza Estatuaren zergetan.*

Bat. Estatuaren zergen bidez bildutakoaren etekinak Kanarietako udalerriekin lagatzeko –zehazki, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 111. artikuluan xedatutako eremu subjektiboan bildutakoei–, bai eta uharteetako kabildoei ere, aipatutako arauaren 158. artikuluan xedatutakoa beteko da.

Bi. Aurreko paragrafoan aipatutako toki-erakundeek Finantzaketarako Funtsekin Osagarrian izango duten partaidetza zehazteko, kapitulu honen 3. ataleko 1. azpiatalean eta 5. ataleko 1. azpiatalean xedatutakoa beteko da, arestian aipatutako arauaren 158. artikuluan adierazitakoa aintzat hartuta.

Hiru. Kanariar Uharteetako gainerako udalerriek Estatuaren tributuetan izango duten partaidetza zehazteko, kapitulu honen 3. ataleko 2. azpiatalean jasotako arauak beteko dira, eta araubide erkideko udalerrien proportzio berari helduko zaio.



116. artikulua. *Ceuta eta Melilla hiriek Estatuaren tributuetan duten partaidetza.*

Bat. Ceuta eta Melilla hiriak, udalerriei parekatutako erakunde gisa, kapitulu honetan bildutako arau orokorren arabera hartuko dute parte Estatuaren tributuetan.

Bi. Ceuta eta Melilla hiriek, probintziei parekatutako erakunde diren aldetik, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 146. artikuluan adierazitakoaren arabera hartuko dute parte Estatuaren tributuetan.

*7. atala. Konpentsazioak, diru-laguntzak eta laguntzak.*

117. artikulua. *Hiriko garraio kolektiboa emateko zerbitzua dela-eta Toki Erakundeei emandako diru-laguntzak.*

Bat. Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, bosgarren xedapen gehigarrian adierazitakoa betetzeko, 51,05 milioi euroko kreditu bat ageri da, honako kredituen kontura: 32. Atala, 02. Zerbitzua, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia, 942N Programa, 462 Kontzeptua. Kreditu horren xedea toki-erakundeek emaniko hiriko garraio kolektiboaren zerbitzua diruz laguntzea da; betiere, hurrengo paragrafoan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

Bi. Kredituaren banaketan hiriko garraio kolektibo publikoa ematen duten toki-erakundeek hartuko dute parte, horren kudeaketa edozein izanik ere, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Mugikortasun Iraunkorreko Plan bat edukitzea, Mugikortasun Iraunkorrerako Espainiako estrategiarekin koherentea dena, Ekonomia Iraunkorraren martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 102. artikuluan –«Mugikortasun Iraunkorreko Planen Sustapena»– xedatutakoaren arabera, 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako hogeita hamaikagarren xedapenak emandako idazketan; honela dio, zehazki:

«2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, autonomia-erkidegoetako administrazioei edo toki erakundeei hiri- edo metropoli-garraio publikoa xede duen laguntza edo diru-laguntzaren bat emateko (Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak hartzen du bere baitan), ezinbesteko baldintza da erakunde onuradunak kasuan kasuko Mugikortasun Iraunkorreko Plana edukitzea eta hura koherentea izatea Mugikortasun Iraunkorrerako Espainiako Estrategiarekin».

b) Zuzenbidezko 50.000 biztanletik gora izatea; horretarako, 2013ko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen udal-errola hartuko da kontuan, Gobernuak ofizialki onartutakoa.

c) Zuzenbidezko 20.000 biztanletik gora izatea, horretarako, 2013ko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen udal-errola hartuko da kontuan, Gobernuak ofizialki onartutakoa, eta aldi berean aipatutako data horretan hiri-ondasun higiezinaren katastroan errolatutako hiri-unitateak 36.000 baino gehiago izatea.

d) Aurreko b) eta c) idatz-zatietan jasotako baldintzetakoren bat bete ez arren, probintziako hiriburu izatea.

e) Salbuespen izango dira, aurreko baldintzak bete arren, hiri barruko garraio publikoaren zerbitzua finantzatzeko beste sistema batean parte hartzen duten udalerrriak, baldin eta, sistema horretan, Estatuko Administrazio Orokorrek finantzaketa ematen badu. Salbuespen hori, edozelan ere, aplikagarri izango zaie Kanarietako Uharteetako, Madrilgo Garraioen Eskualde mailako Partzuergoko eta Bartzelonako Garraio Metropolitarraren Agintaritzaren lurralde-esparruei.

Hiru. Behin kontzeptu horren epai judizial irmoei dagozkien ordainketen betebeharrak ordainduta, aurrekontu-zuzkidura banatuko da, artikulua honen sei paragrafoan aipatzen

den eredutik ondorioztatzen diren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren honako irizpide hauen arabera:

A. Kredituaren ehuneko 5, udal-sareko joaneko bidearen luzeraren arabera, eta kilometrotan adierazita. Joan-etorriko biderik ez duten linea zirkularren kasuan, erdia hartuko da kontuan.

B. Kredituaren ehuneko 5, udalerrri bakoitzeko bidaiarien eta zuzenbidezko biztanle kopuruaren arabera, kopuru hori zati 50.000 eginez lortutakoaren arabera haztatuta. Zuzenbidezko biztanle horien kopurua 2013ko urtarrilaren 1ean indarrean dagoen biztanleen udal-errolan jasotako biztanleena izango da, Gobernuak ofizialki onartutakoa.

C. Kredituaren ehuneko 5 ingurumen-irizpideen arabera, Klima Aldaketaren eta Energia Garbiaren Espainiako Estrategia aplikatzeko Presazko Neurrien Planak aurreikusten duena betetzeko; planaren arabera, hiri-garraio publikoei diru-laguntzak emateko, efizientzia energetikoaren irizpideak hartuko dira kontuan. Neurri hori Industria, Energia eta Turismo Ministerioak IDAE institutuaren bidez gauzatzeko Energiaren Aurrezpena eta Efizientzia Aktibatze Planean zehaztuta dago, eta garraio publikoaren sistemei aplikatutako efizientzia energetikoa balioesteko mekanismo bat ezartzean datza, aurrerapausoak homogeneotasunez ebaluatzeke, eta diru-laguntzak banatzeko orduan aintzat hartzeko.

Aurretik aipatutako ehunekoa ingurumen-irizpideak betetzeko orduan lortutako puntuazioaren arabera banatuko da –2013ko ekitaldiari dagokionez–; honako koadro honetan jasotakoak izango dira horiek:

Populazio handiko udalerrriak		Gainerako udalerrriak		Gehieneko puntuazioa
Irizpideak	Betetze-maila	Irizpideak	Betetze-maila	
GNC/GLP/BIOERREGAIA duten hiri-autobusen ehunekoa.	>% 20	GNC/GLP/BIOERREGAIA duten Hiri-autobusen ehunekoa.	>% 5	20
Guztira izandako bidaiari-kopuruaren hazkundea aurreko urtearekin alderatuta.	>% 1	Guztira izandako bidaiari kopuruaren hazkundea aurreko urtearekin alderatuta.	BAI/EZ	15
Garraio publikoak eskainitako lekuak-km: hazi egin dira, aurreko hiru urteetako batez bestekoarekin alderatuta.	>% 1	Garraio publikoak eskainitako lekuak-km: hazi egin dira, aurreko urtekoarekin alderatuta.	BAI/EZ	15
Autobus-flotan ibilgailu elektrikoak edo hibridoak daude.	BAI/EZ	Autobus-flotan ibilgailu elektrikoak edo hibridoak daude.	BAI/EZ	10
Mugikortasun urriko pertsonentzako prestatuko autobusen ehunekoa. . . . .	>% 50	Mugikortasun urriko pertsonentzako prestatuko autobusen ehunekoa.	>% 20	10
Hiriko autobus-lineen dentsitatea (1000 bizt./km).	> 2	Hiriko autobus-lineen dentsitatea (1000 bizt./km).	> 1	10
GPan egindako bidaien kopuruaren hazkundea aurreko hiru urteetako batez bestekoarekin alderatuta.	> % 1	GPan egindako bidaien kopuruaren hazkundea aurreko urtearekin alderatuta.	BAI/EZ	5
Bidegorri-sarea: bidegorri km bakoitzeko biztanleen kopurua.	> 8.000	Bidegorri-sarea: bidegorri km bakoitzeko biztanleen kopurua.	> 6.000	3
Autobus-erreien luzera (sarearen luzera osoarekiko ehunekoa).	>% 2	Autobus-bideak daude.	BAI/EZ	3
Modu efizientean gidatzeko prestakuntza jaso duten hiri-autobusetako gidarien ehunekoa (%).	>% 20	Modu efizientean gidatzeko prestakuntza jaso duten hiri-autobusetako gidarien ehunekoa (%).	>% 15	3
Autobusen etorrera denbora errealean adierazten duten geltokiak (geltoki guztien ehunekoa).	>% 3	Autobusen etorrera denbora errealean adierazten duten geltokiak (geltoki guztien ehunekoa).	>% 3	3
Flotak efizientzia energetikoko irizpideekin kudeatzeko gaikuntza duten pertsonak (trebatutako pertsonen kopurua/100 ibilgailu).	> 1	Flotak efizientzia energetikoko irizpideekin kudeatzeko gaikuntza duten pertsonak (trebatutako pertsonen kopurua/100 ibilgailu).	BAI/EZ	3
Guztira. . . . .				100

D. Kredituaren ehuneko 85, emandako garraio-tituluaren batez besteko defizitaren arabera, honako prozedura hau betez:

a) Udalerrri bakoitzari eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, garraio-tituluen kopurua titulu horietako bakoitzari dagokion diru-laguntzarekin biderkatuko da.

b) Titulu bakoitzari dagokion diru-laguntza kalkulatzeko, batez besteko defizitari honako eskala honetan zehaztutako zenbatekoak eta ehunekoak aplikatuko zaizkio:

1. tartea: garraio-titulu bakoitzeko batez besteko defizitaren zenbatekoa, udalerrri bakoitzari dagokiona, batez besteko defizit osoaren ehuneko 12,5 baino handiagoa ez bada, ehuneko 100ean ordainduko da.

2. tartea: garraio-titulu bakoitzeko batez besteko defizitaren zenbatekoa, udalerrri bakoitzari dagokiona, aurreko tartea baino handiagoa bada eta batez besteko defizit osoaren ehuneko 25 gainditzen ez badu, ehuneko 55ean ordainduko da.

3. tartea: garraio-titulu bakoitzeko batez besteko defizitaren zenbatekoa, udalerrri bakoitzari dagokiona, aurreko tartea baino handiagoa bada eta batez besteko defizit osoaren ehuneko 50 gainditzen ez badu, ehuneko 27an ordainduko da.

4. tartea: garraio-titulu bakoitzeko batez besteko defizitaren zenbatekoa, udalerrri bakoitzari dagokiona, aurreko tartea baino handiagoa bada eta batez besteko defizit osoaren ehuneko 100 gainditzen ez badu, ondorengo eragiketa eginez zehaztuko den ehunekoan ordainduko da: aurreko tarteei esleitu ez zaien kredituaren gainerakoa zati tarte honetako defizitaren zenbatekoa, diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten udalerrri guztiak aintzat hartuz.

5. tartea: garraio-titulu bakoitzeko batez besteko defizitaren zenbatekoa, udalerrri bakoitzari dagokiona, batez besteko defizit osoa baino handiagoa bada, ez da diruz lagunduko.

Eskalako 4. tarteko finantzaketaren ehunekoa ez da 27 baino handiagoa izango. Murrizketa horren ondorioz kreditu-soberakinik egonez gero, aplikatzeak soberakin hori udalerrri bakoitzak 2. eta 3. tarteen arabera eskuratutako finantzaketaren proportzio berean banatuko da.

Arau horietan zehaztutakoa betez, ezin izango da xedagarri dagoen kredituaren ehuneko 90etik gorakoa den diru-laguntzarik eman. Egoera hori sortuko balitz, 3. eta 2. tarteen ehunekoa beharrezkoa den proportzioan doitu beharko da, eta, hala dagokionean, baita 1. tartekoa ere, 4. tartean xedatutakoa betez; hori guztia, kreditua agortu arte.

c) Udalerrri bakoitzeko batez besteko defizita kalkulatzeko, ustiaketaren defizita garraio-tituluen kopuruarekin zatituko da. Batez besteko defizit osoa, berriz, honela kalkulatu da: diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten udalerrri guztien defizitaren batura zati udalerrri horietan guztira dauden garraio-tituluak.

d) Titulu bakoitzeko jaso beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa tarte bakoitzean diruz lagundu beharreko zenbatekoaren batura izango da. Tarte bakoitzari dagokion zenbatekoa honela kalkulatu da: batez besteko defizitari dagokionez tarte bakoitzean dagoen zatia bider tarte horri dagokion finantzaketaren ehunekoa.

Ustiaketaren defizita garraio publikoaren zerbitzua ematen duten enpresa edo erakundeen galera eta irabazien kontuetan oinarritzen diren ustiaketa-galeren zenbatekoaren arabera izango da. Kontu horiek Kontabilitaterako Planaren arabera egingo dira, kasu bakoitzean aplikatu beharreko kontabilitate-arau eta -printzipioen arabera, honako doikuntza hauek eginez:

a') Ustiapen-gastuen kasuan, tributuei dagozkienak baztertu egingo dira, tributuerlazio juridikoaren subjektu aktiboa edozein dela ere.

b') Ustiapeneko gastuei eta diru-sarrerei dagokienez, baztertu egingo dira jatorria diru-laguntzaren xede den hiriko garraio publikoaz bestelako zerbitzuetan edo jardueretan dutenak. Baztertu egingo dira, halaber, hiriko garraio publikoaren zerbitzua ematen duen enpresa edo erakundeari bertako udalak emandako diru-laguntzak eta ekarpenak.

c') Paragrafo honi dagokion finantzaketa kalkulatzeko, defizitari kendu egingo zaizkio errepede-sarearen luzera eta bidaiariak/zuzenbidezko biztanleria erlazioa aintzat hartuta diru-laguntza gisa emandako zenbatekoak.

Lau. Diru-laguntzak hiriko garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa finantzatzera bideratuko dira.

Bost. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako udalei eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa moldatu egingo da, Estatuaren tributuetan duten partaidetzaren proportzio berekoa izan dadin.

Sei. Hiriko garraio kolektibo publikoaren zerbitzuak diruz laguntzeko kreditua banatu ahal izateko, dagokien toki-erakundeek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute 2014ko uztailaren 1a baino lehen, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioko organo eskudunek xedatutako moduan:

1. Kasu guztietan, joaneko errepede-sarearen kilometro kopurua, urteko bidaiari kopurua, urtean eskainitako leku kopurua, eta 2013ko ekitaldian bildutako dirua eta batez besteko prezioak. Hori guztia Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak prestatutako ereduaren arabera aurkeztu beharko da.

2. Zerbitzua erakundeak berak edo mendeko organismo autonomoak zuzeneko kudeaketaren bidez ematen badu, garraio-zerbitzuaren 2013ko ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen partidaren dokumentu xehatua, bai eta defizitarena edo emaitza errealaena ere. Hori guztia Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak prestatutako ereduaren arabera aurkeztu beharko da.

3. Zerbitzua udaleko merkataritza-sozietate batek ematen badu, zuzeneko kudeaketaren bidez, edota enpresa edo partikular batek, emakida bidez edo zeharkako kudeaketako beste edozein aldaeraren bidez, urteko kontuak eta kontu-ikuskaritzaren txostena.

Halaber, administratzaileek dokumentu bat prestatu beharko dute, alderdi hauek zehazten dituen: garraio-zerbitzuak 2013ko ekitaldian izandako diru-sarreraren eta gastuen partidak, defizitaren edo emaitza errealaen partidak eta aipatutako diru-sarrerak eta gastuak egozteko irizpideak. Hori guztia Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak prestatutako ereduaren arabera aurkeztu beharko da.

Kontu-ikuskarri batek aztertu beharko du aipatutako dokumentua (garraio-zerbitzuak 2013ko ekitaldian izandako diru-sarreraren eta gastuen partidak, defizitaren edo emaitza errealaen partidak, eta aipatutako diru-sarrerak eta gastuak egozteko irizpideak jasotzen dituen). Dokumentua ikuskatuta dagoela ulertuko da bertan jasotako informazioa Urteko Kontuen Memorian bilduta badago, eta kontu horiek jada ikuskatu badira.

4. Kasu guztietan, jardueraren finantza-baldintzak arautzen dituzten akordio eguneratuak biltzen dituen dokumentu ofiziala.

5. Kasu guztietan, bai diru-laguntza eskatu duen udalak, bai zerbitzua ematen duen enpresak, organismoak edo entitateak tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela frogatzen duen egiaztagiria.

6. Kontu-hartzailearen ziurtagiria, aurreko ekitaldian hiri-garraio kolektiborako diru-laguntza gisa jasotako zenbatekoa 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legeak 102. artikuluan Lau paragrafoan xedatutako helburuari egokitzen zaiola adierazten duena.

Dokumentazioa artikulua honetan xedatutako moduan igortzen ez duten udalei ez zaie aitortuko bidaiarien garraio kolektibo publikoaren zerbitzua finantzatzeko diru-laguntza jasotzeko eskubidea; batetik, interes orokorragatik, eta, bestetik, gainerako hartzaileei finantza-kalderik ez eragitearren.

118. artikulua. *Pertsona fisiko edo juridikoei tokiko tributuetan aitortutako onurengatik udalei eman beharreko konpentsazioa.*

Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 9. artikuluan xedatutakoa

betetzeko, kreditu bat ezarri da indarrean dagoen Estatuaren Gastuen Aurrekontuan; zehazki, kontzeptu honetan: 32. Atala, 02. Zerbitzua, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia, 942N Programa, 461.00 kontzeptua. Kreditu horren helburua nahitaez ordaindu beharreko tokiko tribuuetako onura fiskalak konpentsatzea da; Estatuak lege bidez aitor ditzake halako onurak, aipatutako 9. artikuluaaren bigarren paragrafoan xedatutako moduan.

Ordainketa egin baino lehen, konpentsazio-eskaerak egiaztatu egin beharko dira: ekonomia-jardueren gaineko zergaren kasuan, zerga horren matrikularen datu-baseetan dagoen informazioan oinarrituz; ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan, berriz, higiezinaren katastroko datu-baseetan dagoenean oinarrituz.

Horretarako, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioi Tributu Administrazioaren Estatu Agentziak eta Katastroaren Zuzendaritza Nagusiak erraztasunak emango dituzte, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiarekin informatikaren bidez komunikatzeko.

Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioari baimena ematen zaio barkatutako tributu-zorrak eta legez aitortutako salbuespenak direla-eta udalerririk konpentsatzearen kasu bakoitzean jarraitu beharreko prozedura ezartzeko beharrezko diren arauak onets ditzan.

119. artikulua. *Toki-erakundeentzako beste konpentsazio eta diru-laguntza batzuk.*

Bat. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagokionez 2014an barkatutako kuotak honako kontzeptu honetako kredituen kontura konpentsatuko dira: 32. Atala, 02. Zerbitzua, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia, 942N Programa, 461.01 Kontzeptua. Aipatutako zergaren kuotak onura fiskalak aplikatzearen ondorioz barka daitezke; onura fiskal horiek indarrean dagoen Espainiaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko Defentsa Lankidetzarako Hitzarmenean daude jasota, 1988ko abenduaren 1ekoan.

Kompentsazio gisa eman beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, ukitutako udalekin sinatutako hitzarmenetan xedatutakoari jarraituko zaio.

Bi. Bi. Ceuta eta Melilla hiriei 8 milioi euroko laguntza emango zaie, itsasoko ura gezatzeko instalazioen funtzionamendu-kostuei aurre egiteko. Laguntza hori honako kontzeptu honetako kredituen kontura emango da: 32. atala, 02. zerbitzua, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia, Toki Erakundeak, 942N programa, Toki Erakundeentzako Beste Ekarpen Batzuk, 463 kontzeptua.

Aurreko lerrokadan adierazitako diru-laguntzak ordaintzeko, dagokion tresna arautzaileak xedatutakoari jarraituko zaio. Diru-laguntza izendunen kasuan, kontuan hartuko dira, batetik, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 28. artikuluan zehaztutakoa, eta, bestetik, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, aipaturiko legea garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.

Aipatutako zenbatekoa Ceuta eta Melilla hirien artean banatzeko, udalerririk bakoitzeko zuzenbidezko biztanleria hartuko da kontuan; zehazki, aurreko ekitaldiko urtarrilaren 1ean indarrean zegoen udal-errodan jasotakoa. Ceuta hiriari 4,08 milioi euro dagozkio, eta Melilla hiriari 3,92 milioi euro.

Hiru. Ondoko kontzeptu honetan kontsignatutako berariazko kredituaren kontura egingo da ordainketa: 32. Atala, 02. Zerbitzua, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia, Entidades Locales, Programa 942N, concepto 461.01, también se hará efectiva la compensación a las Ciudades de Ceuta y Melilla, por pérdidas de recaudación del Impuesto sobre la Producción, los Servicios y la Importación (IPSI), correspondiente a las importaciones y al gravamen complementario sobre las labores del tabaco, regulada en el artículo 11 de la Ley 53/2002, de 30 de diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y del Orden Social.

Hilero ordainketa bat egingo zaio hiri horietako bakoitzari, aurreko ekitaldian aitortutako behin betiko konpentsazioaren hamabirenaren zenbatekoa aintzat hartuta, 2014ko ekitaldian ordaindu beharreko zenbatekoaren konturako aurrerakinaren kontzeptuan.

Aurretik aipatutako 53/2002 Legearen 11. artikuluan ezarritako kalkuluak egiteko beharrezko dokumentazioa aurkeztutakoan, dagokion likidazioa egingo da, eta ordaindu egingo da dagokion behin betiko konpentsazioaren zenbatekoaren eta egindako konturako ekarpenen zenbatekoaren artean dagoen aldea.

120. artikulua. *Udalen aldeko aurrerakinak, tokiko tributuen bilketaren kudeaketan izandako desorekak direla-eta.*

Bat. Errolden jaulkipenarekin lotutako inguruabarrak direla-eta, ondasun higiezinaren gaineko zerga 2014ko abuztuaren 1a baino lehen likidatzerik ez dagoenean, ukitutako udalerriek aipatutako zergaren konturako aurrerakinak jaso ahal izango dituzte Altxor Publikoaren eskutik, diruzaintzaren arloko gutxieneko beharrak babesteko. Horretarako, dagokion udaleko osoko bilkurak baimena eman beharko du alde zurreratik.

Aurrerakin horiek jaso ahal izateko, udalerriek eskaera egin beharko dute, eta Katastroaren Zuzendaritza Nagusiak txostena prestatuko du horren inguruan. Eskaera horiek Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiak izapidetuko eta ebatziko ditu.

Espedienteak izapidetzean, jarraian adierazitako baldintzak hartuko dira kontuan:

a) Aurrerakinak ezin izango dira errolda bakoitzari aurreikuspenaren arabera egotz dakiokkeen zerga-bilketaren zenbatekoaren ehuneko 75etik gorakoak izan.

b) Formula horren bidez korporazio bakoitzari aurreratuko zaion urteko zenbatekoa ez da izango Estatuaren tributuetan izandako partaidetza dela-eta udal horrek azken urtean jasotakoaren bikoitza baino handiagoa.

c) Ezin izango da eskatu tributu berari dagozkion segidako bi zergaldi baino gehiagoren aurrerakinik.

d) Diputazio probintziales, uharteetako kabildo eta kontseiluek, probintzia bakarreko autonomia-erkidegoek eta zergak biltzen dituzten beste organismo publikoek, erreferentzia-udalei aurrerakinak eman dizkietenean, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginak, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitakoak, 149.2 artikuluan aurreikusitako moduan, aurrerakinari dagokion kopurua jaso ahal izango dute –gehienez ere, aurreratu duten zenbateko bera–, diruzaintzako dagozkion eragiketak osotasunean edota partzialki kitatu ahal izateko, eta, betiere, alde zurreratik justifikatuz.

e) Behin betiko ebazpena eman ostean, aurreko d idatz-zatian aipatutako udalek edo erakundeek aurrerakinaren zenbateko garbia jasoko dute. Urte bakoitzeko irailaren 1etik aurrera, zenbatekoaren laurdena jasoko dute hilero, eta paragrafo honen lehenengo lerrokadan adierazitako hutsuneak konpondu eta hurrengo hilabetean utziko zaio ordainketak egiteari.

Paragrafo honetan xedatutakoaren arabera emandako aurrerakinei Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, laugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako atxikipen berberak egingo zaizkie, hala badagokie. Dagozkien toki-erakundeek aipatutako errolden zuzenketa jakinarazten duen Katastroaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena jasotakoan itzuliko dituzte aurrerakinak.

Bi. Diruzaintzan premiazko eta ezohiko beharrak dauden kasuetan, ekitaldian bertan itzuli beharreko aurrerakinak eman ahal izango zaizkie udalei, Estatuaren tributuetan duten partaidetzaren kontura. Halako aurrerakinak emateko, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiaren ebazpena beharko da. Aurrerakin horiek emateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Udaleko osoko bilkuraren akordioa, bertako presidenteari aurrerakina eskatzeko baimena ematen diona eta eskaeraren baldintzak zehazten dituen.

b) Udal kontu-hartzailetzaren txostena, toki-erakundearen egoera ekonomiko-finantzarioa zehazten duena eta aurrerakinaren behararen ezohiko zergatia zehaztasunez arazoitzen duena.

c) Udal Diruzaintzaren txostena, dagokion ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenari buruzkoa.

*8. atala. Kapitulu honetan jasotako xedapenekin lotuta dauden arau instrumentalak*

121. artikulua. *Toki-erakundeen aldeko kreditu zehatz batzuen aurrekontu-kudeaketarako arauak.*

Bat. Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioari baimena ematen zaio gastuak 2015eko ekitaldiaren kargura egiteko. Gastu horiek ezin izango dute 2014rako Aurrekontuan jasotako kredituen hamabirena gainditu, eta udalei eta probintzietako diputazioei edo antzeko erakundeei Estatuaren tributuetan duten partaidetzaren 2015eko urtarrileko konturako ekarpenak ordaintzeko erabiliko dira. Aipatutako ekitaldiari egotz dakizkiokkeen behin betiko konturako ekarpenak zehaztean alderik sortuko balitz, ekitaldi horretako otsaileko konturako ekarpenetan doituko da.

Bi. Kapitulu honetako aurreko artikuluetan zehaztutako konpromisoak betetzeko xedea duten gastu-espeditenteak eta ordainketa-aginduak aldi berean izapidetuko dira ukitutako toki-korporazioen alde, eta, funtsen xedagarritasuna aintzat hartuta, aurrekontutik kanpoko hartzekodunen kontuen kargura bete ahal izango dira, kontu horiek Diruzaintzaren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusian xede horietarako gaituta badaude; hala, jasotzaile guztiei batera eta aldi berean egingo zaie dagozkien obligazioen ordainketa, ebazpenen data aintzat hartuta, eta baldintza berdinetan.

Honako hauek urgentziaz izapidetu beharko dira:

Kreditua aldatzeko espeditenteak, aipatutako konpromisoei dagokienez.

1995eko abenduaren 27ko Aginduak adierazitako erreferentziazko konpromisoei lotutako gastu-espeditenteak.

Horretarako, aurrekontua kudeatzeko prozeduraren faseak metatu egin beharko dira, eta, era berean, dagozkien eragiketen kontabilitate-erregistroaren prozedura bereziak gauzatu.

Hiru. Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan, kreditua areagotzeko espeditenteak izapidetu behar direnean, kreditua areagotzeko eskaerak ukitutako toki-erakundeek egindako eskaera osagarrien arabera arrazoituko dira, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 54. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Lau. Gastuen Aurrekontuan aurreko Bat paragrafoan adierazitako helburuetarako xedatutako kredituak beharrezko periodikotasunarekin transferitu ahal izango dira Diruzaintzaren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusian horretarako gaitutako aurrekontuz kanpoko kontura. Prozedura hori toki-erakundeek Estatuaren tributuetan duten partaidetzatik eratorritako obligazioak aldi berean ordaintzeko aplikatu ahal izango da, konturako ekarpen gisa nahiz behin betiko likidazio modura, bai eta toki-korporazioek egindako eskaeretatik eratorritako obligazioak aldi berean ordaintzeko ere, Estatuak obligazio horiek aintzatesteko dagozkion ebazpenak eman ostean.

122. artikulua. *Tokiko korporazioek eman beharreko informazioa.*

Bat. Udalek Estatuaren tributuetan 2014an izango duten partaidetzaren behin betiko likidazioa egiteko, toki-korporazioek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute, 2014ko ekainaren 30a baino lehen, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioko organo eskudunek zehaztutako moduan:

1. 2012an ondoko zerga hauen bidez eskuratutako zenbateko likidoaren ziurtagiria: ondasun higiezinaren gaineko zerga, ekonomia-jardueren gaineko zerga eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga. Ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan, ezaugarri bereziak dauzkaten ondasun higiezinei dagokienez bildutakoa zehaztu beharko da.

2. 2012ko erroldetatik ondorioztatutako zerga-oinarriak jasotzen dituen ziurtagiria, eta errolda horietan izandako alten gainekoa, hiri-ondasun higiezinaren gaineko zergari dagokionez; horrez gain, aurreko lerrokadan aipatutako zergetan udalerrian galdagarri diren tasen ziurtagiria. Ondasun higiezinaren gaineko zergari dagokionez, ezaugarri bereziak dauzkaten ondasun higieziinei dagokien tributu-informazioa zehaztu beharko da. Gainera, 2012an aplikatutako murrizketak zehaztu beharko dira, aplikatu badira; zehazki, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitakoak, bederatzigarren xedapen gehigarrian adierazten dituenak.

3. Ekonomia-jardueren gaineko zergan 2012an galdagarri ziren kuoten ziurtagiria, zergaldi hartan indarrean zeudenena; barne hartu beharko da Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitakoak, 86. artikuluan aipatutako koefizientearen aplikazioaren intzidentzia.

Bi. Dokumentuak, paperean beharrean, modu elektronikoa bidali ahal izango dira, horretarako egokitutako ereduak erabiliz; nolana ere, informazioa bidaltzeko erabilitako euskarriak kontu-hartzailearen edota, hala badagokio, kontabilitate-funtzioa esleituta duen toki-korporazioko organo-titularraren sinadura elektronikoa izan beharko du.

Toki-erakundeak igorritako datuei dagokienez, sinadura elektronikoa, abenduaren 19ko 59/2003 Legeak xedatutako moduan ulertuta, paperean jasotako informazioari dagokionez eskuz egindako sinaduraren balio berbera izango du; hortaz, informazioa modu elektronikoa igorri gero, ez du aipatutako dokumentazioa paperean bidaltzeko obligaziorik izango.

Hiru. Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak dagokion ebazpena emango du, beharrezkoa den informazioaren xehetasunak biltzen dituzten ereduak ezartzeko, dokumentazioa telematikoki aurkezteko prozedura arautzeko, eta sinadura elektronikoa xedatzeko.

Lau. Kapitulu honetako 3. atalaren 2. azpiatalaren aplikazio-esparruan egon arren, aurrez adierazitako dokumentazioa aurkezten ez duten udalerriei haztapen-modulu bat aplikatuko zaie, hala badagokie; zehazki, dagokion biztanleria-gunearen barruan koefiziente txikiena duen udalerriri aplikagarri zaion batez besteko esfortzu fiskalaren ehuneko 60ari dagokiona. Hori guztia, Estatuaren tributuetan duten partaidetzagatik 2014rako behin betiko likidazioa egiteko.

123. artikulua. *Toki-erakundeei egin beharreko atxikipenak, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitakoak, laugarren xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera.*

Bat. Zerga-bilketa kudeatzeko eginkizuna lege esleituta duen organo eskudunak hala eskatuz gero, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak dagokion atxikipenak aplikatuko ditu udalerriek eta probintziek Estatuaren tributuetan duten partaidetzan, aplikagarria den araudi zehatzaren arabera.

Atxikipenean Estatuaren tributuetatik eratorritako zorrak, Gizarte Segurantzaren kuotetatik eratorritako zorrak, eta horien baterako zerga-bilketatik eratorritako zorrak badaude, eta horien guztien baturak atxikitako zenbatekoa gainditzen badu, atxikitako zenbatekoa zor bakoitzaren zenbatekoaren arabera hainbanatuko da.

Bi. Atxikipenaren zenbatekoa dagokion toki-erakundeari esleitutako zenbatekoaren ehuneko 50 izango da, bai konturako ekarpen bakoitzean, bai Estatuaren tributuetan duen partaidetzari dagokion urteko behin betiko likidazioan, zorra atxikitako zenbatekoa baino txikiagoa denean izan ezik.

Zorrak lege egotzitako Estatuaren tributuen ondorio direnean, gauzak ordaindu diren konturako diru-sartzeen ondorio, edozein zergarengatik atxikitako edo atxiki beharreko zenbatekoen ondorio, edota Gizarte Segurantzaren atxikitako edo atxiki beharreko kotizazioen ondorio, atxikipena toki-erakundeari esleitutako zenbatekoaren ehuneko 100ekoa izango da, bai konturako ekarpen bakoitzean, bai Estatuaren tributuetan duen



partaidetzari dagokion urteko behin betiko likidazioan, zorra atxikitako zenbatekoa baino txikiagoa denean izan ezik.

Hiru. Ekitaldi osoan atxiki beharreko zenbatekoa murriztu egin ahal izango da, ondoko obligazio hauek betetzearen ondorioz diruzaintzan desoreka larriak daudela justifikatzen denean:

- a) Langileekin lotutako obligazioak erregularitasunez betetzea;
- b) Udalerriko biztanle kopuruaren arabera derrigorrezkoak diren zerbitzu publikoak ematea;
- c) Gizarte-zerbitzuak eta babes zibila ematea, eta suteak itzaltzea, baldin eta zerbitzu horien truke kontraprestaziorik eskatzen ez bada prezio publiko bidez edo emandako zerbitzuaren kostuari dagokion antzeko tasa baten bidez.

Atxikipenaren ehunekoa ezin izango da konturako ekarpenaren ehuneko 25 baino txikiagoa izan.

Finantzak saneatzeko partzuergoetan sartu diren toki-erakundeei ez zaizkie atxikipenak murriztuko, partzuergo horietan beste herri-administrazio batzuetako erakundeak ere egonez gero.

Atxikipenaren ehunekoa murrizteko prozeduretan, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak dagokion ebazpena emango du, erakundearen finantza-egoera eta derrigorrezko zerbitzu publikoak bermatzeko beharra aintzat hartuz. Horretarako, toki-erakundeak besteak beste ondoko dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu nahitaez:

- Erakunde hartzekodunetako organo biltzaileek igorritako ziurtagiria, ziurtagiria eskatu aurreko hilabetearen aurreko hamabi hilabeteetako zergen ordainketak egunean daudela egiaztatzen duena;
- Uneko finantza-egoerari buruzko txostena, tokiko kontu-hartzaileak sinatua. Bertan, alderdi hauek jaso beharko dira: atxikipenaren ehunekoa murrizteko eskaera egindako egunean diruzaintzan zeuden geldikinen kalkulua, eta egoera horrek zer-nolako eragina duen paragrafo honen lehenengo lerrokadan zehaztutako obligazioak betetzerakoan;
- Udalbatzak onartutako Saneamendu Plana, indarreko ekitaldia barnean duena.

Ebazpenean, atxikipenaren ehunekoa murriztuta izango den epealdia zehaztu beharko da; epealdi hori ezin izango da ekitaldi ekonomikoaren amaieratik aurrera luzatu. Nolanahi ere, murrizketa hori aplikatu ahal izateko, behar-beharrezkoa izango da toki-erakundeak saneamendu-plan bat onartzea edota indarrean den beste bat betetzen duela egiaztatzea.

Lau. Zorra Altxor Publikoaren kargura egindako finantza-aurrerakinak itzultzearen ondorioz sortu denean, atxikipena dagokion aurrerakina emateko ebazpenean zehaztutako baldintzetara egokitu beharko da, zor osoa ordainketa bakarrean kitatuz, edota ondoz ondoko atxikipenen bidez kitatuz, behin betiko iraungi arte.

Bost. Legez zerga-bilketa kudeatzeko eskumena duen organoari dagokio zorrak atxikitako zenbatekoen kargura iraungi direla xedatzen duten ebazpenak ematea, aplikagarri den araudi espezifikoren arabera; atxikipena egin zen unetik aurrera sortuko dituzte ondorioak, zorrari dagokion zatian.

Sei. Artikulu honetan jasotako arauak aplikatu egingo zaizkie toki-erakundeek Kreditu Ofizialeko Institutuarekiko dauzkaten zor irmoei ere, institutuak bideratutako kreditu-lerroagatik. Zor horiek uztailaren 1eko 8/2011 Errege Lege Dekretuaren II. kapituluaren bigarren atalean daude jasota. Manu honen arauak aplikatzekoak izango dira, halaber, Hornitzaileei Ordaintzeko Finantzaketa Funtzarekiko zor irmoen kasuetan, zor horiek aipatutako funtsa sortzen duen martxoaren 9ko 7/2012 Errege Lege Dekretuaren 8. artikuluan ezarrita datorrenaren ondorio direnean.

## II. KAPITULUA

**Autonomia-erkidegoak**

124. artikulua. *Nahikotasun Globalaren Funtsaren konturako ekarpenak.*

Nahikotasun Globalaren Funtsaren konturako ekarpenak gauzatzeko aurrekontu-kredituak honako kontzeptu honetan jasotakoak izango dira autonomia-erkidego eta autonomia-estatutua duen hiri bakoitzerako, aplikagarri zaizkien atxikipenak, zuzenketak eta gainerako manuak kontuan hartuta: 36. atala «Lurralde-erakundeak finantzatzeko sistemak», 941M programa «Autonomia-erkidegoei egin beharreko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik», 451 kontzeptua «Nahikotasun Globalaren Funtsa». Aurrekontu-kreditu horiek abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 20. artikuluan daude xedatuta; hots, araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema arautzen duen eta tributu-arau batzuk aldatzen dituen legean.

125. artikulua. *Autonomia-estatutua duten autonomia-erkidegoen eta hirien finantzaketa-sistemako baliabideen behin betiko likidazioa eta Konbergentzia Funtsetako partaidetza.*

Bat. Abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 11. artikulua 2. paragrafoak xedatutakoaren arabera, 2014an lege horretako I. tituluan araututako baliabide guztien 2012ko behin betiko balioak ezagutzen direnean, ekitaldi horretako likidazioa egingo da. Aipaturiko 11. artikulua 3 paragrafoan xedatutakoari jarraiki, une horretan zehaztuko da autonomia-estatutua duen autonomia-erkidego edo hiri bakoitzak 2012ko Konbergentzia Autonomikorako Funtsetan izango duen partaidetza, abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 23. eta 24. artikuluetan, lehen xedapen iragankorraren Zazpi paragrafoaren hirugarren lerrokadan eta lehenengo xedapen gehigarrian adierazitakoan oinarrituz. Konbergentzia Autonomikorako Funtsak lege horren beraren II. tituluan daude araututa.

Bi. 2012ko likidazioaren saldo globala autonomia-estatutua duen autonomia-erkidegoaren edo hiriaren aldekoa bada, likidazio positiboaren ordainketak egitean, saldoen zenbatekoa Estatuaren alde deskontatuko dira, konpentsazio bidez.

Hiru. Likidazioaren saldo globala Estatuaren aldekoa bada, abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 11.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, erkidegoaren aldeko likidazioen ordainketak egitean hauek deskontatuko dira, ordena honetan: Berme Funtsaren Transferentziako Estatuaren aldeko saldoa, lagatako tributuen saldoa eta Nahikotasun Globalaren Funtsaren saldoa.

Kompentsatu gabe geratu diren gainerako likidazio-saldoak abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 11.3 artikuluan xedatutakoaren arabera konpentsatuko dira.

Lau. Abenduaren 18ko 22/2009 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraiki, Estatuak, legez aurreikusitako kasuan, konpentsatu egingo ditu Oinarritzko Zerbitzu Publikoen Berme Funtsaren eta Nahikotasun Globalaren Funtsaren transferentziei dagokienez 2012an zenbateko negatiboak dauzkaten autonomia-erkidegoak; Estatuak Bost paragrafoan adierazitako aurrekontu-kredituaren bidez egingo du konpentsazio hori. Konpentsazio horrek ikur positiboa izango du, eta zenbateko hauxe, autonomia-erkidego jasotzaile bakoitzerako: Lehiakortasun Funtseko baliabide guztiak banatu ostean, abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 23. artikulua 5 paragrafoan deskribatutako finantzaketa-indizea unitatea izan dadin aukera ematen duena; muga, betiere, Nahikotasun Globalaren Funts negatiboaren behin betiko balioaren zenbatekoa izango da.

Artikulu honen aurreko paragrafoetan ezarritakoaren ondorioetarako, konpentsazioaren zenbatekoa autonomia-erkidegoak Lehiakortasun Funtsean duen partaidetzaren behin betiko likidazioan sartuko da.

Bost. Ondoko arau hauek erantsiko zaizkie 36. Ataleko 20. Zerbitzuko «Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia. Hainbat autonomia-erkidego» 941M Programako «Autonomia-erkidegoei egin beharreko transferentziak, Estatuaren diru-sarreretan duten partaidetzagatik» 452 Kontzeptuko «Autonomia-estatutua daukaten autonomia-erkidegoen eta hirien finantzaketaren aurreko ekitaldietako behin betiko likidazioa» kredituei:

1) Abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 20. artikuluan araututako Nahikotasun Globalaren Funtsaren 2012ko behin betiko likidazioen zenbatekoa, bai eta Estatuak Oinarrizko Zerbitzu Publikoen Berme Funtzari egindako ekarpenarena ere, autonomia-estatutua duten autonomia-erkidegoen eta hirien aldekoak badira.

Aurreko paragrafoan aipatzen den behin betiko likidazioen zenbatekoa Estatuaren aldekoa bada, eskubide gisa adieraziko da Estatuako Diru Sarreraren Aurrekontuan, IV. kapituluan.

2) Autonomia-estatutua duten autonomia-erkidegoek eta hiriek abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 23. eta 24. artikuluetan, lehen xedapen iragankorren Zazpi paragrafoaren hirugarren lerrokadan eta lehenengo xedapen gehigarrian araututako Konbergentzia Autonomikorako Funtsetan 2012an izandako partaidetzen behin betiko likidazioen zenbatekoa, artikulua honen Bat paragrafoan adierazitakoaren arabera zehaztuta.

3) Abenduaren 18ko 22/2009 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian xedatutako konpentsazioa, aplikaziozkoa izanez gero, artikulua honetako Lau paragrafoaren adierazitakoaren arabera zehaztuta.

126. artikulua. *Autonomia-erkidegoei egindako transferentziak, eskualdatutako zerbitzu berrien kostua dela kausa.*

2014ko urtarrilaren 1etik aurrera autonomia-erkidegoei zerbitzuen transferentzia berriak egiten bazaizkie, Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiak zehazten dituen 36. ataleko kontzeptu espezifikotan beharrezko diren kredituak hornituko dira, autonomia-erkidegoei beren gain hartutako zerbitzuen benetako kostua transferitzeko.

Ondorio horietarako, zerbitzu-transferentzia berriak onartzen dituzten errege-dekretuek alderdi hauek zehaztuko dituzte, gutxienez:

a) Autonomia-erkidegoak zein egunetan hartu behar duen bere gain transferitu zaion zerbitzuaren kudeaketa.

b) 2014ko ekitaldiaren urteko finantziazioa eurotan, horren barruko gastu-kapituluetan xehatuta.

c) 2007 oinarri-urteari dagokion balioespena, urte horretako benetako kostuari dagokionez, dagokion autonomia-erkidegoaren Nahikotasun Globalaren Funtseko balioa berrikusteko, 22/2009 Legearen 21.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

127. artikulua. *Lurralde arteko konpentsazio-funtsak.*

Bat. Estatuaren Aurrekontu Orokorren 33 Atalean, lurralde arteko bi konpentsazio-funts ezarri dira, lurralde arteko konpentsazio-funtsak arautzen dituen abenduaren 27ko 22/2001 Legeak xedatutakoari jarraiki, zeina abenduaren 18ko 23/2009 Legeak aldatu zuen. Aipatutako bi funtsen batura 432.430,00 mila eurokoa da.

Bi. Konpentsazio Funtza, 324.330,60 mila eurokoa, 22/2001 Legearen 2. artikuluan aurreikusitako inbertsio-gastuak finantzatzeko erabiliko da.

Hiru. Funtz Osagarria, 108.099,40 mila eurokoa, Estatuaren Aurrekontu Orokorren 33 Atalaren kargura egindako inbertsioak abiarazteko edo horien funtzionamendurako gastuak finantzatzeko erabili ahal izango dute autonomia-estatutua daukaten autonomia-erkidegoek eta hiriek, 22/2001 Legearen 6.2 artikulua aurreikusitako baldintzetan.

Lau. Autonomia-erkidegoei bideratutako Konpentsazio Funtsaren ehunekoa, inbertsio publikoaren kalkulu-oinarriarekiko, 100eko 30,26 izango da, aipatutako legearen 2.1.a) artikulua arabera. Gainera, 22/2001 Legearen xedapen gehigarri bakarra betez,

autonomia-erkidegoei bideratutako Konpentsazio Funtsaren eta Funts Osagarriaren batura den ehuneko 100eko 40,35 izango da; autonomia-estatutua duten Ceuta eta Melilla hiriak barne hartuz gero, 100eko 40,98; eta 22/2001 Legea aldatzen duen 23/2009 Legean zehaztutako «eskualde ultraperiferikoa» aldagaia aintzat hartuta, 100eko 41,39.

Bost. Aipatutako funtsen kargura finantza daitezkeen inbertsio-proiektuak 33 Atalaren eranskinean zehaztutakoak dira.

Sei. 2014ko ekitaldian, ondoko autonomia-erkidego hauek izango dira funtsen onuradun: Galizia, Andaluzia, Asturias, Kantabria, Murtziako Eskualdea, Valentziako Erkidegoa, Gaztela-Mantxa, Kanariak, Extremadura, Gaztela eta Leon, eta Ceuta eta Melilla hiriak, abenduaren 27ko 22/2001 Legearen xedapen gehigarri bakarra betez.

Zazpi. Aurreko ekitaldietako lurralde arteko konpentsazio-funtsetako kreditu-geldikinak 2014ko Aurrekontuan sartuko dira automatikoki, eta 2013ko abenduaren 31n proiektuak gauzatzeko ardura zeukan Administrazio beraren esku egongo dira.

Aurreko lerrokadan adierazitako sarrerak finantzatzeko, kreditu bat sortu da honako kontzeptu honetan: 33. Atala «Lurralde arteko konpentsazio-funtsak», 20. Zerbitzua «Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia. Hainbat autonomia-erkidego», 941N Programa «Autonomia-erkidegoei egin beharreko transferentziak, lurralde arteko konpentsazio-funtsengatik», 759 Kontzeptua «Lurralde arteko konpentsazio-funtsetako kreditu-geldikinen sarrera finantzatzeko».

Geldikinak, 2013ko abenduaren 31n, adierazitako kredituaren zuzkidura baino handiagoak izanez gero, aldea finantzatzeko baja egingo da Kontingentzia Funtsean, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 50. artikuluan xedatutakoa betez.

Zortzi. Aurreko ekitaldietako aurrekontu-kredituetako geldikinak indarreko ekitaldian sartzean, Altxor Publikoak diruzaintza-aurrerakinak eman ahal izango dizkie autonomia-erkidegoei, haiek eskatutako funtsen zenbateko berekoak, sarrera hori egitean jaso beharreko baliabideen «kontura».

## VIII. TITULUA

### Gizarte-kotizazioak

128. artikulua. *Gizarte Segurantzari, langabeziari, jarduera amaitzeagatiko babesari, Soldata Bermatzeko Funtsari eta Lanbide Heziketari 2014an dagozkien kotizazio-oinarriak eta -tasak.*

2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, honako hauek izango dira Gizarte Segurantzari, langabeziari, jarduera amaitzeagatiko babesari, Soldata Bermatzeko Funtsari eta Lanbide Heziketari dagozkien kotizazio-oinarriak eta -tasak:

Bat. Gizarte Segurantzari kotizatzeke oinarrien gehieneko eta gutxieneko mugak.

1. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriaren gehieneko muga hilean 3.597,00 eurokoa izango da, gehieneko muga ezarrita duten erregimenetan.

2. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginak, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, 16. artikulua 2 zenbakian ezarritakoari jarraiki, eta artikulua honetan zehaztutako gertakariei dagokienez, Gizarte Segurantzako Erregimenetako kotizazio-oinarrien gutxieneko muga, 2014an, une bakoitzean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa seiren batean areagotuta izango da, kontrakoa adierazten duen xedapen espresik denean salbu.

Bi. Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko kotizazio-oinarriak eta -tasak.

1. Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrek babestutako gertakari eta egoera guztietarako –laneko arriskuak eta lanbide-gaixotasunak izan ezik– hileko kotizazio-

oinarriek gutxieneko eta gehieneko oinarri hauek izango dituzte, lanbide-kategoria bakoitzean:

a) Gutxieneko kotizazio-oinarriak, lanbide-kategorien eta kotizazio taldeen arabera, lanbide arteko gutxieneko soldata handitzen den ehuneko berean handituko dira 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2013ko abenduaren 31n indarren zeudenez.

Lanaldi partzialeko kontratua duten langileei aplikatzekoak diren gutxieneko kotizazio-oinarriak doitu egingo dira, kontratazio-aldiera horretako kotizazioa denbora-unitate bera eta antzeko ordainsaria duen arduraldi osoko kotizazioarekin parekatzeko.

b) 2014an, gehieneko oinarriak hilean 3.597,00 eurokoak edo egunean 119,90 eurokoak izango dira, lanbide-kategoria eta kotizazio taldea edozein direla ere.

2. 2014an, hauek izango dira Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorreko kotizazio-tasak:

a) Gertakari arrunten kasuan, 100eko 28,30. Ehuneko horretatik, 100eko 23,60 enpresaren kontura izango da, eta 100eko 4,70 langilearen kontura.

b) Lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen kasuan, 2007rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian jasotako primen tarifaren ehunekoak aplikatuko dira. Prima horiek enpresak ordaindu beharko ditu, oso-osorik.

3. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 111. artikuluan ezarritako aparteko orduen kotizazio osagarriko, kotizazio-tasa hauek aplikatuko dira 2014an:

a) Ezinbestek eragindako aparteko orduen kasuan, 100eko 14,00. Ehuneko horretatik, 100eko 12,00 enpresaren kontura izango da, eta 100eko 2,00 langilearen kontura.

b) Aurreko lerrokan jasota ez dauden aparteko orduen kasuan, 100eko 28,30. Ehuneko horretatik, 100eko 23,60 enpresaren kontura izango da, eta 100eko 4,70 langilearen kontura.

4. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, merkataritza-ordezkariei aplikatzeko gertakari arruntengatiko gehieneko kotizazio-oinarria Bi.1.b) paragrafoan kasu orokorretarako xedatutakoa izango da.

5. Artisten gertakari arruntengatiko 2014ko gehieneko kotizazio-oinarria zehazteko, ondoko arau hauek aplikatuko dira:

a) Lanbide-kategoria ezberdinetako talde guztientzako gehieneko kotizazio-oinarria hilean 3.597,00 eurokoa izango da.

Nolanahi ere, artista batek enpresa batentzat edo gehiagorentzat egindako jarduerengatik izango dituen kotizazio-oinarrien gehieneko muga urtekoa izango da, eta adierazitako hileko gehieneko oinarriaren urteko kopuruaz zehaztuko da.

b) Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak, aurreko paragrafoan ezarritako gehieneko oinarria eta mugak aintzat hartuta, artisten behin-behineko likidazioak zehazteko kotizazio-oinarriak ezarriko ditu. Likidazio horiek abenduaren 22ko 2064/1995 Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren beste eskubide batzuen kotizazioari eta likidazioari buruzko Erregelamendu Orokorren 32.5.b) artikuluan daude jasota.

6. Zezenketako profesionalen gertakari arruntengatiko 2014ko gehieneko kotizazio-oinarria zehazteko, ondoko arau hauek aplikatuko dira:

a) Lanbide-kategoria ezberdinetako talde guztientzako gehieneko kotizazio-oinarria hilean 3.597,00 eurokoa izango da. Nolanahi ere, zezenketako profesionalen kotizazio-oinarrien gehieneko muga urtekoa izango da, eta adierazitako hileko gehieneko oinarriaren urteko kopuruaz zehaztuko da.

b) Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak, aurreko paragrafoan ezarritako gehieneko oinarria eta mugak aintzat hartuta, zezenketako profesionalen behin-behineko

likidazioak zehazteko kotizazio-oinarriak ezarriko ditu. Likidazio horiek abenduaren 22ko 2064/1995 Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren beste eskubide batzuen kotizazioari eta likidazioari buruzko Erregelamendu Orokorren 33.5.b) artikuluan daude jasota.

Hiru. Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean zehaztutako Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Bereziko kotizazioa.

1. 2014an, sistema berezi honen barruan dauden eta zerbitzua hilabete osoan ematen duten langileen gertakari arrunt zein profesionalengatiko hileko kotizazio-oinarrien zenbatekoak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 109. artikulua xedatutakoaren arabera zehaztuko dira, eta gutxieneko eta gehieneko oinarri hauek aplikatuko zaizkie:

a) Gutxieneko kotizazio-oinarriak, lanbide-kategorien eta kotizazio taldeen arabera, lanbide arteko gutxieneko soldata handitzen den ehuneko berean handituko dira 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2013ko abenduaren 31n indarren zeudenekiko.

b) 2014an, gehieneko oinarriak hilean 2.595,60 eurokoak izango dira, lanbide-kategoria eta kotizazio taldea edozein direla ere.

Langileek hilabete naturalaren hasierarekin edo amaierarekin bat ez datorren egun batean hasten edo amaitzen badute jarduera, eta jarduera horren iraupena elkarren segidako gutxienez 30 egun naturalekoa bada, kotizazio-modalitate hori Sistema Berezi honetan hilabete zehar altan egondako eguneko proportzionala izango da.

2. 2014an, lanegun errealean gertakari arrunt zein profesionalengatiko eguneko kotizazio-oinarrien zenbatekoak, nekazaritza-lanak besteren kontura egiten dituzten langileen talde bakoitzari dagozkionak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 109. artikulua xedatutakoaren arabera zehaztuko dira, aurreko paragrafoan adierazitako kotizazio-modalitatea hautatu ez badute. Horretarako, Hiru.1 paragrafoan ezarritako gehieneko eta gutxieneko oinarrien zenbatekoak 23rekin zatituko dira.

Lanegun bakoitzean lanean emandako orduen kopurua edozein dela ere, kotizazio-oinarriaren zenbatekoa ezin izango da 10. kotizazio taldearen eguneko gutxieneko oinarria baino txikiagoa izan.

Hilabete naturalean 23 lanegun erreal edo gehiago egiten badira, horien kotizazio-oinarria Hiru.1 paragrafoan ezarritakoa izango da.

3. 2014an, Sistema Berezi honen barruan dauden besteren konturako nekazaritzako langileen hileko kotizazio-oinarriaren zenbatekoa hauxe izango da hilabete naturalaren barruan jarduerarik gabe izandako aldietan: Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko kotizazio taldeen eskalako 7. taldearentzat gertakari arruntengatiko gutxieneko oinarriko ezarritakoa.

Ondorio horietarako, hilabete naturalaren barruan jarduerarik gabeko aldiak izan direla suposatuko da, epealdi horretan benetako lanean izandako aldien kopurua txikiagoa denean hilabete horretan langilea Sistema Berezian altan egon den egun naturalen 100eko 76,67 baino.

Jarduerarik gabeko aldi horiei dagokien kotizazioa zehazteko, ondoko formula hau aplikatuko da:

$$C = [(n/N) - (jr \times 1,304/N)] bc \times tc$$

Non:

C= Kotizazioaren zenbatekoa.

n= Sistema Berezian kotizatu gabe emandako egunen kopurua bider hileko kotizazio-oinarriak.

N= Hilabete naturalean Sistema Berezian altan egondako egunen kopurua.

jr= Hilabete naturalean benetan lanean izandako egunen kopurua.

bc= Hileko kotizazio-oinarria.

tc = Kotizazio-tasa aplikagarria, Hiru.4.b) paragrafoan jasotakoaren arabera.

Aurreko formula aplikatzean lortutako C-ren balioa ezin izango da zerotik beherakoa izan.

Formula hori aplikatzeari dagokionez, langileak ez badira Sistema Berezian hilabete natural osoan altan egon, jarduerarik gabeko aldien kotizazioa hilabete horretan altan egondako egunekiko proportzionala izango da.

4. Sistema Berezian honetan dauden eta besteren kontura lan egiten duten langileen kotizazioari tasa hauek aplikatuko zaizkio:

a) Jardunean egondako aldietan:

Gertakari arruntei dagokienez, 1. kotizazio taldeko langileek 100eko 28,30 kotizatuko dute. Ehuneko horretatik, 100eko 23,60 enpresaren kontura izango da, eta 100eko 4,70 langilearen kontura.

2. kotizazio taldetik 11.era artean dauden langileek 100eko 21,55 kotizatuko dute. Ehuneko horretatik, 100eko 16,85 enpresaren kontura izango da, eta 100eko 4,70 langilearen kontura.

Lan-istripuengatik eta lanbide-gaixotasunengatik gertakariak kotizatzeari dagokionez, 2007rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritako primen tarifa-tasak aplikatuko dira. Prima horiek enpresak ordaindu beharko ditu, oso-osorik.

b) Jarduerarik gabeko aldietan, kotizazio-tasa 100eko 11,50 izango da, eta langileak ordaindu beharko du, oso-osorik.

5. 2014an, ondoko murrizketa hauek aplikatuko zaizkie enpresek Sistema Berezian honen kotizaziora egindako ekarpenei, jardunean egondako aldietan zerbitzuak eman direnean:

a) 1. kotizazio taldeko langileen kotizazioari dagokionez, kotizazio-oinarriari ehuneko 8,10 puntuko murrizketa aplikatuko zaio; hortaz, gertakari arruntengatik kotizazio-tasa 100eko 15,50 izango da. Nolanahi ere, enpresak ordaindu beharreko kuota ezin izango da hilean 279,00 eurokoa edo lanean emandako egun bakoitzeko 12,13 eurokoa baino handiagoa izan.

b) 2. kotizazio taldetik 11.era bitartean dauden langileen kotizazioari dagokionez, murrizketak arau hauek bete beharko ditu:

1.) Hileko kotizazio-oinarria 986,70 eurokoa edo txikiagoa denean, edota lanean emandako egun bakoitzeko 42,90 eurokoa edo txikiagoa, kotizazio-oinarriari ehuneko 6,50 puntuko murrizketa aplikatuko zaio; hortaz, gertakari arruntengatik kotizazio-tasa 100eko 10,35 izango da.

2.) Kotizazio-oinarriak aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoak baino handiagoak direnean, eta gehienez ere hilean 2.595,60 eurokoak edota lanean emandako egun bakoitzeko 112,85 eurokoak, ondoko formula hauek aplikatzean lortutako ehunekoak aplikatuko zaie kotizazio-oinarri horiei:

Hileko kotizazio-oinarrietarako, formula hau aplikatuko da:

$$\% \text{ hileko murrizketaren} = 6,50\% \times \left( 1 + \frac{\text{Hileko oinarria} - 986,70}{\text{Hileko oinarria}} \right) \times 2,52 \times \frac{6,15\%}{6,50\%}$$

Lanean emandako egunen kotizazio-oinarrietarako, formula hau aplikatuko da:

$$\% \text{ eguneko murrizketaren} = 6,50\% \times \left( 1 + \frac{\text{Eguneko oinarria} - 42,90}{\text{Eguneko oinarria}} \right) \times 2,52 \times \frac{6,15\%}{6,50\%}$$

Nolanahi ere, enpresak ordaindu beharreko kuota ezin izango da hilean 60,25 eurokoa edo lanean emandako egun bakoitzeko 2,62 eurokoa baino txikiagoa izan.

6. Jarduneko aldiko aldi baterako ezintasun, amatasun, aitatasun, haurdunaldiko arrisku nahiz edoskialdi naturaleko arrisku-egoeretan, kotizazioa langileen kontratazio-modalitatearen arabera izango da:

a) Kontratu mugagabea duten nekazaritzako langileen kasuan, aipatutako egoeretako kotizazioa Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko arau orokorrek zehazten dutena izango da. Ondoko tasa hauek aplikatu beharko dira:

1.) 1. kotizazio taldeko langileen kasuan, gertakari arruntengatiko kotizazio-oinarriari 100eko 15,50eko tasa aplikatuko zaio.

2.) 2. kotizazio taldetik 11.era bitartean dauden langileen kasuan, gertakari arruntengatiko kotizazio-oinarriari 100eko 2,75eko tasa aplikatuko zaio.

Langile guztien kasuan, haien kotizazio taldea edozein dela ere, langabezia-kotizazioari dagokion kuotari kotizazio-oinarriaren ehuneko 2,75 puntuko murrizketa aplikatuko zaio.

b) Aldi baterako kontratua eta kontratu finko etena duten nekazaritzako langileen kasuan, a) paragrafoan ezarritakoa aplikatuko da kontratatutako egunetan zerbitzua ematerik izan ez dutenean, lehen adierazitako egoeretako batean egotearen ondorioz.

Zerbitzua ematea aurreikusi ez den egunei dagokienez, langileek jarduerarik gabeko aldiei dagokien kotizazioa ordaindu beharko dute, amatasun- eta aitatasun-laguntzak jasotzean izan ezik, horiek kotizazio-epeak izango baitira honako prestazio hauei dagokienez: erretiroa, ezintasun iraunkorra, heriotza eta bizirik irautea.

7. Kontribuzio-mailako langabezia-prestazioa jaso bitartean, Sistema Berezi honetan kotizatu behar izanez gero, kotizazio-tasa 100eko 11,50 izango da.

8. Sistema berezi honetako langileei ez zaie aplikatuko Bi.3 paragrafoan adierazitako aparteko orduengatiko kotizazio gehigarria.

9. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioari baimena ematen zaio jarduneko aldien eta jarduerarik gabekoen kotizazioa harmonizatzeko beharrezkoak diren prozedurak arautzeko eta egokitzapenak egiteko, aurreikusitako murrizketak aplikatzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta horietatik eratorritako kotizazioak erregularizatzeko.

Lau. Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean zehaztutako Etxeko Langileentzako Sistema Bereziko kotizazioa.

2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, ondorengo kotizazio-oinarri eta -tasa hauek aplikatuko dira sistema berezi honetan:

1. 2014an gertakari arruntengatiko eta profesionalengatiko kotizazio-oinarriak zehazteko, lanbideen arteko gutxieneko soldataren igoeraren proportzio berean eguneratuko dira 2013an indarrean zegoen eskalako hileko ordainsariak eta kotizazio-oinarriak.

2. 2014an, gertakari arruntengatiko kotizazio-tasa 100eko 23,80 izango da, aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera dagokion kotizazio-oinarriaren gainean kalkulatuta. Ehuneko horretatik, 100eko 19,85 enplegu-emaileak ordaindu beharko du, eta 100eko 3,95 enplegatuek.

3. Lan-istripuengatiko eta lanbide-gaixotasunengatiko gertakariak kotizatzeari dagokionez, Lau.1 paragrafoan adierazitakoaren arabera dagokion kotizazio-oinarriaren gainean, 2007rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritako primen tarifa-tasak aplikatuko dira. Prima horiek enplegu-emaileak ordaindu beharko ditu, oso-osorik.

4. 2014an, 100eko 20ko murrizketa aplikatuko zaio enpresak sistema berezi honetan Gizarte Segurantzari gertakari arruntengatik egin beharreko ekarpenari. Murrizketa horren onuradunak 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera etxeko langile bat edozein modalitatetan kontratatatu duten eta Erregimen Orokorrean altan jarri duten enplegu-emaileak izango dira;



betiere, enplegatua ez bada 2011ko abuztuaren 2tik abenduaren 31ra arteko aldiaren enplegu-emaile berdinentzat Etxeko Langileen Erregimen Berezian lanaldi osorako altan egon. Familia ugarien kasuan, kuoten murrizketa 100eko 45era iritsi arte zabalduko da, hobari baten bidez, Familia Ugariak Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako moduan.

Kotizazioko hobari horiek ez zaizkie aplikatuko etxeko langileei, baldin eta enplegu-emaile bakoitzari hilean ematen dizkioten zerbitzuak 60 ordutik beherakoak badira, eta sistema horretako enkoadratze, kotizazio eta bilketa betebeharrak onartzen badituzte.

Bost. Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Erregimen Bereziko kotizazioa.

2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, ondoko hauek izango dira Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Erregimen Bereziko gehieneko eta gutxieneko oinarriak eta kotizazio-tasak:

1. Gehieneko kotizazio-oinarria hilean 3.597,00 eurokoa izango da. Gutxieneko kotizazio-oinarria hilean 875,70 eurokoa izango da.

2. 2014ko urtarrilaren 1ean 47 urte baino gutxiago dauzkaten langile autonomoen kasuan, haiek hautatuko dute kotizazio-oinarria, aurreko paragrafoan zehaztutako gehieneko eta gutxieneko oinarrien barruan. Aukera hori bera izango dute data horretan 47 urte dituzten autonomoek, baldin eta haien kotizazio-oinarria, 2013ko abenduan, hilean 1.888,80 eurokoa edo gehiagokoa izan bada, edota Erregimen Berezian aipatutako datatik aurrera egin badute alta.

2014ko urtarrilaren 1ean 47 urte dauzkaten langile autonomoek ezin izango dute hilean 1.926,60 euro baino gehiagoko oinarria aukeratu, haien kotizazio-oinarria hilean 1.888,80 eurokoa baino txikiagoa bada. Nolanahi ere, muga horretatik salbuesita egongo dira, batetik, halako aukera 2014ko ekainaren 30a baino lehen egiten dutenak –aukera horrek urte horretako uztailearen 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak–, eta, bestetik, negozioaren titularraren ezkontide alarguna, titularraren heriotzaren ondorioz negozioaren buru jarri behar izan denean, eta Erregimen Berezian alta 47 urterekin egin behar izan duenean.

3. 2014ko urtarrilaren 1ean 48 urte edo gehiago dauzkaten langile autonomoen kotizazio-oinarria hilean 944,40 eta 1.926,60 euro artekoa izango da. Salbuespen gisa, negozioaren titularraren ezkontide alargunaren kasuan, titularraren heriotzaren ondorioz negozioaren buru jarri behar izan denean, eta Erregimen Berezian alta 45 urterekin edo gehiagorekin egin behar izan duenean, kotizazio-oinarria hilean 875,70 eta 1.926,60 euro artekoa izango da.

Hala ere, 50 urte bete aurretik Gizarte Segurantzako sistemaren erregimenetako batean bost urtez edo gehiagoz kotizatu duten autonomoek arau hauek bete beharko dituzte:

a) Egiaztatutako azken kotizazio-oinarria hilean 1.888,80 eurokoa edo gutxiagokoa izan bada, haien kotizazio-oinarria hilean 875,70 eta 1.926,60 euro artekoa izango da.

b) Egiaztatutako azken kotizazio-oinarria hilean 1.888,80 eurotik gorakoa izan bada, haien kotizazio-oinarria hilean 875,70 euroren eta egiaztatutako azkenaren zenbatekoaren artekoa izango da, ehuneko 5 areagotuta. Kotizazio-oinarria hilean 1.888,80 eurotik beherakoa bada, hilean 1.926,60 euro arteko oinarria hautatzeko aukera izango dute.

Bost.3.b) paragrafoan aurreikusitakoa berdin aplikatuko zaie 48 edo 49 urterekin abenduaren 22ko 39/2010 Legearen 132. artikulua Lau.2 paragrafoaren bigarren letrakadan xedatutako aukera hartu duten autonomoei.

4. Salgaiak kalean edo etxez etxe saltzen dituzten langile autonomoek (EJSN 4781 Elikagaien, edarien eta tabako-produktuen txikizkako merkataritza salmenta-postuetan eta azoka txikietan; 4782 Ehun-produktuen, janzkien eta oinetakoen txikizkako merkataritza salmenta-postuetan eta azoka txikietan; 4789 Beste produktu batzuen

txikizkako merkataritza salmenta-postuetan eta azoka txikietan eta 4799 Establezimenduetan, salmenta-postuetan edota azoka txikietan egiten ez diren txikizkako beste salerosketa batzuk), 2014an, Bost paragrafoko 1 puntuan izaera orokorrarekin ezarrita dagoen oinarria aukeratu ahal izango dute gutxieneko kotizazio-oinarri gisa, edota Erregimen Orokorrerako indarrean dagoena.

Salgaiak etxez etxe saltzen dituzten langile autonomoek (EJSN 4799), 2014an, Bost paragrafoko 1 puntuan izaera orokorrarekin ezarrita dagoen oinarria aukeratu ahal izango dute gutxieneko kotizazio-oinarri gisa, edota horren 100eko 55en baliokidea den kotizazio-oinarria.

5. Gizarte Segurantzako Erregimen Berezi honetako kotizazio-tasa 100eko 29,80 izango da; interesduna jarduera uzteagatiko babes-sistemari atxikita egonez gero, berriz, 100eko 29,30 izango da. Interesdunak aldi baterako ezintasunagatiko babesik ez duenean, kotizazio-tasa 100eko 26,50 izango da.

Erregimen Berezi honen barruan dauden langileek, lan-istripuek eta lanbide-gaixotasunek eragindako gertakarietarako estaldurarik ez dutenean, aukeratutako kotizazio-oinarriari 100eko 0,10 erantsi beharko diote kotizazio gehigarri gisa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren II. tituluko IV quater eta IV quinquies kapituluetan jasotzen diren prestazioak finantzatzeko aldera.

6. Lan-istripuegatiko eta lanbide-gaixotasunengatiko gertakarietarako dagokienez, 2007rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritako primen tarifa-ehunekoak aplikatuko dira.

7. Aldi berean egiten duten besteren konturako lanagatik jarduera-aniztasun erregimenean 2014an gertakari arruntengatik 12.215,41 euro edo gehiago kotizatzen duten langile autonomoek, kontuan hartuta bai enpresaren eta langilearen Erregimen Orokorreko ekarpenak, bai Erregimen Berezian egindakoak ere, aipatutako zenbatekoa gaitzen duen gehiegizko kotizazioaren 100eko 50 berreskuratzeko eskubidea izango dute; betiere, aipatutako Erregimen Berezian sartutako kuoten 100eko 50 izango da muga, nahitaez estali beharreko gertakariengatiko kotizazioa dela-eta.

Zenbateko hori berreskuratzeko, eskaera egin beharko du interesdunak; zehazki, hurrengo ekitaldiko lehen lauhilekoan.

8. Salgaiak kalean saltzen dituzten eta diru-sarrerak zuzenean erosleengandik jasotzen dituzten lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Erregimen Berezian sartuko dira Gizarte Segurantzaren ondorioetarako; kotizazioari dagokionez, Bost paragrafoko 4 puntuaren lehenengo lerrokadan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Salgaiak merkatu tradizionalan edo azoka txikietan saltzen dituztela egiaztatzen dutenek, egunean zortzi ordu baino gutxiagoan, Bost paragrafoko 1 puntuan ezarritako gutxieneko kotizazio-oinarria aukeratu ahal izango dute, edota oinarri horren 100eko 55en baliokidea dena. Nolanahi ere, nahitaez kotizatu beharko dute lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen gertakariengatik. Xede horretarako, 2007rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritako primen tarifa aplikatuko zaio aukeratutako kotizazio-oinarriari.

9. Salgaiak kalean saltzen dituzten lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek, Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Erregimen Berezian sartuta gelditu direnean, ordaindu beharreko kuotan 100eko 50eko murrizketa izateko eskubidea izango dute 2014an, 2009rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 2/2008 Legearen 120.Lau.8 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Murrizketa horretarako eskubidea izango dute, halaber, salgaiak kalean saltzen dituzten lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileek, baldin eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi badira jardueran eta aipatutako Erregimen Berezian sartu badira.

Murrizketa honela zehaztuko da: Bost paragrafoko 8 puntuan xedatutakoaren arabera aukeratutako gutxieneko oinarriari Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Erregimen Berezian indarrean dagoen kotizazio-tasa ezarrita.

10. Lo dispuesto en el segundo párrafo del apartado Cinco. Bost.8 paragrafoaren bigarren lerrokadan xedatutakoa honako hauei aplikatuko zaie: salgaiak merkatu

tradizionaletan edo azoka txikietan indibidualki saltzen aritzen direnei, egunean zortzi ordu baino gutxiagoan, establezimendu finko propioa ez badute, eta saltzen dituzten artikuluak edo produktuak ekoizten ez badituzte.

11. 2013ko uneren batean euren zerbitzura besteren konturako 50 langile edo gehiago aldi berean kontratatuta izan dituzten langile autonomoen kasuan, gutxienezko kotizazio-oinarria Erregimen Orokorreko 1. kotizazio taldeko langileentzat aurreikusitakoa izango da.

Sei. Nekazaritza-arloan norberaren gain diharduten langileentzako kotizazioa sistema berezian, norberaren gain edo autonomo gisa diharduten Langileen Araubide Berezian ezarria.

1. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, ondoko hauek izango dira Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Erregimen Berezian zehaztutako Nekazaritzako Norberaren Konturako Langileentzako Sistema Bereziko langileen kotizazio-tasak:

a) Nahitaez estali beharreko gertakariei dagokienez, langileak aukeratutako kotizazio-oinarria hilean 875,70 eta 1.050,90 euro artekoa denean, aplikatu beharreko kotizazio-tasa 100eko 18,75 izango da.

Langileak aukeratutako kotizazio-oinarria hilean 1.050,90 eurotik gorakoa bada, zenbateko horretatik gorako kopuruari 100eko 26,50eko kotizazio-tasa aplikatuko zaio.

b) Gertakari arruntengatiko aldi baterako ezintasunaren borondatezko hobekuntzari dagokionez, interesdunaren kotizazio-oinarriaren zenbateko osoari aplikatu beharreko kotizazio-tasa 100eko 3,30ekoa izango da; interesduna jarduera uzteagatiko babes-sistemari atxikita egonez gero, berriz, 100eko 2,80koa izango da.

2. Lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen gertakariei dagokienez, Bost.6 paragrafoan xedatutakoa beteko da. Interesdunek ez badute gertakari profesional guztiak estaltzea hautatu, Sei.1.a) paragrafoan adierazitako kotizazio-oinarriari 100eko 1,00eko tasa aplikatuta lortzen den kuota ordaintzen jarraituko dute, ezintasun iraunkorraren eta heriotzaren nahiz bizirik irautearen gertakarien estaldura gisa.

3. Sistema Berezi honen barruan dauden langileek, lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen gertakari guztiei estaldura ez ematea erabaki badute, aukeratutako kotizazio-oinarriari 100eko 0,10eko kotizazio gehigarria erantsitako zenbatekoa kotizatuko dute, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko II. tituluko IV quater eta IV quinquies kapituluetan jasotzen diren prestazioak finantzatze aldera.

Zazpi. Itsasoko Langileen Erregimen Bereziko kotizazioa.

1. Bat eta Bi paragrafoetan xedatutakoa Itsasoko Langileen Erregimen Berezian aplikatuko da, bai eta, hala badagokio, gertakari arruntengatiko kotizaziorako, abenduaren 30eko 116/1969 eta ekainaren 21eko 24/1972 legeen testu bateginaren, abuztuaren 30eko 2864/1974 Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 19.6 artikuluan xedatutakoa eta hurrengo 2 paragrafoan ezarritakoa ere. Salbuespen izango da norberaren konturako langileen gertakari arruntengatiko kotizazio-tasa, 100eko 29,30ekoa izango baita; interesduna jarduera uzteagatiko babes-sistemari atxikita ez badago, berriz, 100eko 29,80koa izango da.

2. Abuztuaren 30eko 2864/1974 Dekretuaren bidez onetsitako testu bateginaren 19.5 artikulua aipatzen dituen bigarren eta hirugarren taldeetako langileei dagozkien honako Erregimen Berezi honetan babestutako gertakari eta egoera guztien kotizazioak Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren agindu bidez urtero zehaztutako ordainsarien gainean gauzatuko dira. Itsasoko Gizarte Institutuak egingo du aginduaren proposamena, sektoreko erakunde adierazgarriak entzun ostean. Zehaztapen hori probintzia, arrantza-modalitate eta lanbide-kategoria bakoitzeko egingo da, aurreko urtean jasotako ordainsariaren batez besteko balioetan oinarrituta.

Zehazturiko oinarriak bakarrak izango dira, eta ezin izango dira Bi paragrafoaren 1 lerrokadan xedatutakoaren arabera kategoría profesional bakoitzerako ezarritakoa baino txikiagoak edo handiagoak izan.

Zortzi. Ikatz Meatzaritzako Erregimen Bereziko kotizazioa.

1. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, Ikatz Meatzaritzako Erregimen Bereziari dagokion kotizazioa zehazteko, Bi paragrafoan aurreikusitakoa aplikatuko da; gertakari arrunten kasuan, hala ere, kotizazio-oinarriak honako arau hauen arabera normalizatuko dira:

Lehenengoa. Langileek 2013ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra artean, biak barne, jaso dituzten edota eskubidez jaso zitzaketen ordainsarien zenbatekoa hartuko da kontuan. Zenbateko horiek konputagarriak izango dira lan-istripuengatik eta lanbide-gaixotasunengatik kotizazioari dagokionez.

Bigarrena. Ordainsari horiek kategoría, talde profesional, espezialitate profesional nahiz meatzaritzako eremuen arabera taldekatuko dira; betiere, Gizarte Segurantzaren Beste Eskubide Batzuen Kotizazioari eta Likidazioari buruzko Erregelamendu Orokorren 57. artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta. Modu horretara lorturiko zenbatekoak dagozkien egunen baturaz zatituko dira.

Hirugarrena. Emaizta hori gertakari arruntengatik eguneko kotizazio-oinarri normalizatua izango da. Oinarri horren zenbatekoa ezin izango da aurreko ekitaldian lanbide-kategoría horretarako finkatutakoa baino txikiagoa izan, indarreko ekitaldian izandako ehuneko berean handituta, Bat.1 paragrafoan aipatzen den gehieneko kotizazioa gehitu ostean. Era berean, ezin izango da aipaturiko gehienekoa urteko zenbateko bihurtu, eta 2013ko egun naturalen artean zatitu ostean lortzen den kopurua baino handiagoa izan.

2. Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak finkatuko du oinarri normalizatuen zenbatekoa, aurreko zenbakian xedatutako arauak aplikatuz.

Bederatzi. Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarria, langile autonomoek kontribuzio-mailako langabezia-prestazioa jaso bitartean eta jarduera uzteagatik prestazioa jaso bitartean.

1. 1.Lan-harremana iraungitzearen ondorioz langabezia-prestazioa jaso bitartean, Gizarte Segurantzari kotizatzeke betebeharra daukaten langileen kotizazio-oinarria langabezia-prestazioaren oinarri arautzailea izango da, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 211. artikuluan 1 paragrafoan xedatutakoa, lanbide-kategoría bakoitzerako aurreikusitako gertakari arruntengatik gutxieneko oinarriaren zenbatekoa aintzat hartuta. Gizarte Segurantzaren prestazioei dagokienez, gertakari arruntengatik kotizazio-oinarritzat joko da oinarri hori.

Lan-harremana aldi baterako etetearen edota lanaldia aldi baterako murriztearen ondorioz langabezia-prestazioa jaso bitartean, dela enpresaburuak hala erabaki duelako, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, dela konkurtso-prozedura batean emandako ebazpen judizial batek hala agindu duelako, kotizatzeke legezko betebeharra duten langileek Gizarte Segurantzari kotizatu beharrekoaren oinarria lanean egon bitartean hala gertakari arruntengatik nola lan-istripuengatik zein lanbide-gaixotasunengatik gertakariengatik kotizaturiko azken sei hilabeteetako oinarrien batez bestekoa izango da; zehazki, langabezia-egoera baino lehenagoko edota kotizatzeke legezko betebeharra bukatu baino lehenagoko oinarriena.

Langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea etenda izan ostean berreskuratzen duenak kotizatzeke ekin beharko dio berriz ere, eskubidea berreskuratzeke uneari dagokion kotizazio-oinarriaren arabera, aurreko lerrokadetan adierazitakoa aintzat hartuta.

Langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea iraungita badago, eta, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 210. artikuluko 3 paragrafoan xedatutakoan oinarrituz, langileak hasierako eskubidea berreskuratzea erabakitzen badu,

Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioaren oinarria eskubidea jaiotako uneari dagokion langabezia-prestazioaren oinarri arautzailea izango da.

Prestazioa jaso bitartean, ondoko kasuan soilik eguneratuko da aurreko lerrokatetik adierazitako kotizazio-oinarria: oinarri hori txikiagoa denean langilea langabezian gelditzean haren kotizazio-taldeari dagokion gutxieneko kotizazio-oinarria baino, aipatutako mugarekin.

2. Kontribuzio-mailako langabezia-prestazioa jaso bitartean, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean zehaztutako Besteren Konturako Langileentzako Nekazaritzako Erregimen Berezian kotizatu behar dutenen kotizazio-oinarria Bederatzi.1 paragrafoan izaera orokorrekarekin adierazitakoa izango da. 1.

3. Langabezia-prestazioa jaso bitartean, Ikatz Meatzaritza Erregimen Berezian kotizatu behar dutenen kotizazio-oinarria hauexek izango da: langilea legez langabezian gelditzean, haren kategoriari edo espezialitate profesionalari dagokion indarreko kotizazio normalizatua.

Kotizazio-oinarria une bakoitzean indarrean dagoen oinarriaren arabera eguneratuko da, langilea legez langabezian gelditzean haren kotizazio taldeari edota kategorian edo espezialitate profesionalari dagokion aintzat hartuta.

4. Langile autonomoek jarduera uzteagatik prestazio ekonomikoa jaso bitartean, dagokion erregimeneko gertakari arruntengatik kotizazio-oinarria prestazio horren oinarri arautzailea izango da, langile autonomoek jarduera uzteagatik berariazko babes-sistema ezartzen duen abuztuaren 5eko 32/2010 Legearen 9.1 artikuluan xedatutako moduan zehaztuta; betiere, aintzat hartuko da dagokion erregimenean aurreikusitako gutxieneko kotizazio-oinarriaren edo kotizazio-oinarri bakarraren zenbatekoa.

Gizarte Segurantzako kotizazioak arautzen dituen araubidearekin bat etorritik, jarduerak dirauen bitartean norberaren konturako langileentzako edo autonomoentzako gutxieneko kotizazio-oinarri arrunta baino gutxiago kotizatzen duten kolektiboek kotizazio-oinarri murriztuan kotizatuko dute jarduera uzteagatik prestazioak jaso bitartean.

Hamar. Langile autonomoen langabeziagatik, Soldatak Bermatzeko Funtsagatik, lanbide-heziketagatik eta jarduera uzteagatik kotizazioa.

2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, ondoren adierazitakoarekin bat etorritik gauzatu da langabeziagatik, Soldatak Bermatzeko Funtsagatik, lanbide-heziketagatik eta jarduera uzteagatik gertakarien kotizazioa:

1. Langabeziagatik, Soldatak Bermatzeko Funtsagatik eta lanbide-heziketagatik kotizazio-oinarria, horiek estaltzen dituzten Gizarte Segurantzako erregimen guztietan, lan-istripuengatik eta lanbide-gaixotasunengatik gertakari dagokiena izango da.

Itsasoko Langileen Erregimen Bereziko langabeziagatik kotizazio-oinarri abuztuaren 30eko 2864/1974 Dekretuaren bidez onetsitako testu bateginaren 19.6 artikuluan xedatutakoa ere aplikatuko zaie, bai eta manu hori garatzen duten arauak zehaztutakoa ere, Zazpi paragrafoan adierazitakoari kalterik egin gabe.

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean zehaztutako Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian dauden langileen langabeziagatik, Soldatak Bermatzeko Funtsagatik eta lanbide-heziketagatik kotizazio-oinarriak Hiru.1 eta Hiru.2 paragrafoetan finkatutakoak izango dira, langile bakoitzari gertakari profesionalengatik dagokion kotizazio-aldaren arabera.

Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuen langabeziagatik kotizazio-oinarria lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen gertakari dagokien gutxieneko oinarria izango da.

Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Erregimen Bereziko langileen jarduera uzteagatik babesari dagokion kotizazio-oinarria erregimen horretan dauden langileek hautatu dutena izango da, bai eta adierazitako Erregimen Berezian zehaztutako Norberaren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Bereziko langileena ere.

Itsasoko Langileen Erregimen Berezian, jarduera uzteagatik kotizazio-oinarria erregimen horretan norberaren konturako langileari dagokiona izango da, eta bi arau hauetako koefiziente zuzentzaileak aplikatuko zaizkio: batetik, Itsasoko Langileen Gizarte

Segurantzako Erregimen Berezia arautzen duen abenduaren 30eko 16/1969 Legearen eta ekainaren 21eko 24/1972 Legearen testu bateginak, abuztuaren 30eko 2864/1974 Dekretuaren bidez onetsitakoak, zehaztutakoa, eta, bestetik, 1974ko azaroaren 22ko Aginduak zehaztutakoa.

Aurreko lerrokadan adierazitakoa langile autonomoentzat jarduera uzteagatiko berriazko babes-sistema ezartzen duen urriaren 31ko 1541/2011 Errege Dekretuaren, abuztuaren 5eko 32/2010 Legea garatzen duenaren, seigarren xedapen gehigarrian zehaztutako ontzien armadoreei ere aplikatuko zaie; ez, ordea, aipatutako Erregimen Bereziko lehen taldekoei, haien kotizazio-oinarria lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen gertakariari dagokiena izango baita.

2. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, kotizazio-tasak honako hauek izango dira:

A) Langabezia-gertakariari dagokionez:

a) Kontratazio mugagabea, lanaldi partzialeko kontratu mugagabeak eta aldizkako lan-kontratu finkoak barne; era berean, iraupen mugatuko kontratazioa, honako modalitate hauetan: praktikaldikoak, prestakuntzakoak eta ikaskuntzakoak, txandakakoak eta bitarteko kontratuak. Azkenik, kontratu-modalitatea edozein izanda ere, desgaitasunen bat duten langileekin egindako kontratuak: 100eko 7,05. Ehuneko horretatik, 100eko 5,50 enpresaburuaren kontura izango da, eta 100eko 1,55 langilearen kontura.

b) Iraupen mugatuko kontratazioa:

1. Lanaldi osoko iraupen mugatuko kontratazioa: 100eko 8,30; hortik 100eko 6,70 enpresaburuaren kontura izango da, eta 100eko 1,60 langilearen kontura.

2. Lanaldi partzialeko iraupen mugatuko kontratazioa: 100eko 9,30; hortik 100eko 7,70 enpresaburuaren kontura izango da, eta 100eko 1,60 langilearen kontura.

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean zehaztutako Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian barne hartuta dauden aldi baterako besteren konturako langileen kotizazio-tasa aurreko b) paragrafoaren 1. tartekian finkatutakoa izango da lanaldi osoko iraupen mugatuko kontratazioen kasuan. Iraupen mugatuko kontratu zehatzei edota desgaitasunen bat duten langileei, berriz, aurreko a) lerrokadan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

B) Soldatak Bermatzeko Funtzari kotizatzeari dagokionez, 100eko 0,20 enpresaren kontura.

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean zehaztutako Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian, Soldatak Bermatzeko Funtserako kotizazio-tasa 100eko 0,10 izango da, enpresaren kontura oso-osorik.

C) Lanbide Heziketagatiko kotizazioari dagokionez, 100eko 0,70. Ehuneko horretatik, 100eko 0,60 enpresaren kontura izango da, eta 100eko 0,10 langilearen kontura.

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean zehaztutako Besteren Konturako Nekazaritzako Langileentzako Sistema Berezian, Lanbide Heziketarako kotizazio-tasa 100eko 0,18 izango da. Ehuneko horretatik, 100eko 0,15 enpresaren kontura izango da, eta 100eko 0,03 langilearen kontura.

D) Jarduera uzteagatiko babesari dagokionez, tasa 100eko 2,20 izango da.

Hamaika. Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuakotizazioa.

2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuak enpresaburuak eta langileak ordaindu beharreko kuotak (gertakari arruntengatik, gertakari profesionalengatik, langabeziagatik, Soldatak Bermatzeko Funtsera eta Lanbide

Heziketagatik) Erregimen Orokorreko gutxieneko oinarria handitzen den ehuneko berean handituko dira, 2013ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.

Hamabi. Prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileen kotizazioa.

Urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuan dauden eta prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileen kotizazioari dagokionez, lehenengo bi urteetan aurreko paragrafoan jasotako arauak aplikatuko dira prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuetan gertakari arruntengatiko eta profesionalengatiko kotizazioan.

Paragrafo honetan aurreikusitako kotizazio-sistemak ez du eraginik izango jaso beharreko prestazio ekonomikoen zenbatekoa zehazteko unean; horri dagokionez, Erregimen Orokorreko 1. kotizazio taldeari dagokion gutxieneko oinarriaren zenbatekoa aplikatzen jarraituko da.

Hamahiru. Kotizazioak suhiltzaileen erretiro-adina aurreratzearekin lotuta dituen berezitasunak.

Martxoaren 14ko 383/2008 Errege Dekretuak herri-administrazio eta -erakundeen zerbitzura lan egiten duten suhiltzaileen erretiro-adina murrizteko koefizientea ezartzen du; suhiltzaile horien gertakari arruntengatiko kotizazio-oinarriari kotizazio-tasa gehigarria aplikatuko zaio, hala enpresaren, nola langilearen kasuan.

2014an, aurreko lerrokadan aipaturiko kotizazio-tasa gehigarria 100eko 8,00 izango da. Ehuneko horretatik, 100eko 6,67 enpresaren kontura izango da, eta 100eko 1,33 langilearen kontura.

Hamalau. Kotizazioak ertzainen erretiro-adina aurreratzearekin lotuta dituen berezitasunak.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginak berrogeita zazpigarren xedapen gehigarriari adierazten dituen ertzainei dagokienez, gertakari arruntengatiko kotizazio-oinarriari kotizazio-tasa gehigarria aplikatuko zaio, hala enpresaren, nola langilearen kasuan.

2014an, aurreko lerrokadan aipaturiko kotizazio-tasa gehigarria 100eko 7,10 izango da. Ehuneko horretatik, 100eko 5,92 enpresaren kontura izango da, eta 100eko 1,18 langilearen kontura.

Hamabost. Aurreko paragrafoetan xedatutakoa salbu, Gizarte Segurantzaren sistema osatzen duten erregimenetako gutxieneko oinarriak edo bakarrak ezin izango dira Erregimen Orokorreko gutxieneko oinarria baino txikiagoak izan, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 16. artikulua aplikatzearen ondorioz.

Hamasei. 2014an, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorren esparruan dauden enplegatu publikoen gertakari guztiengatiko kotizazio-oinarria 2010eko abenduan zena izango da; betiere, enplegatu publiko horiei maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarriari ezarritakoa aplikatu bazaie, eta haien lan-edota zerbitzu-harremanak indarrean badirau. Nolanahi ere, jasotako ordainsariak direla-eta, zenbateko horrek handiagoa beharko lukeenean, azken hori hartuko da hileko kotizazioa egiteko oinarri gisa.

Aurreko lerrokadan adierazitakoaren ondorioetarako, 2010eko abenduko kotizazio-oinarriari hilabetetik gorako sortzapen-aldia duten ordainsarien zenbatekoak kenduko zaizkio, hala badagokio, edota, aldi behingoak ez izanik, oinarri hori hainbanaketara jo gabe aplikatu duten zenbatekoak.

Hamazazpi. Enpleguko eta Gizarte Segurantzako ministroari ahalmena ematen zaio artikulua honetan aurreikusitakoa aplikatu eta garatzeko beharrezko diren arauak emateko.

129. artikulua. *Funtzionarioen eskubide pasibo eta mutualitate orokorretarako 2014rako kotizazioak.*

Bat. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, honako hauek izango dira Estatuak Estatuko Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzako Erregimen Berezira egin beharreko kotizazioen eta ekarpenen tasak –Erregimen Berezi hori Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioen Mutualitateak (MUFACE) kudeatzen du, ekainaren 23ko 4/2000 Legegintzako Errege Dekretuan adierazitakoak–, aipaturiko xedapeneko 12. artikulua zehazten dituen prestazioak finantzatzeko, h) lerrokadan adierazitakoa izan ezik:

1. MUFACEn sartuta dauden funtzionario aktiboen eta antzekoen kotizazio-ehunekoa eskubide pasiboak kotizatzeke 2013rako ezarritako hartzeko arautzaileen gaineko ehuneko 1,69 izango da, ehuneko 0,25 handituta.

2. Estatuak egin beharreko ekarpena, 4/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 35. artikuluan araututa dagoena, eskubide pasiboak kotizatzeke 2013rako ezarritako hartzeko arautzaileen gaineko ehuneko 5,17 izango da, ehuneko 0,25 handituta. 5,17ko tasa horretatik, 4,10 Estatuak aktiboagatik egindako ekarpenari dagokio, eta 1,07 kotizatzeke betebeharretik salbuetsita dagoen pentsiodunak egindako ekarpenari.

Bi. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, honako hauek izango dira Estatuak, aipaturiko xedapeneko 9. artikulua zehazten dituen prestazioak finantzatzeko –f) lerrokadan adierazitakoa izan ezik–, Indar Armaturen Gizarte Segurantzako Erregimen Berezira egin beharreko kotizazioen eta ekarpenen tasak –Erregimen Berezi hori Indar Armaturen Gizarte Institutuak (ISFAS) kudeatzen du, ekainaren 9ko 1/2000 Legegintzako Errege Dekretuan adierazitakoak–:

1. ISFASen sartuta dauden militar aktiboen eta antzekoen kotizazioaren eta ekarpenaren ehunekoa eskubide pasiboak kotizatzeke 2013rako ezarritako hartzeko arautzaileen gaineko ehuneko 1,69 izango da, ehuneko 0,25 handituta.

2. Estatuak egin beharreko ekarpena, 1/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 30. artikuluan araututa dagoena, eskubide pasiboak kotizatzeke 2013rako ezarritako hartzeko arautzaileen gaineko ehuneko 9,36 izango da, ehuneko 0,25 handituta. 9,36ko tasa horretatik, 4,10 Estatuak aktiboagatik egindako ekarpenari dagokio, eta 5,26 kotizatzeke betebeharretik salbuetsita dagoen pentsiodunak egindako ekarpenari.

Hiru. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, honako hauek izango dira Estatuak Justizia Administrazioiko Funtzionarioen Gizarte Segurantzako Erregimen Berezira egin beharreko kotizazioen eta ekarpenen tasak –Erregimen Berezi hori Mutualitate Judizialak (MUGEJU) kudeatzen du, ekainaren 23ko 3/2000 Legegintzako Errege Dekretuan adierazitakoak–, aipaturiko xedapeneko 12. artikulua zehazten dituen prestazioak finantzatzeko, f) lerrokadan adierazitakoa izan ezik:

1. MUGEJUn sartuta dauden Justizia Administrazioiko langile aktiboen eta antzekoen kotizazio-ehunekoa eskubide pasiboak kotizatzeke 2013rako ezarritako hartzeko arautzaileen gaineko ehuneko 1,69 izango da, ehuneko 0,25 handituta.

2. Estatuak egin beharreko ekarpena, 3/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren 23. artikuluan araututa dagoena, eskubide pasiboak kotizatzeke 2013rako ezarritako hartzeko arautzaileen gaineko ehuneko 5,12 izango da, ehuneko 0,25 handituta. 5,12ko tasa horretatik, 4,10 Estatuak aktiboagatik egindako ekarpenari dagokio, eta 1,02 kotizatzeke betebeharretik salbuetsita dagoen pentsiodunak egindako ekarpenari.

Lau. 2014an, aurreko paragrafoetan xedatutakoari jarraiki, Estatuko Klase Pasiboen Erregimenaren eta Funtzionarioen Erregimen Berezien eremuan dauden langileen eskubide pasiboaren kuotaren zenbatekoa eta funtzionarioen mutualitateei dagokiena zehazteko, ehuneko 3,86ko eta ehuneko 1,69ko tasa aplikatuko da, hurrenez hurren, eskubide pasiboak kotizatzeke 2013rako ezarritako hartzeko arautzaileen gainean, ehuneko 0,25 handituta. Hona hemen xehetasunak:



Estatuko funtzionario zibilen, Indar Armatuetao kideen, Karrera Judizialeko eta Fiskaleko kideen, Idazkari Judizialen Kidegoko kideen eta Justizia Administrazioaren Zerbitzura dauden Kidegoetako kideen eskubide pasiboen hileko kuotak

Taldea/Azpitaldea, 7/2007 Legea	Hileko kuota, eurotan
A1.....	109,31
A2.....	86,03
B.....	75,34
C1.....	66,08
C2.....	52,28
E (30/1984 Legea) eta Elk. Profesionalak (7/2007 Legea) . . .	44,57

Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorrari, Indar Armatuetao Gizarte Institutuari eta Mutualitate Judizial Orokorrari kotizatzeo hileko kuotak

Taldea/Azpitaldea, 7/2007 Legea	Hileko kuota, eurotan
A1.....	47,86
A2.....	37,67
B.....	32,98
C1.....	28,93
C2.....	22,89
E (30/1984 Legea) eta Elk. Profesionalak (7/2007 Legea) . . .	19,51

Adierazitako hileko zenbateko horiek bikoiztuta ordainduko dira ekainean eta abenduan.

Estatuko Klase Pasiboei buruzko Legearen testu bateginaren 23.1 artikuluaeren lehenengo lerrokaaren azken tartekian aipatutako salbuespena kontuan hartuta, eta bertan xedatutakoekin bat etorritz, karrerakoak ez diren militar profesionalak eta Osagarrien nahiz Itsas Erreserba eskaletako militarrek ehuneko berrogeita hamarreaan murriztuta ordainduko dituzte eskubide pasiboei dagozkien hileko kuotak.

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo. *Aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren edo gastu-arauaren helburua betetzen ez duten autonomia-erkidegoei diru-laguntzak ematea edo hitzarmenak sinatzea.*

Bat. Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 20.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, Lege hau indarrean sartzen denetik 2014ko abenduaren 31ra arte, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 2.1. artikuluan adierazitako Administrazio zentraleeo azpisektorea edo Gizarte Segurantzako Administrazioen azpisektorea osatzen duten subjektuek Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren nahitaezko txosten loteslea beharko dute, aldekoa, diru-laguntzak ematea edo hitzarmenak sinatzea baimendu aurretik, baldin eta diru-laguntza edo hitzarmen horiek 2012, 2013 edo 2014ko ekitaldietarako aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren edota gastu-arauaren helburua bete ez duten autonomia-erkidego bateko Administrazioarekin, artikulua horretan xedatutakoaren arabera definitutakoarekin, egitekoak badira; betiere, horrelakoan bidez, Administrazio zentraleeo edo Gizarte Segurantzako Administrazioen azpisektoreek autonomia-erkidego ez-betetzailari baliabideak transferitzen badizkiote, azken horri gastuak egiteko konpromisoa sortzen badiote, edota bi egoerak aldi berean gertatzen badira.

2012ko aurrekontuak betearazteari dagokionez, aurrekontu-egonkortasunaren helburua bete ez dela joko da, baldin eta hala ondorioztatzen bada Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak autonomia-erkidegoetako Zerga eta Finantza Politikako Kontseiluari aurkeztutako txostenetik, Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 17.3 artikuluan xedatutakoa betez.

2013ko aurrekontuak betearazteari dagokionez, aurreko lerrokadan aipaturiko txostena ematen ez den bitartean, eta xedapen gehigarri honetan adierazitakoaren ondorioetarako, aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren edota gastu-arauaren helburua bete ez dela iritziko zaio autonomia-erkidego bakoitzaren 2013ko ekitaldiko itxiera-aurreikuspenek hala islatzen dutenean. Aurreikuspen horiek Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak argitaratzen ditu.

2014ko aurrekontuei dagokienez, aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren edota gastu-arauaren helburua bete ez dela joko da, baldin eta hala ondorioztatzen bada Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 17. artikuluan aipatutako txostenetatik. Txosten horren arabera, autonomia-erkidego batek 2014ko aurrekontuetan helburuak bete dituela egiaztatu arren, artikulua honetan xedatutako baimena beharko du, aurreko lerroketan xedatutakoaren arabera 2012an edo 2013an bete ez baditu.

Bi. Diru-laguntzak emateko edo hitzarmenak sinatzeko baldintza hori bera aplikatu beharko da Estatuko Gobernuak autonomia-erkidego bati ohartarazpena egiten dionean, Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren edo gastu-arauaren helburua ez betetzeko arriskuan dagoela adieraziz. Muga hori ohartarazpena egiten den unetik aurrera aplikatuko da.

Hiru. Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak aurreko paragrafoetan jasotako ez-betetzearen edo ohartarazpenaren berri emango die Ministerioko sailei, eta azken horiek atxikitako edo lotutako erakundeei jakinaraziko diete.

Lau. Aurreko paragrafoetan aurreikusitako kasuetan, sinatuta dauden eta betearazten ari diren hitzarmenak luzatu edo aldatu ahal izateko, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren aurretiko eta aldeko txostena beharko da.

Halaber, diru-laguntzak ematea aldatzeko, araudian hala aurreikusita egonez gero, ezinbestekoa izango da Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren aurretiko eta aldeko txostena.

Bost. Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzak igorriko du aurreko paragrafoetan aipatzen den Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren txostena. Txostenak irizpide hauek hartu ahal izango ditu kontuan, besteak beste:

a) Plan ekonomiko-finantzarioetan jasotako neurriak, horrelakorik badago, egoki aplikatzea.

a) Zenbatean desbideratu den finkatutako egonkortasunaren, zor publikoaren edo gastu-arauaren helburutik. Bigarren paragrafoaren kasuan, desbideratzeak ohartarazpena eragin zuen arrazoiari egingo dio erreferentzia.

c) Desbideratze horren zergatiak.

d) Hori zuzentzeko hartu diren neurriak.

e) Diru-laguntzak edo hitzarmenak defizitean edo zor publikoan izandako eragina eta helburua.

f) Gastua finantzatzeko proposatutako modua.

g) Unibertsitateekin edo ikerketa-organismoekin norgehiagokako prozesuen esparruan sinatzen diren diru-laguntzei edo ikerketa arloko hitzarmenei dagokienez, baldin eta Estatuak kostuaren ehuneko 100 finantzatzen badu, funtsen azken hartzailea ikertzailea den baloratuko da; hau da, unibertsitatea edo organismoa funtsak bideratzera mugatzen den.

Artikulu honetan araututako txostena Herri Administrazioen Estatuko Idazkaritzari kontsulta egin ondoren emango da; gutxienez paragrafo honetan ezarritako a), c) eta d)

irizpideen gaineko iritzia emango du, egoki deritzon beste edozer gauza jasotzeari kalterik egin gabe.

*Bigarrena. Estatuko Aurrekontu Orokorren kontura finantzaturako maileguak eta aurrerakinak.*

Bat. Aurrekontu-egonkortasunarekin eta finantza-iraunkortasunarekin loturiko helburuak betetze aldera, zuzenean edo zeharka Estatuko Aurrekontu Orokorren 8. kapituluaren kontura finantzaturiko maileguak eta aurrerakinak emateko, honako arau hauek bete beharko dira 2014an:

a) Ogasuneko eta Herri Administrazioetako ministroak berariazko baimena ematean salbu, maileguak eta aurrerakinak ezin izango dira eman antzeko epemuga duten tresnetan Estatuak igorritako Zorrak duen interes-tasa baino txikiagoan.

Norgehiagoka-prozeduren bidez eman beharreko mailegu eta aurrerakinen kasuan, aipaturiko baldintza deialdia onartu aurretik bete beharko da.

Interes-tasaren zehaztapena espedientearen justifikatu beharko du dagokion kudeaketa-organoak. Adierazitako erreferentziarekin zuzeneko loturarik egin ezin bada, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren txostena ere aurkeztu beharko da.

Arau hori ez da aplikatuko ondoko kasu hauetan:

- Langileei ematen zaizkien aurrerakinak.
- Erkidegoko funtsez osaturik dauden eta itzuli beharrekoak diren aurrerakinak.
- Interes-tasa lege-lerruneko arauen bidez araututa daukaten mailegu edo aurrerakinak.
- Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari Esportaziorako Kreditu Asegururako emandako maileguak.

b) Maileguen edo aurrerakinen onuradunek egiaztatu beharko dute egunean daukatela aurrez Estatuko Aurrekontu Orokorren kontura eskuratutako beste edozein mailegu edo aurrerakin itzultzeko betebeharraren ordainketa. Gastua kudeatzen duen zentroari dagokio, ordainketa egin aurretik, baldintza horiek betetzen direla egiaztatzea. Beste modu batera egiaztatu ezin duenean, onuradunaren erantzukizunpeko adierazpena eskatuko du, edota organo eskudunaren ziurtagiria, onuraduna herri-administrazio bat baldin bada.

Bi. Ogasuneko eta Herri Administrazioetako ministroaren aginduz, xedapen honetan ezarritakoa betetzeko beharrezko diren jarraibideak emango dira.

*Hirugarrena. Kredituen zentralizazioa.*

Sortu egin da «Hainbat Ministerioren Gastuak» 31. Atalaren «Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusia» 05 Aurrekontu Zerbitzua; 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta epe mugagabearen egongo da indarrean.

Kontratuak zentralizatzearen ondorioz Aurrekontu Zerbitzu horrek dituen gastuak 923R Aurrekontu Programara egotziko dira, «Kontratazio Zentralizatua».

2014an, Lege honen 1. artikulua a), b), d), e) eta f) paragrafoetan aipatutako erakundearen kreditu-zuzkidurak, zentralizatutako jotako kontratuei dagokienez, erabili ahal izango dira 31 Atalaren «Hainbat Ministerioren Gastuak» 05 Aurrekontu Zerbitzuan, «Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusia», islatuko den gastu-aurrekontua finantzatzeko, dagozkion kreditu-transferentziak eginez horretarako; transferentzia horiek Ogasuneko eta Herri Administrazioetako ministroak onartuko ditu, Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Orokorren ekimenez, eta Ogasuneko eta Herri Administrazioetako idazkariordeak proposatuta.

Aldatzeko espedienteak hasiko dira Gorteen onartutako Estatuaren Aurrekontu Orokorretan onartutako kredituak egozteko aurrekontu-prozesu informatikoa amaitutakoan.

2015etik aurrera, kreditua esleitzeko sistema horrekin batera aurrekontu-zerbitzu horri esleitzen zaion hasierako zuzkidura ere egongo da, izapidetutako kontratu zentralizatuekin bat.

*Laugarrena. Herri Administrazioaren Institutu Nazionala organismo autonomoaren diruzaintzako geldikinak sartzea.*

Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioren mende dagoen Herri Administrazioaren Institutu Nazionala organismo autonomoari (INAP) baimena ematen zaio organismoaren berezko diruzaintzako geldikinetan 2013ko ekitaldiaren amaieran erabili gabe zeuden zenbatekoak sartzeko; gehienez ere 185.640,00 euro. Zenbateko horiek INAPi Enplegurako Prestakuntza Planak gauzatzeko sustatzaile gisa emandako funtsetakoak eta herri-administrazioetako enplegurako trebakuntza-programarekin zerikusia duten jarduera osagarrietara zuzendutakoak izango dira.

*Bosgarrena. Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen Elizaren Ondasun Higigarrien Inbentarioari dagokionez finkatutako epea aldatzea.*

Lege hau indarrean sartzetik, urtebetez luzatuko da 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian zehaztutako epea, ondoko arau hauekin lotuta: aparteko interes publikoko gertaeren tasak eta zerga-onurak aldatzeko abenduaren 29ko 4/2004 Legearen bigarren xedapen gehigarria; neurri fiskalak, administrazio-neurriak eta gizarte-arlokoak arautzen dituen abenduaren 30eko 42/1994 Legearen lehenengo xedapen iragankorra, eta Espainiako Historia Ondareari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen bosgarren xedapen iragankorra.

*Seigarrena. Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileen, autonomia-erkidegoen eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren arteko lankidetzak-hitzarmenak, aldi baterako ezintasuna kontrolatzeko eta jarraipena egiteko.*

Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileek autonomia-erkidegoekin eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalarekin aldi baterako ezintasuna kontrolatzeko eta jarraipena egiteko egindako lankidetzak-hitzarmenetan, autonomia-erkidegoek eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalak garatu beharreko jarduerak finantzatzeko aurreikusitako zenbateko osora arteko aurrerakina xedatu ahal izango da.

Ondorio horietarako, aurreko lerrokadan aipatutako hitzarmenak formalizatu baino lehen, Ministroen Kontseiluak baimena eman beharko du. Helburu horrekin, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren titularrak, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren txostena jaso ostean, dagokion proposamena egingo dio Ministroen Kontseiluari.

*Zazpigarrena. Gizarte Segurantzari emandako maileguak ezerezteko epea handitzea.*

Bat. 2014tik aurrera 10 urtera handituko da Estatuak Gizarte Segurantzari emandako mailegua ezerezteko epea; aipatutako mailegua azaroaren 13ko 6/1992 Errege Lege Dekretua, 280.558.000.000 pezetako (1.686.187.539,81 euro) aparteko kreditu bat emateari buruzkoa, betez eman zen, Gizarte Segurantzaren osasun-laguntzaren kostuak ekarritako obligazioak ezerezteko.

Bi. 2014tik aurrera 10 urtera handituko da Estatuak Gizarte Segurantzari emandako mailegua, 345.000.000.000 pezetakoa (2.073.491.760,12 euro), ezerezteko epea; aipatutako mailegua 1994rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 29ko 21/1993 Legearen 11. artikulua lau paragrafoaren arabera eman zen.

Zortzigarrena. *Alderdi politikoen funtzionamendu-gastuetarako eta segurtasun-gastuetarako Estatuaren urteko diru-laguntzak, 2014rako.*

Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren seigarren xedapen gehigarrian adierazitakoan oinarrituta, alderdi politikoen funtzionamendu-gastuetarako Estatuaren diru-laguntza (16.01.924M.485.01 aplikazioa) 52.704,14 mila eurokoa izango da 2014an, eta segurtasun-gastuetarako alderdi politikoetarako urteko diru-esleipena (16.01.924M.484 aplikazioa) 2.706,20 mila eurokoa.

Bederatzigarrena. *Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado SAren babesletza gizarte, kultura eta kirol arloko jarduerak egiten dituzten erakundeekin.*

2014. urtean, eta hurrengo hiru urteetan, Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado SAK lankidetzak eta babesletza-akordioak izenpetu eta finantzatu ahal izango ditu Espainiako Gurutze Gorriarekin eta Minbiziaren Kontrako Borrokarako Espainiako Elkartearekin. Akordio horietan ezarritako baldintzetan emango du finantzaketa, aipatutako erakunde bakoitzari honako ekarpen ekonomikoa bermatuz: azken lau ekitaldietan bi erakundeen alde egindako xede-zozketen ondorioz banaka jasotako diru-sarreraren batez bestekoaren adinakoa.

Horretaz gain, Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado SAK, 2014an, akordioak sinatu eta finantzatu ahal izango ditu beste erakunde batzuekin; besteak beste, gizarte-, kultura- eta kirol-jarduerak sustatzeko. Horretarako, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren aurretiko eta aldeko txostena beharko da. Halaber, 2013ko abenduaren 31 baino lehen sinatutako era horretako akordioak finantzatu ahal izango ditu.

Aurreko bi lerroketan xedatutako ekarpenak ez dira izango, guztira, Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado SAK zergen ostean 2013ko ekitaldian izandako etekinaren ehuneko 2 baino handiagoak.

Hamargarrena. *Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroaren (CDTI) aurrekontuak gauzatzeko arauak.*

Bat. 2014ko ekitaldian, Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroari maileguak eta aurrerakinak ematerakoan, Estatuko Aurrekontu Orokorren 8. kapituluaren kontura finantzatzen diren mailegu eta aurrerakinetarako Lege honen Bigarren xedapen gehigarrian ezarrita dauden arauak bete beharko dira.

Bi. Lege honen Bigarren xedapen gehigarriko Bat paragrafoaren a) idatz-zatian xedatutako baimena ez da beharrezkoa izango, baldin eta maileguei eta aurrerakinei aplikatu beharreko interes-tasa deialdia onartu aurreko hilabetean edo, hala badagokio, eman aurretiko hilabetean, Espainiako Bankuak argitaratutako urtebeterako Euriborraren interes-tasaren berdina edo handiago bada.

Hiru. CDTIk finantzatzeko beharrik ez izateko doituko du jarduera, betiere Kontu Nazionalen Europako Sistemaren arabera neurtuta.

Lau. Hiru hilean behin, CDTIk aurreko paragrafoetan araututako mugak betetzen direla egiaztatzearen egindako eragiketen berri emango dio Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioari.

Hamaikagarrena. *Laguntza itzulgarriak.*

Zientziari, Teknologiarri eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 33.1.b artikuluan ezarritakoaren arabera enpresei artikuluko horretan aurreikusitako jarduerak finantzatzeko diru-laguntza publikoak ematen zaizkienean, laguntza horiek osorik edo partzialki itzultzeko betebeharra ezarri ahal izango da. Azken kasu horretan, Estatuko Administrazio Orokorri lagako zaizkio emaitzen gaineko eskubideak, jarduerak gauzatzean lortutakoaren arabera, eta oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzetan. Manu honek aipatzen dituen ikerketa zientifikorako eta garapen teknologikorako laguntza publikoen itzulketak eragindako diru-sarrerak kreditua sortu ahal izango dute gastuen egoeraren aplikazio hauetan: 27.13.463B.740, 27.13.463B.760, 27.13.463B.760 eta 27.13.463B.780.

Hamabigarrena. *Ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-politikaren maileguak eta aurrerakinak.*

2014ko ekitaldian, 46. politikako («Ikerketa, garapena eta berrikuntza») kredituen konturako maileguak eta aurrerakinak emateko, ez da beharrezkoa izango Lege honen bigarren xedapen gehigarriaren Bat paragrafoaren a) idatz-zatian xedatutako baimena; betiere, maileguei eta aurrerakinei aplikatu beharreko interes-tasa deialdia onartu aurreko edo, hala badagokio, eman aurreko hilabeteari dagokionez Espainiako Bankuak argitaratutako urtebeterako Euriborraren interes-tasaren berdina edo handiago bada.

Hamahirugarrena. *Otsailaren 8ko 162/2002 Errege Dekretua aplikatuz egindako kreditu-sorrerak.*

Sustapen Ministeriora atxikitako enpresa-sektore publikoko erakundeek aurrez sartu ahal izango dute Altxor Publikoan, ekitaldi bakoitzaren hasieran eta dagozkion obren esleipen-aurreikuspenaren arabera, Espainiako Historia Ondareari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legea partzialki garatzeko urtarrilaren 10eko 111/1986 Errege Dekretuaren 58.6 artikuluan aipatutako ehunekoa –otsailaren 8ko 162/2002 Errege Dekretuak emandako idazketan–. Neurri horrek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta epe mugagabea egongo da indarrean.

Horrela egindako sarrerek, ekitaldia amaitzean, benetan egindako esleipenengatik egin beharreko zenbatekoa gainditzen badute, ateratzen den saldoa hurrengo ekitaldiari dagozkion ekarpenen bidez konpentsatuko da. Txikiagoak izanez gero, aldearen sarrera egingo da ondorengo ekitaldi horretako lehen bi hilabeteetan.

Hamalauugarrena. *Soldadutzako eta marineltzako militarrek.*

2014ko abenduaren 31n, tropetan eta itsas armadan 79.000 militar egongo dira gehienez.

Defentsa Ministerioari baimena ematen zaio Lege hau onesten denetik aurrera kideak hautatzeko eta errekrutatze prozesuak has ditzan.

Hamabosgarrena. *Atzerrian destinaturik dauden langileen zerbitzuagatiko kalte-ordainak.*

2014ko aurrekontu-ekitaldian, etenda gelditzen da zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuaren 26.3 artikulua.

Hamaseigarrena. *Gizarte Segurantzako lan-istripu eta gaixotasun profesionalen mutualitateetako eta horien zentro mankomunatueto, bai eta «likidazioan» dauden mankomunatueto erakundeetako ere, zuzendarien eta gainontzeko langileen ordainsariak.*

Bat. Lege hau indarrean sartzean Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateetako eta horien zentro mankomunatueto zuzendaritza-karguak betetzen dituztenek, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Legearen 2. artikuluan xedatutakoaren arabera Estatuko sektore publikoa osatzen dutenek, jasotzen dituzten ordainsariak, baldin eta erakundeko gastu-aurrekontuaren 130. kontzeptuaren «Laboral finkoa», 0 «Goi-kargudunak» eta 1 «Bestelako zuzendariak» azpikontzeptuen kontura ordaintzen badira, ezin izango dute gainditu Estatuko Gobernuak, horren aholkularitza-organoetako, Estatuko Administrazio Orokorreko, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko, Konstituzio Auzitegiko eta Kontuen Auzitegiko goi-kargudunei dagokien zenbateko handiena. Aurreko muga gorabehera, aipatutako zuzendaritza-kargudunek ordainsari osagarriak jaso ahalko dituzte, berau aplikatzearen ondoriozko kopuruaren gainetik; halakoetan, oinarriko ordainsariak beste ordainsari horiek xurgatu ahalko dituzte, eta haien dedikazio eskusiboa xedatuko da, eta, ondorioz, baita ordaindutako beste edozein jardueratan aritzeko bateraezintasuna ere.

Aurreko lerrokadan aipatutako pertsonen edozein kontzepturengatik jasotzen dituzten ordainsariak ezin izango dute, inola ere, hazkunderik izan 2014ko ekitaldian, 2013ko ekitaldian jasotako kopuruekiko.

Bi. Mutualitateetako eta haien zentro mankomunatuetoako zuzendaritza-kargudunak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasi badira zerbitzua ematen, erakundearen gastu-aurrekontuko 130. kontzeptuaren «Laboral finkoa», 0 «Goi-kargudunak», eta 1«Bestelako zuzendariak», azpikontzeptuen kargura edozein kontzepturengatik jaso beharreko oinarriko ordainsariak ezin izango dira Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileetako eta zerbitzu komunetako zuzendari nagusien ordainsari-erregimenean ezarritako zenbatekoak baino handiagoak izan.

Halaber, aurreko lerrokadan aipatutako pertsonen edozein kontzepturengatik jasotzen dituzten ordainsariak ezin izango dute, inola ere, hazkunderik izan 2014ko ekitaldian, 2013ko ekitaldian jasotako kopuruekiko.

Hiru. Mutualitateen eta haien zentro mankomunatuetoen zerbitzura dauden gainerako langileen ordainsariak Estatuko sektore publikoko langileez xedatutakoaren mende egongo dira; zehazki, lege honen 25. artikuluan xedatutakoaren mende, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak soldata-masa baimentzeko errekerimenduari buruz xedatutakoa izan ezik, hori ez baita aplikagarria izango.

Lau. Bat eta Bi paragrafoetan xedatutako mugak aplikatze aldera, konputagarriak izango dira mutualitateen ondare historikotik edo ondare horri lotutako erakundeetatik datozen ordainsariak ere.

Bost. Aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko zaie «likidazioan» dauden Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateen erakunde mankomunatuetoako langileei, zerbitzuak haiei likidazio-aldian ematen dizkieten bitartean.

Hamazazpigarrena. *Karrera judizialera eta fiskalera jotzeko Enplegu Publikoaren Eskaintza.*

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan ezarritako aurreikuspenak betetzeko, Lege honen 21.Hiru artikuluan aurreikusitako plazak pilatzearen ondorioz karrera judizialera eta fiskalera jotzeko egon daitekeen Enplegu Publikoaren Eskaintza gehienez 100 plazakoa izango da 2014an. Plaza horiek aldi baterako enplegua pixkanaka ordeztuko izango dira.

Hemezortzigarrena. *Birjartze-tasa pilatzea.*

Salbuespen gisa, eta Lege honen 21.Hiru artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Ogasuneko eta Herri Administrazioetako ministroak 21.Bat artikuluan zehaztutako lehentasunezko sektore bati edo batzuei dagokien birjartze-tasaren ondoriozko plaza batzuk kidego edo eskala batzuetan pila daitezzen proposatu ahal izango du, aipatutako manuan jasotako beste sektore batean edo batzuetan lehentasunez bete beharrekoak direla joz gero.

Hemeretzigarrena. *Bake-epaitegietako bake-epaileen eta idazkarien jardueragatiko konpentsazio ekonomikorako moduluak.*

Bat. Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 101. artikuluan xedatutakoari jarraiki izendatutako bake-epaileek ondoko ordainsari hauek jasoko dituzte urtean –2013ko abenduaren 31n indarrean zeuden berberak–, udalerriko zuzenbidezko biztanle-kopuruaren arabera:

	Urtean
1 eta 1.999 biztanle artean . . . . .	1.072,78
2.000 eta 4.999 biztanle artean . . . . .	1.609,11
5.000 eta 6.999 biztanle artean . . . . .	2.145,45
7.000 eta 14.999 biztanle artean . . . . .	3.218,15
15.000 biztanle edo gehiago . . . . .	4.290,85

Bi. Bake-epaitegi batean idazkari-lanak egiten dituzten langileek, Justizia Administrazioaren zerbitzura ari diren kidegoetakoek izan ezik, ordainsari hauek jasoko dituzte urtean –2013ko abenduaren 31n indarrean zeuden berberak–, udalerriko zuzenbidezko biztanle kopuruaren arabera:

	Urtean
1 eta 499 biztanle artean . . . . .	531,28
500 eta 999 biztanle artean . . . . .	789,11
1.000 eta 1.999 biztanle artean . . . . .	945,37
2.000 eta 2.999 biztanle artean . . . . .	1.101,55
3.000 eta 4.999 biztanle artean . . . . .	1.414,02
5.000 eta 6.999 biztanle artean . . . . .	1.726,50

Hiru. Ordainsari horiek dagozkien aurrekontu-aplikazioen kontura finantzatu dira, eta hiru hilean behin ordainduko dira; zehazki, martxoan, ekainean, irailean eta abenduan.

Hogeigarrena. *Merkataritza-sozietate publikoek 2014an langileak kontratatzea.*

Bat. 2014an, Lege honen 20. artikulua Bat paragrafoan aipatutako merkataritza-sozietate publikoek ezin izango dituzte langile berriak kontratatu. Salbuetsita egongo dira aurreko ekitaldietan hasitako deialdiei dagozkien kontratazioak edo Lege hau indarrean sartzean betearazten ari diren urte anitzeko programen edo planen esparruan nahitaezkoak direnak, betiere plan horiek ezarri badira legezko edo ohiturazko arauak betez.

Muga hori ez da aplikatuko dagokion merkataritza-sozietatea bilduta dagoen Estatuko, autonomia-erkidegoko edo tokiko sektore publikoan aldez aurretik harreman finkoa edo mugagabea duten langile funtzionario edo lan-kontratudunen kontratazioetan.

Ezohiko kasuetan bakarrik egin ahal izango dira aldi baterako kontratazioak, premiazkoak eta geroraezinak diren beharrak asetzeko.

Bi. Estatuko merkataritza-sozietateei dagokienez, langile berriak kontratzeko, edozelan ere, Bat paragrafoan xedatutakoaz gain, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioren aldeko txostena ere beharko da.

Halaber, aipatutako sozietateetan aurreko paragrafoan adierazitakoa aintzat hartuta aldi baterako kontratazioak egitean, dagokion sozietatean akzio gehien dituenak ezarritako irizpide eta jarraibideak bete beharko dira, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak aurretiko eta aldeko txostena eman ostean.

Hiru. Xedapen gehigarri honen Bat paragrafoan ezarritakoak oinarritzko izaera du, eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean emana dago.

Hogeita batgarrena. *Sektore publikoko fundazioetako eta partzuergoetako langileak kontratatzea 2014an.*

Bat. 2014an, sektore publikoko fundazioek eta partzuergoek ezin izango dute langile berririk kontratatu, Lege honen 20. artikulua Bat paragrafoan zehaztutako sektore publikoa osatzen duten administrazio eta organismoen gehiengo partaidetza badute.

Muga hori ez da aplikatuko sektore publikoko fundazioa edo partzuergoa bilduta dagoen Estatuko, autonomia-erkidegoko edo tokiko sektore publikoan aldez aurretik harreman finkoa edo mugagabea duten langile funtzionario edo lan-kontratudunen kontratazioetan.

Ezohiko kasuetan bakarrik egin ahal izango dira aldi baterako kontratazioak, premiazkoak eta geroraezinak diren beharrak asetzeko.

Bi. Sektore publikoko fundazioen eta Estatuko sektore publikoaren partaidetza nagusia duten partzuergoen kasuan, aurreko paragrafoan adierazitakoa aintzat hartuta aldi baterako kontratazioak egitean, tutoretzako sail edo organismoek edo partaidetza



nagusia dutenek ezarritako irizpide eta jarraibideak bete beharko dira, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak aurretiko eta aldeko txostena eman ostean.

Hiru. Xedapen gehigarri honen Bat paragrafoan ezarritakoak oinarritzko izaera du, eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean emana dago.

Hogeita bigarrena. *Estatuko Administrazio Orokorraren gastua mugatzea.*

2014an, ministerio-sailek proposatzen duten edozer jarduera berrik ezin du handitu administrazioaren zerbitzura dauden langileen gastu garbia.

Hogeita hirugarrena. *Defentsako unibertsitate-zentroetako irakasleen beharrak estaltzea.*

Dagokion gastu-aurrekontuaren I. kapituluaren aurrekontu-baliabideak errespetatu betiere, Lege honen 21. artikuluan ezarritako mugak ez zaizkie Defentsako unibertsitate-zentroei aplikatuko irakasleei dagokienez, harik eta horrelako zentroetan ematen dituzten unibertsitate-titulazioak ezartzeko prozesua amaitzen den arte.

Xede horretarako, 2014an, Gobernuak, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak proposatuta, baimena emango du aipatutako zentroetan gradu-tituluko lehen bi mailetako irakasleak sartzeko lan-eskaintza publikoa egiteko. Halaber, Defentsako unibertsitate-zentroek irakasleak aldi baterako kontratatu ahal izango dituzte, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 49., 50. 53. eta 54. artikuluetan aurreikusitako modalitateen arabera, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak baimena eman ostean, eta Lege honen 21. artikuluan xedatutakoa betez.

Aldez aurretik, baina, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak zentro horietako plantillak onartuko ditu gradu-tituluko aipatutako lehen bi mailetako irakasleei dagokienez, Defentsa Ministerioak proposatuta.

Hogeita laugarrena. *Gizarte Segurantzako familia-prestazioak.*

2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginak II. tituluaren IX. kapituluaren bigarren atalean araututakoaren arabera, ondoko hauek izango dira Gizarte Segurantzako familia-prestazioen zenbatekoa, ordaindutakoaren arabera ez denean, eta horiek eskuratzeko diru-sarreraren mugaren zenbatekoa:

Bat. 182 bis.1 artikuluan ezarritako esleipen ekonomikoaren zenbatekoa urtean 291 eurokoa izango da.

Bi. Hona hemen 182 bis.2 artikulua desgaitasuna duen seme-alaba edota zaintzapeko adingabea izatearen kasurako ezarritako esleipenen zenbatekoa:

a) 1.000 euro, seme-alabaren edota zaintzapeko adingabearen desgaitasun-maila ehuneko 33koa edo gehiagokoa denean.

b) 4.390,80 euro, kargupeko seme-alaba 18 urtetik gorakoa denean eta ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duenean.

c) 6.586,80 euro, kargupeko seme-alabak 18 urte baino gehiago dituen, ehuneko 75eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duenean, eta, anatomiako atalak edota funtzionalitatea galdu dituela-eta, inoren laguntza behar duenean eguneroko ekintzarik funtsezkoenak gauzatzeko, hala nola janzteko, lekualdatzeko, jateko edo antzekoetarako.

Hiru. Seme-alaba jaio edota adoptatzeagatik 186.1 artikulua ezartzen duen prestazioaren zenbatekoa 1.000 eurokoa izango da familia ugarien kasuan, guraso bakarreko familien kasuan eta desgaitasuna duten amen kasuan.

Lau. 182.1.c) artikuluan lehenengo eta bigarren lerroek aipatzen duten zaintzapeko seme-alaba edo adingabe bakoitzeko esleipena jasotzeko eskubidea izateko diru-sarreraren muga urtean 11.519,16 eurokoa da, eta 17.337,05 eurokoa familia ugarien kasuan; zenbateko hori 2.808,12 eurotan gehituko da laugarrenetik aurrerako seme-alaba bakoitzeko, laugarren hori barne.

Hogeita bosgarrena. *Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako desgaitasunik duten pertsonen eskubideei eta haiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateginean jasotako sorospen ekonomikoak eta laguntza-pentsioak.*

Bat. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako desgaitasunik duten pertsonen eskubideei eta haiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateginean jasotako sorospen ekonomikoek honako zenbateko hauek izango dituzte sorospen-klasearen arabera;

	Euro hileko
Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko sorospena .....	149,86
Hirugarren pertsona laguntzeagatiko sorospena .....	58,45
Mugikortasun- eta garraio-gastuetarako sorospena .....	62,90

Bi. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, 1960ko uztailaren 21eko Legean eta uztailaren 24ko 2620/1981 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera laguntza-pentsioak hilean 149,86 eurokoak izango dira. Ekainean eta abenduan, zenbateko bereko aparteko bi ordainsari ere ordainduko dira.

Hiru. Laguntza-pentsioak berraztertu egingo dira aldi-aldi, onuradunek laguntzak jaso ahal izateko baldintzak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko; hala egin ezean, eskubidea iraungitzat joko da, eta bidegabeki jasotako kobrantzak itzultzeko agindua emango. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak berrikuspen-prozedurak abiarazi ahalko ditu, eragindako gastuaren aurrekontu-doikuntza eta doikuntza ekonomikoa egiteko. Prozedura horien emaitzak aipatutako ministerio-sailari jakinaraziko zaizkio.

Hogeita seigarrena. *Martxoaren 18ko 3/2005 Legeak ezarritako laguntza ekonomikoa eguneratzea.*

2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, martxoaren 18ko 3/2005 Legearen babesean Gerra Zibila dela-eta adingabeak zirenean atzerrira joan ziren espainiar jatorriko herritarrei, bizitzako urte gehienak Espainiatik kanpo garatu zutenei, aitortutako prestazio ekonomikoen zenbatekoa, urtean, hauxe izango da: 7.147,51 euroren eta onuradun bakoitzak 3/2005 Legearen 2. artikuluan a), b) eta c) paragrafoek aipatutako pentsioengatik jasotzen duen urteko zenbatekoaren arteko aldea, edota 7.147,51 euroren eta 3/2005 Legearen 2. artikuluan d) paragrafoak aipatutako onuradunek urtean jasotzen dituzten diru-sarreraren arteko aldea.

Hogeita zazpigarrena. *Gizarte Segurantzako sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hogeita hamargarren xedapen gehigarrian jasotakoaren aplikazioa geroratzea.*

Geroratu egiten da Gizarte Segurantzari buruzko sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hogeita hamargarren xedapen gehigarrian jasotakoaren aplikazioa.

Hogeita zortzigarrena. *Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen manu jakin batzuen aplikazioa etetea.*

2014. urtean, etenda geratzen da Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen honako manu hauen aplikazioa: 7.2 artikulua, 8.2.a) artikulua, 10. artikulua, 32.3 artikuluan lehen lerrokada eta lehenengo xedapen iragankorra.

Hogeita bederatzigarrena. *Indar Armatuetao Gizarte Segurantzako Erregimen Bereziko baliaezintasun handiagatiko prestazioak 2014rako handitzea.*

Indar Armatuetao Gizarte Segurantzako Erregimen Bereziko baliaezintasun handiagatiko prestazioak, 2013ko abenduaren 31ra arte sortutakoak, ehuneko 0,25 handituko dira 2014an.

Hogeita hamargarrena. *Jabetzaren, merkataritzaren eta ondasun higigarrien arloko erregistratzaileen gizarte-babeseo erregimena.*

Urtebeteko epean, jabetzaren, merkataritzaren eta ondasun higigarrien arloko erregistratzaileen kidegokoak, xedatutako moduan eta baldintzetan, dagokien Gizarte Segurantzako Araubidean sartu beharko dira, eta gauza bera kidego horietan 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera sartzen diren izangaiei dagokienez.

Hori gertatzen den arte, aurreko lerokadan aipatutako langileek beren edo senideen alde sortutako eskubide pasiboak Estatuko klase pasiboen erregimena arautzen duen araudiaren arabera eraenduko dira, Hipotekari buruzko Legearen 291. artikuluan –1946ko otsailaren 8ko Dekretuaren araberrako testu bateginean– xedatutakoaren araberr.

Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaz eta Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioek beharrezko tresnak egokituko dituzte xedapen honetako aurreikuspenak gauzatzeko.

Hogeita hamaikagarrena. *Giza immunoeskasiaren birusak (GIB) kutsatuta daudenezako gizarte-laguntzak.*

2014an, giza immunoeskasiaren birusak (GIB) kutsatuta daudenei aitortutako hileko zenbatekoa zehaztu ahal izateko, hain zuzen maiatzaren 28ko 9/1993 Errege Lege Dekretuaren 2.1 artikulua b), c) eta d) idatz-zatietan ezarrita, aipaturiko idatz-zatietan araututako proportzioak aplikatuko dira, 608,65 euroko zenbatekoa oinarri hartuta.

Hogeita hamabigarrena. *Diruaren legezko interesa.*

Bat. Diruaren legezko interes-tasaren aldaketari buruzko ekainaren 29ko 24/1984 Legearen 1. artikulua ezarritakoaren araberr, diruaren legezko interes-tasa ehuneko 4 izango da 2014ko abenduaren 31ra arte.

Bi. Epe horretan, Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren 26.6 artikulua adierazitako berandutze-interesa ehuneko 5 izango da.

Hiru. Epe horretan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 38.2 artikulua adierazitako berandutze-interesa ehuneko 5 izango da.

Hogeita hamahirugarrena. *Esportaziorako kreditu-asegurua.*

2014ko ekitaldian, kontratazio berrietarako estaldura gehienez ere 9.000.000 mila eurokoa izango da, Epe Laburreko Poliza Irekiak kenduta, Dokumentu Kredituenak izan ezik. Esportaziorako Kreditu Aseguruaren Konpainia Espainiarra Sozietate Anonimoak (CESCE) bermatu eta banatu ahal izango du estaldura.

Hogeita hamalagarrena. *ADIFen zorpetzea.*

Trenbide Azpiegituren Administrazioaileak Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren baimena beharko du zorpetzeko eragiketak egiteko, horiek gauzatzeko modua edozein izanda ere, Lege honetan xedatutako erakundearen gehieneko zorpetze-mugaren barruan; hori guztia Kontu Nazionalen Europako Sistema arautzen duen araudi berrira egokitzeko, bai eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloan hartutako konpromisoak eta helburuak betetzeko ere.

Baimenak honako arau hauen arabera emango dira, eragiketa mota aintzat hartuta:

1. Nolanahi ere, erakundearen jardun- eta/edo inbertsio-programetan aurreikusita egon beharko dira.
2. Epe laburreko zorraren saldo bizia ezin izango da aldatu lege hau indarrean hasten denetik 2014ko abenduaren 31ra arte Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak xedatzen duen ehunekoan baino handiagoan.
3. Urtebete baino gehiagoko epemuga duten zorpetze-eragiketa guztiek Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren baimena beharko dute.
4. ADIFek baimen-espeditatea Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioari igorriko dio egin beharreko eragiketak azaltzen dituzten beharrezko agiri guztiekin, eta horiek erakundearen jardun- eta/edo inbertsio-plan eta -programetan izan ditzaketen ondorioak zehaztuta.

Hogeita hamabosgarrena. *Parke zientifiko eta teknologikoetako jardueri finantza-laguntza ematea.*

Bat. Parke zientifikoetako eta teknologikoetako erakunde sustatzaileek, beren egoera finantzarioa dela-eta ordainketa-obligazioak bete ezin dituztela egiaztatzen badute, geroratzea eskatu ahal izango dute 2014, 2015 eta 2016rako, 2000. urtetik egindako deialdien arabera emandako mailegurei dagokienez.

Bi. 2014, 2015 eta 2016ko ekitaldietako amortizazio-kuotak kreditu bakar batean sartuko dira, epemuga 2014ko urtarrilaren 1ean, eta dagokion maileguari geratzen zaion balio-bizitzaren epean amortizatuko da. Kreditu horren indarraldia bi urtez handituko da, eta 3 urteko gabealdia izango du. Euribor gehi oinarritzko 25 puntuko tasan sortuko dira interesak handitze eta gabealdi horietan.

Hiru. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak onartu ahal izango du geroratzea; alde aurretik, halere, erakunde eskatzailearen egoeraren eta bideragarritasun ekonomikoaren azterketa zorrotza egin beharko du.

Lau. Hartarako, halaber, bermeak eratu beharko dira.

Sektore publikoko erakundeei dagokienez, geroratzea eskatzen duen erakundeak dagokion lurralde-administrazioaren baimena beharko du aurretik, eta berau geroratzea eskatzen den zorra ordaintzeko erantzule subsidiarioa ere izango da.

Unibertsitate publikoen mendeko erakundeei dagokienez, horiek mendeko diren autonomia-erkidegoak baimendu beharko du eskaera, eta erantzule subsidiarioa izango da.

Bost. Geroratzea eskatu den ekitaldietan ez zaie beste mailegurik emango Estatuarekin zor-gerorapenak indarrean dituzten erakundeei, horiek onartu badira xedapen gehigarri hau edo aurreko ekitaldietarako Estatuaren Aurrekontu Orokorren legeen antzeko xedapenak aplikatuta.

Justifikatutakoan Europako Eskualde Garapenerako Funtsaren kontura finantzatzen diren gastuen zatia ordaintzeko funts erabilgarriak egon daitezzen ematen diren aurrerakinei ez zaie aplikatuko muga hori.

Sei. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren aginduz bermeen baldintzak, zenbatekoak eta modalitateak arautuko dira, eta xede hau betetzeko prozedura garatuko da.

Hogeita hamaseigarrena. *Enpresa txiki eta ertainei finantza-laguntza ematea, proiektuak.*

Estatuak 2005erako Estatu Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 2/2004 Legearen hogeita bosgarren xedapen osagarriak eraturako finantziario-ildoari egindako ekarpena 57.425,48 mila eurokoa izango da, eta 20.16.433M.821.10. aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da.

Aurreko lerrokadan aurreikusitako kredituaz xedatzeko egin beharreko edozein egintza edo negozio juridiko onartzeko, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren aldeko txostena beharko da, Europako Egitura Funtsen bidez finantzatu ahal izateko beharrezko eskakizunak betetzen dituela egiaztatzeko.

Hogeita hamazazpigarrena. *Oinarri teknologikoa duten enpresei finantza-laguntza ematea, kapitalizazioa.*

Familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presazko zerga-neurriak onartzen dituen abenduaren 13ko 6/2000 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren 2 paragrafoan ezarritako finantzaketa-lerroko eragiketetan, 2014an 20.446,76 mila euro onartuko dira gehienez, eta 20.16.433M.821.11 aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko dira.

Aurreko lerrokadan aurreikusitako kredituaz xedatzeko egin beharreko edozein egintza edo negozio juridiko onartzeko, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren aldeko txostena beharko da, Europako Egitura Funtsen bidez finantzatu ahal izateko beharrezko eskakizunak betetzen dituela egiaztatzeko.

Hogeita hemezortzigarrena. *Oinarri teknologikoa duten enpresei finantza-laguntza ematea.*

Familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presazko zerga-neurriak onartzen dituen abenduaren 13ko 6/2000 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren 1 paragrafoan aipatutako eragiketetan, 2014an 18.579,76 mila euro onartuko dira gehienez, eta 27.14.467C.831.15 aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko dira.

Aurreko lerrokadan aurreikusitako kredituaz xedatzeko egin beharreko edozein hitzarmen edo laguntza- zein mailegu-deialdi onartzeko –oinarrien aginduak eta gainerako araudia barne–, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren aldeko txostena beharko da, Europako Egitura Funtsen bidez finantzatu ahal izateko beharrezko eskakizunak betetzen dituela egiaztatzeko.

Hogeita hemeretzigarrena. *Gazte ekintzaileei finantza-laguntza ematea.*

Estatuak 2011rako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 39/2010 Legearen hogeita hirugarren xedapen osagarriak eraturako finantziazio-ildoari egindako ekarpena 20.4446,76 mila eurokoa izango da, eta 20.16.433M.821.12. aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da.

Aurreko lerrokadan aurreikusitako kredituaz xedatzeko egin beharreko edozein egintza edo negozio juridiko onartzeko, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren aldeko txostena beharko da, Europako Egitura Funtsen bidez finantzatu ahal izateko beharrezko eskakizunak betetzen dituela egiaztatzeko.

Berrogeigarrena. *IKT-Agenda Digitaleko ekintzaileei eta enpresei finantza-laguntza ematea.*

2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen berrogeita hamargarren xedapen osagarrian ezarritako finantziazio-ildoaren zuzkidura 20.000,00 mila eurokoa izango da gehienez 2014ko ekitaldian, eta 20.12.467I.821.11. aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da.

Aurreko lerrokadan aurreikusitako kredituaz xedatzeko egin beharreko edozein egintza edo negozio juridiko onartzeko, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren aldeko txostena beharko da, Europako Egitura Funtsen bidez finantzatu ahal izateko beharrezko eskakizunak betetzen dituela egiaztatzeko.

Berrogeita batgarrena. *Abenduaren 17ko EDU/3248/2010 aginduaren arabera sinatutako eta Hezkuntza Ministerioak eta Kreditu Ofizialeko Institutuak 2010eko abenduaren 27an sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren barruko unibertsitate-maileguei finantza-laguntza ematea. Aipatutako hitzarmen horrek «KOI- Unibertsitate Maileguak 2010/2011» lerroaren esparruan harpidetutako maileguen gabealdia eta amortizazio-aldia handitzea zuen helburu.*

Bat. Aurrekontuei buruzko 47/2003 Lege Orokorraren 7.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, master- eta doktorego-ikasketak egiteko abenduaren 17ko EDU/3248/2010 Aginduan argitaratutako mailegu-lerroa atxikitako finantza-erakunde batekin mailegu bat harpidetuta duten unibertsitate-ikasleek gabealdia eta amortizazio-aldia handitzeko eskatu ahal izango dute, baldin eta egiaztatzen badute ordainketa-obligazioak betetzea eragozten dien egoeran daudela edo itzulketa-epea iraungi zaiela.

Gabealdia eta amortizazio-aldia handitzea automatikoki onartuko da eskatutako eragiketa guztientzat finantzaketa-erakundeari egindako eskaeraren bidez; hartarako beste mailegu bat edo hasierako eragiketaren berritzea sinatuko da «KOI-Unibertsitate Maileguak 2010/2011» lerroaren esparruan.

Bi. Mailegu-hartzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2002 Lege Orokorreko 13.2 artikuluan aurreikusitako kasuren bat ez egotea.

b) Mailegua baimendu zen xedea bete dadin bermatzea, berau eman zen master edo doktoregoko titulua egiaztatuz. Abenduaren 17ko EDU/3248/2010 Aginduaren 10.2.C) artikulua gehienez bost urteko epea finkatzen zuen doktorego-ikasketei dagokienez, matrikula formalizatu dela egiaztatu beharko da, bai eta tesiaren proiektua unibertsitatean erregistratu dela ere.

c) Hasierako kontratuan finkatutako amortizazioa hasi aurreko ekitaldiko diru-sarrerek oinarri orokorraren edo aurrezpen/PFEZaren 22.000 euro/urteko gutxieneko muga ez gainditzea, edo, data horretan, diru-sarrerak txikiagoak zirela indarreko araudiaren arabera PFEZaren aitortpena aurkeztu behar izatea dakarten zenbatekoak baino.

Hiru. Gabealdiaren eta amortizazio-aldiaren handitzea eta berau eskatzeko epea mailegua jaso duten ikasketen iraupenaren arabera izango dira:

a) 60 kredituko edo ikasturte baten baliokideak diren master edo doktoregoko ikasketetarako maileguak bi urtetik lau urtera handitu ahal izango dute gabealdia, eta amortizazio-aldia lau urtetik sei urtera igaroko da. 2 hilabete egongo dira gehienez epea handitzea eskatzeko, neurria abiarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

a) 90 kredituko edo ikasturte bat baino gehiagoren baliokideak diren master edo doktoregoko ikasketetarako maileguak hiru urtetik bost urtera handitu ahal izango dute gabealdia, eta amortizazio-aldia bost urtetik zortzi urtera igaroko da. Epea handitzea eskatzeko epea eragiketen gabealdia amaitu baino 2 hilabete lehenagotik 2014ko urriaren 15era arte joango da (barne).

c) 120 kredituko edo bi ikasturteren baliokideak diren master edo doktoregoko ikasketetarako maileguak lau urtetik sei urtera handitu ahal izango dute gabealdia, eta amortizazio-aldia sei urtetik hamar urtera igaroko da. Epea handitzea eskatzeko epea eragiketen gabealdia amaitu baino 2 hilabete lehenagotik 2014ko urriaren 15era arte joango da (barne).

Lau. Proposatutako neurriak eta aldaketak aplikatzeak Ministerioaren eta KOIren arteko hitzarmenaren eranskin bat sinatzea ekarriko du; halaber, KOIk kreditu-erakundeekin egindako finantza-kontratuaren gehigarri bat ere sinatu beharko da; bertan neurriei heltzeko baldintzak eta epeak arautuko dira.

Bost. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak beharrezko ebazpenak emango ditu xedapen honetan ezarritakoa betetzeko.

Berrogeita bigarrena. *Autonomia Sistemarako eta Mendekotasuna Artatzeko azpiegitura eta zerbitzuak sustatzeko eta garatzeko laguntza-funtsa.*

Bat. Autonomia Sistemarako eta Mendekotasuna Artatzeko azpiegitura eta zerbitzuak sustatzeko eta garatzeko laguntza-funtsak, 2009rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2/2008 Legearen hirurogeita batgarren xedapen gehigarrian sortutakoak, eta jardura horretan aritzen diren enpresei finantza-laguntza emateko xedea duenak, 5.000 mila euroko zuzkidura izango du 2014ko ekitaldian, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak emanda. Zuzkidura hori Estatuko Industria Partaidetzarako Sozietateari (SEPI) ordaindu eta transferituko zaio, 2014rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura.

Bi. Ekonomia eta Ogasun Ministerioak, Osasun eta Gizarte Politika Ministerioak eta Estatuko Industria Partaidetzarako Sozietateak (SEPI) 2009ko ekitaldirako sinatutako hitzarmenean ezarriko dira funtsa kudeatzeko prozedura eta baldintzak, bai eta hark eman beharreko finantzaketa aukeratu, eman eta kontrolatzeko irizpideak eta prozedurak ere; nolahi ere, erakunde sinatzaileek hobeto funtzionatzeko beharrezkotzat jotzen dituzten aldaketak egin ahal izango dituzte.

Hiru. Funtsak aurreko deialdietako geldikinak erabili ahal izango ditu enpresei ondorengo deialdietan eman beharreko finantzaketan. Funtsak emandako finantzaketaren amortizazioek eta finantza-mozkinek sortutako baliabideak erabili ahal izango ditu deialdi berrietan enpresei eman beharreko finantzaketan.

Lau. Funtsak helburu bera izango duten autonomia-erkidego baten esparrura mugatuko diren beste funts batzuk sortzera bideratu ahal izango du bere baliabideen zati bat. Horretarako, aipatutako hitzarmenean aurreikusitako Inbertsio eta Jarraipen Batzordeak, aurrez, aho batez hartu beharko du erabakia. Funts berri horiek aldean arteko hitzarmen bidez eratuko litzateke, eta Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren Funtsak, dagokion autonomia-erkidegoak eta interesa izan dezaketen erakunde ekonomikoek eta finantzarioek emandako baliabideak edukiko litzukete.

Bost. Funtsa hamar urteren buruan likidatuko da, Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioak lehen ekarpena egiten duenetik zenbatuta; orduan, Estatuko Aurrekontu Orokorren kontura jasotako zuzkidura Altxor Publikoan sartuko du SEPIk, huts egindako finantza-eragiketei dagokiena kenduta, horrelakorik balego, baita funtsak sorreratik izandako kudeaketa-gastuak ere, gehi bertan sartutako zenbatekoek sor ditzaketen finantza-mozkinak.

Sei. Funtsak ez du nortasun juridikorik. Funtsaren erantzukizunak erakunde kudeatzaileak bere gain hartu dituenak izango dira soilik. Era berean, funtsaren balizko hartzekodunek ezin izango dituzte euren kredituak diru bihurtu, erakunde kudeatzailearen ondarearen kontura.

Berrogeita hirugarrena. *Kanpo inbertitzeko interesa duen inbertsio espainiarreko sustapen-funtsen zuzkidura.*

Bat. Kanpo Inbertsioetarako Funtsaren zuzkidura 25.000 mila eurokoa izango da 2014an. Kanpo Inbertsioetarako Funtsaren Batzorde Betearazleak gehienez ere 300.000 mila euroko eragiketak onartu ahal izango ditu 2014an.

Bi. Enpresa Txiki eta Ertainaren Kanpo Inbertsioetarako Eragiketen Funtsaren zuzkidura 10.000 mila eurokoa izango da 2014an. Enpresa Txiki eta Ertainaren Kanpo Inbertsioetarako Eragiketen Funtsaren Batzorde Betearazleak gehienez ere 35.000 mila euroko eragiketak onartu ahal izango ditu 2014an.

Berrogeita laugarrena. *Zona Frankoak kudeatzeaz arduratzen diren zuzenbide publikoko erakundeen jarduerari finantza-laguntza ematea.*

Gobernuaren industria-politikak zona frankoak kudeatzeaz arduratzen diren zuzenbide publikoko erakundeen jarduerak lagunduko ditu 2014an, baldin eta beren lur edo esparru fiskaletan berrindustrializatzeko edo enpresen instalazioa sustatzeko programak badituzte xedetzat.

Ondorio horietarako, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak finantza-laguntza emateko lerro bat ezarriko du Birmoldaketa eta Berrindustrializazio Programaren barruan; berariazko erregulazioa izango du lerro horrek.

Berrogeita bosgarrena. *Espainiako enpresek Kyotoko Protokoloko malgutasun-mekanismoetan izango duten partaidetza.*

Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 91. artikulua sortutako Karbono Funtsak, Kyotoko Protokoloko malgutasun-mekanismoen esparruan arauz ezarritako terminoetan, enpresek egin edo sustatutako proiektuen ondoriozko karbono-kredituak eskuratzen dituenean Espainiako enpresek mekanismo horietan parte har dezaten bultzatzeko asmoz, xede horretarako egin beharreko edozer hitzarmen edo laguntza- edo mailegu-deialdi onartzeko (oinarri-aginduak eta arautzen dituzten gainerako araudiak barne), beharrezkoa izango da Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzak aldeko txostena egitea, Europako Egitura Funtsen bidez finantzatu ahal izateko beharrezko eskakizunak betetzen dituela egiaztatzeko.

Berrogeita seigarrena. *Estatuaren bermea, interes kultureko artelanetarako.*

Bat. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta atxikitako erakunde publikoen eskumen eskusiboko erakundeetan erakusteko aldi baterako lagatako artelanei edo artelan-multzoei dagokienez Estatuak emandako konpromisoen zenbateko oso metatua, uneoro, 2.250.000 mila eurokoa izango da gehienez 2014ko ekitaldian, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3 paragrafoan ezarritakoaren arabera. Gehieneko zenbateko horretan ez da sartuko xedapen gehigarri honen Bi puntuan jasotako zenbatekoa.

Erakusketa berean jarriko diren artelanetarako edo artelan-multzoetarako 2014an lehen aldiz emandako konpromiso espezifikoen gehieneko muga 231.000 mila eurokoa izango da. Artelanak lagatzaileei itzuli ondoren, eta erakusketa-arduradunek emandako bermea gorabeherarik gabe bukatu dela egiaztatutakoan, konprometitutako zenbatekoak beste erakusketa bati eman ahal izango zaizkio.

Salbuespen gisa, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren ekimenez, eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren proposamenari jarraiki Ministroen Kontseiluak hala erabakita, gehieneko muga hori 231.000 mila eurotik gorakoa izan ahalko da.

Artelan batean gehienez konprometitutako zenbatekoa 100.000 mila eurokoa izango da Estatuaren Bermeak estaltzearen ondorioetarako.

Bi. Thyssen-Bornemisza Bilduma Fundazioak Espainian dituen egoitzetan erakutsi beharreko artelanei dagokienez fundazio horri emandako konpromiso espezifikoen gehieneko muga 400.000 mila eurokoa izango da 2014an. Konpromiso horiek kontratu honen barruan emango dira: «Artelanak mailegatzeko kontratua; alde batetik, Thyssen-Bornemisza Bilduma Fundazioaren, eta, bestetik, Omicron Collections Limited, Nautilus Trustees Limited, Coraldale Navigation Incorporated, Imiberia Anstalt-en, eta Carmen Thyssen-Bornemisza baroisaren artekoa».

Hiru. 2014an, Estatuaren Bermea Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak, Ondare Nazionaleko Administrazio Kontseiluak eta «Sociedad Estatal de Acción Cultural SA (AC/E)» sozietateak antolatutako erakusketei ere aplikatuko zaie, Estatu Administrazio Orokorra titularra den erakundeetan egiten badira. Halaber, Lázaro Galdiano Fundazioak bere museoaren egoitzan eta Carlos de Amberes Fundazioak Madrilgo egoitzan antolatutako erakusketei ere aplikatuko zaie.

Lau. Salbuespen gisa, El Greco 2014 Fundazioak Estatuaren titulartasuneko erakundeetan antolatutako erakusketak Estatuaren Bermeari atxiki ahal izango zaizkio 2014an. El Greco 2014 Fundazioak antolatutako erakusketei lagatako artelanak aseguratzeko Estatuak emandako konpromisoak 1.500.000 mila eurokoak izango dira gehienez. Zenbateko hori aurreko paragrafoetan xedatutako mugetatik kanpo zenbatuko da.



Berrogeita zazpigarrena. *Zerga-politikaren ikuskapen, azterketa, aholkularitza eta jarraipeneko tasa.*

Bat. Zerga Ardurarako Agintaritza Independentea sortzen duen azaroaren 14ko 6/2013 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarriaren d) paragrafoan xedatutakoaren arabera, 200 milioi eurotik beherako tributu-oinarria duten toki-erakundeek ez dute ordaindu beharko zerga-politikaren ikuskapen, azterketa, aholkularitza eta jarraipeneko tasa.

Bi. Zerga-politikaren ikuskapen, azterketa, aholkularitza eta jarraipeneko tasaren karga-tasa, bigarren xedapen gehigarri horren g) paragrafoan aipatua, ehuneko 0,00085 izango da.

Berrogeita zortzigarrena. *RTVE Korporazioak jabari publiko irrati-elektikoaren erreserba-tasaren errendimenduaren gainean jaso beharreko ehunekoa.*

2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, RTVE Korporazioak jabari publiko irrati-elektikoaren erreserba-tasaren errendimenduaren gainean jaso beharreko portzentajea, Espainiako Irrati eta Telebistaren Korporazioa Finantzatzeari buruzko abuztuaren 28ko 8/2009 Legearen 4.2 artikulua arabera, ehuneko 100 izango da, 330 milioi euroko mugarekin.

Berrogeita bederatzigarrena. *Diru kopuruak gizarte-interesekotzat jotako interes orokorreko jardueri bideratzea.*

Estatuak, erregelamenduz zehaztutako moduan, gizarte-interesekotzat jotako interes orokorreko jarduerak diruz laguntzera bideratuko du 2014ko ekitaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osoaren ehuneko 0,7; betiere, horretarako asmoa berariaz azaldu duten zergadunei dagokienez.

Ondorio horietarako, zergaren kuota osotzat hartuko da Estatuko kuota osoaren eta kuota autonomiko osoaren arteko batura, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen Legean xedatutakoari jarraiki.

2014ko ekitaldiari dagokion diru kopuruaren behin betiko likidazioa 2016ko apirilaren 30a baino lehen egingo da; 2015eko azaroaren 30ean, berriz, behin-behineko likidazioa egingo da, diru-laguntzak emateko prozedurari aldez aurretik ekin ahal izateko.

2014ko aurrekontuetan gizarte-interesekotzat jotako interes orokorreko jardueri esleitutako zenbateko osoa honako ehuneko hauek aplikatuta banatuko da: 100eko 79,14 Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioari; 100eko 19,43 Kanpo Arazo eta Lankidetzeta Ministerioari, eta 100eko 1,43 Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari. Ehuneko horiek 2014ko ekitaldian bertan egindako behin betiko likidazioaren gainean aplikatuko dira.

Berrogeita hamargarrena. *Eliza Katolikoa finantzatzea.*

2014an, Estatuak, hiler, 13.266.216,12 euro emango dizkio Eliza Katolikoari, 2007rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 42/2006 Legearen hemezortzigarren xedapen gehigarriaren Bat eta Bi paragrafoetan xedatutakoaren arabera Elizari eman beharreko zenbatekoaren kontura.

2015eko azaroaren 30a baino lehen, 2014ari dagokion zenbatekoaren behin-behineko likidazioa egingo da; behin betiko likidazioa, berriz, 2016ko apirilaren 30a baino lehenago. Bi likidazioetan, egindakoan, bi aldeek saldoa erregularizatuko dute, alde batera zein bestera.

Berrogeita hamaikagarrena. *Mezenasgoko lehentasunezko jarduerak.*

Bat. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriari buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 22. artikuluan ezarritakoarekin bat, 2014an ondoko mezenasgo-jarduera hauek izango dute lehentasuna:

1. Cervantes Institutuak sare telematikoen, teknologia berrien eta bestelako bitartekoen bidez espainiar hizkuntza eta kultura sustatu eta zabaltzeko egindakoak.

2. Berezko hizkuntza ofiziala duten autonomia-erkidegoetako erakundeek Espainiako Estatuko lurraldeetako hizkuntza ofizialak sustatu eta zabaltzea.

3. Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziak pobrezia aurka borrokatzeko eta garatzeko bidean dauden herrialdeetan giza garapen iraunkorra lortzeko egindako jarduerak.

4. Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziak beste herrialdeekin kultura- eta zientzia-harremanak sustatzeko eta garatzeko, baita Espainiako kultura sustatzeko ere, egindako jarduerak.

5. Lege honen VIII. eranskinean zehaztutako Espainiako Ondare Historikoko ondasunak zaintzea, zaharberritzea edo birgaitzea, baita, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren arteko aurretiko akordioa eginda, Zerga-, administrazio- eta gizarte-arloko neurriei buruzko abenduaren 30eko 53/2002 Legearen 75. artikulua aipatutako Espainiako Ondare Historikoko elementuak digitalizatzeko, zaintzeko, katalogatzeko, zabaltzeko eta ustiatzeko «patrimonio.es» programan jasotako jarduerak eta ondasunak ere.

6. Herri-administrazioek boluntarioei prestakuntza emateko diruz lagundutako programak.

7. Herri-administrazioek Informazioaren Gizartea sustatzeko egindako proiektuak eta jarduerak; bereziki, zerbitzu publikoak Interneteko zerbitzu informatiko eta telematikoen bidez eskaintzeko xedea dutenak.

8. Lege honen XI. eranskinean horretarako zerrendatutako instalazio zientifikoetako ikerketa, garapena eta berrikuntza.

9. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren proposamenari jarraiki, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak aitortutako erakundeek 2013-2020 aldirako Zientzia eta Teknologia eta berrikuntzaren Espainiako Estrategian gizartearen erronkak konpontzeko egindako ikerketa, garapena eta berrikuntza.

10. Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioak zientziaren eta berrikuntzaren kultura zabaltzeko, komunikatu eta sustatzeko egindakoak.

11. Genero-indarkeria errotik kentzeko, herri-administrazioek diruz lagundutako edo haiekin elkarlanean egindako programak.

12. Arte eszenikoak eta musikalak sustatzeko, bultzatzeko eta zabaltzeko, herri-administrazioek edo haiekin elkarlanean egindako jarduerak.

13. Espainiako Liburutegi Nazionalak kultura eta zientzia-ikerketaren arloko xedeak eta eginkizunak betetzeko egindakoak; horiek Espainiako Liburutegi Nazionalaren Estatutua onartzen duen urriaren 30eko 1638/2009 Errege Dekretuan daude ezarrita.

14. CEOE Fundazioak, Kirolaren Goi Kontseiluarekin elkarlanean, «Espainiak lehiatzen du: enpresan zein kirolean» proiektuaren barruan egindakoak, Espainiako ETEen bultzada eta proiektzioa laguntzeko Estatuan zein nazioartean, kiroleko talentu gazteak bultzatzeko eta enpresaburua sustatzeko kirolaren balioei lotutako hazkunde-motor gisa.

Xedapen gehigarri honen Bi paragrafoari jarraiki aipatutako 49/2002 Legearen 19., 20. eta 21. artikuluetan ezarritako kenkarien ehunekoak eta mugak ehuneko bost puntu igoko zaizkien aurreko paragrafoan zehaztutako jarduerentzako dohaintzek, emaitzek eta ekarpenek 50.000 euroko muga izango dute urtean emaila bakoitzeko.

Bi. Aipatutako 49/2002 Legearen 19., 20. eta 21. artikuluetan ezarritako kenkarien ehunekoak eta mugak ehuneko bost igoko dira aurreko paragrafoan jasotako jarduerari dagokienez.

Berrogeita hamabigarrena. *Donostia, 2016ko Europako Kultura Hiriburuko ekitaldiei aplikatutako zaizkien zerga-onurak.*

Bat. Donostia, 2016ko Europako Kultura Hiriburuaren ospakizuna aparteko interes publikoa duen gertakiritzat hartuko da, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertaera horri laguntzeko programak 2014ko urtarrilaren 1etik 2016ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta egitasmoekin bat datozelako ziurtagiriak aipatutako 49/2002 Legean ezarritakoari jarraiki egingo dira.

Lau. Gertakaria behar bezala garatuko dela ziurtatzen duten jarduerak dira gauzatu beharrekoak. Organo eskuduna arduratuko da berariazko jarduerak plan eta programetan garatu eta zehazteaz, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraiki.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Berrogeita hamahirugarrena. *2015eko Milango Erakusketari aplikatuko zaizkion zerga-onurak.*

Bat. Milanen 2015en izango den erakusketa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legearen, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoaren, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2014ko urtarrilaren 1etik 2016ko ekainaren 30era arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta egitasmoekin bat datozelako ziurtagiriak aipatutako 49/2002 Legean ezarritakoari jarraiki egingo dira.

Lau. Gertakaria behar bezala garatuko dela ziurtatzen duten jarduerak dira gauzatu beharrekoak. Organo eskuduna arduratuko da berariazko jarduerak plan eta programetan garatu eta zehazteaz, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraiki.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Berrogeita hamalagarrena. *2014an Gijónen egingo den Munduko Eskalada Txapelketari aplikatu beharreko zerga-onurak.*

Bat. Gijónen 2014en izango den Munduko Eskalada Txapelketa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legearen, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoaren, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Programa honek 2014ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31ra arteko iraupena izango du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta egitasmoekin bat datozelako ziurtagiriak aipatutako 49/2002 Legean ezarritakoari jarraiki egingo dira.

Lau. Gertakaria behar bezala garatuko dela ziurtatzen duten jarduerak dira gauzatu beharrekoak. Organo eskuduna arduratuko da berariazko jarduerak plan eta programetan garatu eta zehazteaz, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraiki.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Berrogeita hamabosgarrena. *Munduko Patinaje Artistiko Txapelketari (Reus 2014) aplika dakizkiokeen onura fiskalak.*

Bat. Reusen 2014en izango den Munduko Patinaje Artistiko Txapelketa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legearen, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoaren, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Programa honek 2014ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31ra arteko iraupena izango du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta egitasmoekin bat datozelako ziurtagiriak aipatutako 49/2002 Legean ezarritakoari jarraiki egingo dira.

Lau. Gertakaria behar bezala garatuko dela ziurtatzen duten jarduerak dira gauzatu beharrekoak. Organo eskuduna arduratuko da berariazko jarduerak plan eta programetan garatu eta zehazteaz, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraiki.

Bost. Programa honen zerga-onurak aipatutako 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Berrogeita hamaseigarrena. *Madrid Horse Week izenekoari aplikatu beharreko zerga-onurak.*

Bat. Madrid Horse Week izenekoia interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legearen, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoaren, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2014ko urtarrilaren 1etik 2016ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta egitasmoekin bat datozelako ziurtagiriak aipatutako 49/2002 Legean ezarritakoari jarraiki egingo dira.

Lau. Gertakaria behar bezala garatuko dela ziurtatzen duten jarduerak dira gauzatu beharrekoak. Organo eskuduna arduratuko da berariazko jarduerak plan eta programetan garatu eta zehazteaz, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraiki.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Berrogeita hamazazpigarrena. *Espainiako Errege Akademiaren III. mendeurrenari aplikatu beharreko zerga-onurak.*

Bat. Espainiako Errege Akademiaren III. mendeurrena interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legearen, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoaren, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2014ko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta egitasmoekin bat datozelako ziurtagiriak aipatutako 49/2002 Legean ezarritakoari jarraiki egingo dira.

Lau. Gertakaria behar bezala garatuko dela ziurtatzen duten jarduerak dira gauzatu beharrekoak. Organo eskuduna arduratuko da berariazko jarduerak plan eta programetan garatu eta zehazteaz, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraiki.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Berrogeita hamazortzigarrena. *Beneficios fiscales aplicables al «120 años de la Primera Exposición de Picasso. A Coruña, febrero-mayo de 2015».*

Bat. Los «120 años de la Primera Exposición de Picasso. Madrid Horse Week izenekoia interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legearen, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoaren, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2014ko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta egitasmoekin bat datozelako ziurtagiriak aipatutako 49/2002 Legean ezarritakoari jarraiki egingo dira.

Lau. Gertakaria behar bezala garatuko dela ziurtatzen duten jarduerak dira gauzatu beharrekoak. Organo eskuduna arduratuko da berariazko jarduerak plan eta programetan garatu eta zehazteaz, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraiki.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Berrogeita hemeretzigarrena. *Kixotearen bigarren atalaren IV. mendeurrenari aplikatu beharreko zerga-onurak.*

Bat. Kixotearen bigarren atalaren IV. mendeurrena interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legearen, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoaren, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2014ko urtarrilaren 1etik 2016ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta egitasmoekin bat datozelako ziurtagiriak aipatutako 49/2002 Legean ezarritakoari jarraiki egingo dira.

Lau. Gertakaria behar bezala garatuko dela ziurtatzen duten jarduerak dira gauzatu beharrekoak. Organo eskuduna arduratuko da berariazko jarduerak plan eta programetan garatu eta zehazteaz, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraiki.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeigarrena. *World Challenge LFP/Ligaren 85. urteurrena izeneko gertakariari aplikatu beharreko zerga-onurak.*

Bat. World Challenge LFP/Ligaren 85. urteurrena gertakaria interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legearen, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoaren, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Programa honek 2014ko urtarrilaren 1etik 2016ko abenduaren 31ra arteko iraupena izango du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta egitasmoekin bat datozelako ziurtagiriak aipatutako 49/2002 Legean ezarritakoari jarraiki egingo dira.

Lau. Gertakaria behar bezala garatuko dela ziurtatzen duten jarduerak dira gauzatu beharrekoak. Organo eskuduna arduratuko da berariazko jarduerak plan eta programetan garatu eta zehazteaz, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraiki.

Bost. Programa honen zerga-onurak aipatutako 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita batgarrena. *2017ko Mediterraneoko Jokoei aplikatu beharreko zerga-onurak.*

Bat. 2017ko Mediterraneoko Jokoa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko dira abenduaren 23ko 49/2002 Legearen, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoaren, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2014ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatuko dela ziurtatzen duten jarduerak dira gauzatu beharrekoak. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera zehatzen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita bigarrena. *Domenikos Teotokopulos «Greco» pintorearen heriotzaren IV. mendeurrenaren ospakizun-ekitaldiei aplikatu beharreko zerga-onurak.*

Bat. Domenikos Teotokopulos «Greco» pintorearen heriotzaren IV. mendeurrena ospatzeko 2014an izango diren ekitaldiak aparteko interes publikoa duten gertakaritzat hartuko dira, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan

xedatutakoaren ondorioetarako. Horrela hartzea 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen berrogeita hamalagarren xedapen gehigarriaren osagarria da eta harekin bat dator.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2014ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta egitasmoekin bat datozelako ziurtagiriak ematea Greco 2014 partzuergoaren eskumena izango da; abenduaren 23ko aipatutako 49/2002 Legearen 27.2.b) artikuluan ezarritakoari jarraiki sortu zen aipatutako partzuergoa.

Lau. Gertakaria behar bezala garatuko dela ziurtatzen duten jarduerak dira gauzatu beharrekoak. Berariazko jarduerak Hiru paragrafoan aipatutako partzuergoak garatuko eta zehaztuko ditu egitasmoetan eta programetan.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira».

Hirurogeita hirugarrena. *Méridako Antzerki Klasikoko Nazioarteko Jaialdiaren Hirurogeigarren Edizioaren ospakizunari aplikatu beharreko zerga-onurak.*

Bat. Méridako Antzerki Klasikoko Nazioarteko Jaialdiaren Hirurogeigarren Edizioa interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legearen, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoaren, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2014ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatuko dela ziurtatzen duten jarduerak dira gauzatu beharrekoak. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera zehatzen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Bost. Programa honen zerga-onurak 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita laugarrena. *Espainiako bioteknologiaren urtearen ospakizunari aplikatu beharreko zerga-onurak.*

Bat. Espainiako bioteknologiaren urtearen ospakizuna interes publiko handiko ekitalditzat hartuko da abenduaren 23ko 49/2002 Legearen, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoaren, 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2014ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta planekin bat datozela egiaztatzeko, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

Lau. Gertakaria behar bezala garatuko dela ziurtatzen duten jarduerak dira gauzatu beharrekoak. Organo eskuduna arduratuko da planak eta jarduera zehatzen programak garatzeaz eta gauzatzeaz, aipatu 49/2002 Legean ezarritakoaren arabera.

Bost. Programa honen zerga-onurak aipatutako 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.

Hirurogeita bosgarrena. *Hobaria ondasun higiezinaren gaineko zergan Lorcarako (Murtzia).*

Bat. 2011ko maiatzaren 11n Lorcan (Murtzia) izandako mugimendu sismikoek eragindako kalteak konpontzeko premiazko neurriak onartzeko maiatzaren 13ko 6/2011 Errege Lege Dekretuaren 12. artikulua ondasun higiezinaren gaineko zergan araututako salbuespenerako ezarritako baldintza berekin ehuneko 50eko hobaria emango da 2014ko ekitaldiko zerga horren kuotetan.

Bi. Legez ezarritako gainerako hobariak, hala dagokionean, aplikatu ondoren dagoen kuotari aplikatu zaio hobaria.

Hiru. Xedapen honetan ezarritakoak Lorca Udalaren zergei eragiten dien murrizketa Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura konpentsatuko da, toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen testu hori).

Hirurogeita seigarrena. *Aena Aeropuertos SAre*n sareko ibilbideetan bidaiari kopurua handitzeagatiko pizgarria.

Bat. Aena Aeropuertos SAK kudeatutako aireportuetan aritzen diren aire-konpainiek pizgarri baterako eskubidea izango dute 2014an sareko aireportuetatik egindako ibilbideetako bidaiari kopuruaren hazkundeari egindako ekarpenagatik, 2013koa aintzat hartuta.

Bi. Garraiatutako bidaiari kopurua handitzen duen konpainia bakoitzeko, hala ibilbidearen jatorriko aireportuan nola Aena Aeropuertos sarean, ibilbidearen bidaiari-irteerako tributu publikoaren batez besteko zenbatekoaren ehuneko 50eko pizgarria izango da, eta 2014an izandako irteera-bidaiari kopuru gehigarriari, 2013koarekin alderatuta, baino ez zaio aplikatuko. Dena delako ibilbidean aritzen den aire-konpainia bakoitzak eskubidea izango duen pizgarria ibilbide horretan aire-konpainia guztiek eragindako hazkundeari egindako ekarpenaren neurrikoa izango da.

Konpainia horrek 2014an izandako irteera-bidaiarien kopuruari eusten badio 2015ean, gainera, dena delako ibilbide horretan 2014an pizgarria jaso duen bidaiari kopuru berari zegokion bidaiari-irteeragatiko tributu publikoaren zenbatekoaren ehuneko 25 gehigarri bat ordainduko zaio.

Sareko aireportu batetik 2013an egin gabeko xedeetarako ibilbideei dagokienez, ibilbidearen irteera-bidaiariagatiko tributu publikoaren batez besteko zenbatekoaren ehuneko 75ekoa izango da pizgarria 2014an, eta ehuneko 25 gehiago ordainduko da 2015ean, baldin eta konpainiak gutxienez 2014an ibilbide horretan garraiatutako irteera-bidaiarien ehuneko 90ei eusten badie.

Hiru. Konpainia bakoitzean, pizgarrirako eskubidea ematen duten aireportu bateko ibilbideen bidaiari-batura handiagoa bada konpainiak aireportuan irabazitako bidaiari kopurua baino, pizgarrirako aintzat hartu beharreko bidaiari kopurua azken hori izango da. Horrelakoetan, pizgarrirako eskubidea duen bidaiari kopuruaren ibilbideko banaketa konpainiak ibilbide bakoitzaren hazkundeari egindako ekarpenaren modu proportzionalan egingo da.

Lau. Konpainia bakoitzarentzat, aurreko paragrafoko ibilbide bakoitzeko egotzitako bidaiarien batura handiagoa bada konpainiak Aena Aeropuertos sarean irabazitako bidaiari kopurua baino, pizgarrirako aintzat hartu beharreko bidaiari kopurua azken hori izango da. Horrelakoetan, pizgarrirako eskubidea emango duen bidaiari kopuruaren aurreko paragrafoan ateratzen den ibilbide bakoitzeko bidaiarien araberako proportzioan egingo da.

Bost. Kanarietako aireportuei dagokienez, hango aireportuetan izaera publikoko ondare-prestazioei dagozkien hobariei aplikatuta ateratzen den bidaiari-irteerako tributu publikoaren zenbatekoaren gainean aplikatuko da. 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen laurogeita hirugarren xedapen gehigarrian daude ezarrita hobari horiek.

Sei. Konpainia bakoitzaren hazkundera ezingo da izan talde bereko konpainien arteko bidaiari-transferentzia hutsaren ondorio, ezta pizgarria eskuratzeko programa partekatzen duten edo estrategiak batera ditzaketen konpainien arteko akordioen ondorio ere. Ondorio horietarako, Aena Aeropuertos SAK konpainia baten bidaiari-hazkundera aurreko egoeretakoa baten ondorio den aztertuko du, eta pizgarria indargabetu ahal izango du, horrela izanez gero.

Zazpi. Pizgarri honen ondorioetarako, hauxe hartzen da ibilbidetzat: Aena Aeropuertos SAre aireportu batean jatorria duen eta xedetzat beste aireportu bat duen bidaiarien aire-garraioko merkataritza-eragiketen multzoa. Xede bereko ibilbide bera dela

joko da baldin eta, aireportu ezberdinetara bideratu arren, horiek xedearen hartze-eremu berekoak badira (dagokion xedeko hartze-eremu bera osatzen duten aireportuak eranskinean daude adierazita).

Zortzi. Pizgarri honen ondorioetarako, xede baterako ibilbide bat 2013an ez dela landu joko da urte horretan gehienez irteerako 2.500 merkataritza-bidaiari izan baditu. Era berean, 2014an landutako ibilbidetzat hartzeko, xede jakin baterako ibilbideak irteerako 2.500 merkataritza-bidaiari baino gehiago eduki behar ditu urte horretan.

Bederatzi. 2015eko urtarrilean eskatu beharko dira pizgarriak, eta Aena Aeropuertos SAK konpentsazioa eginez ordainduko ditu onuradunak berekin zorretan duen edozer zenbatekoarekin; halere, hori guztiz edo zati batez ezinezkoa denean, diruz ordainduko du 2015eko maiatza amaitu aurretik eta, hala badagokio, 2015eko bidaiarien zatia, 2016ko maiatza amaitu aurretik.

Hamar. Pizgarria jasotzeko, aire-konpainiak egunean eduki behar ditu Aena Aeropuertos SAREkiko ordainketak.

Hirurogeita zazpigarrena. *Kanarietako Enplegu Plan Integrala.*

2014an etenda geldituko da Enpleguari buruzko abenduaren 16ko 56/2003 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren aplikazioa.

Hirurogeita zortzigarrena. *2007-2015 aldirako Ur Kalitate, Saneamendu eta Arazketako Plan Nazionalaren esparruko jarduerak.*

2007-2015 aldirako Ur Kalitate, Saneamendu eta Arazketako Plan Nazionalaren esparruan beharrezko jarduerak egiteko baimena ematen zaio Gobernuari Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoan araztegiak eraberritzeko edo berriak eraikitzeko proiektuak finantzatzeko, dagozkion hitzarmenak sinatuz.

Hirurogeita bederatzigarrena. *Osasun Kohesiorako Funtsa.*

Bat. Osasun Kohesiorako Funtsa arautzen duen urriaren 20ko 1207/2006 Errege Dekretuaren 2.1 artikulua a, b, c eta d paragrafoen aplikazioa etenda geratzen da.

Bi. 1. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, Espainiako egoiliar diren pazienteei eta Espainiara alde baterako joandako aseguratuei, beste Estatu baten konturako laguntzarako eskubidea dutenei, osasun-laguntza emateak, arlo horretako nazioarteko araudiaren babesean emanak, autonomia-erkidegoetan eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalen eragindako gastuen zenbatekoa –urriaren 20ko 1207/2006 Errege Dekretuaren 2.1 artikulua a), b), c) eta d) paragrafoetan dago jasota– eta Laguntza Bermatzeko Funtsak estalitako osasun-laguntzako gastuena –Estatuko Osasun Sistemaren iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko premiazko neurriei buruzko apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulua sortu zuen funts hori– Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak eta Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren bitartez, autonomia-erkidego bakoitzari eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalari dagokienez egindako likidazioen osteko saldo positiboak edo negatiboak konpentsatuz ordainduko da.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak ekitaldiko bigarren hiru hilabetean jakinaraziko dizkio Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalari autonomia-erkidegoen artean eta Laguntza bermerako Funtsetik bideratutako Espainiako paziente egoiliarrei emandako osasun-laguntzak eragindako saldo negatiboak.

Ondorio horretarako, Laguntza Bermatzeko Funtsetan aurrekontuz kanpoko izaera bera izango du Osasun Kohesiorako Funtsa.

2. Autonomia-erkidegoei eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalari likidazio horien ondoriozko saldo positiboak ordaintzeko, lehenik eta behin, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak autonomia-erkidegoei edo Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalari osasun-laguntza estaltzeko kuota globalagatikoko saldo garbi



positiboaren kontzeptuan –2006rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 29ko 30/2005 Legearen berrogeita hemezortzigarren xedapen gehigarrian dago aipatuta– egin behar dizkien ordainketen benetako gastuaren fakturazioak ekarritako saldo negatiboak kenduko ditu.

Jarraian, kuota global edo gastu errealtatik dauden saldo garbi positiboak ordainduko dizkie Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak autonomo-erkidegoei edo INGESAri, betiere autonomia-erkidegoen artean eta Laguntza Bermerako Funtsetik bideratutako Espainiako paziente egoiliarrei emandako osasun-laguntzaren ondoriozko saldo negatiboak kendu ondoren.

Kenketa horiek egindakoan, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioari jakinaraziko dio ekitaldi bakoitzeko hirugarren hiruilekoan. Kuota globalagatik saldo garbi positiboetatik kendu ezin izan diren gastu errealtatik saldo garbi negatiboak ere jakinaraziko dizkio Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioari.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egingo dizkie autonomia-erkidegoei edo Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalari saldo garbi positibo horien zenbatekoaren transferentzia, bai gastu errealtaren bai kuota globalaren kontzeptuan, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak proposatuta eta ekitaldi bakoitzeko hirugarren hiruilekoan.

Autonomia-erkidegoen artean eta Laguntza Bermerako Funtsetik bideratutako Espainiako paziente egoiliarrei emandako osasun-laguntzaren gastu errealtaren kontzeptuan autonomia-erkidegoei edo Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalari kendutako zenbatekoa Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusian sartuko da aurrekontuz kanpoko kontu bati aplikatuta; aipatutako kontua Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak kudeatuko du, autonomia-erkidegoen artean eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalan konpentsazioa egiteko Osasun Sistema Nazionalaren osasun-laguntzerako eskubidea duten pertsoneri emandako arretagatik.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak banatuko du zenbateko hori autonomia-erkidegoen artean eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalan, baldin eta saldo garbi positiboak badituzte autonomia-erkidegoen artean eta Laguntza Bermerako Funtsetik bideratutako Espainiako paziente egoiliarrei emandako osasun-laguntzatik, betiere kuota globalagatik saldo garbi positiboetatik kendu ezin izan zaizkien saldo garbi negatiboak kendu ondoren, eta saldo garbi positibo horien araberrako proportzioan.

Azkenik, autonomia-erkidegoen artean eta Laguntza Bermerako Funtsetik bideratutako Espainiako paziente egoiliarrei emandako osasun-laguntzaren ondorioz eta gastu errealtatik geratzen diren saldo negatiboak, konpentsatu, kendu edo atxiki egingo dira, dagokionaren arabera, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak finantza-sistemaren baliabideetatik egin beharreko ordainketetatik, hartarako aurreikusitako baldintzak betetzen direnean.

Hiru. En 2014, en la medida en que no se produzcan ingresos en la aplicación presupuestaria 32701 «Otros ingresos procedentes de la prestación de servicios. De asistencia sanitaria. Por Convenios Internacionales. Fondo de Cohesión Sanitaria» del Presupuesto de Ingresos del Estado, no se podrá disponer del crédito consignado en la aplicación presupuestaria 26.09.313A.45301 «Compensación por asistencia sanitaria concertada prestada a ciudadanos asegurados en otro Estado desplazados temporalmente a España».

Hirurogeita hamargarrena. *Enpleguari buruzko abenduaren 16ko 56/2003 Legearen 13. artikulua h) idatz-zatian ezarritako ekintzak, neurriak eta programak kudeatzea.*

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak, Enpleguari buruzko abenduaren 16ko 56/2003 Legearen 13.h) artikuluan xedatutakoarekin bat, bere gastu-aurrekontuaren kreditu-erreserbaren kontura finantzaturiko ekintzen, neurrien eta programen kudeaketa egingo du, barnean 19.101-000X.400, 19.101-000X.401, 19.101-000X.402, 19.101-000X.410, 19.101-000X.411, 19.101-000X.431, 19.101-241A.441, 19.101.241A.442 eta 19.101.241A.482

aplikazioak hartuta, eta hainbat azpikontzepturen bitartez bereizita, enplegu-politika aktiboen esparru funtzionalen arabera, ondorengo jarduera hauek finantzatzeko:

a) Autonomia-erkidego baten eremu geografikoari baino esparru handiagoari eragiten dioten ekintzak eta neurriak, horietan parte hartzen duten langabeak edo langileak beste autonomia-erkidego edo herrialde batera lekualdatzera behartzen badituzte, eta koordinazio bateratua beharrezkoa badute.

b) Enplegu-eskatzailen zein lanean ari diren pertsonen lanbidea hobetzeko ekintzak eta neurriak, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Estatuko Administrazio Orokorraren edo haren organismo autonomoen arteko lankidetzaren bitartez; kalitateko lana sortzen eta langileen aukerak hobetzen dituzten prestakuntza-jarduerak burutzea izango dute helburutzat, batik bat Estatuko planen, estrategien edo programen esparruan, eta interes orokorreko eta gizarte-intereseko obrak eta zerbitzuak egikaritzea, Estatuaren eskumen eskusiboekin lotuta.

c) Langile etorkinak laneratzeko xedea duten bitartekotzako ekintzak eta neurriak, eta enplegu-politika aktiboak, etorkinen jatorrizko herrialdeetan gauzatzen direnean, eta migrazio-fluxuen antolamendua errazten laguntzen dutenean.

d) Epe jakin baterako ezartzen diren ezohiko programak, Estatuko lurralde osoari eragiten diotenean; halakoetan, nahitaezkoa izango da modu zentralizatuan kudeatzea, bai programen eraginkortasuna bermatzeko, bai onuradun guztiek horiek eskuratzeko nahiz aprobetxatzeko aukera berdinak izan ditzaten.

Adierazitako kasuetan, aurrekontu-erreserba horrek enplegu-politika aktiboen kudeaketa-erreserba gisa jarduten du, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren alde, nahiz eta autonomia-erkidegoek lanaren, enpleguaren eta prestakuntzaren arloetan eskumenak bereganatuta izan.

Aipatutako abenduaren 16ko 56/2003 Legearen 14.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, kreditu-erreserba osatzen duten funtsak ez dira banatuko kudeaketa-eskumenak esleituta dituzten autonomia-erkidegoen artean.

Hirurogeita hamaikagarrena. *Madrilgo, Bartzelonako eta Kanarietako bidaiarien garraio publiko erregularra finantzatzeko zuzeneko diru-laguntzak emateko baimena.*

Bat. 2014ko ekitaldian, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.b) artikuluan xedatutakoaren babesean, baimena emango da Estatuko Administrazio Orokorrak (EAO) zuzeneko diru-laguntzak eman diezazkien Madrilgo Garraioen Eskualde mailako Partzuergoari, Bartzelonako Garraio Metropolitarraren Agintaritzari eta Kanarietako Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioari.

Bi. EAOk bidaiarien lurreko garraio publiko erregularra finantza dezan izango dira diru-laguntza horiek honako jardun-eremu hauetan:

– Madril: Maiatzaren 16ko 5/1985 Legean, Madrilgo Garraioen Eskualde mailako Partzuergoa sortzekoan, zehaztutako esparrua.

– Bartzelona: Kataluniako Gobernuaren maiatzaren 28ko 151/2002 Dekretuak onetsitako Bartzelonako Garraio Metropolitarraren Agintaritzaren (ATM) estatutuen 1. artikuluan zehaztutako esparrua.

– Kanariar Uharteak: Kanarietako Autonomia Erkidegoaren esparrua.

Hiru. Ordain-aginduak honako aurrekontu-aplikazioen kontura eta zenbatekoekin egingo dira:

– Madril: 32.01.441M.454 «Madrilgo Garraioen Eskualde mailako Partzuergoari, bidaiarien garraio erregularra finantzatzeko», 126.989,00 mila euro. Zenbateko horretatik Estatuko Administrazio Orokorraren aldeko saldoa kendu da, 433 mila ere, EAOren eta Madrilgo Garraioen Eskualde mailako Partzuergoaren arteko Programa-Kontratuaren 2013ko urtarrilaren 28ko finantza-kontrolaren behin betiko txostena, Estatuko Administrazioko Esku Hartzailatza Nagusiak egina 2009-2010eko ekitaldiei dagokienez, kontuan hartu ondoren.

– Bartzelona: 32.01.441M.451 «Bartzelonako Garraio Metropolitarraren Agintaritzari, bidaiarien garraio erregularra finantzatzeko», 94.918,74 mila euro.

– Kanariar Uharteak: 32.01.441M.453 «Kanarietako Autonomia Erkidegoari, Kanariar Uharteetako bidaiarien garraio erregularri dagozkion beharrak finantzatzeko», 25.000,00 mila euro.

Lau. Diru-laguntza, 2014ko urtarriletik ekainera arte, hileroko ordainketa aurreraturen bitartez egingo da; aurrekontu-kontsignazioaren hamabirenaren baliokideko zenbatekoa izango dute horiek.

2014ko uztailetik aurrera, diru-laguntzaren ordainketa egin aurretik honakoak hartuko dira kontuan: bost paragrafoan adierazitako likidazioa eta 2014ko lehen seihilekoari dagozkion ordainketa aurreratuen moduan emandako zenbatekoak, seirenetako hileko ordain-aginduen bidez.

Bost. 2014ko uztailaren 15a baino lehen, hiru paragrafoan adierazitako hartzaileek honako ziurtagiri hauek igorriko dizkiote Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiari:

– Madril:

A) Madrilgo Autonomia Erkidegoaren ziurtagiria 2014ko ekainaren 30a arte 2013ko ekitaldiko aurrekontuen kontura Madrilgo Garraioen Eskualde mailako Partzuergoari aitortutako obligazioen eta egindako ordainketa materialen gainekoa.

A) Madrilgo Udalaren ziurtagiria 2014ko ekainaren 30a arte 2013ko ekitaldiko aurrekontuen kontura Madrilgo Garraioen Eskualde mailako Partzuergoari aitortutako obligazioen eta egindako ordainketa materialen gainekoa.

Bi administrazio horiek egindako ordainketen batura aitortutako obligazioenaren berdina izango balitz, 2014ko ekitaldiko Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako ekarpena behin betiko bihurtuko da, eta ordain-agindua emango da lau paragrafoaren bigarren lerrokadan adierazitakoaren arabera.

Bi administrazioek egindako ordainketen batura aitortutako obligazioena baino txikiagoa bada, Estatu Administrazio Orokorren behin betiko ekarpena eragiketa honen bidez kalkulatu da: 2014ko ekitaldiko Estatuaren aurrekontu orokorretan kontsignatua biderkatuko da egindako ordainketak zati aitortutako obligazioak egitean ateratako emaitzaz (biak 2013ko aurrekontuen kontura), eta horren ordain-agindua egingo da lau paragrafoaren bigarren lerrokadan adierazitakoaren arabera, betiere ateratzen den zenbatekoa egindako ordainketa aurreratuena baino handiagoa bada. Horrela izan ezean, zenbatekoa zehaztuko da, eta itzultzeko eskatuko da.

– Bartzelona:

A) Kataluniako Gobernuaren ziurtagiria 2014ko ekainaren 30a arte 2013ko ekitaldiko aurrekontuen kontura ATMri aitortutako obligazioen eta egindako ordainketa materialen gainekoa.

B) Bartzelonako Udalaren ziurtagiria 2014ko ekainaren 30a arte 2013ko ekitaldiko aurrekontuen kontura ATMri aitortutako obligazioen eta egindako ordainketa materialen gainekoa.

Bi administrazio horiek egindako ordainketen batura aitortutako obligazioenaren berdina izango balitz, 2014ko ekitaldiko Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako ekarpena behin betiko bihurtuko da, eta ordain-agindua emango da lau paragrafoaren bigarren lerrokadan adierazitakoaren arabera.

Bi administrazioek egindako ordainketen batura aitortutako obligazioena baino txikiagoa bada, Estatu Administrazio Orokorren behin betiko ekarpena eragiketa honen bidez kalkulatu da: 2014ko ekitaldiko Estatuaren aurrekontu orokorretan kontsignatua biderkatuko da egindako ordainketak zati aitortutako obligazioak egitean ateratako emaitzaz (biak 2013ko aurrekontuen kontura), eta horren ordain-agindua egingo da lau paragrafoaren bigarren lerrokadan adierazitakoaren arabera, betiere

ateratzen den zenbatekoa egindako ordainketa aurreratua baina handiagoa bada. Horrela izan ezean, zenbatekoa zehaztuko da, eta itzultzeko eskatuko da.

– Kanariar Uharteak:

Kanarietako Autonomia Erkidegoko kontu-hartzailtza nagusiaren ziurtagiria 2014ko ekainaren 30a arte 2013ko ekitaldiko aurrekontuen kontura uharteko kabildoei lehen oinarrian aurreikusitako xedeari erantzuteko aitortutako obligazioen eta egindako ordainketa materialen gainekoa.

Egindako ordainketen zenbatekoa aitortutako obligazioena adina izango balitz, 2014ko ekitaldiko Estatuaren Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako ekarpena behin betiko bihurtuko da, eta ordain-agindua emango da lau paragrafoaren bigarren lerrokadan adierazitakoaren arabera.

Egindako ordainketen batura aitortutako obligazioena baina txikiagoa bada, Estatuako Administrazio Orokorren behin betiko ekarpena eragiketa honen bidez kalkulatu da: 2014ko ekitaldiko Estatuaren aurrekontu orokorretan kontsignatua biderkatuko da egindako ordainketak zati aitortutako obligazioak egitean ateratako emaitzaz (biak 2013ko aurrekontuen kontura), eta horren ordain-agindua egingo da lau paragrafoaren bigarren lerrokadan adierazitakoaren arabera, betiere ateratzen den zenbatekoa egindako ordainketa aurreratua baina handiagoa bada. Horrela izan ezean, zenbatekoa zehaztuko da, eta itzultzeko eskatuko da.

Sei. Estatuako Administrazio Orokorrek emandako diru-laguntza hauek bateragarriak dira helburu berarako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, horrelakoak edozein administrazio, edo erakundek emanda ere, alde batera pribatu zein publiko, Estatuako zein Europar Batasuneko edo nazioarteko diren ere.

Zazpi. Estatuako Administrazio Orokorrek agindu beharreko ordainketak aseguratzen ez da berme, abal edo kauziorik aurkeztu behar.

Zortzi. Aurreko paragrafoetan aurreikusten ez denerako, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta garatzeko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Bederatzi. Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak neurri egokiak hartuko ditu xedapen honetan diru-laguntza hauei dagozkien kredituen kudeaketarekin lotuta adierazitakoa betetzeko.

Hirurogeita hamabigarrena. *Renfe-Operadoreari konturako ordainketak baimentzea Kataluniako Gobernuari eskualdatutako aldirietako eta eskualdeko zerbitzuengatik.*

Bat. Harik eta Estatuako Administrazio Orokorrek Kataluniako Gobernuari interes orokorreko trenbide-sareko zabalera iberiarreko sarearen gaineko aldirietako eta eskualdeko trenbidezko bidaiarien garraio-zerbitzuei dagozkien baliabideen transferentziak gauzatzeko prozedura Estatu-Kataluniako Gobernuak Ekonomia eta Zerga Gaietarako Batzorde Mistoak erabakitzen duen arte –haien eginkizunak Kataluniako Gobernuari eskualdatu zitzaizkion abenduaren 30eko 2034/2009 Errege Dekretua eta azaroaren 26ko 1598/2010 Errege Dekretua betez, hurrenez hurren–, Estatuak RENFE-Operadorea Enpresa Erakunde Publikoari aipatutako zerbitzu horien kostua transferituko dio. Prozedura hori, edozelan ere, 2011n, 2012an eta 2013an emandako zerbitzuei dagokienez egingo da.

Bi. Ordain-aginduak emango dira Renfe-Operadoreak urte bakoitzerako egindako likidazio-proposamenen gainean Estatuako Administrazio Esku Hartzailtza Nagusiak dagozkion finantza-kontrolako txostenak eman ostean; horrelakoetan bereziki egiaztatuko du diru-sarrerak eta gastuak egozteko irizpideak hitzarmen honetan ezarritakoen antzekoak direla: «Estatuako Administrazio Orokorren eta Renfe-Operadorea Enpresa Erakunde Publikoaren arteko hitzarmena, 2012ko abenduaren 17koa, Sustapen Ministerioak Renfe-Operadoreari ordaintzeko Estatuako Administrazio Orokorren eskumena diren aldirietako eta distantzia erdiko bidaiarien trenbide bidezko garraio-

zerbitzu publikoak, 2011n eta 2012an, emateagatik»; hori guztia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1370/2007 Erregelamendua (EE), bidaiarien trenbide eta errepide bidezko garraio-zerbitzu publikoen buruzkoa, eta Kontseiluaren 1191/69 eta 1107/70 (EEE) Erregelamendua indargabetzen dituen, betez.

Renfe-Operadoreari Kataluniako Gobernuak bere eskumenak erabiliz hartutako erabakien ondorioz sortzen zaion ustiapen-defizit handiagoa ez da konpentsatuko; aurreko lerrokan aipatutako hitzarmenaren ondorioetarako kontuan hartutakoak ez diren tarifa-politika edo kalitate-estandar, konpromiso eta baldintzei dagozkie aipatutako eskumen horiek.

2011ko eta 2012ko txostenak 2014ko ekainaren 30a baino lehen igorri beharko dira, eta 2013ko ekitaldikoa 2014ko irailaren 30a baino lehen.

Hiru. 2011ko, 2012ko eta 2013ko ekitaldietan emandako zerbitzuengatik dagozkion ordain-aginduak eman aurretik, bi paragrafoan aipatutako finantza-kontrolako txostenak hartuko dira kontuan, betiere 2014rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren aurrekontu-aplikazio eta zenbateko hauen kontura:

– 17.39.441M.443 «Renfe-Operadoreari Kataluniari eskualdatutako aldirietako eta eskualdeko garraio-zerbitzuak, likidatu gabe daudenak, 2011ko ekitaldiari dagokionez, konpentsatzeko», 130.222,00 mila euro.

– 17.39.441M.444 «Renfe-Operadoreari Kataluniari eskualdatutako aldirietako eta eskualdeko garraio-zerbitzuak, likidatu gabe daudenak, 2012ko ekitaldiari dagokionez, konpentsatzeko», 106.239,00 mila euro.

– 17.39.441M.445 «Renfe-Operadoreari Kataluniari eskualdatutako aldirietako eta eskualdeko garraio-zerbitzuak, likidatu gabe daudenak, 2013ko ekitaldiari dagokionez, konpentsatzeko», 116.447,00 mila euro.

Lau. Aurreko paragrafoetan aipatutako transferentziak honako akordio hauen bidez onartutako metodologiaren esparruan erabakitzen diren behin betiko likidazioen konturako zenbatekotzat hartuko dira: Estatu-Kataluniako Gobernuak Ekonomia eta Zerga Gaietarako Batzorde Mistoaren 2009ko abenduaren 22ko akordioa, Renfe-Operadoreak Bartzelonan emandako bidaiarien trenbidezko aldirietako garraio-zerbitzuak baloratzekoa, eta Estatu-Kataluniako Gobernuak Ekonomia eta Zerga Gaietarako Batzorde Mistoaren 2010eko azaroaren 17ko akordioa, interes orokorreko trenbide-sareko zabalera iberiarreko sarearen gaineko bidaiarien trenbidezko eskualdeko garraio-zerbitzuak baloratzekoa.

Bost. Behin betiko likidazioak eginda, bat eta hiru arteko paragrafoetan xedatutakoa betez ordaindutako konturako zenbatekoari dagokionez horietatik ateratzen diren alde positiboak edo negatiboak 2014ko eta hurrengo ekitaldietan emandako zerbitzuengatik egin beharreko transferentziak handitzera edo txikiagotzera bideratu ahal izango ditu Estatuaren Administrazio Orokorrak.

Hirurogeita hamahirugarrena. *Lege honen VII. tituluko I. kapituluan aipatzen den Estatuaren tributua-sarreraren bilakaera-indizea kalkulatzeko irizpideak Tokiko Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 121. artikuluan ezarritakoarekin bat.*

Toki-erakundeek Estatuaren tributuetan –zehazki, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Tokiko Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren 121. artikuluan xedatutakoetan– duten partaidetzaren konturako ordainketak kalkulatzeko, 2004tik 2014ra arteko Estatuaren tributua-sarreraren bilakaeraren behin-behineko indizea abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 20. artikuluan ezarritako irizpideen arabera zehaztuko da. Irizpide horiek honako hauek dira:

1. Estatuaren 2014ko tributua-sarrerak Estatuak ekitaldi horretan bildutako diru-kopuruaz osaturik daude, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziengatik autonomia-erkidegoei lagatako tributua-baliabideak salbuetsita, 22/2009 Legearen 20. artikuluan ezarritako moduan.

2. Estatuaren 2004ko tributu-sarrerak kalkulatzeari dagokionez, 22/2009 Legearen 20. artikuluan ezarritako homogeneizazio-irizpideak erabiliko dira. Hau da, autonomia-erkidegoen 2004ko konturako ekarpena 2014ko lagapen-terminoetan simulatuko da. 2002ko likidazioari dagokionez, kalkulatzeko, autonomia-erkidegoen behin betiko errendimenduaren –2014ko lagapen-baldintzetan– eta lagapen-baldintza horien arabera egindako ekarpenen arteko aldea hartuko da kontuan.

Lege honen VII. tituluko I. kapituluaren arautzen diren eta aurrekoarekiko desberdinak diren gainerako bilakaera-indizeak zehazteko, abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, eta, hala badagokio, 2007. oinarri-urtea dagokion urtearekin ordezkatu da.

Hirurogeita hamalagarrena. *Kreditu-eragiketak birfinantzatzea eta tokiko erakundeei lotutako edo haien mendeko erakundeei aplikagarri zaien zorpetze-erregimena.*

1. 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen azken xedapenetako hogeita hamaikagarrenean xedatutakoaren salbuespen gisa, epe luzerako kreditu-eragiketak birfinantzatzeko eragiketak formalizatu ahal izango dira, baldin eta toki-erakundeen hornitzaileei ordaintzeko finantzaketa-mekanismo bat ezartzeko informazio-betebeharrak eta beharrezko prozedurak ezartzen dituen otsailaren 24ko 4/2012 Errege Lege Dekretua indarrean sartu aurretik hitzartu badira, eta, betiere, haien xedea epemugaratzeko zain dauden obligazioekiko finantza-karga, amortizazio-aldia edo eragiketa horien arriskua murriztea bada.

Aurreko eragiketetan, toki-erakundeei enprekin eta autonomoekin ordaindu gabe dituzten zorrak saneatzen laguntzeko ezohiko eta premiazko neurriei buruzko apirilaren 24ko 5/2009 Errege Lege Dekretua aplikatuz formalizatu direnak jaso ahal izango dira. Birfinantzaketa horren barruan, ezin izango da jaso Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 177. eta 193. artikulua aplikatuz formalizatutako eragiketarik.

Aipatutako birfinantzaketa-eragiketa horiek formalizatzeko, toki-korporazioko organoak eskudunak erabaki bat hartu beharko du, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutako quorum- eta bozketa-baldintzak betez.

Gainera, toki-erakundeei aurreko ekitaldian likidatutako sarrera arrunten ehuneko 75etik gorako aurrezki garbi negatiboa edo zorpetzea badute, 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen azken xedapenetako hogeita hamaikagarrenean zehaztutakoaren arabera, toki-korporazioek, osoko bilkuren erabaki baten bidez, finantza-saneamendurako edo zorra murrizteko plan bat onartu beharko dute, gehienez bost urteko epean aurrezki garbiaren joera edo zorpetze-bolumena zuzentzeko, hurrenez hurren. Azken horri dagokionez aurretik aipatutako mugaraino zuzendu beharko da, baldin eta bolumen hori ehuneko haren eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 53. artikuluan finkatuaren artean badago. Gehiegizko zorpetzeko gainerako kasuetan, zorra murrizteko planak zor maila zuzendu beharko du, gehienez aipatutako azken manuan finkatutako ehunekoraino.

Toki-erakundeei Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioko organo eskudunari jakinarazi beharko dizkiote plan horiek, onespina jaso dezaten; nolahi ere, dagokion autonomia-erkidegoak erakunde horien finantza-babesa Autonomia Estatutuan esleituta bada, hari jakinaraziko dizkio.

Toki-ogasunak arautzen dituen legediak zorpetzeko eragiketak baimentzeko arloan finkatzen dituen mugak betetzen ari dela toki-erakundea esan nahiko du aurreko onespina ondorio guztietarako. Ondorio hori bera ekarriko dute toki-erakundeen finantza-babesa esleituta duen eskudun organoak onartzen dituen finantza-saneamendurako edo zorra murrizteko planek, zeinek 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen hirurogeita hamahirugarren xedapen gehigarria aplikatuz betetzen diren.

Toki-erakundeko kontu-hartzaileak plan horien betetze-mailari buruzko urteko txosten bat egin beharko du, eta toki-korporazioko osoko bilkuraren aurrean aurkeztu, haren berri izan dezan. Plan horietako azken urteari dagokion txostena, gainera, toki-erakundeen finantza-babesa esleituta duen Herri-administrazioiko organo eskudunari ere igorri beharko dio.

Aipatutako planei dagokienez ez-betetzereen bat gertatuz gero, toki-erakundeak ezin izango du edozein inbertsio-modalitate finantzatzeko epe luzeko zorpetze-eragiketarik hitzartu. Halaber, toki-erakundeen finantza-babesa esleituta duen Herri-administrazioiko organo eskudunak aparteko neurriak proposatu ahal izango ditu, eta ukitutako toki-erakundeek hartu egin beharko dituzte. Toki-erakundeek neurriok hartu ezean, Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 25. eta 26. artikuluetan ezarritako neurri hertsigarriak eta nahitaez bete beharrekoak aplikatu ahal izango dira.

2. Toki-erakundeen mendeko edo haiei lotutako zorpetze-erregimenari dagokionez, 7/2013 Errege Lege Dekretuaren, ekainaren 28koaren, tributuei, aurrekontuei eta ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzeari buruzko premiazko neurri buruzkoaren, lehen xedapen gehigarria aplikatuko da 2014an.

Hirurogeita hamabosgarrena. Etxebizitza sustatzeko eta birgaitzeko maileguak itzultzetik etorritako baliabideak desafektatzea.

Toki-erakundeen babes ofizialeko, sustapen publikoko etxebizitzaren eraikuntza finantzatzeko Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Institutuak bere garaian emandako kredituak itzultzetik etorritako baliabideak autonomia-erkidegoen edo, bestela, toki-korporazioen defizita murriztera bideratu beharko dira nahitaez; horrelakoak autonomia-erkidegoei laga zaizkie 1995erako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 39eko 41/1994 Legearen hemeretzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betez. Horrelakoek ez badute defizitik, eraikinak birgaitzeko eta/edo hiri-berroneratzeko eta/edo -berritzeko ekimenetara bideratu beharko dira ezinbestean.

Hirurogeita hamaseigarrena. *2008an eta 2009an Estatuaren zergetan toki-erakundeek izandako parte-hartzearen behin betiko likidazioengatik probintzia bakarreko autonomia-erkidegoen konturako saldo zordunen itzulketak.*

Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako toki-ogasunak arautzen dituen legearen testu bateginaren 135. artikulua aplikazio-eremu subjektiboaren barruan sartutako probintzia bakarreko autonomia-erkidegoek 96 hilekoetara handitzeko eskatu ahal izango dute 2014ko lehen hiruhilekoan Estatuaren tributuetan toki-erakundeen parte-hartzearen kontzeptuan ekitaldi horietako likidazio negatiboak itzultzeko aldia, ondorioak aurtengo urtarrilaren 1etik aurrera edukita (2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen azken xedapenetako hamargarrenak aipatzen du hori), baldin eta horrelakoei autonomia-estatutu daukaten autonomia-erkidegoak eta hiriak finantzatzeko sistemaren 2008ko eta 2009ko likidazio negatiboak itzultzeko epea handitu bazaie 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 29ko 2/2012 Legearen hogeita hamaseigarren xedapen gehigarriaren arabera.

Hirurogeita hamazazpigarrena. *Estatuaren zerga-sarreraren bilakaera-indizea kalkulatzeko irizpideak 2012an tokiko erakundeek Estatuko tributuetan izandako partaidetzaren likidazioa egiteko.*

Toki-erakundeek Estatuaren tributuetan duten partaidetzaren 2012. urteari dagokion behin betiko likidazioa egiteko eta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Tokiko Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren 121.

artikuluaren aplikazioarena egiteko, 2004tik 2012ra arteko Estatuko tributu-sarrerren bilakaera-indizea abenduaren 18ko 22/2009 Legearen 20. artikuluan ezarritako irizpideen arabera zehaztuko da –arabide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema arautzen du eta zerga-arau batzuk aldatzen ditu Lege horrek–. Irizpide horiek honako hauek dira:

1. Estatuaren 2012ko tributu-sarrerak Estatuak ekitaldi horretan bildutako diru-kopuruaz osaturik daude, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziengatik autonomia-erkidegoei lagatako tributu-baliabideak salbuetsita, 22/2009 Legearen 20. artikuluan ezarritako moduan.

2. 2004 edo 2006ko Estatuaren zerga-sarrerren kalkulari dagokionez, 22/2009 Legearen laugarren xedapen iragankorreko d) idatz-zatian ezarritako irizpideak erabiliko dira, eta 2004 edo 2006 urtea –zein dagokion– hartuko da oinarri-urte gisa.

*Hirurogeita hemezortzigarrena. Gizarte Segurantzako kotizazioa murriztea, haurdunaldian edo edoskialdi naturalean arriskua izateagatik lanpostua aldatzean eta lanbide-gaixotasuna izatean.*

Lan-arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 26. artikulua aurreikusitakoaren arabera, haurdunaldian edota edoskialdi naturalean arriskuren bat dagoela-eta, langilea bere egoerarekin bateragarria den lanpostu edota funtzio batera lekualdatuz gero, lanpostu edo funtzio berri horretan dirauen bitartean sortutako kuotei dagokienez, enpresaren gertakari arruntengatik ekarpenen ehuneko 50eko murrizketa aplikatuko da Gizarte Segurantzaren sarrera-aurrekontuaren kontura.

Murrizketa hori bera aplikatu ahal izango da, erregelamendu bidez zehaztutako moduan eta baldintzetan, lanbide-gaixotasunaren ondorioz enpresaren barruan lanpostua aldatzean, edota beste enpresa batean hastean, langilearen egoerarekin bateragarria den jarduera gauzatzeko.

*Hirurogeita hemeretzigarrena. Aldizkako kontratu finkoak dauzkaten langileen jardueraldia luzatzen laguntzeko neurriak, turismoaren, horri lotutako merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreetan.*

1. Turismoaren, horri lotutako merkataritzaren eta ostalaritzaren sektoreetako jardueretan aritzen diren enpresek, sektore publikokoek izan ezik, urteroko martxoan eta azaroan ekoizpen-jarduerarik sortzen badute eta hilabete horietan altan hasi eta/edo mantentzen badute aldizkako kontratu finkoak dituzten langileen okupazioa, ehuneko 50eko hobaria aplikatu ahal izango dute hilabete horietan langile horien gertakari arrunten, bai eta langabezia, FOGASA eta lanbide-heziketaren baterako bilketaren kontzeptuen ere, Gizarte Segurantzarako enpresa-kuotetan.

2. Xedapen gehigarri honetan adierazitakoa lege hau indarrean sartzen denetik 2014ko abenduaren 31ra arte aplikatuko da.

*Laurogeigarrena. Askotariko ondorioak dituen adierazle publikoa (IPREM) 2014rako zehaztea.*

Lanbide arteko gutxieneko soldataren erregulazioa arrazionalizatzeko eta haren zenbatekoa areagotzeko ekainaren 25eko 3/2004 Errege Lege Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, askotariko ondorioak dituen errentaren adierazle publikoak (IPREM) zenbateko hauek izango ditu 2014an:

- a) Eguneko IPREMak, 17,75 eurokoa.
- b) Hileko IPREMak, 532,51 eurokoa.
- c) Urteko IPREMak, 6.390,13 eurokoa.



d) Ekainaren 25eko 3/2004 Errege Lege Dekretuan ezarritakoari jarraiki, lanbide arteko gutxieneko soldataren ordeztuak IPREM erreferentzia ezarri den kasuetan, urteko IPREMaren zenbatekoa 7.455,14 eurokoa izango da arauak urte osoko lanbide arteko gutxieneko soldatari egiten diotenean erreferentzia, eta aparteko ordainsariak berariaz kanpo uzten ez badituzte; azken horiek berariaz kanpo utziz gero, zenbatekoa 6.390,13 eurokoa izango da.

Laurogeita batgarrena. *Enplegurako lanbide-heziketa finantzatzea.*

Bat. Beste finantzaketa-iturri batzuei kalterik egin gabe, lanbide-heziketako kuotatik eratorritako funtsak martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretuak araututako enplegurako lanbide-heziketaren azpisistema finantzatzera bideratuko dira, baita 28. artikuluan xedatutako enplegu eta prestakuntzarako programa publikoak ere, enpresek eta langileek beren premiei erantzuneko dien prestakuntza jaso dezaten, eta ezagutzen oinarritutako ekonomia gara dadin.

Aurrekontua ixten den ekitaldiaren aurrekoan, likidazio bat egingo da benetan jasotako lanbide-heziketako kuotengatik. Zenbateko hori hurrengo ekitaldiko aurrekontuan sartuko da, zeinua positibo suertatuz gero ekitaldi horretarako hasieran aurreikusten ziren kuotekiko.

Bi. Aurreko paragrafoan aurreikusitako funtsen ehuneko 50, gutxienez, ondorengo ekimen eta kontzeptuak finantzatzera bideratuko da:

- Eskaripeko prestakuntza, enpresen prestakuntza-ekintzak eta banakako prestakuntza-baimenak barne hartzen dituena.
- Lehentasunez langile landunei zuzendutako prestakuntza-ekintza.
- Prestakuntzaren arloko babes- eta laguntza-ekintzak.
- Herri-administrazioetako prestakuntza.
- Enplegurako Prestakuntzarako Tripartita Fundazioaren funtzionamendu- eta inbertsio-gastuak.

Herri-administrazioetako prestakuntza finantzatzeko, paragrafo honen lehen letrorik adierazitako zenbatekoaren 100eko 6,165 bideratuko da.

Zenbateko horri, aldeztu aurretik, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen arabera kupoa kalkulatzeko erabilgarriko egozpen-indizeari dagokion ehunekoak kenduko zaio, eta zuzkidura bereizi gisa sartuko da Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren gastu-aurrekontuan, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioari atxikita dagoen Herri Administrazioaren Institutu Nazionalari diruzko ekarpena egiteko hiru ordainketaren bidez; hurrenez hurren, otsailean, apirilean eta ekainean. Herri Administrazioaren Institutu Nazionalaren aurrekontuan, lurraldekatuta azalduko dira autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei euren langile publikoen etengabeko prestakuntza finantzatzeko dagozkien funtsak. Funts horiek Herri Administrazioaren Institutu Nazionalak ordainduko ditu, autonomia-erkidego eta hiri autonomo bakoitzari transferentzia izenduna eginez, Euskal Autonomia Erkidegoari izan ezik.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak funtzionamendu- eta inbertsio-gastuak finantzatzeko funtsak ordainduko dizkio Enplegurako Prestakuntzarako Tripartita Fundazioari. Ordainketa hori laurdenka egingo da, hiruhileko bakoitzeko bigarren hamabostaldi naturalean. Fundazioak, urtero, eta hurrengo ekitaldiko apirilaren 30a baino lehen, bere funtzionamendurako esleitu zaizkion funtsen kontura egindako gastuen kontabilitate-justifikazioa aurkeztu beharko dio Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari.

Gainerako ehuneko 50, hasiera batean, lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzak finantzatzeko erabiliko da, baita enplegurako eta prestakuntzarako programa publikoak finantzatzeko ere. Hala ere, Enplegu Zerbitzu Publiko eskudunak txostena egin ondoren, eta salbuespen gisa, 2014an funts horien % 20 gorde ahal izango da, gehienez, enplegua sustatzeko ekintzak egiteko, baldin eta ekintza horiek Enplegu

Politikako Urteko Planean sartuta badaude, eta ekintzotan enplegu-bilatzailatzat izena emanda dauden langabeek parte hartzen badute.

Prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuaren alderdi teorikoa finantzatzeko orduan, langileek jasotzen duten prestakuntza eta haren ezaugarriak arautzen dituen erregelamenduzko araudian ezarritakoa beteko da.

Hiru. Estatutuaren bidez enplegu-politika aktiboen arloan eskumenak bereganatuta dauzkaten autonomia-erkidegoek funtsen transferentziak jasoko dituzte Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarengandik, erkidego horiek enplegurako lanbide-heziketaren arloan kudeatzen dituzten diru-laguntzak finantzatzeko, aplikagarri den araudian ezarrita dagoenaren arabera dagokion zenbatekoan.

Lau. Lanbide-heziketaren gertakariagatik kotizatzen duten enpresek kreditu bat izango dute beren langileen prestakuntzarako, Enplegurako lanbide-heziketaren azpisistema arautzen duen martxoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretuaren II. kapituluaren xedatutakoaren arabera. Kreditu horren zenbatekoa enpresak lanbide-heziketaren kontzeptuan 2013an ordaindutako diru kopuruari hobari-ehuneko bat aplikatzearen ondorioz lortzen den kopurua izango da. Enpresaren tamainaren arabera, hauek izango dira aipatutako hobari-ehunekoak:

- a) 6 eta 9 langile artean dituzten enpresak: ehuneko 100.
- b) 10 eta 49 langile artean dituztenak: ehuneko 75.
- c) 50 eta 249 langile artean dituztenak: ehuneko 60.
- d) 250 langile edo gehiago dituztenak: ehuneko 50.

1 eta 5 langile artean dituzten enpresek 420 euroko hobari-kreditua izango dute enpresako, ehuneko baten orde. Era berean, aipatu arauak ezarritakoaren arabera, 2014. urtean lantoki berriak irekitzen dituzten enpresek eta enpresa sortu berriek prestakuntza-kreditua jaso ahal izango dute, baldin eta beren plantillan langile berriak hartzen badituzte. Aurreko kasu horietan, enpresek izango duten hobari-kreditua langile berri bakoitzeko 65 eurokoa izango da.

2014an beren langileei prestakuntzarako banakako baimenak ematen dizkieten enpresek prestakuntzarako hobari-kreditu gehigarri bat izango dute, paragrafo honen lehen lerrokadan ezarrita dagoenaren arabera legokiekeen urteko kredituaz gain. Kreditu gehigarriaren zenbatekoa Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren agindu bidez ezarritako irizpideak aplikatuz ateratzen den kopurua izango da. Aipatutako baimenak ematen dituzten enpresen multzoari emandako kreditu gehigarriak ezin izango du enplegurako lanbide-heziketarengatik Gizarte Segurantzaren kotizazioetan egindako hobariak finantzatzeko Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak daukan aurrekontuan ezarrita dagoen kredituaren ehuneko 5 baino handiagoa izan.

Laurogeita bigarrena. *Arauak etetea.*

2014ko ekitaldian, ondoriorik gabe gelditzen da Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzko eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 2 ter 4 artikuluan xedatutakoa.

Laurogeita hirugarrena. *Herri-administrazioen edo irabazi-asmorik gabeko erakundearen titulartasunaren mende dauden osasun-erakundeek Gizarte Segurantzarekin dituzten zorrak ordaintzea.*

Herri-administrazioen edo irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko nahiz pribatuen titulartasunaren mende dauden osasun-erakundeek, 1995erako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 30eko 41/1994 Legearen hogeita hamargarren xedapen gehigarrian aurreikusitako moratoriaren babesean daudene, hogeitaz urterako eskainitako gabetasuna luzatzea eskatu ahalko diote Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorri, baita gehienez hamar urterako eskainitako luzamendua –urteroko amortizazioekin– zabaltzea ere.

Laurogeita laugarrena. *Gizarte Segurantzako sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hogeita zortzigarren xedapen gehigarrian jasotakoaren aplikazioa geroratzea.*

Geroratu egiten da Gizarte Segurantzari buruzko sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hogeita zortzigarren xedapen gehigarrian jasotakoaren aplikazioa.

Laurogeita bosgarrena. *Indarrean sartzea geroratzea.*

Urtebetez atzeratuko dira Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, berrogeita hemezortzigarren xedapen gehigarriaren ondorioak; Gizarte Segurantzako sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen 7. artikulua sartu zuen xedapen hori, zeinaren bidez lan-istripuengatiko eta lanbide-gaixotasunengatiko estaldura Gizarte Segurantzako erregimen guztiei zabaldu zaien, alta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera egiten duten langileei dagokienez. Ordura arte, 2012ko abenduaren 31n zegoen araubide juridikoa egongo da indarrean.

Laurogeita seigarrena. *Estatu-agentziak sortzea.*

Bat. 2014ko ekitaldian, ez da sortuko Zerbitzu publikoak hobetzeko Estatu-agentziei buruzko uztailaren 18ko 28/2006 Legean aurreikusitako Estatu-agentziarik.

Bi. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren salbuespen izango da Ikerketarako Estatu Agentzia sortzea, Zientziari, teknologiari eta berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen hamabigarren xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera. Agentzia hori gastu publikoa handitu gabe sortuko da, ez da Estatuko finantza-aurrekontuko kredituekin finantzatuko, eta bere lotura- eta aldaketa-erregimena Aurrekontuen Legean xedatuko da.

Agentzia hori sortzean ez da, inola ere, egituren edo langileen kopurua areagotuko, eta dagokion dirua birbanatuz soilik hornituko da. Funtzionamenduari dagokionez, Administrazioak gaur egun dituen baliabide materialak erabili beharko dira.

Hiru. Halaber, Bat paragrafoan xedatutakoaren salbuespen izango da Trenbide Seguratasunerako Estatu Agentzia sortzea.

Agentzia hori sortzean ez da gastu publikoa handituko, eta ez da finantzatuko Estatuaren finantza-aurrekontuaren kredituekin. Agentzia hori sortzean ez da, inola ere, Estatuko sektore publikoaren zerbitzura dauden egituren edo langileen kopurua areagotuko, eta haren eginkizunekin zerikusia duten Sustapen Ministerioko, haren erakunde eta entitate publikoetako langileekin baino ez da hornituko; halaber, administrazioak egun dituen giza baliabideekin eta bitarteko materialekin jardun beharko du.

Laurogeita zazpigarrena. *Espetxe Lana eta Enplegurako Prestakuntza erakunde autonomoaren ekonomia- eta finantza-araubidea.*

Espetxe Lana eta Enplegurako Prestakuntza erakunde autonomoa Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorren 2. artikulua 1 paragrafoko g) idatzatian aurreikusitako zuzenbide publikoko Estatu-erakunde bihurtuko da; ondorioak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu horrek, eta epe mugagabea egongo da indarrean. Ondoko paragrafoetan zehaztutako ekonomia- eta finantza-araubidea izango du:

Bat. Aurrekontuen araubidea.

Espetxe Lana eta Enplegurako Prestakuntza zuzenbide publikoko Estatu-erakundeak aurrekontuen aurreproiektua egingo du urtero, eta Barne Arazoetako Ministeriora igorriko du, ondoren Aurrekontuen 47/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera izapidetu dadin.

Administrazioiko sektore publikoko erakundeen ustiapen- eta kapital-aurrekontuena izango da haren aurrekontu-egitura.

**Bi. Kontabilitatea.**

Espetxe Lana eta Enplegurako Prestakuntza zuzenbide publikoko Estatu-erakundeak Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra bete beharko du, Estatuko Administrazioako Esku Hartzailtza Nagusiak gutxi gorabeherako gastu-aurrekontua duten entitate publikoentzat xedatutako egokitzapena eginda.

**Hiru. Ekonomia- eta finantza-kontrola.**

Kontuen Auzitegiari esleitutako fiskalizazio-eskumenei kalterik egin gabe, Aurrekontuen Lege Orokorrean xedatutako finantza-kontrol iraunkorraren eta ikuskaritza publikoaren mende egongo da Espetxe Lana eta Enplegurako Prestakuntza zuzenbide publikoko Estatu-erakundea.

**Lau. Estatutua egokitzea.**

Gobernuak, hiru hilabeteko epean, aldatu egingo du Espetxe Lana eta Enplegurako Prestakuntza erakunde autonomoaren estatutua onartzen duen uztailaren 15eko 868/2005 Errege Dekretua, xedapen honetan aurreikusitakora egokitzeko.

**Laurogeita zortzigarrena.** *Desindexazioa sektore publikoko kontratuen indize orokorre dagokienez.*

**Bat.** Lege hau indarrean jarri ostean espedientea hasi zaien sektore publikoko kontratuak berrikusteko araubideak ezin izango du erreferentziatzen hartu prezioen ezein indize orokor edo horrelakorik jasotzen duen ezein formula, bere prezioei edo berrikus daitekeen beste edozer moneta-baliori dagokienez, eta berrikuspen hori bidezkoa bada, kostuen bilakaera islatu beharko du. Kontratazio-espeditentia hasita dagoela ulertuko da, baldin eta kontratua esleitzeko prozeduraren deialdia ordurako argitaratuta badago. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuen kasuan, kontratuaren hasiera-unea zehazteko, baldintza-agiriak onartutako data hartuko da kontuan.

Aurreko lerrokadan azaldutako araubidea, Lege hau indarrean hasten denez geroztik, zerbitzu publikoen kudeaketari aplikatu beharreko tarifak edo moneta-balioak berrikusteko sistemen onarpenari aplikatu beharko zaio, aukeratutako prestazio mota, zuzeneko edo zeharkakoa, edozer dela ere.

**Bi.** Aurreko lerrokadetan xedatutakoaren ondorioetarako, prezioen indize orokortzat herritarren eskuragarri dagoen prezioen edozer indize hartuko da, herritarren esku dauden beste indize batzuetan oinarrituta badago. Ez dira horrelakotzat hartuko ondasun edo zerbitzu taldeei dagozkien prezioen indizeak, horiek ekoizpen-jardueretan erabiltzeko orduan elkarrekin parekagarriak direnean, baldin eta publikoki erabiltzeko moduan ez badago prezio espezifiko edo azpiindize zehatzagorik.

**Hiru.** Halaber, sektore publikotzat joko da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren, azaroaren 14koaren, 3. artikulua lehen paragrafoan azaldutako erakunde eta entitateen multzoa.

**Lau.** Xedapen gehigarri hau ez da aplikatuko urriaren 7ko 1359/2011 Errege Dekretuan ezarritako formuletan oinarritutako prezioen berrikuspenean; aipatutako dekretuak herri-administrazioen armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuen eta obra-kontratuen prezioak berrikusteko oinarritzko materialen eta formula-eredu orokorren zerranda onetsi zuen.

**Laurogeita bederatzigarrena.** *Mediterraneoko korridoreko proiektuak, Algeciras Boadillan, abian jartzeko beharrezko jarduerak.*

Baimena ematen zaio gobernuari Mediterraneoko korridoreko proiektuak, Algeciras Boadillan, abian jartzeko beharrezko jarduerak egin ditzan, garraio-politikako plangintzaren esparruan.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. *Estatuko sektore publikoaren zerbitzurako langileen bizilekuagatiko kalte-ordainak.*

2014an, Estatuko sektore publikoko langile aktiboen bizilekuagatiko kalte-ordaina orain arte bezala ordainduko da hala onartuta duten Estatuko lurraldeetan, eta 2013ko abenduaren 31n indarrean zeuden zenbateko berdinetan.

Nolanahi ere, bizilekuagatiko kalte-ordainen onuradunek jasotzen duten zenbatekoa Estatuko sektore publikoko langileentzat ezarritakoa baino handiagoa bada, gehikuntzarik gabe jasotzen jarraituko dute 2014an.

Bigarrena. *Osagarri pertsonalak eta iragankorrak.*

Bat. Osagarri pertsonalek eta iragankorrek, eta antzeko izaera duten gainerako ordainketek berariazko araudian eta Lege honetan xedatutakoa beteko dute.

Bi. 1985erako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 50/1984 Legearen 13. artikuluan xedatutakoari jarraiki abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuko langileei aitortutako osagarri pertsonalek eta iragankorrek 2013ko abenduaren 31n zuten zenbateko bera izango dute, eta lanpostu-aldaketak eragindako hobekuntzek, halakorik egonez gero, xurgatu egingo dituzte.

Lanpostu-aldaketak ordainsariaren murrizketa ekartzen duen kasuetan ere, eutsi egingo zaio sistema berria aplikatzearen ondorioz ezarritako osagarri pertsonal iragankorrari, eta haren xurgaketari egotziko zaizkio lanpostu-aldaketak eragin ditzakeen hobekuntzak.

Hirurtekoak, produktibitate-osagarria, eta aparteko zerbitzuengatiko haborokinak ez dira, inola ere, kontuan hartuko.

Hiru. Indar Armatueta, Guardia Zibileko eta Polizia Nazionaleko langileei, Gizarte Segurantzako Administrazioari funtzionarioei eta Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionaleko estatutupeko langileei aitortutako osagarri pertsonalek eta iragankorrek, bai eta halakoak jasotzeko eskubidea duten gainerako langileei aitortutakoek ere, aurreko Bi paragrafoan ezarritako arau berberak bete beharko dituzte.

Lau. Atzerrian destinatutako langileei aitortutako osagarri pertsonalak eta iragankorrak Estatuan lan egiten duten langileentzat ezarritako arau berberak aplikatuz xurgatuko dira; nolanahi ere, ukitutako funtzionarioak destino-herrialdea aldatzean, bertan behera utzi ahal izango da.

Hirugarrena. *Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateetara kidetzea eta atxikitzea.*

Bat. Enpresen bat-egiteek eta norberaren konturako langileek Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateetara egindako atxikipenek, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 68. artikulua esleitutako prestazioak eta zerbitzuak kudeatzeko xedez egin direnean, haien araubide juridikoa eguneratzeko araua indarrean sartu arte jarraituko dute indarrean. Arau eguneratzaile hori Gizarte Segurantzako sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hamalagarren xedapen gehigarrian aurreikusita dago, eta, haren bidez, bat-egiteen eta atxikipenen indarraldia, ezaugarriak eta baldintzak arautuko dira.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera gauzatzen diren kidetze eta atxikipenei ere aplikatuko zaie.

Bi. Aurreko paragrafoan ezarritako aldi iragankorrean, bat egindako enpresaburuek eta atxikitako langileek, ondoko kasuetan, aldeztu aurretik indargabetu ahal izango dute mutualitatearekin duten lotura: prestazio eta zerbitzu publikoak jasotzean irregulartasunak izan direnean; erakundeak finantza nahikoa ez duenean, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko 74.1 artikuluan zehaztutako baldintzetan; edota esandako artikuluan aurreikusitako kautela-neurriak hartzen direnean, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak ezarritako baldintzetan. Erakunde horrek berak arautuko du kautela-neurri horiek hartzeko administrazio-prozedura.

Laugarrena. *Kapital higigarriaren zenbait etekin jasotzeagatiko konpentsazio fiskala, etekinen sortze-aldia bi urtetik gorakoa bada 2013an.*

Bat. 2013ko zergaldian aurrezkiaren zerga-oinarrian higiezinaren kapitalaren errendimendu hauetatik edozein sartzen duten zergadunek xedapen honetan araututako kenkarirako eskubidea izango dute:

a) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legearen, sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga partzialki aldatzen dituenaren, 25.2 artikulua aipatzen dituen kapital propioak hirugarrenei lagatzearen ondorioz lortutako errendimenduak, 2006ko urtarrilaren 20a baino lehen kontratatutako finantza-tresnen ondorioz sortutakoak eta Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Legearen testu bateginaren –martxoaren 5eko 3/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren– 24.2.a) artikuluan xedatutako ehuneko 40ko murrizketa-ehunekoa izan behar zutenak, bi urtetik gorako sortze-aldia izateagatik.

b) 35/2006 Legearen 25.3.a) 1. artikulua aipatutako kapital geroratu moduko eskuratzeen ondoriozko errendimenduak, 2006ko urtarrilaren 20a baino lehen kontratatutako bizi- edo baliaezintasun-aseguruetatik datozenak, eta Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Legearen testu bateginaren 24.2.b) eta 94 artikuluetan xedatutako ehuneko 40ko edo 75eko murrizketa-ehunekoa aplikatu beharrekoak.

Bi. Kenkariaren zenbatekoa eragiketa honen diferentzia positiboa izango da: aurreko paragrafoan adierazitako etekin garbiak elkarren artean integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldo positiboari 35/2006 Legearen 66. artikuluan 2 paragrafoan adierazitako aurrezkiaren karga-tasa aplikatuta lortzen den kopurua ken etekin horiek aurreko paragrafoko ehunekoak aplikatuta oinarri likidagarri orokorrean sartu izan balira aterako zen kuota osoaren zenbateko teorikoa.

Hiru. Honako hau izango da aurreko paragrafoan adierazitako kuota osoaren zenbateko teorikoa:

Aurreko Bat paragrafoan aipatutako etekinak elkarren artean integratu eta konpentsatzearen ondorioz, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Legearen testu bateginaren 24.2 eta 94. artikuluetan eta seigarren xedapen iragankorrean adierazitako kenkari-ehunekoak aplikatuta (2006ko abenduaren 31n indarrean zegoen testuaren arabera), saldoa negatiboa edo zero bada, kuota osoaren zenbateko teorikoa zero izango da.

b) Aurreko Bat paragrafoan aipatutako etekinak elkarren artean integratu eta konpentsatzearen ondorioz, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Legearen testu bateginaren 24.2 eta 94. artikuluetan eta seigarren xedapen iragankorrean adierazitako kenkari-ehunekoak aplikatuta (2006ko abenduaren 31n indarrean zegoen testuaren arabera), saldoa positiboa bada, kuota osoaren zenbateko teorikoa eragiketa honen diferentzia positiboa izango da: oinarri likidagarri orokorraren eta lehen adierazitako saldo positiboaren baturari 35/2006 Legearen 63.1.1 eta 74.1.1 artikuluetan xedatutakoa, baita 35/2006 Legearen hogeita hamabosgarren xedapen gehigarriaren 1 paragrafoaren a) idatz-zatian xedatutako eskala ere, aplikatu ondoren ateratzen den kuota ken oinarri likidagarri orokorrari manu horietan esandakoa aplikatuta ateratzen dena.

Lau. Aurreko Hiru paragrafoan adierazitako saldoa zehazteko, 2006ko urtarrilaren 19ra arte ordaindutako primei dagokien etekin garbiaren zatiari bakarrik aplikatuko zaizkio Zergari buruzko Legearen testu bateginaren 24.2.b) eta 94. artikuluetan xedatutako kenkariak. Hala ere, data horren ondoren ordaindutako primei ere aplikatuko zaizkie aseguru-kontratuaren jatorrizko polizan aurreikusitako prima arruntak direnean.

Kapital geroratuko aseguru-polizaren prima bakoitzari lortutako etekin osoan zenbateko etekina dagokion zehazteko, etekin osoa ondoko zatiketarik ateratzen den haztapan-koefizientearekin biderkatuko da:

Zatitzailean, prima ordaindu zenetik diru-kopurua kobratu arte igarotako urte-kopurua primarekin biderkatuz ateratzen den emaitza jarriko da.

Izendatzailean, prima ordaindu zenetik diru-kopurua kobratu arte igarotako urte-kopurua prima bakoitzarekin biderkatuz ateratzen diren biderkaduren batura jarriko da.

Bost. Aseguru-entitateak zergadunari jakinarazi behar dio zenbateko etekin garbiak izan dituen, prima bakoitzeko, bizi- edo baliaezintasun-aseguruetatik eratorrita kapital geroratu moduan jasotako diru-kopuruengatik. Etekin horiek aurreko paragrafoan xedatutakoari jarraikiz kalkulatu dira, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Legearen testu bateginaren 24.2 eta 94. artikuluetan eta seigarren xedapen iragankorrean arautzen diren murrizketa-ehunekoak aplikatuta.

Sei. Modu horretan kalkulatuak enkariaren zenbatekoa guztizko kuota likidotik kenduko da, 35/2006 Legearen 80 bis artikuluan adierazitako lan-etekinen edo ekonomia-jardueren etekinen enkariaren ondoren.

Bosgarrena. *Kreditu-zentralizazioaren araubide iragankorra.*

Kredituak zentralizatu arte, Ogasuneko eta Herri Administrazioetako ministroak –azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoaren Kontratuak buruzko Legearen testu bateginaren 206.1 artikulua aplikatuta– emandako zentralizatzeko ministro-aginduek, hala dagokionean, Lege honen 1. artikuluen a), b), c), d), e) eta f) paragrafoetan aipatutako erakundeek, horren babesean izapidetzen dituzten kontratuak dagokienez, dagozkion kreditu-atxikipenak eman beharko dituztela xedatuko dute.

Kontratuak hasi aurretik, Kontratazioa Arrazionalizatzeko eta Zentralizatzeko Zuzendaritza Nagusiak egin beharreko kreditu-atxikipenaren zenbatekoa jakinaraziko dio erakunde bakoitzari, kontratu-xedarearen banaketaren arabera.

Seigarrena. *Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren hirurogeita seigarren xedapen gehigarria aplikatzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik aurrera aplikatuko da ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren hirurogeita seigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa, eta aipatutako testu bategin horretako 205. artikuluen 3 paragrafoan azaldutako subsidio-eskatzaileei eragingo die, baldin eta ordurako ez badituzte bete 215. artikuluen 1 paragrafoaren 1 zenbakian ezarritako eskakizunak.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Lehenengoa. *2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 22ko 39/2010 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarria indargabetzea.*

Indargabetu egiten da 2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 22ko 39/2010 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarria.

Bigarrena. *2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen hogeita hamabigarren xedapen gehigarria indargabetzea.*

Indargabetu egiten da 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen hogeita hamabigarren xedapen gehigarria.

Hirugarrena. *2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen hirurogeita bosgarren xedapen gehigarria indargabetzea.*

Indargabetu egiten da 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen hirurogeita bosgarren xedapen gehigarria.

## AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. *Estatuko Klase Pasiboei buruzko Legearen testuategina, apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa, aldatzea.*

Aldatu egiten da Estatuko Klase Pasiboei buruzko Legearen testuategina, apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa; aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta epe mugagabearen egongo da indarrean. Hona hemen aldaketak:

Bat. Aldatu egiten da Estatuko Klase Pasiboei buruzko Legearen testuateginaren 7. artikulua; hona nola geratzen den idatzita:

«7. artikulua. *Ekitaldia:*

1. 1. Eskubide pasiboak aitortzeko eskaera interesdunek edo horien legeko ordezkariak egin beharko dute, zuzenean edo behar bezala izendatutako mandatari bidez; nolana ere, administrazio-prozedura ofizios hasia xedatu ahal izango da erregelamendu bidez.

2. Prestazioak aitortzeko eskubidea prestazioaren gertaera eragilearen osteko egunetik aurrera gauzatu ahal izango da; hala ere, onspen horren ondorio ekonomikoak gehienez ere hiru hilabeteko atzerako eragina izango dute, eskaera egin eta hurrengo hilabetearen lehen egunetik aurrera.»

Bi. Aldatu egiten da Estatuko Klase Pasiboei buruzko Legearen testuateginaren 38. artikulua 2 zenbakia; hona nola geratzen den idatzita:

«38. artikulua. *Pentsioa jasotzeko eskubidearen baldintzak.*

(...)

2. Banantze- edo dibortzio-kasuetan, banantzea edo dibortzioa eragin duten kausak edozer direla ere, alargun-pentsioa edo, hala dagokionean, aldi baterako prestazioa jasotzeko eskubidea izateko, beharrezkoa izango da aurreko paragrafoan zehaztutako baldintzak betetzea eta ezkontide legitimoa izatea, heriotzaren orduan edo lehenago; betiere, bizirik geratu den ezkontidea berriro ezkondu ez bada edo izateko bikotea osatu ez badu, 4 paragrafoak adierazitako moduan. Orobat, judizialki dibortziatutako edo banandutako pertsonak Kode Zibilaren 97. artikulua aipatutako konpentsazio-pentsioaren jasotzaile ere izan beharko dira, eta eragilea hil ondoren iraungiko da hori. Aldi baterako konpentsazio-pentsio bat finkatuz gero, aitor litekeen alargun-pentsioa, edota aldi baterako alargun-prestazioa, konpentsazio-pentsioa iraungitzen den egun berean iraungiko da.

Alargun-pentsioaren edo dagokion aldi baterako prestazioaren zenbatekoa konpentsazio-pentsioarena baino handiagoa bada, azken horren zenbatekora iritsi arte murriztuko da hura; nolana ere, ondoriozko pentsioari ezin izango zaio testuategin honen 27. artikulua 2 zenbakian araututako osagarria erantsi. Dena den, alargun-pentsiorako eskubidea izango dute, konpentsazio-pentsioaren jasotzaile izan ez arren, banantze judizialaren edo epai irmo bidezko dibortzioaren unean edota zigor-erantzukizuna heriotzagatik iraungi delako artxibatu denean genero-indarkeriaren biktima zirela egiazta dezaketen emakumeek; epairik ezean, haien alde emandako babes-aginduaren bidez edo genero-indarkeriaren zantzuak daudela adierazten duen Fiskaltzaren txostenaren bidez, bai eta Zuzenbidean onartzen den beste edozein frogabideren bidez ere.

Baldin eta, dibortzioa egon denean, pentsiorako eskubidea duten hainbat onuradun aldi berean badaude, pentsioaren zenbatekoa haietako bakoitza eragilearekin bizi izan den denboraren arabera proportzioan aitortuko da; nolana ere, ehuneko 40 bermatuko da ezkontidearen alde edo, hala dagokionean,



ezkontidea ez bada ere, hiltzeko unean eragilearekin bizi zenaren alde, betiere alargun-pentsioaren onuraduna bada hurrengo 4 paragrafoan aipatutako moduan.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Hiru. Xedapen gehigarri berria eransten zaio, hamabosgarrena, Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginari; honela dio:

«Hamabosgarren xedapen gehigarria. *Epeak.*

Bat. Estatuko Klase Pasiboen Erregimenaren prestazioak aitortzeak eragindako ondorio ekonomikoak, horiek arautzen dituen legedia edozein dela ere, baita gerrako legedi berezikoak ere, gehienez hiru hilabeteko atzeraeragina izango dute, eskaera aurkeztu ondoko hilaren lehen egunetik zenbatuta.

Hiru hilabeteko atzeraeragin hori ere aplikatuko zaie prestazio horien gainean egiten diren errehabilitazioei, suspertzeei, pilaketei, bai eta berrikuspenei ere, baldin eta, espediente ebatzi ondoren, administrazioari dokumentu edo elementu frogabide berriak aurkezten badizkiete, eta horiek ebazpen horren unean kontuan hartu gabeko edo behar bezala egiaztatu gabeko gertaerak egiaztatzen badituzte.

Bi. Bidegabeki jasotako Klase Pasiboen Erregimeneko prestazioak itzultzeko eskatzeko Administrazioak duen eskubidea horiek jaso direnetik edo itzultzea eskatzeko akzioa egikaritu ahal izan denetik lau urtera preskribatuko da, prestazioen araudia eta prestazioak jasotzearen zergatiak edozein direla ere. Gauza bera gertatuko da gerrako legedi bereziaren babesean sortutako prestazioekin eta, oro har, Estatuko Gastuen Aurrekontuaren 07 atalaren kredituen kontura ordaindutako beste edozein prestaziorekin.

Estatuko Klase Pasiboen Erregimenean ezarritako betebeharrak ekonomikoak betetzeko preskripzio-epea ere lau urtekoa izango da.»

Lau. Xedapen gehigarri berria eransten zaio, hamaseigarrena, Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginari; honela dio:

«Hamaseigarren xedapen gehigarria. *Borondatezko erretiroa.*

Borondatezko erretiroan –Estatuko Klase Pasiboen Legearen testu bateginaren, apirilaren 30eko 670/1987 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 28.2.b) artikuluan araututa–, dagokion pentsiorako eskubidea sortzeko, zerbitzu konputagarrien azken bost urteak estalita egon beharko dira Estatuko Klase Pasiboen Araubidean, baldin eta, eskatutako hogeita hamar urteko zerbitzuetara iristeko, beste araubide batzuetarako kotizazio-aldiak ere kontuan hartu beharko balira, Gizarte Segurantzako araubideen arteko kuoten elkarrekiko zenbaketari buruzko arauak aplikatuta.

Arau hori ere aplikatuko da, baldin eta, eskatutako zerbitzuetako hogeita hamar urte betetzeko, Espainiatik kanpo estalitako aseguru-, egoitza-aldiak edota horien antzekoak zenbatu beharko balira (gizarte-segurantzako sistemen koordinaziorako erkidegoko erregelamenduak edo aldebiko hitzarmenak aplikatzearen ondorioz), salbu eta aipatutako aldi horiek Espainian egitekotan interesduna nahitaez Klase Pasiboetako Araubidean sartzeari ekarriko zuten jardueri badagozkie.

Lehen lerrokadan xedatutakoa ez zaie aplikatuko Estatuko Administrazioari langileei honako egoera hauetan badaude: zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan, senideak zaintzeko eszedentzian eta genero-indarkeriagatik eszedentzian; baldin eta, funtzio publikoaren araudi orokorrean araututako sartzeko eta mailaz igotzeko prozesuak gainditu dituztelako, gizarte-babeserako araubidea aldatzen badute. Langile hauei 2010eko abenduaren 31n indarrean zegoen araudia aplikatuko zaie Estatuko Klase Pasiboetako buruzko Legearen testu bateginaren 28.2.b) artikuluan araututako borondatezko erretiroa eskuratzeko ondorioetarako.»

Bigarrena. *1988rako Estatu Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 33/1987 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da 1988rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen 20. artikulua Hiru paragrafoa. Aldaketa horrek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina, eta epe mugagabea egongo da indarrean. Aurrerantzean, honela izango da:

«20. artikulua. *Espainiako Historia Ondarearen finantzaketa-arauak.*

(...)

Hiru. Espainiako Historia Ondareari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legea partzialki garatzeko urtarrilaren 10eko 111/1986 Errege Dekretuaren 58.6 artikulua 5 paragrafoak –otsailaren 8ko 162/2002 Errege Dekretuak aldatuta– aipatutako kreditu-atxikipenak, aipatutako artikulua horren 3.b) paragrafoan ezarritako aukera hartu ez denean, ezin izango dira ezeztatu, eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeriora igorri beharko dira, aipatutako ministerio-sailak, hala dagokionean, kreditua handitzeko izapide egokiak has ditzan kreditu-atxikipenak Estatuaren aurrekontutik baldin badatoz.»

Artikulua gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Hirugarrena. *Cervantes Institutua sortzen duen martxoaren 21eko 7/1991 Legea aldatzea.*

Aldatu egin da Cervantes Institutua sortzen duen 7/1991 Legearen 11. artikulua. Aldaketa horrek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina, eta epe mugagabea egongo da indarrean. Aurrerantzean, honela izango da:

«11. artikulua.

1. Cervantes Institutuak aurrekontu-aurreproiektu bat egingo du urtero Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak zehaztutako egiturarekin, eta hari igorriko dio Kanpo Arazo eta Lankidetzako Ministerioaren bitartez, gobernuaren akordio bidez onar dezaten eta, ondoren, Gorte Nagusietara igortzeko; aurreproiektu hori Estatuaren Aurrekontu Orokorren barruan sartuko da eta administrazio zentralen aurrekontuekin kontsolidatuko da.

Aurrekontu hori mugatzailea izango da zenbateko osoari dagokionez, eta gutxi gorabeherako izaera kredituak kategoriatan ekonomikoetan banatzeko; langileen gastuei dagozkienek, baina, izaera mugatzailea eta loteslea izango dute zenbateko osoagatik, eta diru-laguntza izandunen eta protokolo eta ordezkartzako arretak, berriz, izaera mugatzailea eta loteslea ezartzen diren sailkapen ekonomikoaren maila edozein dela ere.

2. Ogasuneko eta Herri Administrazio ministroak baimenduko ditu aurrekontuaren zenbateko osoa aldatu gabe langileen gastuak dakartzaten aldaketak. Zenbateko osoa aldatzen ez duten gainerako aldaketak Institutuko zuzendariak baimenduko ditu.

Institutuko zuzendariak zenbateko osoan eragiten duten aldaketak baimenduko ditu, baldin eta ez badute eragiten langileen gastuan, aurrekontu osoaren 100eko 5etik gorakoak ez badira, eta ekitaldian lortutako diru-sarrera handiagoen bidez finantzatzen badira. Ministroen Kontseiluen eskumena izango da zenbateko osoaren aldaketak baimentzea aurrekontu osoaren 100eko 5etik gorakoak direnean. Zenbateko osoa aldatzen duten gainerako aldaketak Ogasuneko eta Herri Administrazio ministroak baimenduko ditu.

Aurreko lerrokadan aipatutako aldaketak metatu ondoren zenbatuko dira.

3. Cervantes Institutuko administrazio-kontseiluak ondokoa egiteko baimena du, Institutuko idazkari nagusiak proposatuta:

a) Lanpostuen zerrenda eta erakundeko langileen ordainsari-araubidea onartzea, aplika daitezkeen baldintza legalei jarraiki.

Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak Cervantes Institutuko langile desplazatuentzat baimendutako desplazamendu-osagarriak eta Erosteke Ahalmenaren Indizekoak aplikatzea Espainiatik kanpoko zentroetako zuzendariei, kalte-ordain moduan.

b) Institutuko jardueren prezioak finkatzea.

4. Institutuaren kontabilitateak erregelamenduz xedatutako arauak beteko ditu.

5. Kontuen Auzitegiari bere Lege Organikoak emandako eskumenei kalterik egin gabe, Cervantes Institutuaren ekonomia- eta finantza-kudeaketaren barne-kontrola egingo du Estatuko Administrazioeko Esku Hartzaitza Nagusiak; berau ikuskaritza publiko gisa egingo du Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak xedatutako moduan.»

Laugarrena. *Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina aldatzea.*

Aldatu egiten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa. Aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta epe mugagabea egongo da indarrean. Hona hemen aldaketak:

Bat. Aldatu egiten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 71. artikulua 4 paragrafoa; hona nola geratzen den idatzita:

«4. Artikulu honen 1 paragrafoan aipatutako zuzentzeko eta zaintzeko eskumenak aplikatuta, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak ondokoa egin behar du: Gizarte Segurantzako sistemaren kredituak deklaratu 68. artikulua 1 zenbakian ezarritako erantzukizun mankomunatu aplikatzearen ondorio direnean; horren xede diren obligazioak deklaratu, bai eta haien zenbateko likidoa zehaztu, erakunde lankidetzaren gaineko arauen arabera ordaintzeko eskatu, eta iraungi arteko ordainbidea, modalitateak, formak, moduak eta baldintzak zehaztu ere.

Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak erantzukizun mankomunatuaren ondoriozko kredituen bilketa exekutiboa eskatu ahal izango dio Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari; hartarako haien likidazio-egintza helaraziko dio, eta ordaintzera behartuta dauden subjektuak zehaztuko dizkio. Lortzen diren zenbatekoak erantzukizun mankomunatu aplikatzea eragin zuten kontuetan sartuko dira, zuzentzeko eta zaintzeko organoak xedatutako moduan.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Bi. Aldatu egiten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 77. artikulua 2 paragrafoa; hona nola geratzen den idatzita:

«2. Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak nahitaez ezarri ahal izango du enpresa guztientzat edo ezaugarri jakin batzuk dituztenentzat aurreko c) paragrafoan aipatutako prestazioak ordaintzeko orduan laguntzea.

Nahitaezko laguntza horren arabera, enpresak prestazio ekonomikoak ordainduko dizkie langileei, erakunde kudeatzaile edo laguntzailearen kontura, eta enpresak ordaindu beharreko gizarte-kotizazioen likidazioan konpentsatuko da haien zenbatekoa. Ezarritako bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiliz, bajaren parte medikoan nahitaez jaso beharreko datuak jakinarazi beharko dizkio enpresak erakunde kudeatzaileari, erregelamenduz xedatutako moduan.

Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak nahitaezko laguntza eten edo ondoriorik gabe utzi ahal izango du enpresak ezarritako obligazioak betetzen ez baditu.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Hiru. Aldatu egiten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 131 bis artikulua; hona nola geratzen den idatzita:

«131 bis artikulua. *Subsidiorako eskubidea iraungitzea.*

1. Subsidiorako eskubidea egoera hauetan iraungiko da: baja medikotik bostehun eta berrogeita bost egun naturaleko gehieneko epea igaro denean; langileari ohiko lana egitea ahalbidetzen dion sendatze edo hobekuntzagatik alta medikoa jaso duenean; ezintasun iraunkorra deklaratu edo deklaratu gabe langileari alta eman diotenean; erretiro-pentsioa aitortzean; Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala edo Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateko sendagileek ezarritako azterketa eta errekonozimenduetarako deialdietara justifikatu gabe ez joatean; edo hiltzean.

Subsidioaren iraupena zehazteko orduan, prozesu berean berriz gaixotutako aldiak hartuko dira kontuan. Prozesu berean berriz gaixotu dela joko da patologia beragatik edo antzeko bategatik beste baja mediko bat izan duenean aurrekoaren ondorioetarako dataren osteko ehun eta laurogei egun naturaleko epearen barruan.

Baldin eta, aldi baterako ezintasuneko subsidioaren iraupeneko bostehun eta berrogeita bost egun naturaleko epea igaro aurretik ezintasun iraunkorreko espediente bat hasita, ezintasun iraunkorreko prestaziorako eskubidea ukatzen bada, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak baino ez du eskumenik izango patologia beragatik edo antzeko bategatik beste baja mediko bat emateko, ukatzeko ebazpenaren osteko ehun eta laurogei egun naturaleko epearen barruan, langilearen ezintasun iraunkorreko egoera aztertze, kalifikatzeko eta berrikusteko eskudun diren organoen bitartez. Horrelakoetan, aldi baterako ezintasuneko prozesuari berrekingo zaio bostehun eta berrogeita bost eguneko epea bete arte.

2. Subsidiorako eskubidea aurreko paragrafoan finkatutako bostehun eta berrogeita bost egun naturaleko aldia amaitu delako iraungitzen denean, ezinduaren egoera aztertuko da ezinbestean, gehienez hiru hilabeteko epean, dagokion ezintasun iraunkorreko mailako kalifikazioa jaso dezan.

Nolanahi ere, osatzeko edo langilearen egoera hobetzeko itzaropena dela-eta langileak tratamendua jarraitu beharra duenean, ondoren lanera itzultzeko asmoz, eta horregatik, aipatutako kalifikazioa geroratzea komeni denean, behar den denboran geroratu ahal izango da, baina sekula ez da gaindituko zazpiehun eta hogeita hamar egun naturaleko epea (aldi baterako ezintasuneko egunak gehi haren ondorioak luzatzearenak, alegia).

Paragrafo honetan aurreikusitako aldietan –hiru hilabetekoan eta kalifikazioa geroratzean– ez dago kotizatzearen obligaziorik.

3. Bostehun eta berrogeita bost egun naturaleko epea igaro delako aldi baterako ezintasuneko prestaziorako eskubidea iraungitzen denean, ezintasun iraunkorra deklaratu edo ez, ehun eta laurogei egun naturaletik gorako aldiaren ostean baino ezin izango da sortu aldi baterako ezintasuneko prestazio ekonomikorik patologia beragatik edo antzeko bategatik; epe hori ezintasun iraunkorraren ebazpenetik aurrera zenbatuta.

Eskubide berri hori sortuko da, baldin eta langileak, eskatutako baldintzak betetzen baditu medikuaren baja berriaren egunean, gaixotasun arruntak edo profesionalak edo istripuak, lanekoa izan edo ez, eragindako subsidioaren onuraduna izateko. Ondorio horietarako, gaixotasun arruntaren ondoriozko subsidioa eskuratzeko beharrezko kotizazio-aldia egiaztatze orduan, ezintasun iraunkorraren ebazpenetik aurrera egindako kotizazioak bakarrik hartuko dira kontuan.

Nolanahi ere, patologia bera edo antzekoa denean, eta ezintasun iraunkorretik oraindik ehun eta laurogei egun natural igaro ez direnean, aldi baterako beste prozesu bati ekin ahal izango zaio, behin bakarrik, baldin eta, langilearen ezintasun iraunkorreko egoera ebaluatzeko, kalifikatzeko eta berrikusteko eskudun organoen bitartez, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak uste badu langileak lan-gaitasuna berreskura dezakeela. Hartarako, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak baja xedatuko du aldi baterako ezintasuneko prestazio ekonomikoaren ondorioetarako soilik.

4. Prozesuaren hirurehun eta hirurogeita bost egunetara iritsi aurretik aldi baterako ezintasuneko proposamena duen alta medikoa emateak aldi baterako egoera iraungiko du.

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ezintasun iraunkorreko espediente bat hastea erabakitzen badu hirurehun eta hirurogeita bost eguneko epea amaitu ondoren, aipatutako epe hori betetzeko datan iraungiko da aldi baterako ezintasuneko egoera. Baldin eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, 128.1.a) artikuluan xedatutako eskumenak erabiliz, aldi baterako ezintasuneko egoera espresuki luzatzea erabakitzen badu, eta horren barruan ezintasun iraunkorreko espediente bat hasten badu, berau hastea erabakitzen duen ebazpenaren datan iraungiko da aldi baterako ezintasuneko egoera.

5. Aurreko zenbakietan xedatutakoari kalterik egin gabe, aldi baterako ezintasunaren ondorio ekonomikoak luzatzeko egoeran egongo da langilea, hariak eta ezintasun iraunkorra kalifikatzen den arte, iraungitzea honako arrazoi hauek eragiten badute: ezintasun iraunkorreko proposamena duen alta medikoak, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ezintasun iraunkorreko espedientea hasteko erabakia hartzeak edo bostehun eta berrogeita bost egun naturaleko epea amaitzeak.

Aurreko lerrokadan aipatutako kasuetan, ezintasun iraunkorreko prestazioaren ondorioak berau aitortzen duen erakunde kudeatzailearen ebazpen-datatik aurrera hasiko dira, betiere berau geroagokoa ez bada aldi baterako ezintasunaren ondorioak luzatzeko kontzeptuan langilea jasotzen ari zena baino; horrelakoetan, ondorioak aldi baterako ezintasuna iraungi ondoko egunera eramango dira atzera.

Baldin eta aldi baterako ezintasuna iraungitzen bada bere bostehun eta berrogeita bost egun naturaleko epea amaitu aurretik, horren ostean ezintasun iraunkorreko deklaraziorik egin gabe, langileak kotizatu beharko du oraindik lan-harremana amaitu arte, edo bostehun eta berrogeita bost egun naturaleko epe hori bukatu arte, ondoren egiten bada ezintasun iraunkorrik ez dagoelako deklarazioa.»

Lau. Beste paragrafo bat, 3, erantsi zaio Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 132. artikuluari. Honela dio:

«3. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko eta Gizarte Segurantzako lan-istripu eta gaixotasun profesionalen mutualitateetako medikuek osasun-azterketarako egindako edozer deialditara agertzen ez bada onuraduna, kautelaz etengo da eskubidea, horren zergatia justifikatuta dagoen edo ez dagoen egiaztatzeko. Eskubidea eteteko prozedura eta horren ondorioak erregelamenduz arautuko dira.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Bost. Aldatu egiten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 136. artikulua 1 paragrafoa; hona nola geratzen den idatzita:

«1. Kotizaziopeko modalitatean, langilearen egoera hau hartuko da ezintasun iraunkortzat: langileak tratamenduren bat jarraitu ondoren, baliaezintasun fisiko edo funtzional larriak erakusten ditu, objektiboki eta ziur aski behin-betikoak izan daitezkeenak eta lan egiteko ahalmena murrizten edo baliogabetzen diotenak. Kalifikazio horretarako ez da traba izango ezinduak lan-gaitasuna berreskuratzeko

aukera izatea, baldin eta aukera hori medikoki ziurra ez bada, edo oso epe luzerakoa bada.

Interesatua Gizarte Segurantzara inskribatu zen egunean egondako urritze anatomiko funtzionalek ez dute ezintasun iraunkorreko kalifikazioa eragotziko ondorengo kasuetan: ezgaitasuna duten pertsonak direnean eta, inskribatu ondoren, urritze horiek larritu egin direnean eta, berez edo lesio edo patologia berriengatik, interesatuak inskribatzeko unean zeukan lan-gaitasuna murriztu edo ezabatu denean.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Sei. Aldatu egiten da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 222. artikulua, eta beste paragrafo bat, 4, erantsi zaio; hona nola geratzen den idatzita:

«222. artikulua. *Langabezia, amatasuna, aitatasuna, aldi baterako ezintasuna eta erretiroa.*

(...)

4. Langileak 215. artikulua 1.3 paragrafoan aurreikusitako langabeziagatiko subsidioa jasotzen duenean, baldin eta erretiroaren kotizaziopeko pentsioa, edozer modalitatetan, eskuratzeko adinera iristen bada, aipatutako pentsioaren ondorio ekonomikoak adin horretara iristeagatik subsidioa iraungitzen zaion egunera eramango dira. Hartarako, iraungitzeko ebazpen irmoaren osteko hiru hilabeteko epearen barruan egin beharko da erretiro-eskaera. Horrela izan ezean gehienez hiru hilabeteko atzerako eragina izango du eskaera egiten denetik.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Zazpi. Xedapen gehigarri berri bat eransten zaio, hirurogeita bosgarrena, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginari; honela dio:

«Hirurogeita bosgarren xedapen gehigarria. *Egoitza galtzea gizarte-segurantzaren prestazioen ondorioetarako, gutxienekoetarako osagarriak barne.*

1. Espainiako lurraldean bizitzea eskatzen duten Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoetarako eskubideari eusteko, prestazio horien –baita gutxienekoetarako osagarrien ere– onuradunak Espainian ohiko bizilekua duela joko da, atzerriko egonaldiak izan arren, baldin eta urte naturalean horiek ez badira 90 egunetik gorakoak, edo behar bezala justifikatuta dauden gaixotasun-kausek ekarri badute Espainiako lurraldetik kanpora joatea.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa gorabehera, langabeziagatiko prestazioen eta subsidioen ondorioetarako, haien berriazko araudian ezarritakoa aplikatu beharko da.

2. Espainiako lurraldean bizitzea eskatzen duten osasun-prestazioetarako eskubideari eusteko, prestazio horien onuradunak Espainian ohiko bizilekua duela joko da, atzerriko egonaldiak izan arren, baldin eta urte naturalean horiek ez badira 90 egunetik gorakoak.»

Zortzi. Hirurogeita seigarren xedapen gehigarri bat eransten zaio Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginari, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutakoari; honela dio:

«Hirurogeita seigarren xedapen gehigarria. *Espetxetik ateratzen direnen langabeziagatiko babesa.*

Espetxetik ateratzen direnek, Zigor Kodearen 36. artikulua 2 paragrafoaren a), b), c) edo d) lerrokadetan ezarritako delituengatik zigortu badituzte, Lege honen

215. artikulua 1.1.d) eta 1.2 paragrafoetan aurreikusitako langabeziagatik subsidioa lortu ahal izateko, azken artikulua horretan ezarritako baldintzak betetzeaz gain, ondoko hauek ere egiaztatu beharko dituzte, espetxe-administrazioak dagokion moduan ziurtatuta:

1. Zigor Kodearen 36. artikulua 2 paragrafoaren a) edo b) idatz-zatietan jasotako delituengatik zigortuta dauden eta espetxetik atera direnen kasuan, Espetxeei buruzko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organiko Orokorren 72. artikulua sei paragrafoan eskatutako baldintzak bete dituztela.

2. Zigor Kodearen 36. artikulua 2 paragrafoaren c) edo d) idatz-zatietan jasotako delituengatik zigortuta dauden eta espetxetik atera direnen kasuan, delituaren ondoriozko erantzukizun zibila kitatu dutela, ondorio horietarako kaltea konpontzeko eta kalte materialen eta moralen ordaina emateko egiaz ikusitako portaera aintzat hartuta, eta delituaren biktimei barkatzeko berariazko eskaera egin dietela.»

*Bosgarrena. 1/1995 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 24koa, Langileen Estatutuari (LE) buruzko Lege Orokorren testu bategina onartu zuena, aldatzea.*

Ezabatu egiten da martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duenaren, 33. artikulua 8 paragrafoa. Aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta epe mugagabea egongo da indarrean. Gainerakoan ez du aldaketarik izan.

*Seigarrena. 35/1995 Legea, abenduaren 11koa, Indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzeko eta sorosteko, aldatzea.*

Aldatu egin da 35/1995 Legea, abenduaren 11koa, Indarkeriazko eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei laguntzeko eta sorosteko. Aldaketek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dute eragina, eta epe mugagabea egongo dira indarrean.

Bat. Idatz-zati bat eransten zaio, e), 35/1995 Legearen 14. artikulua; hona nola geratzen den idatzita:

«e) Baldin eta ordaindu ondoren laguntzaren beste banaketa bat egin behar bada onuradun berriak daudelako.»

Bi. Idatz-zati bat eransten zaio, f), 35/1995 Legearen 14. artikulua; hona nola geratzen den idatzita:

«f) Epaian adierazitakotik ondorioztatzen bada Lege honen 3. artikuluan aurreikusitako ukatzeko edo murrizteko kausaren bat dagoela.»

*Zazpigarrena. Zuzenbide publikoko erakunde jakin batzuk sortzeari buruzko urtarrilaren 10eko 5/1996 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Zuzenbide publikoko erakunde jakin batzuk sortzeari buruzko urtarrilaren 10eko 5/1996 Legea; aldaketek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina, eta epe mugagabea egongo dira indarrean. Hona nola geratzen den idatzita:

Bat. Aldatu egiten da Zuzenbide publikoko erakunde jakin batzuk sortzeari buruzko urtarrilaren 10eko 5/1996 Legearen 12. artikulua 5 zenbakiaren d) paragrafoa, eta hona nola geratzen den idatzita:

«d) Estatuko Industria Partaidetzarako Sozietateak enpresa baten kapitalaren ehuneko 10 edo gehiago eskuratzea edo saltzea dakarten ekintzak Gorte Nagusiei jakinarazi behar zaizkie, haren Aurrekontu Bulegoaren bitartez, eta horrek informazioa diputatuei, senatariei eta parlamentu-batzordeei jakinaraziko die.»

Bi. Aldatu egiten da Zuzenbide publikoko erakunde jakin batzuk sortzeari buruzko urtarrilaren 10eko 5/1996 Legearen 16. artikulua 2 paragrafoa, eta hona nola geratzen den idatzita:

«2. Burtsan kotizatzen duten sozietateek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalean aurkeztu behar duten informazio bera igorri behar diete Estatuko Industria Partaidetzarako Sozietateak eta berau osatzen duten enpresek Gorte Nagusiei, haren Aurrekontu Bulegoaren bitartez, eta epe beretan. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du informazio hori.»

Zortzigarrena. *Estatuko Administrazio Orokorren Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Estatuko Administrazio Orokorren Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen hamargarren xedapen gehigarriaren 1 paragrafoa; aldaketek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dute eragina, eta epe mugagabeen egongo dira indarrean. Hona nola geratzen den idatzita:

«1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala, Segurtasun Nuklearraren Kontseilua, transferitu gabeko unibertsitateak, Datuak Babesteko Espainiako Agentzia, Kanarietako Zona Bereziko Partzuergoa, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala, Prado Museo Nazionala eta Sofia Erreginaren Museo Nazionala dagokien legedi zehatzaren arabera arautuko dira eta, ordezkoko gisa, lege honen arabera.

Gobernuak eta Estatuko Administrazio Orokorrek erakunde horien gainean horietako bakoitzaren araudiak esleitutako ahalmenak izango dituzte, dagozkien autonomia-esparruak zorrozki beteta.»

Bederatzigarrena. *23/1998 Legea, uztailaren 7koa, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzkoa, aldatzea.*

Aldatu egin da 23/1998 Legearen, uztailaren 7koaren, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzkoaren, lehen xedapen gehigarriaren bigarren lerroa; aldaketek 2014ko urtarrilaren 1etik izango dute eragina, eta epe mugagabeen egongo dira indarrean. Hona nola gelditzen den idatzita:

«Gobernuak, Estatuaren Aurrekontu Orokorrez gain, txosten bat ere igorriko die Gorte Nagusiei bere Aurrekontu Bulegoaren bitartez; garapenerako laguntza ofizialeko programak finantzatzeko ministerio eta erakunde publikoek emandako kredituak modu integratuan zehaztuko ditu txosten horrek. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du informazio hori.»

Hamargarrena. *Estatuko Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzari buruzko Legearen testu bategina, ekainaren 23ko 4/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartua, aldatzea.*

Aldatu egiten da Estatuko Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzari buruzko Legearen testu bategina, ekainaren 23ko 4/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartua; aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta epe mugagabeen egongo da indarrean. Hona hemen aldaketak:

Bat. Aldatu egiten da 2. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«2. artikulua. *Estaldura-mekanismoak.*

1. Araubide berezi hau honako estaldura-mekanismo hauek osatuta dago:

- a) Estatu Klase Pasiboen Araubidea, berariazko arauen arabera.
- b) Lege honetan arautzen den Administrazio Mutualismoaren Araubidea.



2. Aurrekoa gorabehera, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera sartu diren Estatuko Administrazio Zibilarren karrerako funtzionarioak Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean sartuta geldituko dira pentsioen ondorioetarako soilik, Inbertsioa eta enplegua sortzea sustatzeko zerga- eta lan-jarduerari eta jarduera liberalizatzaileei buruzko abenduaren 3ko 13/2010 Errege Lege Dekretuaren 20. artikuluko 1 paragrafoan xedatutakoaren arabera.»

Bi. 15. artikulua 2 eta 3 paragrafoak aldatu egin dira, eta honela geratu dira idatzita:

«15. artikulua. *Osasun-laguntzaren onuradunak:*

(...)

2. Araubide honetako mutualista baten konturako onuradun-izaera zehazteko, Administrazio Mutualismoaren Araubide Orokorrean xedatutakoa beteko da; horrek, halaber, mutualista aktibo edo erretirodunen alargunei zein umezurtzei osasun-laguntza emateko kasuak eta baldintzak ere ezarriko ditu.

MUFACEk mutualista baten konturako onuradun aitortzea edo mantentzea ez da bateragarria izango aseguratua edo onuraduna izatearekin Osasun Sistema Nazionalaren bitartez osasun-laguntzari dagokionez, azken hori horretarako eskudunak diren gainerako erakunde publikoetako batek aitortuta.

3. MUFACEk ez die inola ere osasun-laguntzako prestaziorik bere kontura emango mutualisten senideei edo antzekoei, baldin eta horiek ez badaude onartuta administrazio-mutualismoaren onuradun modura, salbu eta jaioberria ama mutualista edo onuraduna denean eta adopzioko edo harrerako kasuetan, lehen hamabost egunetan erditzeko unetik, harreraren erabaki administrazio edo judizialek edo adopzioa eratzeko ebazpen judizialek.»

Hiru. 16. artikulua aldatu egin da, eta honela idatzita geratuko da:

«16. artikulua. *Osasun-laguntzaren edukia.*

Osasun-laguntzaren prestazioak ondokoa hartzen du barnean:

a) Lehen mailako zerbitzuak, erregimen ambulatarioko edo etxez etxeko larrialdiko lehen mailako arreta barne, eta arreta espezializatua, erregimen ambulatorioan edo ospitalean, eta ospitaleko larrialdi-zerbitzuak barne, horiek guztiak Osasun Sistema Nazionalaren onuradunentzat ezarritakoaren antzeko edukiarekin.

b) Farmazia-prestazioa, hauek hartzen ditu barnean: formula magistralak, espezialitateak eta farmaziako efektuak eta osagarriak, Osasun Sistema Nazionalaren onuradunentzat xedatutako hedadurarekin. Onuradunek errezeta edo, hala badagokio, sendagai bakoitzeko portzentajezko zenbateko bat ordainduz parte hartuko dute; berau erregelamenduz zehaztuko da.

Errezeta ofizialaren eredua Mutualitateak ezarritakoa izango da, indarreko araudian xedatutakoa betez, eta paperean eta euskarri elektronikoan eman ahalko da.

c) Prestazio osagarriak; haien definizioa, hedadura eta edukia erregelamenduz zehaztuko dira.»

Hamaikagarrena. *Estatuko Osasun Sistemaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Estatuko Osasun Sistemaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 3. artikulua 2 paragrafoaren d) idatz-zatiari 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 23ko 2/2012 Legeak emandako idazkera; aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta epe mugagabeen egongo da indarrean. Hona nola geratzen den idatzita:

«2. Ondorio horietarako, honako kasu hauetakoren batean diren pertsonak izango dute asegurutun-izaera:

(...)

d) Langabezia-prestazioa edo -saria edo antzeko izaerako bestelako prestazioak agortuta edukitzea eta langabezia egotea, eta beste edozein tituluz aseguratuta dagoelako egoera ez egiaztatzea eta Espainian bizitzea.»

Artikuluaren gainerakoa berdin idatzita gelditzen da.

Hamabigarrena. *Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legea; aldaketek 2014ko martxoaren 1etik aurrera izango dute eragina, eta epe mugagabe egongo dira indarrean. Hona nola geratzen den idatzita:

Bat. Beste paragrafo bat gehitu dugu Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legearen 75. artikuluko 7. paragrafoaren amaieran. Hauxe dio:

«Zenbatekoen murrizketa hau ez da aplikatuko hegaldi pribatuetan.»

Bi. Aldatu egiten da Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legearen 78. artikuluen 1 paragrafoaren azken lerroa, eta hona nola geratzen den idatzita:

«Bidaiarien irteeragatiko eta konexioa duten bidaiarientzako segurtasunagatiko prestazio publikoen unitateko zenbatekoak 100eko 30 murriztuko dira.»

Hiru. Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legearen 78. artikuluari beste paragrafo bat gehitu zaio. Honakoa da:

«Kanariar Uharteetako, Balear Uharteetako, Ceutako eta Melillako aireportuetan ez da hegaldi pribatuetan aplikatuko 100eko 15eko murrizketa, penintsulako lurraldearekiko hegaldien kasuan, ezta 100eko 70eko murrizketa ere, uharteen arteko hegaldien kasuan.»

Lau. Aldatu egiten da Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legearen 83. artikuluen 2 paragrafoa, eta hona nola gelditzen den idatzita:

«2. Eguneko edo bi ordutik gorako denbora-tarte bakoitzeko, aparkaldiko prestazioaren honako zenbateko hauek izango dira, aireratzean aireontziak duen gehieneko pisuaren arabera, ondoko aireportu hauetan: Coruña, Albacete, Algeciras, Almería, Asturias, Badajoz, Burgos, Ceuta, Kordoba, Cuatro Vientos, Hierro, Huesca-Pirineoak, FGL Granada-Jaén, Jerez, La Gomera, La Palma, León, Logroño, Melilla, Murtzia-San Javier, Iruñea, Reus, Sabadell, Salamanca, Donostia, Santander, Son Bonet, Valladolid, Vigo, Gasteiz, Zaragoza eta Aena Aeropuertos, SAK kudeatutako gainerako aireportuetan:

– Zenbateko orokorrak:

	10 tona arteko MTOW-ko aireontziak			10 tonatik gorako MTOW-ko aireontziak
	0-1,5 tona	1,5-2,7 tona	2,7-10 tona	
Aireportu guztiak	15 €	20 €	22 €	0,898304 €/tona gutxienekoa: 22 €
Son Bonet (uztaila eta abuztua)	37,5 €	50 €	55 €	2,24576 €/tona gutxienekoa: 55 €
	€/egun edo zatikiko			€/tona eguneko edo zatikiko

– Hilabete naturaleko ordainketetarako zenbatekoak:

Aparkatzen den aireportuarekin kontraturen bat sinatuta duten ordaintzera behartuta daudenentzat:

	10 tona arteko MTOW-ko aireontziak			10 tonatik gorako MTOW-ko aireontziak
	0-1,5 tona	1,5-2,7 tona	2,7-10 tona	
Hileko abonua	90 €	150 €	250 €	0,898304 €/tona* MTOW * 30
	€/hileko			€/hileko

Aparkatzen den aireportuarekin kontraturen bat sinatuta ez duten ordaintzera behartuta daudenentzat:

	10 tona arteko MTOW-ko aireontziak			10 tonatik gorako MTOW-ko aireontziak
	0-1,5 tona	1,5-2,7 tona	2,7-10 tona	
Hileko abonua	135 €	250 €	400 €	1,34 €/tona * MTOW * 30
	€/hileko			€/hileko

Abonuen zenbatekoaren ordainketa aurrez egin beharko da hil bakoitzaren 1 eta 5 artean; dena delako aireporturako baino ez dute balio izango.»

Bost. Aldatu egiten da Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legearen 81. artikulua, eta hona nola gelditzen den idatzita:

«81. artikulua. *Deskontuak eta salbuespenak.*

1. Konexioko salgaiak ordaintzetik salbuetsita daude, aireportuko esparruan konpainia bereko hegaldien artean kargatu eta deskargatutakoak direnean.

2. Penintsulaz kanpoko aireportuetan ordaintzetik salbuetsita daude uharteen arteko zirkulaziorako xedez kargatu edo deskargatutako salgaiak.

Horrelako aireportuetan, gainerako zirkulazioei dagokienez, zuzeneko zein konexioko kargari aplikatu beharreko zenbatekoak ehuneko hamabost murriztuko dira.

3. Nazioarteko zirkulaziorako xedez aireportuko esparruan kargatu edo deskargatutako salgaiei aplikatu beharreko zenbatekoak ehuneko berrogeita hamar murriztuko dira.»

Sei. Aldatu egiten da Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legearen 90. artikulua, eta hona nola gelditzen den idatzita:

«90. artikulua. *Ondare-prestazio publikoa zerbitzu meteorologikoengatik.*

1. Zerbitzu meteorologikoengatik prestazio publikoa ordaindu beharko dute aire-konpainiek eta gainerako pertsona fisikoek, juridikoek edo erakundeek, baldin eta 68.2 c) artikuluan zehaztutako zerbitzuak ematen bazaizkie Aena Aeropuertos SAK kudeatutako aireportu edo heliportu batean lur hartzen duten hegaldietan.

2. Ordaindu beharreko zenbatekoa honela aterako da: aieratzean aireontziak duen gehieneko pisuari, tonatan, aeronabigarritasun-ziurtagirian edo haren hegaldi-eskuliburuan ageri den moduan, 0,18 euroko unitateko zenbateko bat aplikatuz.»

Zazpi. Aldatu egiten da Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 9ko 21/2003 Legearen hamaseigarren xedapen gehigarriaren 9 paragrafoa aldatzen da, eta hona nola gelditzen den idatzita:

«9. Kanariar Uharteetako, Balear Uharteetako, Ceutako eta Melillako aireportuetan sortutako aireportu-segurtasuneko ondare-prestazio publikorako

78.3 artikuluan xedatutako murrizketak aplikatuko zaizkio tasa horren zenbatekoari.»

Hamahirugarrena. *Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtza arautzen duen irailaren 29ko 28/2003 Legearen hirugarren xedapen gehigarria aldatzea.*

Bigarren lerrokada bat erantsi zaio Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtza arautzen duen irailaren 29ko 28/2003 Legearen hirugarren xedapen gehigarriari; aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina, eta epe mugagabea egongo da indarrean. Honela geratzen da idatzita:

«Gobernuak Gorte Nagusiei igorriko die txosten hori bere Aurrekontu Bulegoaren bitartez, eta honek diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du.»

Hamalagarrena. *Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea aldatzea.*

Bederatzigarren xedapen gehigarri bat erantsiko zaio Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legeari; aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina, eta epe mugagabea egongo da indarrean. Honela dio:

«Bederatzigarren xedapen gehigarria. *Estatuko aktibo higiezinaren balioa nabarmentzeko programa gauzatzea.*

Herri-administrazioak erreformatzeko batzordeak zehaztutako helburuak bete daitezzen –hain zuzen, Estatuko aktibo higiezinaren balioa nabarmentzeko programa gauzatzean zehazten dira helburu horiek–, Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak hirugarren bati ondare-ondasunen salmenta, administrazioa edo ustiapena agintzeko erabilitako negozioetan eta tresna juridikoetan, lortzen den salmenta-prezioaren gainean edo legez ezarritako gehieneko muga eta zenbatekoen barruan hitzartutako errentaren edo kanonaren gainean kalkulaturako ehuneko edo komisio bati erreferentzia eginez finkatu ahal izango da haren ordainsaria. Kasu horretan, Altxor Publikoan sartzeko egin beharreko likidazioa dagokion zenbateko garbiarengatik egin ahal izango da, hitzartutako komisioa kendu ondoren.»

Hamabosgarrena. *Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorra aldatzea.*

Aldatu egiten da Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorra; aldaketek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dute eragina, eta epe mugagabea egongo dira indarrean. Hona nola geratzen den idatzita:

Bat. Aurrekontuei buruzko Lege Orokorren 34. artikulua 3 paragrafoa aldatu egin da eta 5 paragrafo bat gehitu; hona nola gelditzen den idatzita:

«34. artikulua. *Denbora-eremua.*

(...)

3. Aurreko ekitaldietan hartutako obligazioak uneko ekitaldiko kredituei aplikatu ahal izango zaizkie, ordenamendu juridikoaren arabera, baldin eta, jatorrizko ekitaldian, kreditua baliogabetu bazitzaie.

Halaber, aurreko ekitaldietan betetzeko geratu diren obligazioak aurtengo aurrekontuko kredituen kontura bete ahal izango dira, obligazio horiei aurre egiteko berariazko kreditu bat hornitu bada, jatorrizko ekitaldian baliogabetutako kreditu-saldoa izan edo ez izan.

(...)

5. Estatuaren Aurrekontu Orokorretan aurreko ekitaldietako obligazioei erantzuteko zuzkitutako hasierako kredituak Lege honen 55. eta 56. artikuluetan xedatutako prozeduraren bidez baino ezin izango dira aldatu.»

Bi. Aldatu egiten da Gizarte Aurrekontuen Lege Orokorren 50. artikulua 2 paragrafoa; hona nola geratzen den idatzita:

«2 ...

Gobernuak txosten bat bidaliko die Gorte Nagusiei hiru hilean behin Aurrekontu Bulegoaren bitartez artikulua honetan araututako funtsaren erabilera azaltzeko. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.»

Hiru. Aldatu egiten dira Aurrekontuen Lege Orokorren 55. artikulua 2 eta 3 paragrafoak, eta honela geratu dira idatzita:

«2. Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak Gorte Nagusietara lege-proiektu bat igortzea proposatuko dio Ministroen Kontseiluari, Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiaren txostenaren eta Estatu Kontseiluaren irizpenaren aurretik, honako kasu hauetan:

a) Baldin eta aurreko ekitaldietako obligazioei erantzuteko aparteko kredituak eta kreditu-gehigarriak badira, jatorrizko ekitaldian kreditua baliogabetu ez zaienean, horrelakoak Kontingentzia Funtsaren bidez edo beste kreditu batzuetan baja eginez finantzatuta.

b) Baldin eta ekitaldiko bertako obligazioei erantzuteko aparteko kredituak edo osagarriak badira, beste kredituetan baja eginez finantzatzen direnean.

c) Baldin eta aurrekontuaren finantza-eragiketetan eragiten duten aparteko kredituak edo osagarriak badira.

3. Ministroen Kontseiluak uneko ekitaldiko edo aurreko ekitaldietako obligazioei erantzuteko aparteko kredituak eta kreditu-gehigarriak baimenduko ditu, baldin eta jatorrizko ekitaldian kreditua baliogabetu bazaie, Kontingentzia Funtsaren kontura finantzatzen direnean.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Lau. Aldatu egiten da Aurrekontuen Lege Orokorren 56. artikulua 6 paragrafoa; hona nola gelditzen den idatzita:

«6. Ogasuneko eta Herri Administrazioetako ministroak txosten bat igorriko die Gorte Nagusiei hiru hilean behin Aurrekontu Bulegoaren bitartez, artikulua honen babesean izapidetutako aparteko kredituak eta kreditu-gehigarriak azaltzeko. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.»

Bost. Paragrafo berria eranstean zaio, 7, Aurrekontuen Lege Orokorren 56. artikuluari, honela idatzita dagoena:

«7. Baldin eta aparteko kreditua edo kreditu-gehigarria aurreko ekitaldietako obligazioei erantzutera bideratzen bada, jatorrizko ekitaldian haiei kreditua baliogabetu ez zaienean, lege-proiektu bat igorriko zaie Gorte Nagusiei, aurreko prozeduran xedatutako prozeduraren arabera.»

Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Sei. Paragrafo berria eranstean zaio, 5, Aurrekontuen Lege Orokorraren 57. artikuluari, honela idatzita dagoena:

«5. Baldin eta aparteko kreditua edo kreditu-gehigarria aurreko ekitaldietako obligazioei erantzutera bideratzen bada, jatorrizko ekitaldian haiei Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionalaren aurrekontuan edo Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuarenean eragiten duen kreditua baliogabetu ez zaienean, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko ministroak Gorte Nagusietara lege-proiektu bat igortzea proposatuko dio Ministroen Kontseiluari, Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiaren txostenaren eta Estatu Kontseiluaren irizpenaren aurretik. Prozedura hori bera aplikatuko da, Enplegu eta Gizarte Segurantzako ministroak proposatuta, Gizarte Segurantzaren gainerako erakundeen asistentzia-mailako gastuei erantzuteko kredituak direnean.»

Zazpi. Aldatu egiten da Aurrekontuen Lege Orokorraren 57. artikularen 4 paragrafoa; hona nola gelditzen den idatzita:

«Enplegu eta Gizarte Segurantzako ministroak txosten bat igorriko die Gorte Nagusiei hiru hilean behin Aurrekontu Bulegoaren bitartez, artikulua honen babesean izapidetutako aparteko kredituak eta kreditu-gehigarriak azaltzeko. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.»

Zortzi. Aldatu egiten da 47/2003 Legearen 74. artikularen 5 paragrafoa; hona nola gelditzen den idatzita:

«5. Beste herri-administrazio batzuekin edo erakunde publiko edo pribatuekin lankidetzaz hitzarmenak edo programa-kontratuak sinatzeko, bai eta kudeaketarako gomendioak erabakitzeko ere, eskumena duten ministerio-sailen, haien erakunde autonomoen eta Gizarte Segurantzaren zerbitzu komunak eta erakunde kudeatzaileen organoek Ministroen Kontseiluaren baimena beharko dute, baldin eta horiek ekarritako gastua hamabi milioi eurotik gorakoa bada.

Halaber, Ministroen Kontseiluak aurrekoaren arabera baimendutako lankidetzaz hitzarmenak, programa-kontratuak edo kudeaketarako gomendioak aldatzeko organo beraren baimena beharko da, baldin eta gastuaren zenbateko osoa edo haren xede zehatza aldatzea badakarte.

Artikulu honetan aipatutako Ministroen Kontseiluaren aurretiko baimena ere beharko dute lankidetzaz hitzarmenak, programa-kontratuak edo kudeaketarako gomendioak baliogabetzeko xedea duten erabakiek, baldin eta aipatutako organoak baimendu badu haiek sinatzea edo aldatzea aurreko lerrokadetan xedatutakoaren arabera, negozio juridiko horiek noiz sinatu edo formalizatu dituzten alde batera utzita.

Ministroen Kontseiluaren baimenak hitzarmenaren, programa-kontratuaren edo gomendioaren ondoriozko gastua onartzea ekarriko du.

Edozer hitzarmen, programa-kontratu edo gomendio-akordio sinatu aurretik, dagokion gastu-espeditetako da; hartu beharreko obligazioen gehieneko zenbatekoa ageriko da bertan eta, urte askotarako gastuak badira, urtetarako dagokion banaketa. Aurreko lerrokaden arabera Ministroen Kontseiluaren baimena nahitaezkoa denean, gastu-espeditetaren izapideak gaia aipatutako organoari aurkeztu aurretik egingo dira.»

Artikularen gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.

Bederatzi. Aldatu egiten da Aurrekontuen Lege Orokorraren 82. artikularen 2 paragrafoa; hona nola gelditzen den idatzita:

«2. Aurreko paragrafoaren a) eta b) lerrokadetan xedatutakoa betez egindako diruzaintzako eragiketei buruzko txosten bat igorriko zaie Gorte Nagusiei, hiru

hilean behin, Aurrekontu Bulegoaren bitartez. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.»

Hamar. Aurrekontuen Lege Orokorraren 86. artikulua aldatu egiten da, eta hona nola geratzen den idatzita:

«86. artikulua. *Autonomia-erkidegoek kudeatutako kredituak.*

1. Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen kredituak, baldin eta autonomia-erkidegoek betearazteko eskumenak dituzten eta Lege horren arabera zuzenean eskualdatu ez diren gaiak, jarduerak, sektoreak edo zerbitzuak finantzatzeko badira, lurraldean autonomia-erkidego horien alde banatu beharko dira lankidetzako arau edo hitzarmen bidez; azken horiek banatzeko irizpide objektiboak jasoko dituzte eta, hala badagokio, funtsak kudeatzeko baldintzak finkatuko dituzte, artikuluko honen 2. paragrafoan ezarritakoaren arabera.

Estatuko Administrazio Orokorren organo batek edo haren mendeko erakunde batek honako arrazoi hauek direla-eta kudeatu beharreko kredituak ez dira lurraldean banatuko: haien eraginkortasun osoa bermatzeko sektorearen oinarritzko antolamenduaren barruan; balizko hartzaileek Estatu osoan horiek eskuratzeko aukera berak izan ditzaten bermatzeko edo sektorerara bideratutako Estatu-funtsen zenbateko osoa gainditu dadin saihesteko.

2. Autonomia-erkidegoen alde kudeatzeko eta administratzeko lurraldean banatu beharreko kredituak gauzatzeko orduan, honako arau hauek hartuko dira kontuan:

Lehenengoa. Kudeaketa eta administrazioa gastu mota bakoitza arautzen duen Estatuko araudiaren arabera egingo dira, eta hala badagokio, autonomia-erkidegoek egingo dituzte horretarako eskudunak diren neurrian.

Bigarrena. Dagokion Sektoreko Batzarrak finkatuko ditu, ekitaldi ekonomikoaren hasieran, aurrekontu-kredituak lurraldean banatzeko oinarri diren irizpide objektiboak, bai eta haien banaketa ere.

Hirugarrena. Sektoreko Batzarraren ondoriozko kreditu-banaketak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioaren baldintzak zorrozki bete beharko ditu; hori dela-eta, Estatuko Administrazio Orokorrek dagozkion finantza-konpromisoak formalizatu aurretik, justifikatutako kasuetan betiere, jatorrian banatu gabeko kredituen erreserba orokorrak ezarri ahal izango dira aurrekontua betearazteko orduan sor litezkeen aurreikusi gabeko beharrak edo eskaerak estaltzeko.

Laugarrena. Ondoren, Ministroen Kontseiluaren erabakiz, autonomia-erkidegoen arteko behin betiko banaketa onartuko da, hala badagokio. Jarraian, Estatuko Administrazio Orokorren eskudun organoen edo haren mendeko erakundeen esku egongo da finantza-konpromisoak formalizatzeko tresna juridikoak, hitzarmenak edo ebazpenak sinatzea edo onartzea.

Bosgarrena. Autonomia-erkidego bakoitzak kudeatu beharreko kredituak lau zatitan igorri eta ordainduko dira hiruhileko bakoitzaren bigarren hamabostaldi naturalean; arau horren salbuespenik lehen hiruhilekoaren ordainketan baino ez da egongo, berau ezin izango baita gauzatu, harik eta kredituen lurralde-banaketa behin betiko onartzen den arte eta dagozkion finantza-konpromisoak, hitzarmenak edo ebazpenak sinatzen edo formalizatzen diren arte, aurreko arauetan xedatutakoaren arabera.

Banatu beharreko kredituek xedetzat izaera pertsonaleko edo sozialeko prestazioak dituztenean, hamabi zatitan igorriko zaizkie autonomia-erkidegoei, hilaren hasieran.

1 zenbakiko helburuko eskualdeetarako Arrantza Programa Operatiboa eta 1 zenbakiko helburutik Kanpoko Eskualdeetarako Programazio Dokumentu Bakarra (DOCUP) finantzatzeko ordainketa-aginduak osorik eman ahal izango dira

Sektoreko Batzarrean banatzeko irizpide objektiboak zein horien ondoriozko banaketa hitzartu, eta Ministro Kontseiluaren erabakiz berretsi ondoren.

Nekazaritzako, landa-garapeneko eta ingurumeneko jarduerak –Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak kofinantzatuta– eta Arrantza Programen arrantza-sektoreko jarduerak –Arrantzaren Europako Funtsak kofinantzatuta– finantzatzeko ordainketa-aginduak osorik eman ahal izango dira dagokien Sektoreko Batzarretan banatzeko irizpide objektiboak zein horien ondoriozko banaketa hitzartu, eta Ministro Kontseiluaren erabakiz berretsi ondoren.

Seigarrena. Ekitaldi bakoitza amaitzean geratzen diren konprometitu gabeko funtsen geldikinek, autonomia-erkidegoen esku daudenek, transferitzeko orduan zuten xedea atxikiko dute oraindik, eta hurrengo ekitaldian jatorrizko diruzaintza-egoera gisa erabiliko dira, autonomia-erkidego bakoitzari transferitu beharreko zenbatekotik kenduko den geldikin moduan.

Geldikina dagokion gastua edo jarduera hurrengo ekitaldiko aurrekontuan jasota ez badago, hura, lehenik eta behin, aurreko ekitaldiaren amaieran ordaintzeke zeuden obligazioak gauzatzera bideratuko da, eta konprometitu ez dagoen soberakina Estatuari itzuliko zaio.

Zazpigarrena. Ekitaldi ekonomikoa amaituta, eta, berandu jota, hurrengo ekitaldiko martxoaren 31n, autonomia-erkidegoek ekitaldiaren gauzatze-egoera bat bidaliko diote dagokion ministerio-sailari; horren bidez urtean egindako kreditu-konpromisoen, aitortutako konpromisoen eta egindako ordainketen zenbateko osoa adieraziko dute, funts-transferentziak egin ziren Estatuko Gastu Aurrekontuaren aurrekontu-aplikazio bakoitzeko zehaztuta. Sektoreko Batzarrari jakinaraziko zaio informazio hori, eta kontuan hartuko da funtsak banatzeko erabakiak hartzeko orduan.

Zortzigarrena. Artikulu honetan aipatutako kredituak kudeatzen dituzten autonomia-erkidegoek jasotako funtsen gaineko kontrol egokia eduki beharko dute, azken hartzaileek horiek behar den moduan eskuratu, eduki eta erabiltzen dituztela bermatzearen.

3. Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsarekin (LGENF) batera finantzatutako jardueri dagokienez, baldin eta Europar Batasunak onartutako egitasmoak baditu eta haiek gauzatzea autonomia-erkidegoen eskumenekoa bada, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean Estatuko Administrazio Orokorren funtsen ekarpen gisa adierazten diren kredituak emateko, 82.1.a) artikuluan adierazitako diruzaintza-aurrerakinekin finantzatutako kopuruak igortzen diren maiztasuna hartuko da kontuan.»

Hamaika. Aldatu egiten da Aurrekontuen Lege Orokorren 93. artikulua; hona nola gelditzen den idatzita:

«1. Gobernuak titulu honetan xedatutakoaren babesean hitzartutako finantza-eragiketen saldo zehatza jakinaraziko die Gorte Nagusiei, hiru hilean behin, Aurrekontu Bulegoaren bitartez. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

2. Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak urteko memoria bat onartuko du Aurrekontu Bulegoaren bitartez gobernuari eta Gorte Nagusiei igortzeko; bertan aurreko urteko Altxor Publikoaren zorpetze-politika azalduko du. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.

Aipatutako memorian aurreko ekitaldiaren amaieran zegoen Estatuaren zorraren saldo bizia zehaztuko da, bai eta erakunde autonomoi dagokiena ere. Ondorio horietarako, erakunde autonomo bakoitzak memoria hori egiteko beharrezko datuak, informazioa eta dokumentazioa igorriko dizkio Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiarri.»



Hamabi. Aldatu egiten da Aurrekontuen Lege Orokorraren 135. artikulua; hona nola gelditzen den idatzita:

«Gorte Nagusiek gobernuari egoki deritzoten informazioa eskatzeko ahalmenari kalterik egin gabe, Estatuko Administrazioako Esku Hartzailletza Nagusiak, hileru, aurrekontuak betearazteari buruzko informazioa jarriko du Gorte Nagusien esku Aurrekontu Bulegoaren bitartez. Gizarte Segurantzaren Kontu Hartzailletza Nagusiak Gizarte Segurantzako sistema osatzen duten erakundeen aurrekontuak betearazteari buruzko informazioa igorriko du periodikotasun, prozedura eta hartzaile berarekin. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du dokumentazio hori.»

Hamahiru. Honela geratzen da idatzita Aurrekontuei buruzko 47/2003 Lege Orokorraren 136. artikulua:

«136. artikulua. *Estatuko sektore publikoko erakundeek argitaratu beharreko informazioa.*

1. Estatuko Administrazioako Esku Hartzailletza Nagusiak Estatuaren aurrekontua betearazteko eragiketei eta haien aldaketei buruzko informazioa argitaratuko du hileru Estatuko Aldizkari Ofizialean, bai eta diruzaintzako eragiketei eta interes orokorrekotzat jotzen diren gainerakoei buruzkoa ere.

2. Estatuko Administrazioako Esku Hartzailletza Nagusiak kontabilitate-informazio hau argitaratuko du urtero aurrekontu-administrazioaren atarian, «sektore publikoaren urteko kontuen erregistroa» kanalaren barruan:

- a) Estatuaren Kontu Orokorra.
- b) Estatuko Administrazio Orokorraren Kontua.
- c) Estatuko sektore publikoko gainerako erakundeen urteko kontuak, eta kontuen ikuskaritza-txostena, aplikatu beharreko arauak betez edo Lege honen 165. artikuluan araututako ikuskaritzen urteko plana gauzatuz eginda.

Aurreko erakundeek urteko kontu finkatuak formulatzen dituztenean, urteko kontu finkatuak eta aurreko lerrokadan adierazitakoaren arabera egindako kontuen ikuskaritza-txostena ere argitaratuko dira.

3. Horrez gain, Estatuko Aldizkari Ofizialean hauen laburpenak ere argitaratuko dira: Estatuaren Kontu Orokorrarenak, Estatuko Administrazio Orokorraren kontuarenak eta kontabilitateko printzipio publikoak aplikatu behar dituzten Estatuko sektore publikoko erakundeen urteko kontuenak, bai eta kontuak Merkataritza Erregistroan nahitaez argitaratu behar ez dituzten gainerakoenak ere; laburpen horien edukia Estatuko Administrazioako Esku Hartzailletza Nagusiak erabaki du; gainera, hala badagokio, kontuen ikuskaritza-txostena ere argitaratuko da, bai eta kontu osoak eta dagokien kontuen ikuskaritza-txostena argitaratuta dauden egoitza elektronikoei eta webguneei dagokien erreferentzia ere.

Estatuko Administrazioako Esku Hartzailletza Nagusiak argitaratuko ditu horiek Estatuko Aldizkari Ofizialean, aurreko 2 paragrafoaren a) eta b) idatz-zatietan araututako kontuei dagokienez, eta erakundeek beraiek aurreko c) idatz-zatian araututako kontuen kasuan.»

Hamalau. Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 138. artikulua aldatu egiten da, eta hona nola geratzen den idatzita:

«138. artikulua. *Kontu-emaileak.*

1. Kontuak ematera behartutako erakundeen eta organoen titularrak izango dira kontu-emaileak eta, edozelan ere:

- a) Diru-sarrereren kudeaketaz eta gastuak egiteaz arduratzen diren agintariak eta funtzionarioak, bai eta Estatuko Administrazio Orokorraren gainerako eragiketez arduratzen direnak ere.

b) Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileen eta zerbitzu komunen titularrak, bai eta Gizarte Segurantzako lan istripu eta gaixotasun profesionalen mutualitateetako eta haien erakunde eta zentro mankomunatuetao organo baliokideen zuzendaritza-batzordeetako buruak ere.

c) Organismo autonomoetako eta enpresa-erakunde publiko eta Estatuako sektore publikoko gainerako erakundeetako presidentek edo zuzendariak.

d) Estatuako merkataritza-sozietateen administrazio-kontseiluko buruak.

e) Likidazio-prozesuan dauden Estatuako merkataritza-sozietateen likidatzaileak edota, beste erakunde batzuei dagokienez, likidatzeko eginkizunak esleituta dituzten organo baliokideak.

f) Patronatuko buruak, edo Estatuaren sektore publikoko fundazioetan eginkizun betearazleak esleituta dituztenak.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako kontu-emaileak kontabilitate-informazioaz arduratzen dira, eta Kontuen Auzitegira bidali beharreko kontuak eman behar dituzte, horretarako finkatutako epeetan eta behar bezala baimenduta.

Kontuak emateko orduan egiazko informazioa jakinarazteko erantzukizuna ez dago lotuta Lege honen VII. tituluaren araututako kontabilitate-erantzukizunarekin; azken hori dute ebazpenak hartu zituztenek edo kontu horietan jasotako ekintzak egin zituztenek.

3. Estatuaren funtsak edo baloreak, salbuespen gisa, administratzen, biltzen edo zaintzen dituzten partikularrek ere eman beharko dituzte kontuak, erregelamenduz xedatutako moduan, betiere dagozkien eragiketak ikuskatzeari kalterik egin gabe.

4. Erakunde batek Estatuaren sektore publikokoa izateari uzten badio, kontuak eman beharko ditu ekitaldiaren hasieratik une horretara arteko aldiagatik. Hartarako, aipatutako aldiari dagozkion finantzen berariazko egoera-orriak egin beharko ditu, urteko kontuak egiteko jarraitu beharreko kontabilitate-irizpide berak aplikatuta eta haien eduki berarekin.

Finantzen berariazko egoera-orri horien berri emateko beharra merkataritza-sozietateko presidentek, fundazioaren patronatuko presidentek edo partzuergo edo erakundeko presidente edo zuzendariak izango du, aipatutako ematea gertatzen den egunean.

Finantzen berariazko egoera-orri horiek formulatzeko eta emateko jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, Lege honen 127. eta 139. artikuluetan ezarritakoa aplikatu beharko da.

Merkataritza-sozietateak eta partzuergoak aurreko beharretik salbuetsita egongo dira, baldin eta, Estatuaren sektore publikokoak izateari utzi ondoren, Lege honen bederatzigarren xedapen gehigarriaren azken lerrokadan aurreikusitako merkataritza-sozietate edo partzuergo bihurtzen badira.

5. Estatuaren sektore publikoko erakunde bat desegiten bada likidatzeko prozesu bat hasita, erakundeak dagozkion urteko kontuak eman beharko ditu desegin den urte naturala amaitu arte edo likidatzeko prozesua bukatzen den arte, une hori lehenagokoa bada. Ondoren, likidatzeko prozesuak dagozkion urteko kontuak eman beharko ditu erakundeak.

Erakunde horiek arautzen dituen araudiak finantzen berariazko egoera-orriak egin beharra xedatzen duenean, egoera-orri horiek eman beharko dira.

6. Ogasuneko eta Herri Administrazioetako ministroak urteko kontuak emateko prozedura arautuko du, Estatuako Administrazioako Esku Hartzaitza Nagusiak proposatuta, baldin eta sektore publikoko erakundeen arteko egiturazko aldaketak badaude eta horiek erakunde publikoak iraungitzea badakarte likidatzeko prozesurik gabe; hartarako, aipatutako egiturazko aldaketek administrazioako, enpresako edo fundazioko sektore publiko beraren barruko erakundeei eragiten dieten edo ez hartuko da kontuan, baita sektore bakoitzari aplikatu beharreko araudia ere.

Oro har, erakunde xurgatzailearen presidentek edo zuzendariak eman beharko ditu iraungitako erakundearen urteko kontuak, aipatutako kontuak emateko datan.

Erakunde xurgatzailea Estatuko Administrazio Orokorra bada, iraungitako erakundearen ondasun, eskubide eta betebeharrak gehienekudeaketa bere gain hartzen duen organoaren titularra izango da kontu-emailea, aipatutako kontuak emateko datan.

Iraungitako erakundearen ondasunak, eskubideak eta betebeharrak hainbat erakundetan sartzen badira, iraungitako erakundearen ondasun, eskubide eta betebeharrak gehienekudeaketa bere gain hartzen duen organoaren titularra izango da kontu-emailea, aipatutako kontuak emateko datan. Erakunde xurgatzaile hori Estatuko Administrazio Orokorra bada, iraungitako erakundearen ondasun, eskubide eta betebeharrak gehienekudeaketa bere gain hartzen duen organoaren titularra izango da kontu-emailea, aipatutako kontuak emateko datan.

7. Aurreko 4, 5 eta 6 paragrafoetan ezarritako kasuetan kontuak formulatzeko eta emateko jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, Lege honen 127. eta 139. artikuluetan ezarritakoa aplikatu beharko da.»

Hamabost. 139 bis artikulua gehitzen zaio Aurrekontuei buruzko 47/2003 Lege Orokorrari, honela dioena:

«139 bis artikulua. *Kontuak ematea nortasun juridikorik ez duten funtsak direla-eta.*

Lege honen 2.2 artikuluan aipatzen diren nortasun juridikorik gabeko funtsei dagokionez, IV kapitulu honetan jasotako arauak aplikatuko dira, eta haien administrazioari eta kudeaketari dagokienez erabakitzeke ahalmena duten organoen titularrak izango dira kontu-emaileak.

Funts horien urteko kontuak formulatzeaz eta onartzeaz arduratzen dena izango da kontu-emailea, araudi erregulatzailean bestelako irizpiderik dagoenean izan ezik.»

Hamasei. Aldatu egin da Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 143. artikulua; hona nola gelditzen den idatzita:

«143. artikulua. *Kontrolaren esparrua eta erabilera.*

Titulu honetan ageri den kontrola Estatuko Administrazio Esku Hartzaitza Nagusiak gauzatuko du Estatuaren sektore publikoko erakunde edo organo guztien gainean, bere zerbitzu zentralen edo Kontu-hartzaitza delegatuen bitartez.

Nolanahi ere, Kontu-hartzaile Nagusiak eginkizun hori gauzatzea bermatuko du dagokien erakunde publikoetan egokia den irismenaren arabera, eta horretarako, berariazko lanposturik ezean, behar diren izendapen funtzionalak egingo ditu.

Defentsa eta Gizarte Segurantzaren Ministerioen esparruan, Defentsaren Kontu-hartzaitza Nagusiaren eta Gizarte Segurantzaren Kontu Hartzaitza Nagusiaren bitartez gauzatuko da kontrola, hurrenez hurren; horrelakoak, ondorio horietarako, Estatuko Administrazio Esku Hartzaitza Nagusiaren mende daude funtzionalki.»

Hamazazpi. 150 bis artikulua gehitzen zaio Aurrekontuei buruzko 47/2003 Lege Orokorrari, honela dioena:

«150 bis artikulua. *Eskumenak.*

Erregelamenduz banatuko dira Estatuko Administrazio Esku Hartzaitza Nagusiaren eta kontu-hartzaile delegatuen arteko eskumenak.

Edozelan ere, Kontu-hartzaile Nagusiak eginkizun kontu-hartzailearen arloan dituen eskumenak kontu-hartzaile delegatuei eskuordetu ahal izango zaizkie. Halaber, kontu-hartzaile nagusiak egoki deritzon edozer egintza edo espediente berak ebaztea eskatu ahal izango du.»

Hemezortzi. Aldatu egiten da Aurrekontuen Lege Orokorraren bederatzigarren xedapen gehigarria; hona nola gelditzen den idatzita:

«Bederatzigarren xedapen gehigarria. *Merkataritza-sozietateak eta sektore publikoaren kontrolpeko beste erakunde batzuk.*

Estatuak autonomo-erkidegoekin edo toki-erakundeekin hitzarmenak egitea sustatuko du, Estatuaren sektore publikoko erakundeek, autonomia-erkidegoen edo toki-erakundeen administrazioak edo haiei lotutako edo haien mendeko erakundeek parte-hartze gutxiengoduna duten merkataritza-sozietateen aurrekontu-, finantza-, kontabilitate- eta kontrol-erregimena koordinatzearen, baldin eta haietan duten parte-hartzea, batera hartuta, gehiengoduna bada edo beren kontrol politikoa badakar.

Aurrekoa partzuergoei ere aplikatuko zaie, baldin eta, Lege honen 2. artikulua 1 paragrafoaren h lerrokadan erakunde horietan parte hartzen duten administrazioei dagokienez ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte ere, gehienbat Estatuaren, autonomia-erkidegoen edo toki-korporazioen baliabideekin finantzatzen badira, aurreko administrazioek gehienbat haiei dirua, ondasunak edo industria eman badizkiete edo, eratzeko unean, aipatutako erakundea gehienbat finantzatzeko konpromisoa hartu badute, eta betiere haien ekintzak zuzenean edo zeharka administrazio horien baterako erabakimenari lotuta badaude. Partzuergo horien aurrekontuak, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak erabakitzen duen moduan, Estatuaren Aurrekontu Orokorrekin batera aurkeztuko dira, informatzeko xedez, baldin eta Estatuaren Sektore Publikoak duen parte-hartze ehunekoa partzuergoan dauden gainerako herri-administrazio bakoitzaren berdina edo handiagoa bada.

Merkataritza-sozietate eta partzuergo horiek urteko kontuak derrigorrean aurkeztu behar dizkiote Kontuen Auzitegiari, Estatu Administrazioaren Kontuhartzaitza Nagusiaren bidez, baldin eta Estatu sektore publikoaren partaidetzaren ehunekoa berdina edo handiagoa bada gainerako administrazio publiko bakoitzarena baino; horrez gain, autonomia-erkidego bakoitzak duen araudian ezarritakoa ere bete behar dute. Kontuak emateko prozedurari dagokionez, Lege honetan xedatutakoa aplikatuko da.

Erakunde horien aurrekontuak Estatuaren Aurrekontu Orokorrekin batera badaude, urteko kontuekin batera aipatutako aurrekontuen likidazioa ere aurkeztu beharko dute.

Aurreko lerroketan xedatutakoa fundazio publikoei eta beste forma juridikoei ere aplikatuko zaie, baldin eta, haietan, Estatuaren sektore publikoaren parte-hartzea gainerako herri-administrazio bakoitzaren berdina edo handiagoa bada, betiere autonomia-erkidego bakoitzaren berezko araudian xedatutakoari kalterik egin gabe.»

Hemeretzi. Aldatu egiten da azaroaren 9ko 47/2003 Legearen hemeretzigarren xedapen gehigarriaren 7 paragrafoa, eta hona nola gelditzen den idatzita:

«Hemeretzigarren xedapen gehigarria. *Urte anitzeko gastu-konpromisoen urtekoak aurrekontura egozte...*

7. Kontabilitate-bulegoak arduratuko dira aurreko 4, 5 eta 6 paragrafoetan aipatutako kreditu-atxikipenak nahiz kreditu-atxikipenen ezeztatzeak kontabilitate-informazioko sisteman erregistratzeaz, erregistratzeke dauden konpromiso guztien behin betiko egozpena eraginkortasunez kontrolatu ahal izateko.

Aipatutako paragrafoetan adierazitako kreditu-atxikipenak ezingo dira inola ere egotzi aurrekontuan aurreko ekitaldietako obligazioei erantzuteko kontsignatutako kredituen kontra.»

Xedapenaren gainerakoa bere horretan idatzita geratzen da.

Hogei. Azaroaren 26ko 47/2003 Legeari hogeita batgarren xedapen gehigarria gehitu zaio, eta hona nola gelditzen den idatzita:

«1. Estatuaren sektore publikoaren nahitaez desjabetzeko eta balio justua zehazteko prozeduren esparruan, desjabetzearen xederako hertsiki ezinbestekoak diren ondasunen edo eskubideen okupazio-beharra erabaki aurretik, eskudun organoak dagokion kreditu-atxikipena egingo du eta, hala badagokio, ondorego ekitaldietara egotz daitezkeen gastuetarako mugak betetzen direla egiaztatuko du, balio justuaren zenbateko estimatuarekin –berau kalkulatzeko Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legean horretarako aurreikusitako arauak beteko dira–, desjabetzeko espedientea amaitzea eta, ondorioz, balio justua ordaintzea aurrekusten den aurrekontu-ekitaldiaren kontura.

Ondorio horietarako, aldeztu aurretik, aipatutako Legearen 17. artikuluan zehaztutakoaren arabera, desjabetu beharreko ondasunen eta eskubideen zerrenda zehatza eta banakatua egin behar da. Zerrenda horrekin batera, hala badagokio, lurzatiaren planoak ere aurkeztuko dira, eragindako ondasunak edo eskubideak zehazki identifikatu ahal izateko; berau jendaurrean azalduko da Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 18.1 artikuluan xedatutako moduan.

2. Desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen okupazioa premiazkoztat jotzen den prozeduretan, baldin eta premiazko okupazioaren eta okupazio-beharraren deklarazio horiek Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan aurreikusitako Ministro Kontseiluaren erabaki bat ez bestelako tresna juridikoetan formalizatzen badira, berariazko sektore-araudia betez, aipatutako tresnak edo proiektuak onartu aurretik, dagokion kreditu-atxikipena egingo du eskudun organoak aurreko paragrafoan xedatutako moduan.

3. Ogasuneko eta Herri Administrazioetako ministroak, kontabilitate arloan dituen eskumenak erabiliz, aurreko paragrafoetan adierazitako kontabilitate-eragiketak erregistratzeko prozedura eta epeak erabakiko ditu, bai eta, hala badagokio, Estatu Administrazioeko Esku Hartzailtza Nagusiak kautelazko atxikipenak egin ditzan ere nahitaezko desjabetzeko prozeduren ondoriozko gastuaren kontzeptuan; azken horiek kalkulatzeko azken hiru ekitaldi itxietan benetan ordaindutakoaren batez besteko zenbateko aritmetikoa hartuko da kontuan. Nolanahi ere, zenbateko hori aldi berean sortutako batez besteko gastua baino txikiagoa bada, kautelazko atxikipena zenbateko horrekin egingo da beti.

Estatu Administrazioeko Esku Hartzailtza Nagusiak erabakiko ditu kautelazko atxikipen horiek, zerbitzu kudeatzailea dagokion ministerioaren idazkariordetzaren entzunaldia egin ondoren.

4. Aurreko paragrafoan adierazitakoa ere aplikatuko zaie honako eragiketa hauen ondoriozko gastuak finantzatzeko egin beharreko atxikipenei:

a) Prezioen berrikuspenei dagozkienak, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 94. artikuluan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 105. artikuluan xedatutakoa betetzen dela bermatzeko.

b) Espainiako Historia Ondarea zaintzeko edo aberasteko lanak finantzatzera bideratutako herri-lanen aurrekontuan Estatuak emandako funtsen 100eko 1i dagozkionak, Espainiako Historia Ondareari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legea partzialki garatzeko urtarrilaren 10eko 111/1986 Errege Dekretuaren 58. artikulua arabera.»

Hamaseigarrena. *Iruzur Fiskala Prebenitzeko Neurriei buruzko azaroaren 29ko 36/2006 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Iruzur Fiskala Prebenitzeko Neurriei buruzko azaroaren 29ko 36/2006 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarria; aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera

izango du eragina, eta epe mugagabeen egongo da indarrean. Honela geratzen da idatzita:

«Kudeaketa publikoaren gardentasunaren esparru orokorrean, Zerga Agentziak, Aurrekontu Bulegoaren bitartez, urte horretarako finkatutako helburuen informazio zehatza igorriko die Gorte Nagusiei urte bakoitzaren lehen bi hiletan eta, sei hilean behin, bere jardueraren emaitzei buruzkoa. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du informazio hori.»

Hamazazpigarrena. *Uztailaren 18ko 28/2006 Legea, Zerbitzu Publikoak hobetzeko estatu-agentziei buruzkoa, aldatzea.*

Aldatu egiten da uztailaren 18ko 28/2006 Legearen, Zerbitzu Publikoak hobetzeko estatu-agentziei buruzkoaren, zazpigarren xedapen gehigarriaren 2 puntua; aldaketek 2014ko urtarrilaren 1etik izango dute eragina, eta epe mugagabeen egongo dira indarrean. Hona nola gelditzen den idatzita:

«Estatu Agentziek, dagokion ministroaren bitartez, Kontseilu Errektoreak onartutako jardueraren txosten orokorra igorriko die Gorte Nagusiei urtean behin, Aurrekontu Bulegoaren bitartez, agentziaren zereginei eta helburuen betetze-mailari dagokienez. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du informazio hori.»

Hemezortzigarrena. *Kanpo-zorren kudeaketa arautzen duen abenduaren 7ko 38/2006 Legea aldatzea.*

Bigarren lerrokada bat erantsi zaio Kanpo-zorren kudeaketa arautzen duen abenduaren 7ko 38/2006 Legearen lehen xedapen gehigarriari; aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina, eta epe mugagabeen egongo da indarrean. Honela geratzen da idatzita:

«Gobernuak Gorte Nagusiei igorriko die txosten hori bere Aurrekontu Bulegoaren bitartez, eta honek diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du.»

Hemeretzigarrena. *2007rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 42/2006 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da 2007rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 42/2006 Legea; aldaketek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dute eragina, eta epe mugagabeen egongo dira indarrean. Hona nola geratzen den idatzita:

Lehena. Aldatu egiten da 2007rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 42/2006 Legearen laugarren xedapen gehigarriari 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 27ko 17/2012 Legearen azken xedapenetako hamazazpigarrenak emandako idazkera. Hona nola geratzen den idatzita:

«Bat. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, ekonomia-jardueraren, lanbidearen edo egoeraren arabera dagokion tarifa aplikatuz kotizatuko dute Gizarte Segurantzaren enpresaburuek, horien araubidea edozein dela ere, eta, hala dagokionean, Itsasoko Langileen eta Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Erregimen Berezietan jasotako norberaren konturako langileek, lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen gertakariengatik. Hona hemen aipatutako tarifak:

## LAN ISTRIPUENGATIK ETA LANBIDE GAIXOTASUNENGATIK KOTIZATZEKO TARIFA

I. KOADROA		Kotizazio-tasak		
2009ko EJSN kodeak eta ekonomia-jardueraren izenburua		ABE	BHB	OROTARA
01	Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin lotutako zerbitzuak, ondoko hauek izan ezik:	1,50	1,10	2,60
0113	Barazki, zuztar eta tuberkuluen laborantza	1,15	1,10	2,25
0119	Iraunkorrak ez diren beste labore batzuk	1,15	1,10	2,25
0129	Beste labore iraunkor batzuk	2,25	2,90	5,15
0130	Landareen hedapena	1,15	1,10	2,25
014	Abeltzaintzako produkzioa (0147 izan ezik)	1,80	1,50	3,30
0147	Hegazti-hazkuntza	1,25	1,15	2,40
015	Nekazaritza-produkzioa, abeltzaintza-produkzioarekin batera	1,60	1,20	2,80
016	Nekazaritza eta abeltzaintza laguntzeko eta uztaren osteko prestakuntzarako jarduerak (0164 izan ezik)	1,60	1,20	2,80
0164	Hazien tratamendua, ugalketarako	1,15	1,10	2,25
017	Ehiza, animaliak harrapatzea eta horiekin lotutako zerbitzuak	1,80	1,50	3,30
02	Basogintza eta basoen ustiaketa	2,25	2,90	5,15
03	Arrantza eta akuikultura (v, w eta 0322 izan ezik)	3,05	3,35	6,40
v	Itsasoko Langileen Erregimen Bereziko kotizazioko bigarren taldea	2,10	2,00	4,10
w	Itsasoko Langileen Erregimen Bereziko kotizazioko hirugarren taldea	1,65	1,70	3,35
0322	Ur gezako akuikultura	3,05	3,20	6,25
05	Antrazitaren, harrikatzaren eta lignitoaren erauzketa (y izan ezik)	2,30	2,90	5,20
eta	Meategi barruko ohiko lanak	3,45	3,70	7,15
06	Petrolio gordinaren eta gas naturalaren erauzketa	2,30	2,90	5,20
07	Metalezko mineralen erauzketa	2,30	2,90	5,20
08	Beste erauzte-industria batzuk (0811 izan ezik)	2,30	2,90	5,20
0811	Apainketarako eta eraikuntzarako harriaren, kareharriaren, igeltsuaren, kretaren eta arbelaren erauzketa	3,45	3,70	7,15
09	Erauzte-industriak laguntzeko jarduerak	2,30	2,90	5,20
10	Elikadura-industria (101, 102, 106, 107 eta 108 izan ezik)	1,60	1,60	3,20
101	Haragiaren prozesaketa eta kontserbazioa, eta haragizko produktuen prestaketa	2,00	1,90	3,90
102	Arrainen, krustazeoen eta moluskuen prozesaketa eta kontserbazioa	1,80	1,50	3,30
106	Errotaritzako produktuen, almidoen eta almidoidun produktuen fabrikazioa	1,70	1,60	3,30
107	Okintza-produktuen eta janari-pasten fabrikazioa	1,05	0,90	1,95
108	Beste janari batzuen fabrikazioa	1,05	0,90	1,95
11	Edarien fabrikazioa	1,60	1,60	3,20
12	Tabako-industria	1,00	0,80	1,80

I. KOADROA		Kotizazio-tasak		
2009ko EJSN kodeak eta ekonomia-jardueraren izenburua		ABE	BHB	OROTARA
13	Ehungintza (1391 izan ezik)	1,00	0,85	1,85
1391	Puntuzko ehunen fabrikazioa	0,80	0,70	1,50
14	Jantzigintza (1411, 1420 eta 143 izan ezik)	0,50	0,40	0,90
1411	Larruzko jantzigintza	1,50	1,10	2,60
1420	Larruzko artikuluen fabrikazioa	1,50	1,10	2,60
143	Puntuzko jantzigintza	0,80	0,70	1,50
15	Larrugintza eta oinetakogintza	1,50	1,10	2,60
16	Zuraren eta kortxoaren industria (altzariak izan ezik), saskigintza eta espartzugintza (1624 eta 1629 izan ezik)	2,25	2,90	5,15
1624	Zurezko enbalajeen eta ontzien fabrikazioa	2,10	2,00	4,10
1629	Zurezko beste produktu batzuen fabrikazioa; kortxozko artikulua, saskigintza eta espartzugintza	2,10	2,00	4,10
17	Papergintza (171 izan ezik)	1,00	1,05	2,05
171	Paper-orearen, paperaren eta kartoiaren fabrikazioa	2,00	1,50	3,50
18	Arte grafikoa eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa	1,00	1,00	2,00
19	Kokeriak eta petrolioaren fintzea	1,45	1,90	3,35
20	Industria kimikoa (204 eta 206 izan ezik)	1,60	1,40	3,00
204	Xaboen, detergenteen eta garbiketako eta distira emateko beste artikulua batzuen fabrikazioa; lurringaien eta kosmetikoen fabrikazioa	1,50	1,20	2,70
206	Zuntz artifizialen eta sintetikoaren fabrikazioa	1,50	1,20	2,70
21	Farmazia-produktuen fabrikazioa	1,30	1,10	2,40
22	Kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa	1,75	1,25	3,00
23	Metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa (231, 232, 2331, 234 eta 237 izan ezik)	2,10	2,00	4,10
231	Beiraren eta beirazko produktuen fabrikazioa	1,60	1,50	3,10
232	Zeramika erregogorrezko produktuen fabrikazioa	1,60	1,50	3,10
2331	Azulejuzko eta zeramikazko baldosen fabrikazioa	1,60	1,50	3,10
234	Zeramikazko beste produktu batzuen fabrikazioa	1,60	1,50	3,10
237	Harriaren mozketa, zizelkatzea eta akabera	2,75	3,35	6,10
24	Metalurgia: burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa	2,00	1,85	3,85
25	Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoena izan ezik	2,00	1,85	3,85
26	Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa	1,50	1,10	2,60
27	Material eta tresneria elektrikoaren fabrikazioa	1,60	1,20	2,80
28	Makineria eta ekipoen fabrikazioa, b.i.s.g.	2,00	1,85	3,85
29	Motordun ibilgailuen, atoen eta erdi-atoen fabrikazioa	1,60	1,20	2,80
30	Garraiorako beste material batzuen fabrikazioa (3091 eta 3092 izan ezik)	2,00	1,85	3,85



I. KOADROA		Kotizazio-tasak		
2009ko EJSN kodeak eta ekonomia-jardueraren izenburua		ABE	BHB	OROTARA
3091	Motozikleten fabrikazioa	1,60	1,20	2,80
3092	Desgaitasuna duten pertsonentzako bizikleten eta ibilgailuen fabrikazioa	1,60	1,20	2,80
31	Altzarien fabrikazioa	2,00	1,85	3,85
32	Bestelako manufaktura-industriak (321 eta 322 izan ezik)	1,60	1,20	2,80
321	Bitxien eta antzeko artikuluen fabrikazioa	1,00	0,85	1,85
322	Musika-tresnen fabrikazioa	1,00	0,85	1,85
33	Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (3313 eta 3314 izan ezik)	2,00	1,85	3,85
3313	Ekipo elektronikoen eta optikoen konponketa	1,50	1,10	2,60
3314	Ekipo elektrikoaren konponketa	1,60	1,20	2,80
35	Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornikuntza	1,80	1,50	3,30
36	Uraren bilketa, arazketa eta banaketa	2,10	1,60	3,70
37	Hondakin-uren bilketa eta tratamendua	2,10	1,60	3,70
38	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztatzea; balioztatzea	2,10	1,60	3,70
39	Deskutsatzeko jarduerak eta hondakinak kudeatzeko beste zerbitzu batzuk	2,10	1,60	3,70
41	Eraikuntza (411 izan ezik)	3,35	3,35	6,70
411	Higiezinaren sustapena	0,85	0,80	1,65
42	Ingeniaritza zibila	3,35	3,35	6,70
43	Eraikuntzako jarduera espezializatuak	3,35	3,35	6,70
45	Motordun ibilgailuen eta motozikleten salmenta eta konponketa (452 eta 454 izan ezik)	1,00	1,05	2,05
452	Motordun ibilgailuen mantentzea eta konponketa	2,45	2,00	4,45
454	Motozikleten eta berorien ordeko piezen eta osagarrien salmenta, mantentzea eta konponketa	1,70	1,20	2,90
46	Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak, motordun ibilgailuenak eta motozikletenak izan ezik. Hauek izan ezik:	1,40	1,20	2,60
4623	Animalia bizidunen handizkako merkataritza	1,80	1,50	3,30
4624	Larruen handizkako merkataritza	1,80	1,50	3,30
4632	Haragiaren eta haragizko produktuen handizkako merkataritza	1,80	1,50	3,30
4638	Arrainen, itsaskien eta beste elikagai batzuen handizkako merkataritza	1,60	1,40	3,00
4672	Metalen eta metalezko mineralen handizkako merkataritza	1,80	1,50	3,30
4673	Zuraren, eraikuntzarako materialen eta aparatu sanitarioen handizkako merkataritza	1,80	1,50	3,30
4674	Burdindegiko, iturgintzako eta berokuntzako produktuen handizkako merkataritza	1,80	1,55	3,35
4677	Txatarraren eta hondar-produktuen handizkako merkataritza	1,80	1,55	3,35
4690	Espezializatu gabeko handizkako merkataritza	1,80	1,55	3,35

I. KOADROA		Kotizazio-tasak		
2009ko EJSN kodeak eta ekonomia-jardueraren izenburua		ABE	BHB	OROTARA
47	Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuena eta motozikletena izan ezik (473 izan ezik)	0,95	0,70	1,65
473	Automoziarako erregaiaren txikizkako merkataritza, espezializatutako establezimenduetan	1,00	0,85	1,85
49	Lurreko eta hoditeria bidezko garraioa (494 izan ezik)	1,80	1,50	3,30
494	Errepide bidezko salgaien garraioa eta mudantza-zerbitzuak	2,00	1,70	3,70
50	Itsas garraioa eta barneko bide nabigagarrian egindakoa	2,00	1,85	3,85
51	Aireko garraioa	1,90	1,70	3,60
52	Garraioarekin lotutako biltegiatze-lanak eta jarduerak (x, 5221 izan ezik)	1,80	1,50	3,30
x	Zamalanak; estibatzea eta desestibatzea	3,35	3,35	6,70
5221	Lehorreko garraioarekin lotutako jarduerak	1,00	1,10	2,10
53	Postako jarduerak	1,00	0,75	1,75
55	Ostatu-zerbitzuak	0,75	0,50	1,25
56	Janari eta edari zerbitzuak	0,75	0,50	1,25
58	Edizioa	0,65	1,00	1,65
59	Zinematografia, bideo, telebista-saio, soinu-grabaketa eta musika-edizio arloetako jarduerak	0,75	0,50	1,25
60	Irratiko eta telebistako programazioekin eta emanaldiekin lotutako jarduerak	0,75	0,50	1,25
61	Telekomunikazioak	0,70	0,70	1,40
62	Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin lotutako beste jarduera batzuk	0,65	0,70	1,35
63	Informazio-zerbitzuak (6391 izan ezik)	0,65	1,00	1,65
6391	Albiste-agentzien jarduerak	0,75	0,50	1,25
64	Finantza-zerbitzuak, aseguruak eta pentsio-funtsak izan ezik	0,65	0,35	1,00
65	Aseguruak, berraseguruak eta pentsio-funtsak, derrigorrezko Gizarte Segurantzak izan ezik	0,65	0,35	1,00
66	Finantza-zerbitzuekin eta aseguruarekin lotutako jarduerak	0,65	0,35	1,00
68	Higiezinarekin lotutako jarduerak	0,65	1,00	1,65
69	Zuzenbidearekin eta kontabilitatearekin lotutako jarduerak	0,65	0,70	1,35
70	Egoitza nagusien jarduerak; enpresa-kudeaketarako aholkularitza-jarduerak	0,75	0,60	1,35
71	Arkitekturako eta ingeniarietako zerbitzu teknikoak; saio eta analisi teknikoak	0,65	1,00	1,65
72	Ikerketa eta garapena	0,65	0,35	1,00
73	Publizitatea eta merkatu-azterketak	0,90	0,80	1,70
74	Beste jarduera profesional, zientifiko eta tekniko batzuk (742 izan ezik)	0,90	0,85	1,75
742	Argazkigintza-jarduerak	0,50	0,40	0,90
75	Albaitaritza-jarduerak	1,50	1,10	2,60

I. KOADROA		Kotizazio-tasak		
2009ko EJSN kodeak eta ekonomia-jardueraren izenburua		ABE	BHB	OROTARA
77	Alokairu-jarduerak	1,00	1,00	2,00
78	Enpleguarekin lotutako jarduerak (781 izan ezik)	1,55	1,20	2,75
781	Enplegatze-agentzien jarduerak	0,95	1,00	1,95
79	Bidaia-agentzien, bidaia-antolatzaileen eta erreserba-zerbitzuen jarduerak eta beroriekin lotutako jarduerak	0,80	0,70	1,50
80	Segurtasun- eta ikerketa-jarduerak	1,40	2,20	3,60
81	Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintza-jarduerak (811 izan ezik)	2,10	1,50	3,60
811	Eraikin eta instalazioetarako zerbitzu integralak	1,00	0,85	1,85
82	Bulegoetako administrazio-jarduerak eta enpresekin lotutako beste jarduerak osagarri batzuk (8220 eta 8292 izan ezik)	1,00	1,05	2,05
8220	Dei-zentroetako jarduerak	0,70	0,70	1,40
8292	Ontziratze- eta paketatze-jarduerak	1,80	1,50	3,30
84	Herri Administrazioa eta defentsa; Derrigorrezko Gizarte Segurantza (842 izan ezik)	0,65	1,00	1,65
842	Komunitateari oro har eskainitako zerbitzuak	1,40	2,20	3,60
85	Hezkuntza	0,65	0,35	1,00
86	Osasun-jarduerak (869 izan ezik)	0,80	0,70	1,50
869	Osasun-arloko beste jarduerak batzuk	0,95	0,80	1,75
87	Egoitzetako laguntza-zerbitzua	0,80	0,70	1,50
88	Gizarte-zerbitzuen arloko jarduerak, ostatu ematerik gabekoak	0,80	0,70	1,50
90	Sorkuntzarekin, artearekin eta ikuskizunekin lotutako jarduerak	0,75	0,50	1,25
91	Liburutegietako, artxiboetako eta museoetako jarduerak, eta beste kultura-jarduerak batzuk (9104 izan ezik)	0,75	0,50	1,25
9104	Lorategi botanikoetako, parke zoologikoetako eta natura-erreserbetako jarduerak	1,75	1,20	2,95
92	Zorizko jokoen eta apustuen arloko jarduerak	0,75	0,50	1,25
93	Kirol- eta jolas-jarduerak eta denbora-pasakoak (u izan ezik)	1,70	1,30	3,00
u	Zezenketak	2,85	3,35	6,20
94	Elkarteen jarduerak	0,65	1,00	1,65
95	Ordenagailuen, norberaren gauzakien eta etxean erabiltzeko artikuluen konponketa (9524 izan ezik)	1,50	1,10	2,60
9524	Altzarien eta tresneriaren konponketa	2,00	1,85	3,85
96	Beste zerbitzu pertsonal batzuk (9602, 9603 eta 9609 izan ezik)	0,85	0,70	1,55
9602	Ile-apainketa eta estetikako beste tratamendu batzuk	0,65	0,45	1,10
9603	Hileta-zerbitzuak eta horiekin lotutako jarduerak	1,80	1,50	3,30
9609	Beste zerbitzu pertsonal batzuk, b.i.s.g.	1,50	1,10	2,60
97	Etxeetako jarduerak, etxeetako langileen enplegatzaile gisa	0,65	0,45	1,10
99	Lurraldetik kanpoko erakundeen eta organismoen jarduerak	1,20	1,15	2,35

II. KOADROA		Kotizazio-tasak		
		ABE	BHB	OROTARA
Jarduera guztietako lanbide eta egoerei aplikatzeko tasak				
a	Bulegoetakoak baino ez diren lanetako langileak.	0,65	0,35	1,00
b	Merkataritzako ordezkariak.	1,00	1,00	2,00
d	Eraikinetako, obretako eta, oro har, eraikuntza-lanetako instalazio- eta konponketa-lanbideetako langileak.	3,35	3,35	6,70
f	3,5 tona baino gehiagoko zama-educiera erabilgarria duten merkantzia-garraiorako ibilgailu automobiletako gidariak.	3,35	3,35	6,70
g	Garbitzaileak, orokorrean. Eraikinen eta edozein motako establezimenduen garbiketara. Kaleak garbitzea.	2,10	1,50	3,60
h	Jagoleak, zaintzaileak, zinpeko zaintzaileak eta segurtasun-langileak.	1,40	2,20	3,60

Bi. Aurreko Bat paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko orduan, arau hauek hartuko dira kontuan:

Lehenengoa. Aldi baterako ezintasunagatiko baja-aldietan eta, lan-harremana etenda, kotizatzeke betebeharrak duten beste egoera batzuetan, kasuan kasuko ekonomia-jarduerari edo lanbideari dagokion kotizazio-tasa aplikatzen jarraituko da.

Bigarrena. Xedapen honetan jasotako tarifiaren ezarritakoaren arabera aplikatzeko den kotizazio-tasa zehazteko, I. koadroan aurreikusitakoa hartuko da erreferentziatzen enpresak edota norberaren konturako langileak edo autonomoak egindako ekonomia-jarduera nagusiari esleitutako tasa identifikatzeko; betiere, apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ekonomia Jardueren Saikapen Nazionalaren (EJSN-2009) eta bertan jarduerak bakoitzarekin lotuta jasotako kodeen arabera.

Enpresa batean, jarduerak nagusiarekin batera, horren osagarri den beste jarduerak bat edo batzuk garatzen direnean, kotizazio-tasa jarduerak nagusirako ezarritakoa izango da. Enpresan, jarduerak nagusiarekin batera, jarduerak horren ekoizpen-prozesuan sartzen ez diren ondasun edo zerbitzuak ekoizteko beste jarduerak bat garatzen denean, horretarako beste ekoizpen-bitarteko batzuk baliatuz, bigarren jarduerak horretan aritzen diren langileei aplikatzeko kotizazio-tasa jarduerak biltzen duen ekonomia-jarduerarako xedatutakoa izango da.

Norberaren konturako langileak hainbat jarduerak egiten dituenentzat, eta horiek behin bakarrik sartzen direnean Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Erregimen Berezian, langileak egiten dituen jardueretarako xedatutako kotizazio-tasen artean handiena izango da aplikatzeko.

Hirugarrena. Aurreko arauan adierazitakoa gorabehera, besteren konturako langileak duen lanbidea edo egoera II. koadroan adierazitakoren bat baldin bada, aipatutako koadroan lanbide edo egoera horretarako xedatutako kotizazio-tasa izango da aplikatzeko; betiere, tasa hori enpresaren jardueraren arabera dagokionarekin bat ez badator.

Hiru. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak zehaztuko du, erregelamendu bidez xedatutakoaren arabera, zer kotizazio-tasa den aplikatzeko, enpresak edo langile autonomoak aitortutako ekonomia-jarduerak aintzat hartuta, edo, hala badagokio, langileen lanbide edo egoera; ondorio horietarako, ez da begiratuko langileak, lanbide-gertakarietarako babesa formalizatzeko, Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaile bat edota horren erakunde laguntzaile bat aukeratu duen.

Lau. Gobernuak xedapen honetan jasotako tarifiaren bildutako kotizazio-tasen urteko doikuntza egingo du; halaber, ekonomia-jarduerak onetsitako EJSN

sailkapen berrietara egokituko ditu, eta, pixkanaka, dagokion tarifyan jasotako sailkapenean zerrendatutako lanbideak ezabatuko ditu.

Bigarrena. Aldatu egiten da 2007rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 42/2006 Legearen berrogeita hirugarren xedapen gehigarriaren Bi.1.b) epigrafeari 2008rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren abenduaren 26ko 51/2007 Legearen azken xedapenetako hamalagarrenak emandako idazkera. Hona nola geratzen den idatzita:

«b) Maileguak amortizazio-epe luzeekin ematea, gabealdiak eta interes-tasa txikiak barne hartuta, hala Bat epigrafean zerrendatutako erakundeei nola turismo-enpresa pribatuei, jarduera nagusia turismo-helmuga helduetan garatzen duten eta bertan errotatuta daudenei.

Manu honetan xedatutakoaren esparruan gauzatutako edozer egintza edo negozio juridiko onartzeko, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioko Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren aurretiko eta aldeko txostena beharko da, Europako Erkidegoko funtsen bidez finantzatu ahal izateko beharrezko eskakizunak betetzen dituela egiaztatzeko.»

Hogeigarrena. *Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legea aldatzea.*

Beste lerrokada bat erantsi zaio Lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 11. artikulua 2 puntuari; aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina, eta epe mugagabea egongo da indarrean. Honela geratzen da idatzita:

«Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak Espainian emandako laguntza publikoei buruzko txosten bat bidaliko die Gorte Nagusiei urtero Aurrekontu Bulegoaren bitartez. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du informazio hori.»

Hogeita batgarrena. *Finantza Aktiboak Eskuratzeko Funtsa sortzeko urriaren 10eko 6/2008 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Aldatu egiten da Finantza Aktiboak Eskuratzeko Funtsa sortzeko urriaren 10eko 6/2008 Errege Lege Dekretuaren 6. artikulua; aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dute eragina, eta epe mugagabea egongo dira indarrean. Hona hemen nola gelditzen den idatzita:

Gobernuak txosten bat bidaliko die Gorte Nagusiei lau hilean behin Aurrekontu Bulegoaren bitartez Finantza Aktiboak Eskuratzeko Funtsaren kudeaketa azaltzeko. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du informazio hori.»

Hogeita bigarrena. *Jaiotza-, adopzio- edota harrera-kasuetan aitatasun-baimenaren iraupena luzatzeari buruzko urriaren 6ko 9/2009 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Jaiotza-, adopzio- edo harrera-kasuetan aitatasun-baimenaren iraupena luzatzeari buruzko urriaren 6ko 9/2009 Legearen azken xedapenetako bigarrenaren testua. Honela geratu da:

«Azken xedapenetako bigarrena.

Lege hau 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko da indarrean.»

Hogeita hirugarrena. *3/2011 Errege Lege Dekretua, otsailaren 18koa, enplegarritasuna hobetzeko eta enplegu-politika aktiboak erreformatzeko premiazko neurriei buruzkoa, aldatzea.*

Beste lerrokada bat erantsi zaio otsailaren 18ko 3/2011 Errege Lege Dekretuaren, enplegarritasuna hobetzeko eta enplegu-politika aktiboak erreformatzeko premiazko neurriei buruzkoaren, azken xedapenetako lehenaren 11 paragrafoari; aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina, eta epe mugagabea egongo da indarrean. Hona nola gelditzen den idatzita:

«Gobernuak Gorte Nagusiei igorriko die txosten hori bere Aurrekontu Bulegoaren bitartez, eta honek diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du.»

Hogeita laugarrena. *Garapena Sustatzeko Funtzari buruzko urriaren 22ko 36/2010 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Garapena Sustatzeko Funtzari buruzko urriaren 22ko 36/2010 Legearen 12. artikulua 1 paragrafoaren lehen lerrokada; aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina, eta epe mugagabea egongo da indarrean. Hona nola gelditzen den idatzita:

«Gobernuak txosten bat igorriko die Gorte Nagusiei urtero Aurrekontu Bulegoaren bitartez. Txosten horretan funts horren kontura egotzitako eragiketak, haien helburuak, xede-herrialdea, esku hartzen duten sektoreak eta erakunde onuradunak azalduko ditu, bai eta kontratatze eta esleitzeko baldintzak, konprometitu eta ordaindutako zenbatekoak, tresna ezberdinak aukeratzeko irizpideak, azkenean onartutako esleipenak eta egindako ebaluazioak ere; horretaz gain, ekitaldi horretan emandako emakida-kredituei eta -maileguei dagokien Garapenerako Laguntza Ofizial itzulkorraren ehunekoak ere adieraziko da bertan. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du informazio hori.»

Hogeita bosgarrena. *2011rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 22ko 39/2010 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da 39/2010 Legearen X eranskina, eta honela idatzita geratzen da:

«...»

Lege honen 31.Bost artikulua Botere Judizialeko eta Karrera Fiskaleko kide jakin batzuen aparteko ordainsarian jaso beharreko zenbatekoa.

	Ekain-abenduko aparteko ordainsarian jaso beharreko zenbatekoa, eurotan
<i>Botere Judizialeko kideak</i>	
Auzitegi Gorenaren presidenteordea . . . . .	2.702,28
Auzitegi Gorenaren Salako presidenteak (haren presidentea ez dago barne hartuta) . . . . .	2.603,36
Auzitegi Nazionalako presidentea (Auzitegi Gorenako magistratua) . . . . .	2.603,36
Auzitegi Nazionalako Salako presidentea (Auzitegi Gorenako magistratuak) . . . . .	2.504,44
Auzitegi Gorenako magistratuak (aurreko paragrafoetan jaso gabeak) . . . . .	2.504,44

	Ekain-abenduko aparteko ordainsarietan jaso beharreko zenbatekoa, eurotan
<i>Ministerio Fiskaleko kideak</i>	
Auzitegi Goreneko fiskalburuordea . . . . .	2.603,36
Fiskal Ikuskatzailea . . . . .	2.515,48
Konstituzio Auzitegiaren aurreko Fiskaltzako fiskalburua. . . . .	2.515,48
Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzako fiskalburua. . . . .	2.515,48
Kontuen Auzitegiko Fiskaltzako fiskalburua . . . . .	2.504,44
Estatuko Fiskaltza Nagusiaren idazkaritza teknikoko fiskalburua . . . . .	2.504,44
Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Laguntza Unitateko fiskalburua. . . . .	2.504,44
Drogaren Aurkako Fiskaltza Bereziko fiskalburua . . . . .	2.504,44
Ustelkeriaren eta kriminalitate antolatuen aurkako fiskaltza nagusiko fiskalburua. . . . .	2.504,44
Auzitegi Goreneko Salako fiskalak. . . . .	2.504,44

Hogeita seigarrena. *Hipoteka-zordunak laguntzeko, gastu publikoa kontrolatzeko, toki-erakundeek enpresekiko eta autonomoekiko dituzten zorrak bertan behera uzteko, enpresa-jarduera sustatzeko, eta Administrazioa eraberritzeko eta soiltzeko neurriei buruzko uztailaren 1eko 8/2011 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Aldatu egiten da uztailaren 1eko 8/2011 Errege Lege Dekretuaren, hipoteka-zordunei laguntzeari, gastu publikoa kontrolatzeari, toki-entitateek enprekin eta autonomoekin hartutako zorrak kitatzeari, enpresa-jarduera sustatzeari eta birgaitzea bultzatzeari eta administrazioa sinplifikatzeari buruzkoaren, I. eranskina; aldaketek 2014ko urtarriletik aurrera izango dute eragina, eta epe mugagabeen egongo dira indarrean. Hona nola gelditu den idatzita:

«Ezabatu egiten da I. eranskinean (positibora igarotzen den isiltasun negatiboa duten administrazio-prozedurak) jasotako erreferentzia, jarduera ikertzailea ebaluatzeko prozedurari dagokionez, berau unibertsitateko irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren abenduaren 2ko Aginduan onartuta.»

Hogeita zazpigarrena. *Gizarte Segurantzako sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legea aldatzea.*

Beste idazketa bat eman zaio Gizarte Segurantzako sistema eguneratzeko, egokitzeko eta modernizatzeko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen azken xedapenetako hamabigarrenaren 1 paragrafoari; 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina, eta epe mugagabeen egongo da indarrean. Hona nola gelditzen den idatzita:

«1. Lege hau 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko da indarrean, hauek izan ezik:

a) Lehen, bigarren, hirugarren, zazpigarren, hamalagarren, hamabosgarren, hamaseigarren, hamazazpigarren, hogeita bigarren, hogeita hirugarren, hogeita bosgarren, hogeita hamargarren, hogeita hamaikagarren, hogeita hamabigarren, hogeita hamahirugarren, hogeita hamabosgarren, hogeita hamaseigarren, hogeita hamazazpigarren, hogeita hemeretzigarren, berrogeita bigarren eta berrogeita bosgarren xedapen gehigarriak, azken xedapenetako bigarrena, hirugarrena, bosgarrena, seigarrena eta azken xedapenetako zazpigarrenaren bat, bi, hiru, lau eta bost paragrafoak; horiek guztiak Legea Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hasiko dira indarrean.

- b) Hemezortzigarren eta berrogeigarren xedapen gehigarriak, indarrean 2012ko urtarrilaren 1ean hasiko direnak.
- c) 3. artikulua Hiru paragrafoa, indarrean 2014ko urtarrilaren 1ean hasiko dena.
- d) Azken xedapenetako hamargarrena, indarrean 2015eko urtarrilaren 1ean hasiko dena.»

Hogeita zortzigarrena. *Kreditu-erakundeak berregituratu eta konpontzeari buruzko azaroaren 14ko 9/2012 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da kreditu-erakundeak berregituratzeari eta desegiteari buruzko azaroaren 14ko 9/2012 Legearen 56. artikulua 2 paragrafoa; aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina, eta epe mugagabea egongo da indarrean. Hona nola gelditzen den idatzita:

«Batzorde Zuzendariak BBOFren kudeaketari eta jarduerari buruzko txosten bat igorriko die Ogasun eta Administrazio Publikoetako ministroari eta Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroari hiru hilez behin; bertan, BBOFk aipatu aldian egindako ekonomia- eta aurrekontu-jarduerak, eragin handiena izan dutenak, jasoko dira, beste alderdi batzuen artean. Gobernuak Gorte Nagusiei igorriko die txosten hori bere Aurrekontu Bulegoaren bitartez, eta honek diputatuen, senatarien eta parlamentu-batzordeen esku jarriko du.»

Hogeita bederatzigarrena. *2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legea; aldaketek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dute eragina, eta epe mugagabea egongo dira indarrean. Hona nola geratzen den idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen bosgarren xedapen gehigarria, eta honela geratu da idatzita:

«Bosgarrena. *Sektore Elektrikoa eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko politika finantzatzeko ekarpenak.*

1. Urte bakoitzeko Estatuaren aurrekontu orokorren legean, ondorengo kontzeptu hauen baturaren balioa den zenbatekoa bideratuko da Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako sistema elektrikoaren kostuak, energia berriztagarriak sustatzeari buruzkoak, finantzatzeko:

- a) Estatuak jasangarritasun energetikorako neurri fiskalei buruzko legean adierazitako tributuen bidez urtean bildutakoaren zenbatespena.
- b) Berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkanteak eragindako diru-sarrera zenbatetsien ehuneko 90; gehienez ere 450 milioi euro.

2. Berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkanteak eragindako diru-sarrera zenbatetsien ehuneko 10 klima-aldaketaren aurka borrokatzeko politikara bideratuko da; gehienez ere 50 milioi euro.

3. Sistema elektrikoa finantzatzeko ekarpenak hileko libramenduen bidez egingo dira, eta haien gehieneko zenbatekoa Estatuak isurtzeko eskubideen enkantearen bidez tributu, kanon eta diru-sarrera horiengatik aurreko hilean bildutakoa izango da; hori guztia Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioi organo eskudunen ziurtagiriaren arabera, eta, betiere, isurtzeko eskubideei dagokienez adierazitako kopurua gainditzen ez bada. Paragrafo honetan aurreikusitako moduan ziurtatzearen, bildutako zenbateko hori honela kalkulatu



da: abenduaren 18ko 22/2009 Legean, araubide erkideko autonomia-erkidegoen eta autonomia-estatutua duten hirien finantzaketa-sistema arautzen duen eta zerga-arau batzuk aldatzen dituen Legean, ezarritako etekin lagatuaren ehunekoa hilean behin kenduz, eta Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bate egin onartzeko martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritako etekinari dagokion zenbatekoa urtean behin kenduz, dagozkien tributuen behin betiko likidazioa egin ondoko hilean.

Abenduan bildutakoaren arabera egin beharreko ekarpena hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kontura egingo da.

4. Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko politikara bideratutako funtsak erabili ahal izateko, halaber, isurtzeko eskubideen enkanteek eragindako diru-sarrerak egon beharko dira aurretik, betiere 2 paragrafoan adierazitako mugekin.»

Bi. Aldatu egiten da 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen hirurogeigarren xedapen gehigarria, eta honela geratu da idatzita:

Santa Teresaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko 2015ean izango diren ekitaldiei aplikatuko zaizkien zerga-onurak.

Bat. Santa Teresaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko 2015ean izango diren ekitaldiak aparteko interes publikoa duten gertakarizat hartuko dira, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bi. Gertakari horri laguntzeko programak 2013ko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Hiru. Egindako gastuak programaren helburuekin eta egitasmoekin bat datozeleko ziurtagiriak aipatutako 49/2002 Legean ezarritakoari jarraiki egingo dira.

Lau. Gertakaria behar bezala garatuko dela ziurtatzen duten jarduerak dira gauzatu beharrekoak. Organo eskuduna arduratuko da berariazko jarduerak plan eta programetan garatu eta zehazteaz, aipatutako 49/2002 Legean xedatutakoari jarraiki.

Bost. Programa honen zerga-onurak aipatutako 49/2002 Legearen 27.3 artikuluan xedatutako gehienekoak izango dira.»

Hiru. 4 paragrafo bat erantsi zaio 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen hirurogeita hemeretzigarren xedapen gehigarriari; hona nola geratzen den idatzita:

«4. Xedapen honetan aurreikusitako hobariak Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren dagokion aurrekontu-partidaren kontura finantzatuko dira.»

Hogeita hamargarrena. *Klase Pasiboen arloko aurrekontu-kredituak kudeatzea.*

2014ra luzatu da Estatuaren 1993rako Aurrekontu Orokorren abenduaren 29ko 39/1992 Legearen azken xedapenetako hirugarrenean emandako ahalmena.

Hogeita hamaikagarrena. *Terrorismoaren biktimak aintzatesteko eta haiei osoko babesa emateko irailaren 22ko 29/2011 Legea aldatzea.*

Bat. Aldatu egiten da Terrorismoaren biktimak aintzatesteko eta haiei osoko babesa emateko irailaren 22ko 29/2011 Legearen 21. artikulua, eta hona nola gelditzen den idatzita:

2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, epe mugagabean indarrean eta Estatuak berreskuratzeko gelditzen diren erantzukizun zibilei aplikatuta, honela idatzita

gelditzen da Terrorismoaren biktimak aintzatesteko eta haiei osoko babesa emateko irailaren 22ko 29/2011 Legearen 21. artikulua:

«21. artikulua. *Estatuaren subrogazioa erantzukizun zibila ordaintzeko.*

1. Delituaren ondoriozko erantzukizun zibila deklaratzeko duen epaiaren bidez sortutako kreditu-eskubidearen titulartasunean subrogatuko da Estatua, aurreko artikuluan xedatutakoa betez ordaindutako kalte-ordainaren mugaraino. Estatuak ordaindutako zenbatekoa delitu-egitateagatik behar zibila duenari erreklamatzeko, premiamenduzko administrazio-prozedura erabiliko da, zerga-bilketaren erregelamendu orokorra onartzen duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuan xedatuta.

2. Baldin eta epai judizialak aitortutako kalte-ordain eskubideen zenbatekoa handiagoa bada Lege hau aplikatuz Estatuak emandako zenbatekoa baino, Terrorismoagatik kalte-ordainen eta prestazioen hartzaileek eutsi egingo diote kalteak eragin dizkien delituzko ekintzaren erantzuleei aldea erreklamatzeko ekintza zibilari.»

Bi. Aldatu egiten da Terrorismoaren biktimak aintzatesteko eta haiei osoko babesa emateko irailaren 22ko 29/2011 Legearen 52. artikulua 2 paragrafoa, eta hona nola gelditzen den idatzita:

«Ohorezko ekintza hau ematen zaie, Gurutze Handiko graduarekin, hil ondoren, terrorismo-ekintzetan hildakoei; gomendioko graduarekin, terrorismo-ekintzetan zauritu eta bahitutakoei, eta Intsigniako graduarekin, mehatxatuei, terrorismo-ekintzan zauritu gabe suertatu direnei, bai eta zenduaren ezkontideari edo harekin antzeko lotura afektiboa duenari, hildakoen gurasoei eta seme-alabei, aiton-amonei, anai-arrebei, bai eta hildakoen senideei ere odolkidetasuneko bigarren gradura arte».

Hiru. Aldatu egiten da Terrorismoaren biktimak aintzatesteko eta haiei osoko babesa emateko irailaren 22ko 29/2011 Legearen 53. artikulua 1 paragrafoa, eta hona nola gelditzen den idatzita:

«53. artikulua. *Kondekorazioen titularrak.*

1. Lege honen 4. artikulua 1 eta 2 paragrafoetan aipatutako terrorismoaren biktimak Gurutze Handiaren eta Gomendioaren graduko kondekorazioen titularrak izan ahalko dira, aurreko artikuluan xedatutako moduan.

4. artikulua 5 eta 6 paragrafoetan eta 5. artikuluan aipatutako pertsonak Intsigniaren graduko kondekorazioaren titularrak izan ahalko dira.»

Lau. Aldatu egiten da Terrorismoaren biktimak aintzatesteko eta haiei osoko babesa emateko irailaren 22ko 29/2011 Legearen 54. artikulua 1 paragrafoa, eta hona nola gelditzen den idatzita:

«1. Barne Ministerioari dagokio kondekorazioak emateko prozedurak izapidetzea. Espediente horiek bi modutan jar daitezke abian. Batetik, aurreko artikuluan aipatzen diren pertsonaren batek eskatuta, bai eta paragrafo horietan aipatu ez eta delituaren biktima izan diren pertsonak ere; eta bestetik, ofizios, aipatutako Ministerioaren terrorismoaren biktimei laguntzeaz arduratzen den zuzendaritza nagusiak, hartzaileari alde aurretik galdetuta eta eskubidea aitortzeko moduko gertaeren berri baldin badu.

Kondekorazio-proposamena Gurutze Handia eskuratzeko bada, ebazpena Errege Dekretu bidez emango da, Ministroen Kontseiluan onartutakoa Barne Ministerioak eskatuta.

Kondekorazio-proposamena Gomendio eta Intsigniako graduan bada, Barne ministroak eman behar du ebazpena, eta Erregearen izenean emango du.»

Hogeita hamabigarrena. *Hiri-lurren balio-gehitzearen gaineko zergaren hobaria Lorcarako (Murtzia).*

Bat. Salbuespen gisa 2014an, hiri-lurren balio-gehitzearen gaineko zergaren kuoten ehuneko 50eko hobari bat ematen da, Lorcan (Murtzia) 2011ko maiatzaren 11n izandako mugimendu sismikoek eragindako kalteak konpontzeko premiazko neurriak hartzeko maiatzaren 13ko 6/2011 Errege Lege Dekretuaren 12. artikulua 1 paragrafoan aipatutako ondasun higiezinaren eskualdaketei dagokienez, betiere lurrikara horiek eragindako eremua berreraikitzeke egiten badira.

Bi. Legez ezarritako gainerako hobariak, hala dagokionean, aplikatu ondoren dagoen kuotari aplikatu zaio hobaria.

Hiru. Xedapen honetan ezarritakoak Lorcarako Udalaren zergei eragiten dien murrizketa Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura konpentsatuko da, toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen testu hori).

Horrenbestez,

Lege hau errespeta dezaten eta errespetaraz dezaten agintzen diet espainiar guztiei, norbanako zein agintari izan.

Madriren, 2013ko abenduaren 23an

JUAN CARLOS E.

Gobernuko presidentea,  
MARIANO RAJOY BREY

## I. ERANSKINA

## Kredituen banaketa, programen arabera

Programen araberako sailkapena	Azalpena	1-8 arteko kap.	9. kap.	Guztira
111M	Botere Judizialaren Gobernua	31.909,53		31.909,53
111N	Justiziako Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak	50.205,90		50.205,90
111O	Epaileen hautaketa eta prestakuntza	17.694,71		17.694,71
111P	Dokumentazio eta argitalpen judizialak	8.350,95		8.350,95
111Q	Justizia Administrazioako langileen prestakuntza	6.519,53		6.519,53
111R	Karrera fiskaleko prestakuntza	2.240,65		2.240,65
112A	Justizia-auzitegiak eta Fiskaltza	1.359.377,02		1.359.377,02
113M	Fede publikoarekin lotutako erregistroak	24.455,75		24.455,75
121M	Defentsako Administrazioa eta Zerbitzu Orokorrak	1.088.027,56		1.088.027,56
121N	Indar Armatuetao langileen prestakuntza	373.278,61		373.278,61
121O	Erreserban dauden langileak	532.631,91		532.631,91
122A	Indar Armatuaren modernizazioa	160.549,83		160.549,83
122B	Modernizaziorako programa bereziak	6.842,50		6.842,50
122M	Indar Armatuaren gastu operatiboak	2.160.766,37		2.160.766,37
122N	Laguntza logistikoa	1.332.357,61	1,29	1.332.358,90
131M	Segurtasun eta Babes Zibileko Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak	67.307,19		67.307,19
131N	Estatuko Segurtasun Indarren eta Kidegoen prestakuntza	75.642,25		75.642,25
131O	Erreserban dauden Indarrak eta Kidegoak	527.485,27		527.485,27
131P	Asilo-eskubidea eta aberrigabeak	3.068,47		3.068,47
132A	Herri-segurtasuna	5.264.025,93	72,6	5.264.098,53
132B	Bide-segurtasuna	711.349,48		711.349,48
132C	Poliziaren jarduerak droga-gaietan	82.213,60		82.213,60
133A	Espetxeak	1.122.095,74		1.122.095,74
134M	Babes Zibila	14.297,42		14.297,42
135M	Datu pertsonalen babesa	13.467,91		13.467,91
141M	Atzerri Arazoetako Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak	75.999,16		75.999,16
142A	Estatuaren jarduna atzerrian	669.851,32		669.851,32
142B	Jarduera diplomatikoa Europar Batasunean	21.251,35		21.251,35
143A	Garapenerako lankidetzak	496.988,16		496.988,16
144A	Kultura-lankidetzak, -sustapena eta -hedapena atzerrian	131.079,10		131.079,10
211M	Gizarte Segurantzaren ekarpeneko pentsioak	104.627.825,00		104.627.825,00
211N	Klase Pasiboen pentsioak	12.340.613,16		12.340.613,16
211O	Klase Pasiboen beste pentsio eta prestazio batzuk	42.638,73		42.638,73
212M	Ekarpenekoak ez diren pentsioak eta laguntza-prestazioak	2.182.885,00		2.182.885,00
212N	Gerra-pentsioak	259.744,32		259.744,32

Programen araberako sailkapena	Azalpena	1-8 arteko kap.	9. kap.	Guztira
212O	Gutxieneko pentsioetarako osagarriak kudeatzea eta kontrolatzea	7.633.020,00		7.633.020,00
219M	Gizarte Segurantzako prestazio ekonomikoen kudeaketa	389.548,04		389.548,04
219N	Klase Pasiboen pentsioen kudeaketa	7.559,10		7.559,10
221M	Gizarte Segurantzaren aldi baterako ezintasunagatiko laguntzak eta beste prestazio ekonomiko batzuk	9.838.563,45		9.838.563,45
222M	Mutualismo Administratiboaren prestazio ekonomikoak	355.010,83	2	355.012,83
223M	Soldata bermatzeko prestazioak	1.375.646,66		1.375.646,66
224M	Jarduera uzteagatiko prestazio ekonomikoak	34.609,66		34.609,66
231A	Drogei buruzko Estatuko Plana	14.886,58		14.886,58
231B	Etorkinen aldeko ekintzak	75.175,70		75.175,70
231C	Gizarte Segurantzak desgaitasuna dutenentzat dituen gizarte-zerbitzuak	62.638,49		62.638,49
231D	Gizarte Segurantzak adinekoentzat dituen gizarte-zerbitzuak	117.216,37		117.216,37
231E	Gizarte Segurantzaren beste gizarte-zerbitzu batzuk	41.004,16		41.004,16
231F	Estatuaren beste gizarte-zerbitzu batzuk	157.264,64		157.264,64
231G	Haurrentzako eta familientzako laguntza	5.872,12		5.872,12
231H	Etorkinen aldeko ekintzak ekintzak	61.669,12		61.669,12
231I	Autonomia pertsonala eta mendetasun-egoeran daudenak zaintzea	1.176.579,24		1.176.579,24
232A	Gazteen sustapena eta gazteentzako zerbitzuak	27.948,75		27.948,75
232B	Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna	19.073,91		19.073,91
232C	Genero-indarkeria erabat prebenitzeko jarduerak	21.854,42		21.854,42
239M	Gizarte Segurantzako gizarte-zerbitzuen kudeaketa	28.723,46		28.723,46
241A	Laneratzearen eta enplegu egonkorraren sustapena	4.041.564,08		4.041.564,08
241N	Lan autonomoaren, gizarte-ekonomiaren eta enpresen gizarte-erantzukizunaren garapena	31.957,02		31.957,02
251M	Langabeentzako prestazioak	29.727.534,27		29.727.534,27
261N	Etxebizitzaren sustapena, administrazioa, eta etxeak birgaitzeko eta eskuratzeko laguntzak	772.539,07	300	772.839,07
261O	Eraikuntzaren antolamendua eta sustapena	25.710,19		25.710,19
261P	Hirigintza eta lurzoru-politika	1.474,82		1.474,82
291A	Segurtasunaren eta Gizarte Babesaren ikuskapena eta kontrola	124.029,35		124.029,35
291M	Gizarte Segurtasunerako eta Gizarte Babeserako Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak	4.253.374,23	48,25	4.253.422,48
311M	Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasunerako Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak	69.420,73		69.420,73
311O	Osasun-alorreko eta lanbide-antolamenduko politikak	8.637,32		8.637,32

Programen araberako sailkapena	Azalpena	1-8 arteko kap.	9. kap.	Guztira
312A	Indar Armatueta ospitaleko asistentzia	136.829,78		136.829,78
312B	Lehen mailako osasun-arreta. Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionala	58.094,64		58.094,64
312C	Osasun-arreta espezializatua. Osasun Kudeaketarako Institutu Nazionala	145.996,87		145.996,87
312D	Itsas medikuntza	32.100,50		32.100,50
312E	Mutualismo Administratiboaren osasun-laguntza	2.060.275,41		2.060.275,41
312F	Lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateen eta Itsasoko Gizarte Institutuaren (IGI) lehen mailako osasun-arreta	823.422,71		823.422,71
312G	Lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateen eta Itsasoko Gizarte Institutuaren (IGI) osasun-arreta espezializatua	378.512,16		378.512,16
313A	Osasun-prestazioak eta farmazia	73.673,87		73.673,87
313B	Osasun publikoa, atzerriko osasuna eta kalitatea	33.884,47		33.884,47
313C	Elikagaien segurtasuna eta nutrizioa	14.936,50		14.936,50
313D	Organoen, ehunen eta zelulen dohaintza eta transplanteak	3.970,99		3.970,99
321M	Hezkuntzako, Kulturako eta Kiroletako Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak	98.961,32		98.961,32
321N	Hezkuntza-alorreko irakasleen etengabeko prestakuntza	3.938,18		3.938,18
322A	Haur eta Lehen Hezkuntza	159.360,42		159.360,42
322B	Bigarren Hezkuntza, lanbide-heziketa eta hizkuntza-eskola ofizialak	100.926,04		100.926,04
322C	Unibertsitate-mailako irakaskuntzak	120.560,70		120.560,70
322E	Arte-irakaskuntzak	5.492,72		5.492,72
322F	Hezkuntza atzerrian	99.795,54		99.795,54
322G	Osabidezko hezkuntza	53.657,60		53.657,60
322I	Irakaskuntza bereziak	2.384,80		2.384,80
322K	Kirola eskola-adinean eta unibertsitatean	2.372,70		2.372,70
322L	Beste irakaskuntza eta hezkuntza-jarduera batzuk	53.122,90		53.122,90
323M	Ikasleentzako beka eta laguntzak	1.467.145,59		1.467.145,59
324M	Irakaskuntzako zerbitzu osagarriak	7.277,60		7.277,60
332A	Artxiboak	26.674,54		26.674,54
332B	Liburutegiak	43.205,84		43.205,84
333A	Museoak	131.718,14		131.718,14
333B	Erakusketak	2.186,31		2.186,31
334A	Kultura-sustapena eta -lankidetzak	10.189,99		10.189,99
334B	Liburuaren eta kultura-argitalpenen sustapena	7.350,64		7.350,64
334C	Kultura-industrien sustapena	14.135,22		14.135,22
335A	Musika eta dantza	86.162,82		86.162,82
335B	Antzerkia	58.019,64		58.019,64
335C	Zinematografia	48.212,34		48.212,34

Programen araberako sailkapena	Azalpena	1-8 arteko kap.	9. kap.	Guztira
336A	Kirol-jardueren sustapena eta kirol-jardueretarako laguntza	146.784,19		146.784,19
337A	Espainiako Ondare Historikoaren Administrazioa	110.314,53	100	110.414,53
337B	Kultura-ondasunen kontserbazioa eta zaharbertitzea	28.142,35		28.142,35
337C	Ondare historikoaren babesa	4.874,47		4.874,47
412C	Ekoizpenaren lehiakortasuna eta kalitatea, eta nekazaritza-merkatuak	30.472,07		30.472,07
412D	Nekazaritza-osasunaren lehiakortasuna eta kalitatea	41.392,53		41.392,53
412M	Nekazaritza-merkatuen erregulazioa	5.815.098,80		5.815.098,80
413A	Nekazaritzako elikagaien industriaren lehiakortasuna eta elikagaien kalitatea	25.877,88		25.877,88
414A	Ureztatze-lanetarako ur-baliabideen kudeaketa	46.581,68		46.581,68
414B	Landa-ingurunearen garapena	1.475.584,97		1.475.584,97
414C	Landa Garapen Jasangarrirako Programa	19.639,00		19.639,00
415A	Arrantza-baliabideen babesa eta garapen jasangarria	14.904,91		14.904,91
415B	Arrantza-egituren eta -merkatuen hobekuntza	46.294,19		46.294,19
